EGAN

2022 - 3/4

EGAN

LITERATURA ALDIZKARIA
EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA

LXXV. urtea 2022 3-4

Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
lagundutako aldizkaria

Idazkaritza eta harpidetzak:
Euskalerriaren Adiskideen Elkartea. Gipuzkoako Saila.

Peña y Goñi 5, 2. ezk. – 3.263 posta-kutxa – 20002 Donostia

Posta elektronikoak: egan.bascongada@gmail.com
comisiongipuzkoa@bascongada.e.telefonica.net

Webgunea: https://www.rsbap.org/ojs/index.php/egan

ISSN: 0422 - 7328. EGAN
Legezko Gordailua: S.S. 289/1958
Inprimategia: FASPRINT-IGARA -Donostia

EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA

EGAN Literatura aldizkaria

Erredakzio Kontseilua

Zuzendaria:

Koro Segurola Azkonobieta
Euskalerriaren Adiskideen Elkartea. Euskaltzaindia

Erredakzio arduraduna:

Izaro Arroita Azkarate
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea – UPV/EHU

Iñaki Aldekoa Beitia
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea – UPV/EHU

Amaia Elizalde Estenaga
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea – UPV/EHU

Ana Gandara Sorarrain
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea – UPV/EHU

Beñat Sarasola Santamaria
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea – UPV/EHU

Joseba Sarrionandia Uribelarrea
Idazlea

Juan Luis Zabala Artetxe
Idazlea. Itzultzailea

Posta elektronikoa: egan.bascongada@gmail.com

Egan literatura aldizkaria da, eta Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak 1948. urtetik argitaratzen du. 1953. urtean hasi zen euskara hutsez argitaratzen, Antonio Arruek, Aingeru Irigaraik eta Koldo Mitxelenak aldizkariaren zuzendaritza hartu zutenean. Ordutik *Egan* euskara hutsezko aldizkaria da. Seihilabetekaria.

Egan aldizkariaren aro berriko xede nagusia literatura arloko ikerketa-artikuluak argitaratzea da. Sail horretan aldizkariak leku egin nahi die saiakera eiteko idazlanei ere. Orobat argitara emango dira literaturaz diharduten liburuen aipamenak. Beste diziplina bati atxikiak izan arren, literaturarekin ageriko lotura izan dezaketen lanak ere aintzat hartuko dira. Literatura azterketen lerroa ez ezik sorkuntzarena ere zabalik du *Egan*ek, eta poesia, narrazio laburrak eta itzulpenak biltzen ditu, aldizkariaren ibilbideari jarraituz.

Ikerketa-artikuluak argitaratzeko, binakako ebaluazio sistema (itsu bikoitza) erabiliko da, eta kanpoko bi aditu izango dira aztertzaile.

Artikuluen gaineko erantzukizun osoa egileena da.

Egan aldizkaria honako zerrenda, aurkibide eta datu-base hauetan dago: Aurkinet-Euskaldok; Dialnet; Euskal ondare bibliografiko digitalizatua; ÍNDICES-CSIC; Inguma, Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basea; LATINDEX (2.0 Katalogoa. 2018-); MIAR; REBIUN; ROAD, Directory of Open Access scholarly resources; SUDOC; WorldCat.

AURKIBIDEA
2022 3/4

Gema Lasarte Leonet - Haizea Galarraga Arrizabalaga.
Literatur kritika feminista eta ezagutzaren eraikuntza kolektiboa Kattalin Minerren *Moio* liburuaren bidez 9

Patxi Salaberri Muñoa. Bernard Etxepareren *Doctrina Christiana* eskuztatzen 45

IKERMATERIALAK

Inaxio Lopez de Arana Arrieta. Ohar batzuk "Eusko gudariak" kantuaren doinuaren jatorriaz 137

SORTZE LANAK
Poesia

Castillo Suarez. Zedarritze-ariketa bat 149

Itzulpenak

Julian Barnes. Bijilantzia.
Itzultzailea: Izaskun Etxebeste Zubizarreta 155

GOGOAN

Koro Segurola. Juan San Martin *Egan*eko zuzendari ohia gogoan 173

Juan Luis Zabala. Juan San Martin, euskal kulturaren noranahikoa ... 175

Ekaitz Goikoetxea. Koldo Zubeldia, Zaldibiko poeta 187

LIBURU AIPAMENAK

Maite López Las Heras. Juan Ramon Makusoren poesia 195

Idazlanak aurkezteko jarraibideak 203

Literatur kritika feminista eta ezagutzaren eraikuntza kolektiboa Kattalin Minerren *Moio* liburuaren bidez

Feminist literary critique and collective construction of knowledge through the book Moio, *from Kattalin Miner*

Gema Lasarte Leonet
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Haizea Galarraga Arrizabalaga
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Jasotze data: 2022.09.02 Onartze data: 2022.10.21

Laburpena

Ikerketa honetan 2022ko UEUko Udako Ikastaroetan antolatutako formazio baten baitan egindako literatur tertulia bat aztertu da, literaturaren ikas-irakaskuntza eta irakurketa kolektiboa ardatz nagusi izanik. Zehazki, literatur kritika kolektibo eta feminista egin da Kattalin Minerren *Moio. Gordetzea ezinezkoa zen* (2019) liburuarekin. Aipatutako tertulian hamasei irakaslek eta bi moderatzailek parte hartu dute. Liburua aurrez irakurri ostean, denon artean komentatu da, eta ondoren, grabaketa transkribatu eta analizatu da. Horretarako, ikerketa kualitatiboa baliatu da, lan honetarako propio eraikitako sistema kategorial baten bidez datuak sailkatuz. Horrela, ideia axialak dimentsionatu, kategorizatu eta emaitzak atera dira. Ateratako ondoriorik nagusietako bat izan da *Moio* testu interesgarria dela DBHko azken mailetan nahiz batxilergoan lantzeko, duen literatur estiloagatik nahiz mahai gainean jartzen dituen gaien hurbiltasunagatik, dela errealitate transgeneroa, transfobia, suizidioa, dolua, osasun mentala, etab. Gai horiek guztiak emankor ikusi dira, adin tarte horretako identitate eraikuntzarekin lotzen direlako; betiere aldez aurretik diseinatuta, hartzaileen ezaugarriak aintzat hartuta eta irakaslearen bitartekaritzaz lagunduta.

Gako-hitzak: literatur tertulia, kritika feminista, kritika kolektiboa, hezkuntza literarioa, ezagutza kolektiboa.

Abstract

This research paper analyzes a literary gathering carried out in one of the modules organized within the Basque Summer University (UEU) Summer Courses of 2022, which revolves around the teaching and learning of literature and collective reading. More specifically, a collective and feminist critique was built around the book *Moio. Gordetzea ezinezkoa zen* (2019) from Kattalin Miner. Within the said gathering, 16 professors and two moderators intervened. Once the book was read by all participants, it was discussed, and the produced recording was then transcribed. For this, qualitative research was used, analyzing the data by means of a categorization system created ad-hoc with this study in mind. Thus, the central ideas were classified and categorized, and the results were obtained. One of the most relevant conclusions suggests that *Moio* is interesting to work on in the latest years of secondary school and during high school, both because of the literary style and the relevance of the topics it deals with, be it the transgender reality, transphobia, suicide, mourning, mental health, etc. All these topics have been considered appropriate due to the impact they have in the identity construction of that age group, as long as they are designed in advance, considering student individual characteristics and making use of proper teaching mediation.

Keywords: literary gathering, feminist critique, collective critique, literary education, common knowledge.

1. Sarrera. 1.1. Lanaren nondik norakoak. 1.2. Idazlea eta obra, transfeminismoaren markoan. 2. Marko teorikoa. 2.1. Kritika kolektibo feminista. 2.2. Literaturaren ikas-irakaskuntza. 2.2.1. Hezkuntza literarioa. 2.2.2. Ezagutzen eraikuntza kolektiboa literaturan. 3. Helburuak eta metodoa. 4. Emaitzak eta eztabaida. 4.1. Lehenengo helburuari dagozkion kategoriak. 4.1.1. Idazlearen zein liburuaren estiloa eta bereizgarriak. 4.1.2. Literatur generoaren identifikazioa. 4.1.3. Jorratzen dituen gai tematikoak. 4.1.4. Erantzun literarioak. 4.2. Bigarren helburuari dagozkion kategoriak. 4.2.1. Ikasle-hartzaileen zehaztapena. 4.2.2. Liburuaren hautua eskolan. 4.2.3. Liburua didaktikara eramateko aukerak. 4.2.4. Irakurketaren faseak eta horien dinamizazioa. 5. Ondorioak. 6. Bibliografia.

1. Sarrera

1.1. Lanaren nondik norakoak

Ikerketa honen helburuak bi izan dira, nagusiki: batetik, literatur kritika kolektiboa eta feminista egitea; eta bestetik, literaturaren didaktikaren inguruko eztabaida piztea, elkarrekin ezagutzak eraikiz. Horretarako, literatur tertulia bat ikertu da, UEUko Udako Ikastaroetako batean gauzatutakoa, honakoan, hain zuzen: "Irakasleentzat literatura irakurtzeko eta ikertzeko tresnen bila. Irakurketa feminista eta kolektiboa". Ikertu dena, formakuntzaren baitan egin den literatur tertulia izan da, 2022ko uztailaren 4an egikaritu eta parte-hartze askea eta hautazkoa izan duena, baldintza bakarra izanik programatutako bi liburuetatik[1] bat irakurrita eramatea. Bi literatur liburu hautatu dira formakuntza jardunerako, biak transfeminismoaren gaia erdigunean dutenak. EAEko Hezkuntza sistemarako II Hezkidetza planak, berdintasunaren eta tratu onen bidean (2019-2023) garatutako zutabeak kontuan izan dira liburu horien hauturako. Hori bai, zutabe horietatik besteen gainetik, zortzigarrenari, azkenari, genero indarkeria lantzen duenari erreparatu zaio. Bi literatur tertulietan banatu da jarduna, bata kritika feminista kolektiboa

[1] Minerren *Moio. Gordetzea ezinezkoa zen* (2019) eta Feinbergen *Marimutil handi baten bluesa* (2018) liburuen hautua egin zen ikastarorako, batez ere Hezkidetza lantzeko DBHn ezin aproposagoak direlako, eta, bigarrenik, Euskal Herriko literatur klub feministetan arrakasta handia izan dutelako; beraz, galbahe feminista berekin dute eta kritika feminista kolektiboa dagoeneko egina dute.

egiteko baliatu da soilik; baina bestea, ikergai duguna, ikerketa egiteko eta dibulgaziorako baliatu dugu.

Hamasei partaidek eta bi moderatzailek parte hartu dute aztergai dugun literatur tertulian. Partaideak hezkuntza formaleko irakasleak izan diren heinean, burutu den literatur praktika ondoren haien ikasgeletara eramateko paradigma izan zedin aprobetxatu da. Artikulu honetarako aztertu den literatur tertuliak, beraz, literatur kritika egiteaz haratago, partaideen formazioagatik eta ogibideagatik aukera eman du literaturaren irakaskuntza prozesuen inguruan hausnartu eta zenbait ondorio ateratzeko (erronkak, aukerak, didaktikarako adibideak, esperientziak...).

Irakurri, interpretatu eta analizatu den literatur liburua Kattalin Minerren *Moio. Gordetzea ezinezkoa zen* (Elkar, 2019) izan da. Esan bezala, irakurketa kolektiboa egin eta ezagutzak elkarrekin eraiki dira; beraz, lehenik eta behin, helburu bakoitzari marko teoriko bat egokitu zaio. Marko teorikoan, hasteko, transfeminismoa euskal esparruan kokatu da. Motzean bada ere, *Moio. Gordetzea ezinezkoa zen* argitaratu aurretik, disidenteak izan diren lanak antzeman dira euskal literaturan. Ikusi da Moioren suizidioak eta Minerren omenaldiak transexualitatearen gaia euskal literaturaren erdialdera ekarri duela (Lasarte & Perales-Fernández-de-Gamboa, 2022) eta Moioren bidez trans izatearen esperientzia islatu dela, batez ere, bazterretan bizi den pertsonarena, familiaz eta lagunaz inguratuta dagoen arren, erabateko bakardadea bizi duen pertsonaren historia eta istorioa. Ezaguna genuen Bordaren identitate disidenteen aldeko literatur lana gurean. Ezaguna Amaia Ezpeldoi detektibe *queerra* (Lasarte, 2015; Retolaza, 2010). Minerrek Moio gehitu dio Bordak hasitako literatur pertsonaia disidenteen zerrendari. Gauzak horrela, Bordak Amaia Ezpeldoiren bidez eta Minerrek Moioren bidez euskal kulturan identitate disidenteen eraikuntzarako erreibindikazio politikoa lekutu dute (Retolaza, 2019; Alvarez-Uria, 2019).

Marko teorikoan, bestetik, irakurketa kolektiboaren inguruko zertzeladak ere eman dira; izan ere, hezkuntza literarioaren inguruan kontzeptualizatu da, bai eta literatura ezagutzen eraikuntza kolektiboaren inguruan teorizatu ere. Hartara, irakurketa kolektiboa eta ezagutza kolektiboa parez pare jarri ditugu elkarrizketaren bidez, elkar entzutearen bidez. Literatur kritika kolektiboa aprobetxatu da jakintzen eraikuntza kolektiboa gauzatzeko eta literaturaren didaktikaz irakasleekin jarduteko. Azpimarratzekoa da literatur kritika nahiz literatur jakintzen eraikuntzara hori bermatzeko, moderatzaile edo gidari lanak funtsezkoak

izan direla. Kontuan izan behar da gaur egun hezkuntza literarioan testu ezberdinak ulertzea, interpretatzea eta gozatzea bilakatu dela lehentasuna, irakurlea eta bere irakurketa esperientzia erdigune bihurtuz eta irakaslearen bitartekaritza nahitaezkoa izanik. Bukatzeko, ikerketa kualitatiboaz baliatu gara literatur jarduna ikertzeko, ezaugarririk nagusiena ikuspegi kolektiboa izanik, bai irakurtzeko, bai interpretatzeko, bai mundu ikuskerarako eta baita jakintzen eraikuntzarako ere. Horretarako, marko teorikoa egokitzeaz haraindi helburuak zehaztu dira, metodologia zedarritu da, sistema kategorial propio bat eraiki da eta horren arabera emaitzak interpretatu eta ondorioak atera dira.

1.2. Idazlea eta obra, transfeminismoaren markoan

Kattalin Minerrek kazetaritza ikasketak burutu zituen eta balirudike horri zor diola idazteko tankera argia, ulergarria eta oso berea duena. Ikasketa prozesuan, gauzak nola, bi irakasle esanguratsuekin egin zuen topo: Iratxe Retolazarekin eta Meri Torrasekin. Kritikagai dugun liburuan, Retolazarekin solastatuko du Minerrek Aimar-Amaiaren suizidioaz. Beste irakaslea, Minerren literaturarako hurbilpenean lagungarria, Meri Torres idazlea eta literatura *queerr*ean aditua izan da. Harekin burutu zuen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan "Desde el corazón arcaico a los cuerpos sangrientos: un viaje de construcción de identidades mediante la representación del cuerpo en la poesia vasca" (2012), master amaierako lana. Lanaren lagin bat euskaraz publikatu zuen honako izenburupean: "Emakume-gorputzak eta gorputz emakumetuak: Leire Bilbao eta Miren Agur Meaberen gorputz poetikoen arteko elkarrizketa bat". Gorputzen bidez literatura ulertzeko eta analizatzeko saiakera hori 2014an argitaratu zuen Gema Lasartek eta Amaia Alvarez Uriak koordinatutako *Gorputza eta Generoa* liburuan. 2020an *Empar Pineda Erdozia. Gorputzak hala eskatuta* publikatu zuen. Gorputzek eta transfeminismoak, besteak beste, zeharkatu dute Minerren idazlana.

Minerrek hiru lan argitaratu ditu sorkuntza alorrean: bere lehen liburua, *Nola heldu naiz ni honaino* (Elkar, 2017); bigarrena, *Moio. Gordetzea ezinezkoa zen* (Txalaparta, 2019) eta azkena, *Turista klasea* (2020). Minerrek idazteaz gain, irakurleekin dihardu eta Hernaniko irakurle klub feminista koordinatzen du. Beraz, esan genezake euskal literatur sistemaren eremua bertatik bertara jarraitzen ahalegintzen dela. Bere ibilbide laburrean aitortzak jaso ditu idazle eta aktibista feministak. Horien artean, 2015ean Igartza saria, 2017an Martin Ugalde beka, 2019an Tene Mujika saria eta

2020an Urrezko Hirukia *Moio Gordetzea ezinezkoa zen* iruzkingai dugun testuagatik, EHGAM kolektiboak emanda.

Moio. Gordetzea ezinezkoa zen liburua, transexualitatea eta sexualitate disidenteen inguruan euskaraz argitaratu den bakanetakoa dugu. Transfeminismoak badu, ordea, bere ibilbidea gure literaturan, motza bada ere. Lan aitzindaria Amaia Alvarez-Uriak 2011. urtean argitaratutako tesia dugu. Alvarez-Uriak Katalina Eleizegiren obrak aztertu zituen ordu hartan, eta horien artean, *Erauso Kateriñe* (1962) argitaratu gabeko antzezlanaren analisia egin zuen. Alvarez-Uriak generoa, sexualitatea, eta nazioa arakatuz aztertu zituen Katalina Eleizegiren lanak. Tenore hartakoa dugu Ibon Egañak koordinatu zuen *Desira desordenatuak. Queer irakurketak (euskal) literaturaz* (2010) euskarazko literatur *queer* inguruko lehenengo argitalpen akademikoa ere. Badira, hala ere, egindako beste saiakerak, izan solasaldiak edo ikastaroak (Egaña, 2010). Isa Castillok eta Iratxe Retolazak (2013) koordinatutako *Genero ariketak. Feminismoaren subjektuak* horietako bat dugu. Saiakera horri zor diogu transexualitatearen gaia erdigunera ekarri izana; Amaia-Aimar Elosegiren, Moio izengoitiz ezaguna zenaren, agur gutunarekin hasten dena.

Transfeminismoak eta *queer* teoriek gurean duten ibilbidea ulertzeko, Joseba Gabilondok (2006), besteak beste, esan zigun emakumezko idazleen idazketaren analisiak euskal nazionalismo hegemonikotik at dauden espazio utopiko eta geopolitikoak kontuan hartzea eskatzen duela. Postnazionalismoaz ziharduen Gabilondo eta esan zigun postnazionalismoak feminismoa bezalako kritika motak edota gay teoriak barnebiltzen dituela, eta, espazio kritiko eta historiko berriak zabaldu. Espazio berri horietan bi dimentsio aurreikusten ditu Gabilondok, bat geopolitikoa (postnazionalismoa), hau da, nazio-estatu inperialistaren krisia eta historia birpentsatzea planteatzen duena eta bigarren dimentsio bat biopolitikoa (sexua, arraza, generoa, klasea, eta abar). Horiek biak proposatzen ditu espazio kritiko berriak eraikitze aldera. Gogoeta horiek *Nazioren hondarrak* (2006) liburuan plazaratu zituen Gabilondok.

Bada idazlea gurean bi dimentsio horiek bereziki kateatzen jakin izan duena, halabeharrez: Itxaro Borda. Horrela, Gabilondok Bordaren migratzeaz dihardu, alegia etxetik joan gabe migratzaile suertatzen den kondizioaz. Izan ere, haren ustez, ni-a, ni migratzailea, melankolikoa giltzarri da euskal literaturako ni-ak ulertzeko, euskaldunak eta globalak. Horrela mintzo da Gabilondo Bordaz:

> Euskal Herri frantseseko idazlerik emankorrena da eta euskal literaturan ekoizpen handieneko idazle emakumezko bezala nabarmentzen da halaber. Halere, oraindik ere marjinal izaten segitzen du, hau publiko orokorraren artean bai euskal literaturaren kritikari garaikide gehienen artean (Gabilondo, 2006, 254. or.).

Marjinazio horrek edota horretatik antiheroien sorkuntzan bereziki abila izan da idazle lapurtarra eta pertsonaia transentzat nahiz transfeminismoarentzat estreinakoz lurra ontzen lehen idazlea euskal literaturan. Ez dugu ahaztu behar Bordari zor diogula dagoeneko sona handia duen Amaia Ezpeldoi detektibe *queerra* (Lasarte, 2015; Retolaza, 2010); lehenik heterosexuala zena, gero bisexuala eta azkenik, bere burua lesbianatzat jo zuena. Bere obretako pertsonaien trantsizioez baliatuz, Bordak identitatearen erreibindikazioa aldarri politiko-soziala bihurtu zuen (Retolaza, 2010).

> [...] Haizemin, un personaje que aparece en *Jalgi Hadi plazara.* Haizemin en un tiempo lejano fue un hombre pero cambio de sexo y todos los días tiene que tomar hormonas porque si no comienza automaticamente a masculinizarse (Lasarte, 2015, 154. or.).

Halere, euskal literaturara lehenetariko protagonista transa, Karlos Gorrindoren *Ni naizen hori* (1992) obrak ekarri zigun, eta ondotik, beste zenbaitzuk etorri dira. Horien artean, Leslie Feinbergen *Mari mutil haundi baten bluesa* (2018) eleberria bereziki azpimarratzekoa litzateke. Izan ere, genero ezberdinetatik igarotzen den protagonistaren eskutik, trantsizio prozesuak erdigunera ekartzen ditu liburuak. Transfeminismoa zertan den ulertzeko testu argia da eta oso irakurria izan da gure inguruko literatur klub feministetan (Lasarte & Perales-Fernández-de-Gamboa, 2022).

2. Marko teorikoa

2.1. Kritika kolektibo feminista

Gabilondok (2006) kritika feministarako espazio berriak eraikitze aldera dimentsio geopolitikoa eta biopolitikoa proposatzen bazituen, Lasartek eta Perales-Fernandez-de-Gamboak (2021a, 2021b, 2022) hirugarren dimentsio bat gehitzen dute, irakurle talde feministek kritikarako duten gaitasuna. Azken hamarkadetan sortzen ari den literatur klub feministen fenomenoa ikertzen ari dira Lasartek eta Perales-Fernández-de-Gamboak (2021b). Izan ere, literatur klub feministak ugaldu dira eta elka-

rrizketaren pedagogiara (Rojas, 2015), edota eskoletan lantzen diren literatur tertulia dialogikoetara hurbildu dira (Rekalde et al., 2016). Gauzak horrela, literatur kritikarako espazio eta modu berria sorrarazi dute, baina esan behar da batik bat ahoz egiten den kritika dela, nahiz eta dibulgaziorako sare sozialak erabili, dela *Facebook*, dela *Instagram*, blog edota web orriak (Lasarte & Perales-Fernández-de-Gamboa, 2021b).

Literatur klubetan ahoz modu polifonikoan artikulatzen den kritika hori idatziz eta modu zientifikoan jaso eta ordenatu nahi da (Lasarte & Perales-Fernández-de-Gamboa, 2021a). Izan ere, literatur kritikaren plaza feminista ez ezik kolektiboa ere izan daitekeela aldarrikatzen dute Perales-Fernández-de-Gamboak eta Lasartek (2022). Honekin esan nahi da, literatur kritikari orojakiletik edo Bourdieuk (2000) defendatzen zuen kultur *habitat* hartatik urrunduz, hartzaile kolektiboaren eskura dagoen pentsamendu kritiko eta demokratikoaren alde egiten dela (Aguilar, 2017). Horrela, urteetan literatur jakintza metatzen joan den adituaren literatur iruzkin zientifikoari gehituko litzaioke ahots askoren diskurtso artikulatua, hau da, kolektibo batena. Teoria hau oinarritzen da batez ere literatur tertulia dialogikoetan (Sancho, 2016). Horietatik hartu baita taldean liburuak irakurtzeko eta komentatzeko usadioa, baina tertulia dialogiko horietatik arbuiatu da liburuak aukeratzeko modua. Horrela, tertulia dialogikoetan nahitaezko diren klasikoak interesgarriak badira ere irakurketarako, kritika feministak eskatzen duen plaza berrirako kanonizatuak ez dauden liburuak irakurtzeko beharra ikusi da (Perales-Fernandez-de-Gamboa, 2022). Orobat, hartzaile kolektiboari dagokio kanona auzitan jartzea; izan ere, ezin dira plaza berriak kritikarako sortu kanonizatuak dauden testuak zalantzan ipini gabe eta berriak, transgresoreak izan daitezkeenak, irakurri eta analizatu gabe.

Tertulia dialogikoetatik edaten badu kritika kolektibo feministak bere hastapenetan, hau da, prozeduretan: liburuak modu kolektiboan irakurtzean eta modu demokratikoan komentatzean. Garrantzitsua da azpimarratzea eskoletan hasitako fenomeno hori bereziki literatur klub feministetan asentatu eta indartu dela, izan ere, emakumeen jabetza prozesuetan emakumeak hitza hartzen eta ematen ikastea zutabe eraikitzailea da. Esan nahi da diskurtso hegemonikoak boterean oinarritzen badira, hau da, hitza hobekien, indartsuen eta gehien erabiltzen dutenekin eraikitzen badira; diskurtso horien izatea irauli eta demokratizatu egiten da tertulia dialogikoen bidez, hitza partekatuz eta denon arteko diskurtsoa sortuz (Aguilar, 2017).

Kritika kolektiboaren bigarren harria ikerketa kualitatiboak jartzen du. Lehenik liburua irakurri eta komentatu behar da, baina ondoren ahots diferenteek esandako guztiaren analisia egin behar da eta modu sintetikoan adierazi. Horretarako ikerketa kualitatiboak badu tertulia dialogikoetan erabiltzen den tresnaren parekoa, eztabaida taldeena (Rivera et al., 2020). Hau da, gai baten inguruan talde batek modu objektiboan eta beldurrik gabe esan dezakeena. Jakintza hori edota jakintza horren ideia axialak jasotzeko, esandakoaren dimentsioak ateratzen dira. Horretarako sistema kategoriala eraikitzen da eta dimentsioa bakoitzak izan ditzakeen kategoria nahiz azpikategoriak zehazten dira. Beraz, tertulien funtzionamendua eta ikerketa kualitatiboaren datuak analizatzeko modua uztartzen zaizkio ikerketa feminista eta kolektiboari. Horrela, Gabilondoren dimentsio geopolitikoari, nahiz biopolitikoari hartzailearen dimentsio anitza gehitzen zaio eta kritika egiteko egokiera kolektiboa, feminista eta anitza aitortze bidean jartzen zaizkio ikerketari.

2.2. Literaturaren ikas-irakaskuntza

Sarreran aipatu gisara, aztertutako literatur tertuliak, partaideen formazioagatik eta ogibideagatik, aukera eman du literaturaren irakaskuntza prozesuen inguruan ere hausnartu eta zenbait ondorio ateratzeko. Izan ere, hezkuntza formaleko irakasleak izan dira solaskideak eta horrek eragin du, irakurketa pertsonala eta sozialaz gain, hezkuntzaren alorrekoa ere egitea. Besteren artean, liburuaren egokitasuna eta didaktikarako aukerak izan dira hizpide. Hori horrela, funtsezkoa da literaturaren ikas-irakaskuntzaren inguruko zertzelada orokor zenbait aurkeztea, batik bat, literaturaren didaktikako korronte berrien inguruan eta elkarrekin ezagutzak eraikitzearen praktikaren inguruan.

2.2.1. Hezkuntza literarioa

Literaturak eta hezkuntzak harreman estua izan dute historian zehar, nahiz eta lotura hori biziki ezberdina izan den garaiaren eta testuinguruaren arabera. Horren jatorrian, literaturaren beraren helburua legoke, hau da, literaturari esleitu zaion helburu edo funtzioak markatu du, hein handi batean, hezkuntzaren esparruan aukeratu diren obrak eta literatura ikas-irakasteko modua. Ondorioz, ikuspegi bakoitzak ekarri du kanonaren hautu jakin bat eta hura didaktikara eramateko bidea (Galarraga, 2018). Funtzioak anitzak izan daitezkeen arren (nazionala, existentziala, pedagogikoa edota morala, terapeutikoa...), literatura ezin

dugu xede pedagogiko edo didaktikoetara mugatu, hori baino askoz ere zabalagoa baita norberaren eraikuntzan daukan zeresana.

Arestian esan bezala, ibilbide luzea eta askotarikoa izan du literaturaren didaktikak, besteak beste, egotzi zaizkion funtzioen arabera. "Resulta imprescindible no olvidar que el modelo educativo adoptado en cada momento responde a la función que cada sociedad atribuye al hecho literario" (Ballester, 2015, 129. or.). Hortaz, garrantzitsua da bilakaera hori ezagutzea, egun lehenesten den eredura edo paradigmara iristeko, alegia, hezkuntza literariora.

Teresa Colomer ikertzailea dugu ibilbide historiko hori aztertu duen erreferentziazko autorea. Colomerren (1996) hitzetan, hezkuntza literariora heldu aurretik, hiru izan dira nagusitu diren ikuspegiak. Hasteko eta behin, Erdi Arotik eratorritako erretorika, non helburua ez zen literatura bera ikastea eta irakastea, gaitasun profesionalak baizik (ahozko eta idatzizko diskurtsoen ikaskuntza). Horrela, obra klasikoak baliatzen ziren irakurketaren trebezia lantzeko, hau da, diskurtsoa menperatzeko. XIX. mendetik aurrera, bigarren olatu bat antzeman daiteke, zehazki, molde historizista. XX. mendeko 70eko hamarkadara arte gailendu zen eredu horretan, testu nazionalen irakurketa zen nagusi, historia eta bilakaera diakronikoa ulertzeko aburuarekin. Hortaz, garai bakoitzeko mugimendu literarioak, autoreen datu biografikoak eta obren ezaugarri nagusiak ziren ikaskuntza objektu nagusiak. Laburki esanda, literaturaren didaktika baino, literaturaren historiaren irakaskuntzan dihardugu ikuspegi horretan. Kritika anitz jaso zituen egiteko modu horrek eta, ondorioz, hirugarren ikuspegi batera egin zen jauzi, testu analisi eta iruzkinetara. Bertan, literatur lanen testu iruzkinak ziren helburu eta ekoizpen. Horri esker, arreta eskaini zitzaion obraren eraikuntzari eta esanahi literarioei, bai eta irakurketa ohiturei ere. Edonola ere, kontraesan handiak aurkitu ziren bidean eta, askotan, testu analisiak eurak bidelagun izan beharrean, azken xede bilakatu ziren. Hori dela eta, maiz zalantzan jarri izan den eredua dugu, bere prestigioa kolokan izan duena.

Bilakaera horren guztiaren ostean, hezkuntza literarioaren aldeko apustu argia egin da, gaitasun literarioa bidaide duena. Alderdi historikoen memorizaziotik eta interpretazio bakarrera bideratutako testu iruzkinetatik harago doan honetan, irakurlea eta bere irakurketa esperientzia bihurtzen dira erdigune:

> [...] una enseñanza que busque que el alumno aprenda a leer, a gozar con los libros y a valorarlos: es decir, a hacer posible la experiencia personal

> de la lectura, que, por su parte, conllevará un conocimiento cultural variado, un análisis del mundo interior y la capacidad para interpretar la realidad exterior (Cerrillo, 2007, 22. or.).

Gauzak horrela, hezkuntza literarioaren markoan, testu ezberdinak ulertzea, interpretatzea eta gozatzea bilakatzen da lehentasun (Dueñas, 2013). Beraz, esanahiak eta interpretazioak maila pertsonaletik abiatzeko eta sormena martxan jartzeko gaitasuna gako bihurtzen da. Horrek guztiak bermatuko du, besteak beste, ikasle edo hartzaileen erantzun literarioak askotarikoak izatea, gaitasun literarioan aurrera eginez. Fittipaldi (2012) autoreak, ikerketa zabalago batean oinarrituta (*Visual Journeys: Understanding Immigrant Children's Responses to the Visual Image in Contemporary Picturebooks*), erantzun literarioak sailkatzen ditu lau kategoria eta bi maila nagusitan. Aipatutako kategoriak baliatu dira lan honetan, tertuliako partaideen erantzun motak ezagutzeko, eta hauek lirateke: erreferentziala (eraikuntza narratiboaren oinarrizko elementuak: pertsonaiak, espazioak, akzioak...); konposizionala (liburua objektu fisiko eta artistiko gisa, paratestuak, egoera komunikatiboa...); intertestuala edo interkulturala (testuaren lotura kulturalak eta testualak, irakurritakoa interpretatzeko); eta, azkenik, pertsonala (irakurlearen bizi-esperientzien eta testuaren arteko konexioak).

Gaitasun literarioaren garapena eskolak bermatu beharko luke, dudarik gabe. Eta ezin dugu ahaztu, zeregin horretan, bitarteko lanak egiten dituen pertsona (irakaslea, dinamizatzailea...) funtsezko agentea dela (Ibarra & Ballester, 2013). Gaitasunaren erdiesterako, gainera, garrantzitsua izango da progresio didaktikoa bermatzea, ez baita jaiotzatiko ahalmena, ez automatikoa, ezta bakartia ere. Ondorioz, testu literarioen ulermena eta gozamena bermatuko duen akonpainamendua erabakigarria izango da hezkuntzan (Gil, 2019). Irakurle konpetenteen hezte prozesuan, hiru zutabe nagusi identifikatu dira (Correro & Real, 2019): liburuak (kalitatezko obren aukeraketa, adinera egokituta eta anitza), irakurketa espazioak eta, azkenik, dinamizazio jarduerak (modu sistematikoan antolatutako programazioak eta helburuak).

Nolanahi ere, presazkoa da literatur praktika didaktikoak birpentsatzea eta hezkuntza literarioaren ikuspegiarekin bat egiten duten irakaskuntza planak martxan jartzea, oraindik ere asko baitira lortzear dauden erronkak. Literaturaren didaktikako bilakaera aztertu eta ezagutu badugu ere, kontuan izan behar dugu aurki ditzakegula, egun, aspaldiko ereduak erreproduzitzen dituzten testuinguruak (Bombini & Lomas, 2020a).

Motz esanda, literaturaren didaktikaren helburuak aldatu badira, ezingo gara horietara iritsiko betiko bide eta tresnen bitartez.

2.2.2. Ezagutzen eraikuntza kolektiboa literaturan

Vygotskyren (1977, 1979) teoria soziokulturaletik abiatzen gara baieztatzeko mintzaira eta pentsamendua hertsiki lotuta daudela. Norberaren garapena, beraz, gainerako pertsonekin eraikitako harreman kulturalaren ondorio da. Hori horrela, pentsamenduak eta ezagutzak izaera soziala dute eta elkarreragin horretan sortzen dira. Elkarrekintza soziala, beraz, gako da ikaskuntza prozesuetan. Aurkeztutako marko horren baitan kokatzen da elkarrekintza sozio-diskurtsiboaren ikusmoldea (Bronckart, 2007), zeinenak baieztatzen du sozializazio prozesuak eta norbanakoaren prozesuak modu paraleloan ulertu behar direla, biak baitaude elkarreraginean gizakiaren garapenean.

Urteak aurrera eginda ere, diskurtsoaren eta kognizioaren arteko lotura hori azpimarratu izan da autore ezberdinen eskutik; Palouk eta Guashek (2013), esaterako, diote ikasgelako elkarrekintzak aztertzea interesgarria dela ulertzeko berbaldi horien eragina ikaskuntza prozesuetan.

Orain arte aipatutakotik ondoriozta dezakegu, bada, elkarrekintza didaktikoaren bitartez eraikitzen direla ezagutzak ikasgelan. Elkarrekin pentsatzea (*Interthinking*; Littleton & Mercer, 2013) eta elkarrekin hitz egitea gako dira ezagutzaren eraikuntza kolektibo eta gidaturako (Mercer, 2017). Horretarako, baina, ezinbestekoa izango da elkarrekintza emankorrak aurrez diseinatzea eta martxan jartzea (Galarraga, 2018), besteak beste honako estrategien bitartez: galdera irekiak eta inferentzialak, ikasleen berbaldiak sakontzeko baliabide diskurtsiboak, parte-hartze demokratikoa eta anitza, berdinen arteko elkarrekintza, hizketa esploratzailea...

Literaturaren ikas-irakaskuntzaren esparruan, beharrezkoa da helduaren bitartekaritza, bai eta besteekin elkarrekintza ere (Gil, 2019). Izan ere, helburu gorena ez da ondare literarioa modu pasiboan jasotzea, baizik eta literaturak eskaintzen duen kultur esperientzia horretan, irakurlea subjektu aktibo bilakatzea. Goian aipatutako autorearen hitzei jarraiki, gaitasun komunikatiboak eta linguistikoa ez dira berezkoak, elkarrekintza sozialaren bitartez garatzen baitira, batik bat.

Correrok eta Realek (2019), ildo beretik, aipatzen du irakurketa sozializaturako denbora (binaka, talde txikitan, talde handian, helduarekin

zein berdinkideekin) ezinbestekoa dela, hezkuntza literarioaren zimendua delako. Norbanakoaren erantzun literario indibidualak taldean partekatzen dira, esanahien eta ezagutzen eraikuntza kolektiboa bermatuz. Eztabaida literarioa da, bada, testuak ulertzeko eta interpretatzeko bide nagusia (irakurketa, hausnarketa eta elkarrizketa gidatua). Lomasek (2020, 52. or.) ere antzeko ideia dakarkigu:

> Ayudar a construir interpretaciones progresivamente más profundas de las obras es uno de los mayores desafíos de quienes enseñamos literatura. Sabemos que las instancias de conversación o discusión literaria a partir de una lectura compartida ofrecen un excelente espacio para abordar este objetivo. Sin embargo, también sabemos de la dificultad para gestionar esas conversaciones, de modo que realmente hagan avanzar la competencia interpretativa del alumnado.

Literatura praktika sozialak sustatzea, beraz, lehentasunetako bat izan beharko litzateke eskolan, interpretazio pertsonal eta kolektiboetara bideratuta. Horretarako, komunikazio literarioaren esperientziak ugaritu behar dira ikasgelan, guztion arteko irakurle-komunitatea sortuz (Bombini & Lomas, 2020b). Modu horretara, literatura, eskolako eduki izateaz gain, komunikazio bide eta kultura partekatzeko iturri ere bihurtzen da.

3. Helburuak eta metodoa

Lan honek bi helburu nagusi erdietsi nahi ditu: lehena, literatur kritika feminista kolektiboa egitearekin lotuta, eta bigarrena, bestalde, horrek guztiak irakaskuntzarako eskaini dezakeenarekin erlazionatuta. Honatx helburuok:

1. Literatur kritika egitea modu kolektiboan, hezkuntza formaleko irakasleekin, tertulia dialogiko baten bitartez.

2. *Moio* liburuak eta bere ildo tematikoek ikas-irakaskuntza prozesuetan eskaintzen dituzten aukerak eta erronkak identifikatzea.

Horretarako, goian ere azpimarratu den gisara, tertulia dialogiko bat martxan jarri da hezkuntza formaleko zenbait irakaslerekin. Tertulia horren funtsa izan da kritika kolektibo feminista (Lasarte & Perales-Fernández-de-Gamboa, 2021a) egitea, Kattalin Miner autorearen *Moio* obra bidaide. Esanahi eta ezagutza literarioak modu kolektiboan eraikitzera bideratu da solasaldia, marko teorikoan azpimarratutako alderdiak praktikara eramanez.

Lagina, beraz, hezkuntzako irakasleek osatu dute, zehazki, Derrigorrezko Hezkuntzako etapa eta ziklo ezberdinetako irakasleak. Orotara, bi ikerlari-moderatzaile eta beste hamasei solaskide izan dira partaideak eta gehienak Bigarren Hezkuntzako irakasleak badira ere, badira Lehen Hezkuntzakoak eta batxilergokoak ere. Jakintza arloari dagokionez ere, bada aniztasuna, hizkuntza eta literaturako irakasleak nagusitu diren arren, beste arlotako zenbait ere aurki daitezkeelako taldean; esaterako, Filosofia ikasgaikoak. Partaideen kodetzeari dagokionez, moderatzaileak M1 eta M2 bezala izenpetu dira eta partaideen ahotsak A1etik A16ra, ezkerretik eskuinera okupaturiko espazioen baitan. Kasu batzuetan transkribatzeko orduan ahots batzuk ez dira zehazki identifikatu eta AX modura kodetu dira.

Ikerketa kualitatiboaren parametroetan kokatu gara, zeinenak bide induktiboa hartzen duen, izaera humanista daukan eta testuinguruaren ulermen holistikoa bilatzen duen, besteak beste (Quecedo & Castaño, 2003). Izan ere, pertsonen askotariko ikuspegiak sakonki ulertzeko asmoa du, eta hori da gure helburuekin bat egiten duen ikerketa modua.

Bakthinen (1981) eta Flecharen (1997) ikuspegi dialogikoaren bidetik abiatu gara, ikaskuntza dialogikoaren onurak aski justifikatuta baitaude, beste askoren artean (Flecha, 1997): elkarrizketa demokratikoa, inteligentzia kulturala, elkartasuna, ezberdintasunen balioztatzea, etab. Marko horren baitan, tertulia dialogiko literarioa erabili da eta hura bilakatu da ikerketa tresna. Halakotan, partaideek aurrez irakurria dute liburua (edo adostutako pasarteren bat) eta alderdi deigarrien inguruan solastatzen dira taldean. Paradigma hori koherentea da literatura eta bere ikas-irakaskuntza ulertzeko dugun markoarekin, alegia, hezkuntza literarioarekin. Bertan, erantzun bakarretatik urrundu eta interpretazio pertsonal eta anitzetara egiten da jauzi, ulertuz edonor izan daitekeela gai literaturaz hitz egiteko, eztabaidatzeko eta gozatzeko (Lomas, 2020). Tertulia dialogikoaren tresna, gainera, irakasleen prestakuntzan baliabide didaktiko emankorra izan daitekeela ikusi da (Chocarro de Luis, 2013).

Horrez gain, tertulia dialogikoaren egiteko moduak ahalbidetu digu ikerketa esparruan ohikoak diren eztabaida taldeen metodologiara hurbiltzea. Izan ere, badituzte zenbait ezaugarri komun (eztabaida dialogikoa egitea, ezagutzak modu kolektiboan eraikitzea...), baina badira zenbait ñabardura haien artean ere (Rivera et al., 2020). Esate baterako, eztabaida taldeetan ez bezala, tertulia dialogikoetan ohikoa izaten da partaideek elkar ezagutzea. Ikerketa honetan, ordea, ez da hala izan eta horrek

ikerketarako nolabaiteko balidazioa eman digu, metodologoek baitiote ikerketaren benetakotasuna bermatzen dela horrela (Lasarte & Perales-Fernández-de-Gamboa, 2021a).

Ikerketa honen oinarri izan den tertulia audioz grabatu da eta ondoren transkribatu. Ostean, sistema kategorial bat eraiki da *ad hoc*, ikerketaren beraren beharrei erantzunez. Hortaz, kategoriak modu induktiboan sortu dira, transkripziotik abiatuta eta, betiere, erreferentziazko autoreen irizpide nagusi zenbait aintzat hartuta. Emaitzak antolatze aldera, bi atal nagusitan bereizi da, bakoitza helburu bati lotuta. Beheko taulan ikus daiteke eraiki eta analisirako erabili den kategoria sistema.

Ikerketarako eraikitako sistema kategoriala

SISTEMA KATEGORIALA

1. HELBURUARI DAGOZKION KATEGORIAK

1.1.- Idazlearen zein liburuaren estiloa eta bereizgarriak	**1.2.- Literatur generoaren identifikazioa**	**1.3.- Jorratzen dituen gai tematikoak**	**1.4.- Erantzun literarioak** *(Fittipaldi, 2012)*
1.1.1.- Kattalin Minerren ohiko literatur estiloa	1.2.1.- Literatura den edo ez den eztabaida	1.3.1.- Heriotza, dolua eta suizidioa	1.4.1.- Erreferentziala (pertsonaiak, espazioa, denbora…)
1.1.2. Estilo zuzenaren alderdi positiboak	1.2.2.- Kazetaritza eta kronika	1.3.2.- Generoa eta transfeminismoa	1.4.2.- Konposizionala (liburuarena egitura, forma, ezaugarri fisikoak…)
1.1.3.- Estiloari ikusi zaizkion ahulguneak		1.3.3.- Emozioak eta mina	1.4.3.- Intertestuala eta interkulturala (beste obrekin lotura, erreferentzia kulturalak…)
		1.3.4.- Gogoeta soziala eta politikoa (egungo gizarteak duen erantzukizuna, aldatu dena, indibidualetik kolektibora…)	1.4.4.- Pertsonala (norbere esperientziak, bizipenak, iritziak…)

2. HELBURUARI DAGOZKION KATEGORIAK

2.1.- Ikasle hartzaileen zehaztapena	2.2.- Liburuaren hautua eskolan	2.3.- Liburua didaktikara eramateko aukerak	2.4.- Irakurketaren faseak eta horien dinamizazioa
2.1.1.- Zergatik egokia DBH-Batxilergoko ikasleentzat? (ikasleen/nerabeen ezaugarriak)	2.2.1.- Hezkuntzako konpetentziekin lotura	2.3.1- Irakurketa mota (eztabaida partekatua, bakarkakoa…)	2.4.1.- Irakurri aurretiko fasean zer egin
2.1.2.- Zein arrisku ditu DBH-Batxilergoko ikasleei bideratzeak?	2.2.2.- Ikasleentzako duen erakargarritasuna (gaia, forma, irakurterraza…)	2.3.2.- Heriotzaren lanketa, gutunaren testu generoarekin	2.4.2.- Irakurri bitarteko fasean zer egin
2.1.3.- Mailaren eta ikasgaiaren zehaztapena	2.2.3.- Gai nagusiak (heriotza, generoa…) gelan lantzeko beharra	2.3.3.- Doluaren lanketa	2.4.3.- Irakurri osteko fasean zer egin
2.1.4.- Aukera unibertsitateko ikasleekin	2.2.4.- Ikasleen errealitateekiko hurbiltasuna	2.3.4.- Kronikaren testu generoaren lanketa	
	2.2.5.- Kasu konkretuetan desegokia izatearen beldurra (gelan kasuistika konkretuak daudenean).	2.3.5.- Gertatu diren beste gertaera batzuekin lotura	

4. Emaitzak eta eztabaida

Emaitzak bi dimentsiotan banatu dira, bi helbururi lotuak. Dimentsio bakoitza bere kategorietan nahiz azpikategorietan sailkatu da, eta horien interpretazioak garatu dira.

4.1. Lehenengo helburuari dagozkion kategoriak

4.1.1. Idazlearen zein liburuaren estiloa eta bereizgarriak

Lehen dimentsioari gagozkiolarik, idazlearen eta estiloaren aldeari lotuta, oso ikuspegi diferenteetatik ikusi da. Ahots gehienek Minerren estiloaz dihardutenean, kazetaritzarekin lotu dute eta alderdi positiboak eta ulergarriak topatu dizkiote. Beste batzuek, aldiz, alderdi formala faltan bota dute eta ahulguneak azaldu dituzte.

Liburuak duen ahots propioa eta anitza estiloaren indargunetzat jo da: *ahots propioa dauka. Beste emakumeen ahotsak ditu, beste pertsona anitzen ahotsak eta horrek balio erantsi bat ematen dio* (A6).

Tertuliakideek, bestalde, bat datoz estilo zuzena, argia, irakurterraza eta berea propioa duela esaten: *estilo zuzenekoa, hizkera zuzenekoa, argia, ez horregatik ez landua, esango nuke irakurterraza* (A4). Minerri estilo bat aitortzen zaio lehenagotik bere testuetan erabilia eta kazetaritzarekin lotua: *Minerren Nola heldu naiz ni honaino? Irakurria nuen eta oso bere estiloan idatzia dago Moio. Horrek asko lagundu nau liburua errazago irakurtzen* (A10). Beste estilo adierazle bat egunerokotasuna da: *eguneroko formatu hori, kazetaritza estilo hori bere hitzetara ekarrita, Minerrek asmatzen du* (A4). Errealitatetik hain hurbil egotea estiloaren beste indargune bezala aipatzen da: *Bereziki nabarmendu nahiko nuke Kattalinen estiloa eta gainera errealitatetik oso hurbil* (A16). *Neri iruditzen zait liburu honek estetika baino gehiago duela mamia* (A2).

Beste ezaugarri literarioa nitik idatzia egotea aipatu da baina, horri gehitu zaio jendarteak bizitutakoa jaso nahia, genealogiaren mesedetan: *oso nitik idatzia dago [...] ez dakigu zelan aurre egin doluari eta bakoitzak bere modura aurre egin dio eta horregatik da nolabaiteko memoria kolektibo hori* (A10).

Baina estiloari mugak ere ikusi zaizkio ahozkoaren, zuzenekoaren falta: *norbaitek ahoz zuzenean kontatu izan balit testigantza moduan, baina idatziz, idazteko moduari pobreago edo, idazteko modu horrek ez nau bete* (A1).

Beste ahulgunea gehiago ez sakontzean edota bi munduren erdibidean geratu izanean ikusi da. Batetik, Aimarren bizipenen inguruan gehiago sakontzea, eta, bestetik, gaiaren inguruan gehiago teorizatzea.

Esperientzia pertsonaletik abiatzen da eta kontatzen da, gero kuadrillako pertzepzio horretatik, baina falta izan zait gehiago, Aimar gehiago ezagutzea, inguru horrek nola bizi izan zuen gehiago ezagutzea, familia horrek nola bizi zuen, ez suizidioa eta geroko momentua baizik eta aurrekoa eta zer gertatzen da eta nola iristen da horra Aimar. Horra iristea falta izan dela eta era berean Itu eta Lujanbio hitz egiten hasten direnean zer gauza interesgarriak esaten diren eta gehiago jakiteko nahi hori, ezta?. Iruditzen zait asmatzen duela bi munduak liburura ekartzen baina zerbait falta dela hor (A4).

Alde teorikoan apur bat exkax topatu dut, faltan bota dut, bibliografia proposatzea bukaeran eta nora jo horrelako asmoak dituen pertsona bat, hori ez ema-

tea... Bera asmoa zein den ikusita, gertatu den gauza latz batetik irakaspen bat ateratzea eta partekatzea eta hori ez ematea, hor ikusi dut akats bat (A5).

Estiloaren laburpen gisa ikusi da Minerrek estilo propioa duela kazetaritzatik ekarria, egunerokotasuna duena, zuzena eta argia. Ahots propioz nahiz anitzez osatua, "ni"tik idatzia, baina memoria kolektiboa lantzeko erabiltzen duena. Finean estetikak baino etikak pisu handiagoa izanik. Halere, mugak ikusi zaizkio estilo honi; batetik, testigantza oinarri izanik ahozkoak berak izango lukeen indarra, eta, bestetik, testigantza eta teoria biak jaso izana baina, gero estilo bakoitzak eskatzen duena gehiago ez sakondu izana.

4.1.2. Literatur generoaren identifikazioa

Literatura al da?

Literatur generoa definitzeko orduan zalantzak sortu dira literatura den edo ez esateko, inkluso literatura zer den definitzeko beharra ikusi da:

Literatura den edo ez zalantzan jartzea askotan gure literatura definitzeko modu klasiko, hertsi eta mugatu horietara lotuta dago eta fikzio, eta literatura gehiago daude autobiografiatik heldu edo lekukotzatik heldu edo (A10).

Irakurtzen jarri nintzenean lehengo zalantza izan nuena hau literatura ote zen. Eta aurrera egin ahala pentsatu nuen baietz, zinema balitz dokumentala dela pentsatuko nuke (A7).

Literatura den edo ez galderari erantzunez gogora ekarri dute Alvarez-Uriak (2022) ikastaroan esandakoa, liburuaren formari erreparatuz, emakume idazleek bere ahots propioa eta estilo propioa sortu behar dutela. Hari horri jarraiki agertzen zaigu hurrengo ahotsa:

[...] eta Kattalin Minerrek badu bere estilo propioa. Ni horretatik idaztea, erabiltzea hizkuntza erraza; ez da erraza baina literatura ulertzeko modu hertsi horietatik aterata eta hezkuntza testuinguruetara ekarrita oso egokia [...] Zentzu horretan berea literatura da kazetaritza zantzuekin lotua, kazetaritzan ezagutzen dituen erreferenteekin lotua (A16).

Beste ahots batzuek diote Minerrek ez zuela literatura egin nahi, ezta zerbait jasoa ere:

Niri gustatu zait pilo bat, iruditzen zaidalako ez zuela literatura egin nahi. Pasa ditu hamar urte bere laguna ezin agurturik eta azkenean lortu du honen bidez ixtea zirkulu hori. Iruditzen zait oso intimoa dela alde horretatik (A12).

Nitik idatzia dago, Minerrek ez du liburu jaso bat idatzi nahi izan (A16).

Saiakera den galdezka ere aritu dira: *Hartu nuenean saiakera sailean zegoen liburu dendan. Nere espektatibak saiakera bat izango zelakoan zeuden. Zentzu horretan apur bat eskas* (A5). *Nik ez nuen espektatibarik, ez nuen aztertu saiakera bezala, esperientzia potentea bezala aztertu neban, eta esperientziak, kontatzen denak, erakartzen nau* (A6).

Kazetaritza eta kronika

Kazetaritzarekin lotu da kasurik gehienetan: *Kattalinek hasieratik aitortzen du kazetaritzatik egina dagoela eta badauka asko kazetaritza jardunetik eta baita literaturatik ere [...] Hurbiltasuna ematen digu bai gaiari eta baita errealitate bati eta askotan ikasleek hurbiltasun hori oso beharrezkoa daukate eta ez fikzioa edo, pertsonaia bai baina hauek fikziozkoak dira asmatutakoak dira. Horregatik dago kronikaren argazkia, horrek kokatzen gaitu errealitatean* (A10).

Gaia ikasleen aurrean justifikatzeko orduan, literatura den edo ez definitu beharra sortu da. Saiakera den edo zer den. Literaturaren definiziorik zabalena hartu da kontuan non gaur egun literaturaren mugak lausotu diren eta nahastu diren, autobiografiatik, autofikziotik eta estilo diferenteetatik literaturak edaten duen. Horrela ikusi da kazetaritzarekin loturiko egunerokoa kontenplatzen duen estilo propioa eta hurbila duela, Alvarez-Uriak (2022) defendatzen duen moduan. Kattalin Minerrek esan beharrekoari estilo propioz eta ahots propioz ekiten dio, kronikaren argazkia izan daitekeena eta aurrerago esango dugun bezala, begirada soziopolitikorako balioa izan dezakeena gauzatuz.

4.1.3. Jorratzen dituen gai tematikoak

Egunerokotasunaren markarekin erabiltzen diren gaiez gain, gai tabuak daudela nabarmendu da. Transfobia, transfeminismoa, suizidioa, dolua. Ikusgarri egiten ez diren gaiak. Ikusgarritasuna jarri da balioan: *Suizidioa ere badago baina baita ere ikusgarritasuna* (A2). *Kuadrilismoa, generoaren eraikuntza, osasun mentala, kuadrilla horretan bakoitzak daukan rola, hori ere gelara ekarri daiteke* (A14).

Heriotza, dolua eta suizidioa

Suizidioa eta transgeneroa dira tertulian zehar aipatu diren gai nagusiak: *[...] baina nik suizidioa baina gehiago dolua ikusten dut eta doluari erantzuteko bideak asmatzea, hau da, geratu garenok zer egin dugu? Eta zer egin beharko genuke? Gogoeta* (A10). Hernanin egindako hileta omenaldia aipatzen da: *Eta batez ere garai hartan eta Hernanin kokatuta dagoela, hau adibidez*

Barakaldo batean garai hartan eta hileta zibila agian beste historia bat izango litzateke (A10).

Generoa eta transfeminismoa

Bestalde, transfobiarekin ere lotu da. Moiok bere buruaz beste egin du baina transfobiaren ondorio bat da. Nork erail du, beraz, Moio?

Identitatearen formakuntzaren inguruko ideia bat, azkenean transexualitatera jo behar dugula bi muturretan. Mutila bazara arrari dagokion trazarekin erreproduzitu behar duzu zure izakera, eta hortik kanpo gertatzen direnak nortasun disidenteak dira. Arraroak. Orain dela urte batzuk transexualek zuten janzkerari erizten genion ikuspegi berdina mantentzen da, normaltasunaren kanonetik ateratzen dena kriminalizatu egiten da eta horrekin lotuta 78. Orrialdean heriotza hau, Moioren erailketa ez dugula lotzen erailketa transfobo batekin. Liburu berak dio, azkenean nazi batek kalean hilko balu heriotza transfobo bat izango litzateke baina hau ez da zuzeneko erailketa bat izan, bere buruaz beste egin du baina sistema oso baten erruz. Hori berez horrela izango litzateke edo ez, apurtxo bat debatitzeko (A14).

Amatasuna ere aipatzen da. Izan ere, Miner hamar urteren bueltan bere lagunekin biltzen denean denak amak dira: *[...] kontatzen du nola biltzen den Kattalin bere aspaldiko lagunekin, denak amak dira eta bera ez da ama eta zer gustura dagoen nahiz eta bera ez izan ama, [...] gauza txikitxo horiek badauzka liburuak nahi izanez gero hortik tiratzeko [...] Hor pertsonaletik haritik tiraka. Niri gustatu zait* (A8).

Aurrerago sakonki azaleratuko den moduan, liburuak lantzen dituen gai nagusiak ezinbestekotzat jo dira, bai gizarteko kide guztiontzat, oro har; bai eta irakaskuntza munduan ikasleekin lantzeko ere (gaien potentzialtasunagatik eta ikasleen errealitatearekin izan dezakeen lotura hertsiagatik).

Emozioak eta mina

Askotan agertzen da geratzen direnen mina edota errua.

Gehiago egin genezakeen? Hori geratu garenok daukagun galdera bat da eta elkarrizketatzen duen jende horrek, gaur egun erreferentzia bat direnak. Garai batean nola bizi izan zuten hori oso lagungarria dela. Hala ere gero geratzen da gure egitekoen artean nik halako egoera bat bizi badu badut dela gelan, eskolan nik behar dut formakuntza horretara hurbiltzea, hor galdera ez da biktimak zer egin? (A10).

Zer egin genezakeen hori komentatzen da behin baino gehiagotan, Ituri eta hauei galdetzen die, gu baino prestatuagoak zeundeten garai hartan. Pentsatzen al duzue gehiago laguntzerik izan zenutela?. Erantzuten dute baietz badutela arantza hori, baina gaur egun gertatuko balitz beste modu batera erantzungo litzatekeela eta gustatzen zait komentatzen beraiek ere garai haietan ez zeukatela ideia handirik, oraindik ikasten ari ziren eta oraindik beste jendeari erakutsi aurretik haiek lanketa horretan zeuden, eta hilketa eta gero herrian azaltzen da ikasteko gogo hori. [...] Herri bezala ikasketa egitea hori izango zen pasada bat (A11).

Gogoeta soziala eta politikoa

Gogoeta soziala eta politikoa dago. Batetik, aipatzen da familiaren jabetze prozesua eta gizarterantz sortzen den erradiazio efektua, baina hori ez litzateke gertatuko Moioren erabakia, bere buruaz beste egitea, ez bazen erabaki politiko bat izan.

Erradiazioaren eta ahalduntzearena kontzeptuak oso inportanteak iruditu zaizkit liburu honetan ekarpen modura (A4).

Moiok egin duenaz, berak, Kattalinek ondo esaten duen bezala, oso ondo zekien emakume honek, gizon honek, Moiok, ba bere urte gutxi horiekin zer egitera zihoan eta zer konnotazio politiko izango zuen (Mod. 1).

Ados etorri dira ahots guztiak gai nagusiak transexualitatea, suizidioa, osasun mentala eta dolua direla. Baina matriuska horren barruan gaiak xehatzen joan dira. Batetik, generoa eta transfeminismoa batu dira eta hor epizentroan suizidioaren arrazoi nagusitzat gizartean zegoen eta dagoen transfobia aipatu da; bestetik, minaren eta emozioen eremua azpimarratu da, hau da, suizidioak utzitako galderak, minak, emozioak eta azkenik; gogoeta soziala eta politikoa. Moioren suizidioa erabaki politikoaz hartzea eta gertaturikoaren inguruan begirada soziopolitikoa garatu izana Hernanik eginiko hileta politikoa gogoratuz eta testuan zehar jasotzen diren testigantzak lekuko.

4.1.4. Erantzun literarioak

Azpiatal honetan Fittipaldi (2012) autoreak zehaztutako erantzun literario motak aztertu ditugu, ikusteko ea eztabaidako partaideek zertan jartzen duten bereziki begirada. Edonola ere, ikusita aztergai dugun obra ez dela fikziozkoa, kategoria konposizionala eta pertsonala lirateke esanguratsuenak, besteak lotuago egon baitaitezke fikziozko lanekin.

Erreferentziala

Hitz egiten denean dela espazioa, denbora nahiz pertsonaiak denak errealak dira, liburuaren izaera ez-fikziozkoaren ondorio. Hernani agertzen da duela hamar urte eta pertsonaiak ere errealak dira: Aimar-Amaia, bere anaia, bere irakaslea, Itu, Iratxe Retolaza, Maialen Lujanbio...: *Brayan azkenekoz azaltzen den pertsonaia klasean eduki nuen, urtebete zaharragoa da. Nik X moduan ezagutu nuen, lehengo astean topatu nintzen berarekin Hernanin, horrela konturatu nintzen nire X eta Brayan bera zela* (A3).

Konposizionala

Artikuluan zehar asko hitz egin da konposizioaz eta estiloaz, elkarrizketak direla, kazetaritza edota kronika dela, baina asko gustatu dena Aimarren eskuz idatzitako agur gutuna, nahiz Minerrek berak eskuz idazten diona da: *Moiok idazten duen agurra adibidez, landu daiteke taktu guztiarekin baina oso egokia* (A12). *Gutuna bera ezaguna genuen 2003an Isa Castillo eta Iratxe Retolazak Genero Ariketan argitara eman zutelako* (Mod. 1). Liburuaren izenburua ere asko gustatu da: *Titulua bera asko gustatu zait: Moio, protagonistaren izena eta gordetzea ezinezkoa zen* (A6). Testigantza izanik ilustrazioak, azaltzen diren argazkiak aipatzen dira: *Hemen aipatu nahiko nituzke ilustrazioak, haurrentzako oso inportanteak dira ilustrazioak eta liburu honek argazkiak ditu, irudiak oso potenteak dira liburua ulertzen laguntzeko* (A7). Tertulian aipatu ez dena, gutunetan nahiz testuan bi letra tipologia erabili izana: eskuz eginiko letra erabaki politikoa adierazteko Moiok erabilia eta idazleak Moiori adio esateko darabilkiena, eta adierazpen soziopolitikoa egiteko Minerrek testuan erabilitako letra tipoa. Bi denbora: duela hamar urtekoa eta oraingoa, bi espazio Hernani eta taberna, beti bera, elkarrizketa guztiak hantxe burutu baititu Minerrek eta gaia bera suizidioa, transfobia lehen eta orain. Eta tarte luze horretan egin den dolua herriarena, idazlearena, aktibista feministena...

Pertsonala

Testigantzak eta teoria ikuspuntu diferenteen batura interesgarri bezala ikusi dira: *Hitz egiten da esperientzia pertsonaletik eta horretan oinarritzen da baina beste ikuspuntu batzuk ere hartzen dira kontuan, ez da bakarrik lagun artean eta familian. Hortik kanpo ere teoriatik ere jaso nahi izan da gaiari edo liburuari gorputza emateko* (A4). *Gaur egun autofikzioaz asko hitz egiten dugu eta hortik asko du, errealitate bat elkarrizketekin, gogoetekin, jasoa. Bestetik begirada soziopolitikoa. Modu oso hurbilean esperientzia hori helarazten dio jendarteari dokumentazio lan baten ostean* (Mod. 1).

Gainera, tertulian bertan asko izan dira mahaigaineratu diren istorio eta esperientzia pertsonalak (anonimotasunagatik hemen jasoko ez direnak), doluarekin, heriotzarekin, suizidioarekin eta generoarekin lotuta. Liburuaren irakurketak eta ondorengo partekatze lanak, beraz, abagunea eskaini die partaideei hustuketa lan hori egiteko, haien alderdi pertsonalenekin konektatzeko, eta horien inguruko gogoeta egiteko: *Ba nik liburu honegaz negar asko in dot ze lotu dot asko bizitzakin [...] beste arazo batzukin edo [...] lotzen dozu asko, zuria egiten dozu beste toki batetik* (A6). Hori da, azken finean, literaturaren helburuetako bat, hartzaile bakoitzak bere esanahi literarioak eraikitzea, askotariko loturak eta inferentziak eginez.

Intertestuala eta interkulturala

Erantzun literario mota honetan, ohikoa izaten da literatur obren arteko loturak egitea, baina kasu honetan, liburuaren ezaugarriengatik, lotura horiek teorikoagoak dira. Batez ere egiten diren aipamen intertestualak Josebe Iturriotz, Maialen Lujanbio eta Iratxe Retolaza autoreei eginak dira, liburuan elkarrizketatuak direlako: *Iratxe Retolazarekin eta gero Maialen Lujanbiorekin eta hor erreferente asko azaltzen dira* (A8).

Beste liburuak ere aipatzen dira: *Iruditzen zait Moio Genero Ariketen osagarri bat. Teoria nahi baldin badugu, iruditzen bazaigu maila teorikoan hau ez dagoela oso osatua badugu beste liburua bat irakurri behar dena eta osatzen duena: Genero Ariketak* (Mod. 1).

Erantzun literarioetan esan behar da erreferentzialtasunari kasu egiterakoan pertsonaia, nahiz denbora, espazioak eta narratologia guztiak pasatako errealitate bati egiten diola kasu; erantzun konposizionalari begira bi espazioetan, bi denboretan nahiz bi tipografiez baliaturik idatzia dagoela. Denbora batez heriotza Hernanin gertatzen da, beste denbora batez dolua, hausnarketa politikoa taberna batean kokatzen da grabagailu baten aurrean; erantzun pertsonala nitik idatzia dago, kanporantz memoria kolektiboa jaso nahian eta hortxe kokatzen dira intertestua nahiz erreferentzia kulturalak. Erantzun literario pertsonalean soa jarriz, idazlea liburuko pertsonaia nagusiaren lagun mina da eta hamar urte behar izan ditu agur esateko, horrek irakurlearengan eragin sakona izan du. Baina, horrez gain badu erantzun literarioak nitik kanporantz uhinen gisan familiarekin, lagunekin, eskolarekin, militantzia feministarekin, kultur munduarekin literatura feministarekin loturiko hausnarra eginarazteko gaitasuna.

4.2. Bigarren helburuari dagozkion kategoriak

4.2.1. Ikasle-hartzaileen zehaztapena

Hartzailearen profila zehazteko orduan dolua, suizidioa, eta transgeneroa oso gai egokiak ikusi dira, batez ere, irakaskuntzaren erdigunera liburua ekartzeko (batik bat Bigarren Hezkuntzako eta batxilergoko etapetan).

Beharrezkoa iruditu jata tabu diren gai horietaz gizartean hitz egitea, eta adin bat aukeratu beharko banu Bigarren Hezkuntzan bisualizatzen dut. Adin tarte horretarako suizidio bat edo transexualitatearen gaian erreferente falta haundia duten gaiak dira eta zentzu horretan hitza jartzea eta horretaz hitz egitea beharrezkoa dela iruditzen zait (A1).

Nik uste dut liburu hau gazte baten nortasunaren osaeran eta prozesuan inpaktu handiko liburua izan daitekeela, gai askoren bidegurutzea delako (A14).

Tertulia hasi eta berehala sortu da hartzailea zehazteko beharra. Izan ere, partaideek, irakasle izanda, oso azkar identifikatu dute liburua Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lantzeko obra apropos gisa, batik bat, nerabeen garapen ezaugarriak aintzat hartuta (identitatearen eraikuntza bete-betean): *DBHn edo batxilergoan irakurtzeko ondo, bere identitatea garatzen ari dira eta iruditzen zait tabu den gai bat ahal dela izan ikusgarrie [...]. Prozesu horretan dagoenari bultzada bat emateko liburu aproposa izan daiteke. Eta nik ustet ba 12tik 18 urte bitarte nortasuna eraikitzen ari garela eta bultzada hori emateko bide bat ere izan leikela, gaiari, estetika igual gutxiago, baina gaia izango da puntu fuertea* (AX).

Profila aukeratzeko orduan, beraz, gaiak oso inportante iritzi dira (dolua, heriotza...). Transexualitatea, ordea, apur bat zailago ikusi da, baina argi ikusi dute geletan antzeko kasuak egon daitezkeela eta lagungarri izan daitekeela hori bizitzen ari direnen argitan.

Etapa horietan gehiago landu beharko liratekeen gaiak direla aitortzen dute, baieztatuz, haiei, heldu gisa, ekarpena egin badie obrak, are gehiago egingo diela gazteei. Hori bai, arriskuak ere ikusten dizkiete, izan ere, ikasle talde konkretuaren ezaugarriak aintzat hartu beharko liratekeela aitortzen dute zenbaitek: *Esandako gai guztiak lantzeko aproposa iruditzen zait, eta DBHn lantzeko ere bai, baina ikusi beharko genuke taldea eta irakasleak lagunduta* (A15).

Horren harira, debatea sortu da mailaren zehaztapenaren inguruan eta DBHko azken urtetik aurrera kokatu dute batzuek, hori baino lehen zailtasunak egon baitaitezke istorioa ulertzeko edota nerabeekin konektatzeko: *Bigarren Hezkuntzan, baina zein mailatan? Laugarren maila arte uste dut ez dutela ez heldutasunik ezta hizkuntza gaitasunik hau ulertzeko. Esaten dugu ulerterraza dela baina beharrezkoa da idazkuntzaren ulermena eta hizkuntza maila bat ere bai* (A10).

Amaitzeko, DBH eta batxilergoaz gain, unibertsitateko ikasleekin ere erabiltzeko modu obra dela aipatu da, ondoren zehatzago ikusiko dugun gisara.

4.2.2. Liburuaren hautua eskolan

Aurreko atalean azaldu gisa, hartzaile gaztea irudikatu da askotan, eta horrez gain, eskolako testuinguruan liburu horren hautua justifikatzeko arrazoiak ere eskaini dira. Solaskideen ogibideak ahalbidetu du hausnarketa kolektibo hori egitea eta hezkuntzako alorrekin zuzenean lotzea.

Konpetentziak, gaiak eta ezaugarri formalak

Justifikazioarekin hasteko, curriculumeko konpetentziak ekarri dira gogora, aipatu baita liburuko gaiek balio dezaketela zenbait gaitasuni erantzuteko: *Nik programazio didaktikoan jarri izan beharko banu zergatik aukeratu dugun Moio euskal literaturan, [...] aipatuko nuke hezkidetza, batez ere lehen Batxin lantzeko eta aipatuko nuke hezkidetzaren zortzigarren zutabea indarkeriari dagokiona, erreferenteei dagokiena uste dut bosgarrena ere badela. Eta hezkidetza lantzera behartuta gaude denok eta batzuetan ahaztu egiten zaigu. Eta gure berezko konpetentziak, uste dut liburu honekin bete-betean betetzen direla, izaten ikasi eta norberaren burua onartzen ikasi, eta gero elkarrekin bizitzen ikasi, aldamenekoa onartzen eta taldean lanean ikasi eta abar. Baina bi konpetentziak eta hezkidetzaren zutabeak aipatuko nituzke eta orain zehar konpetentziak kontuan hartu behar ditugula iruditzen zait liburu hau bereziki ona dela bai hezkidetza eta bai konpetentzia horiek lantzeko* (A9).

Goiko azpiataletan esandakoari jarraiki, liburuaren estilo zuzena eta ulerterraza ere positiboki baloratu da ikusi da ikasleentzat; horrek, gaiekin batera, erakargarritasuna sor dezakeelako haiengan: *Gomendagarria Bigarren Hezkuntzarako, egokia forma aldetik eta irakurterraza [...] Zentzu horretan erakargarria izan daiteke ikasleentzat eta eduki aldetik, erdigunean*

dakar gai bat egun garrantzia hartu duena (A4). Estiloaz gain, ikasle gazteak saiakeren generora hurbiltzeko bide emankorra dela ere aipatu da.

Ikasleen errealitatea

Liburuaren hezkuntza-hauturako beste alderdi bat izan da ikasleen errealitatearekin izan dezakeen lotura. Zenbait partaidek kontatu dute antzeko egoeratan dauden ikasleak izan dituztela gelan eta izan daitekeela haiei zein ingurukoei ere laguntzeko tresna bat. Ikasleentzako izan ditzakeen onurez gain, irakaslearen profilean ere jarri da arreta, halako erremintak eta formazioa funtsezko baitira hezkuntzan dabilen edonorentzat: *Irakasleok, adibidez? [...] Holakoren bat tokatu ahal jaku edozein momentutan eta ez agian muturreko suizidio batekin, ez? Baina ba bai transgenero horretan dabilen ikasle bat, ez? Eta egia da, liburuan ere aipatzen da, badago nolabaiteko formakuntza ikastetxeetan, Lehen Hezkuntza edo Haur Hezkuntzako irakasleekin, ez? Kolektiboak ere badaude gaur egun, baina ya DBHn, ya gazteak? Ya nerabeak puri-purian eta...* (AX).

Dena den, aipatzekoa da sortu den beste korapilo bat, alegia, halako kasuak ikasgelan egonda, ea zilegi ote den liburua hain modu zuzenean lantzea. Tertuliakideek esperientzia pertsonalak kontatu dituzte (hemen azalduko ez direnak), azpimarratzeko mingarria izan daitekeela, antzeko kasuistika bizitzen ari diren ikasle horientzat. Hortaz, ezer baino lehen, haiekin hitz egitea eta negoziatzea proposatzen da: *[...] gutxienez hitz egin pertsona horrekin edo ikusi zer egin dezakegun, benetan oso kontuan izan behar dugu ze publiko daukagun edozein gai abordatzen dugularik* (Mod. 1).

4.2.3. Liburua didaktikara eramateko aukerak

Irakurketa mota

Irakasleek aukera anitzak ikusi dizkiote liburuari, didaktikaren aldetik. Hasteko eta behin, irakurketa motaz jardun dira eta irakurketa partekatuaren aldeko apustu argia egin dute guztiek (batik bat, gaien izaeragatik): *Irakurketa partekatua egingo nuke asko duelako konpartitzeko, elkarrekin esanahia eraikitzeko modu gisa, ez nuke inondikan ere bakarkako moduan irakurtzea proposatuko gaia kontuan edukita bereziki* (A16). Honako ahotsak ere bide beretik jotzen duela ikus genezake, gaia politizatzeko helduleku kolektiboa behar dela ere gogoraraziz: *Modu kolektiboan erantzun behar baldin bazaio honi, hemen aipatzen dan moduan, modu kolektiboan partekatu behar dira gai hauek, hitz egin behar da eta jarri behar zaizkio hitzak honi* (A4).

Gaien lanketa (heriotza, dolua, kronika, bestelako gertaerak...)

Arestian maiz aipatu dugu zeintzuk diren liburu honetan harilkatzen diren ildo tematiko nagusiak eta ez ditugu ahots horiek berriro hona ekarriko. Nolanahi, ezin dugu aipatu gabe utzi solaskideek gai horiei guztiei ikusi dizkieten aukera didaktiko aberatsak. Hasteko eta behin, testu genero ezberdinekin aritzeko egokiera aipatu da, esate baterako, kronika: *Nik uste dut kronika hori bera gelara eramatea eta pixka bat, ez dakit, ezagutzea zer gertatu zan* (A4).

Gaiei dagokienez, heriotzaren lanketa egitea aukera bezala ikusi da, esaterako, gutunaren testu generoarekin batera, alegia, ikasleek agur gutun bat idaztea, Moiok egin zuen bezalaxe (hau unibertsitate mailan egiteko aipatu da). Solaskide batek aipatzen du, gainera, heriotza Lehen Hezkuntzatik bertatik agertzen dela haien ikasgelatan, uste baino naturaltasun gehiagorekin. Zalantza sortu da ea galduz doan adinak aurrera egin ahala. Gauzak horrela, horrelako esperientziak eta gaiak elkarrekin partekatzeak izan dezakeen funtzio terapeutikoa ere baloratzen dute: *[...] esperientzia asko partekatzeko beta ematen du klasean bertan, beharbada ba momentuan gaizki pasatzen du pertsona horrek bere esperientzia hori kontatuz baina beste ondokoari bide bat irekitzen dio esanez: "Jo, ez naiz bakarra hau sentitu duena, ez? Eta zilegi da hau sentitzea eta aukera bat eman behar diot nire buruari gaizki sentitzeko ere, gero ondo sentiarazteko"* (AX).

Heriotzaz gain, dolua bera langai izatea ere beharrezkotzat jo dute: *Nik bai jarriko nuke fokua doluan. Ez dolua bakarrik heriotza bat dagoelako edo dolu bat, ez dakit, suizidio bat egon dalako, ez. Jarriko neuke dolua aldaketan, ezta? Zu pertsona bat zinen edo egoera baten zeunden baina beste egoera batetara pasa zara, ahal da izan haurtzarotik nerabezarora, ez dakit, zure identitate sexualari dagokionez, genero identitateari dagokionez eta* (A15).

Gai horiek lantzearekin batera, gure testuinguruan gertatu diren bestelako antzeko gertaera batzuekin lotura egiteko abagunea ere argi antzeman da, nolabait kasu konkretu batetik abstrakzio handiagora igaroz.

4.2.4. Irakurketaren faseak eta horien dinamizazioa

Irakurri aurretiko fasea

Literaturaren didaktikan maiz aipatu izan da zein garrantzitsua den irakurketaren fase guztiei erreparatzea, irakurri osteko ebaluazio fasera muga ez dadin. Hori horrela, irakurri baino lehen egiten dena oso balia-

garria izan daiteke aurrezagutzak aktibatzeko, hipotesiak egiteko, gaiaren inguruko informazioa bilatzeko, interesa pizteko... Horren oso kontziente dira partaideak eta hainbat ideia otu zaizkie: *[...] ezagutzea zer gertatu zan eta horren inguruan ekartzea gelara bakoitzak bere bizipenak, abiapuntu polita izan ahal dala eta aukera asko zabaltzen ditxuela [...] Eta pixka bat interesa sortzeko, gaia bera aurkezteko [...]. Informazioa bildu dezatela, ea zer gertatu zen, zer dakiten, bestelako kasuak, eta gero jo igual irakurketara* (A4).

Irakurri bitarteko fasea

Irakurri bitarteko faseari ere dagokion garrantzia aitortu behar diogu, modu asko baitaude obra bat irakurtzeko: ahopean ala ozenki, bakarka ala taldean, ikasgelan bertan ala etxean, dena jarraian ala kapituluka... Erabaki horiek modu kontzientean eta sistematizatuan hartzea funtsezkoa izango da gaitasun literarioa, zentzu zabalean, bermatzeko: *Ba nik uste dut kapitulu bakoitzak ematen duela berea, eta egin daitezkeela pausak irakurketan, ez dela zertan jarraian irakurri beharreko liburu bat, edo bai, ez dakit. Nik uste dut hor aukera ezberdinak zabaltzen direla* (A4).

Irakurri osteko fasea

Irakurri osteko fasean parada egitea, tradizioz, ohikoa izan da; baina edonola ere, arreta jarri behar zaio egiten denari eta horrek daukan helburuari. Ez da berdina izango irakurri osteko bakarkako lan edo azterketa bat egitea edo tertulia literario bat egitea, esaterako. Solaskideak ados daude liburuaren partekatzea ezinbestekoa dela kasu honetan, eta nolabaiteko elkartze kolektiboa behar duela obrak: *Eta bukaeran bai, eta Amaiak (Amaia Alvarezen hitzaldiari erreferentzia) esaten zuen lehen, nik bai ala bai partekatu egingo nuke irakurketa hau, ez? Uste dut kasu honetan dala ezinbestekoa* (A4).

Partekatzearen garrantziaz gainera, liburuak iradokitzen dituen gai ezberdinen inguruko lanketa espezifikoa egiteko ere aprobetxa daiteke osteko fase hau: *Bullyinga bera sartu daiteke hor, buff, hari pila bat. Hari pila bat daude hemen eta heltzeko gai asko, nik uste dut tertuliarako ere gai polita dela, ikasleekin egiteko tertulia bat* (A4).

5. Ondorioak

Lehen helburuari lotuz, Alvarez-Uriak (2022) esaten du emakume idazleek estilo nahiz ahots propioa garatu behar dutela. Ahots guztiak bat etorri dira Kattalin Minerren *Moio. Gordetzea ezinezkoa zen* (2019) testuan, premisa hori betetzen dela. Estilo hori ikusi dute kazetaritzarekin lotzen,

egunerokotasuna kontenplatzen; hurbiltasunean, errealitatea bertatik behatzen; zuzentasunean eta argitasunean; ahots propioa nahiz anitza erabiltzen. Nitik idazten baina memoria kolektiboari keinu eginaz. Estilo nahiz ahots propio horren beste indargunea landuriko gai tematikoetan antzeman dute. Bat etorri dira ahotsak gai nagusiak transexualitatea, suizidioa, eta dolua (Alvarez-Uria, 2019) direla esaten. Ekarpenik nagusiena, ordea, protagonistaren suizidioaren atzean dagoen transfobian nahiz eginiko ikusgarritasuna lanean (Castillo & Retolaza, 2013) ikusi dute. Halaber, suizidioak utzitako galderak, minak, emozioak, gogoeta soziala eta politikoa gogoratu dituzte. Horrela, Minerrek erabilitako begirada soziopolitikoa (Retolaza, 2019; Alvarez-Uria, 2019) gertakariak jasotzetik eta dokumentatzetik (Alvarez-Uria, 2019) haratago doala eta Amaia-Aimar Elosegiren heriotzaren oinarrian transfobia dagoela ondorioztatu dute.

Bestalde, eztabaida zabala sortu da literatura den edo ez planteatzeko orduan. Literatura dela esateko definiziorik zabalenean hartu dute oin. Literaturak autobiografiatik, autofikziotik eta estilo diferenteetatik edaten duela eta, bat etorri dira literatur testu bat dela esaten. Kazetaritza, literatura, saiakera aipatu dira. Horren harira bat egiten dugu Aiora Sampedrorekin (2019) Miner lurralde intimoegietan sartu dela dioskunean eta kazetaritzatik baino autoentseguaren generotik hurbilago dakusenean. Ahots askorekin eta ikuspegi ezberdinetatik kontatu du: dela elkarrizketa, narrazioa, kronika, argazkia, gutunak (Alvarez-Uria, 2019). Halere, ahulguneak ikusi dizkiote eta aipatu dute gaiaren inguruko bibliografia falta; testigantza hain garrantzitsua izanik ahozkoen falta eta azkenik, kritikarik nagusiena liburuak duen indargune aipatuenetatik etorri da, hau da, testigantzak eta teoria parean jartzearen indargunetik. Zentzu horretan, alderdi bakoitzak eskatzen duen garapena laburregi geratu dela pentsatu duenik izan da. Hau da, aspektu bi horiek elkarrekin hain aberasgarri suertatu direnak, banaka gehiago ez lantzeari ahulezia zantzuak antzeman dizkiote.

Lehen helburuari loturiko ondorioekin bukatzeko, Fittipaldiren (2012) erantzun literarioetan sailkatu eta sintetizatu dira tertulian esandakoak. Erantzun pertsonalari begira, nitik idatzia egonik, heriotzarekin, doluarekin transexualitatearekin loturiko gogoetak sortu ditu. Irradiazio efektua eta memoria kolektiboa (Alvarez-Uria, 2019) azpimarratu dira. Familiak gaiarekiko eginiko jabetza prozesua eta gizarterantz izan duen irradiazio efektua erreskatatu beharreko bi kontzeptu lez ikusi dira. Hortxe kokatu dituzte, hain zuen ere, intertestua nahiz erreferentzia kulturalak. Agur horrek nitik kanporantz bidaiatu izana aipatu da. Familia-

rekin, lagunekin, eskolarekin, militantzia feministarekin, kultur munduarekin, literatura feministarekin loturak eta elkarrizketak eginez, eta nola ez, irakurle bakoitzarengan hausnarra eraginez. Ikusi da testuaren irakurketa pertsonala eta soziala izan dela. Ondorioz esan genezake ikerketa honen lehen helburua bete dela eta kritika nitik abiatu arren, norbanakoaren irakurketatik, irakurketa eta interpretazio kolektibora salto egin duela. Interpretazio horien kategorizazio osteko analisiak (Rivera et al., 2020) literatur kritika modu kolektiboan nahiz zientifikoan egitea ahalbidetu du tertuliaren idea axialak sortuz eta beronen ondorioak marko teorikoarekin lotuz.

Bigarren helburuari helduz, lehenik eta behin hartzailearen profila zehazteari eta gaia gelan justifikatzeari heldu diote. Ikusi dute DBHn nahiz batxilergoan irakurtzeko liburu egokia dela, 12tik 18 urte bitartean ikasleek euren identitatea garatzen ari direlako. Dena den, aipatu dute laugarren DBHtik aurrera lantzea komeni dela, anartean tratatzen diren gaiak ulertzeko ez dutelako ez heldutasunik ezta hizkuntza gaitasunik ere. Liburua eskolan txertatzeko orduan berezko konpetentziak aipatu dituzte eta esan dute liburu honekin bete-betean betetzen direla izaten ikastearen konpetentzia, norberaren burua onartzen ikastearena, elkarrekin bizitzen ikastearena, aldamenekoa onartzearena eta azkenik, taldean lanean ikastearen konpetentzia. Etapan lantzen diren berariazko konpetentziekin asmatzeaz gain, Hezkidetza planean kontenplatzen diren genero indarkeria nahiz genero eraikuntzaren inguruan gogoeta egiteko oso liburu egokia dela ikusi da, batez, ere identitatearen eraikuntzan bete betean daudelako adin tarte horretan. Esan dute gelan kasu bat baino gehiago ikusten dituztela urtero heteronormatik ateratzen direnak eta bizi dutenarekin oso desinformatuta daudenak.

Testuaren arlo didaktikoari erreparatuz, ondorioztatu dute irakurketa motak lantzeko orduan nahiz gai ezberdinei heltzeko tenorean aukera ezberdinak eskaintzen dituela testuak. Horrela, irakurketa aukera anitzak ikusi dizkiote liburuari, didaktikaren aldetik. Irakurketa partekatuaren (Lomas, 2020) aldeko apustu argia egin dute guztiek (batik bat, gaien izaeragatik). Gaien lanketan heriotza, dolua, kronika eta bestelako gertaerak aipatu dira. Gai horiek lantzearekin batera, doluan oinarriturik, testuinguruan gertatzen diren bestelako antzeko gertaera batzuekin lotura egiteko abagunea ere argi antzeman dute, nolabait kasu konkretu batetik abstrakzio handiagora igaroz, hau da, etenik gabeko trantsizioan eta galeran gaudela kontuan izanik, egoera batetik bestera pasatzeak da-

karren sufrimendua edo sentimenduak lantzeko abagunea, dela adina, dela galera, dela heriotza...

Azkenik, irakurketaren faseei eta horiek dinamizatzeari begira, ikusi da hiru faseetan lan egokiak egin daitezkeela. Horrela, irakurri aurretiko fasean gertaturikoaren inguruan informazioa gehiago bildu dezaketela ikusi da zer gertatu zen gehiago jakitearren edota ikusi bestelako kasurik ezagutzen duten eta zer dakiten horien inguruan eta ondoren irakurketari ekin. Irakurri bitarteko fasean ikusi da kapitulu bakoitzak berea ematen duela, eta irakurketan pausak egin daitezkeela, ez delako zertan jarraian irakurri beharreko liburu bat. Liburuak testigantza eta teoria elkartzeak eta kapitulu bakoitzak bere autonomia izateak aukera anitzak zabaltzen ditu irakurketan aurrera eginahala. Irakurri osteko fasean partekatzean jarri da mira, liburuaren partekatzea ezinbestekoa dela ikusi da kasu honetan (Alvarez-Uria, 2022), eta nolabaiteko elkartze kolektiboa behar duela lanak. Partekatzearen garrantziaz (Correro & Real, 2019) gainera, liburuak iradokitzen dituen gai ezberdinen inguruko lanketa espezifikoa egiteko ere aprobetxa daitekeela ikusi da irakurketa osteko fasea. Ikasleekin tertulia bat egiteko liburu aproposa dela ikusi da, *bullying*a bera hizpide izan daiteke gai nagusiez gain.

Eginiko kritika kolektiboak (Lasarte & Perales-Fernández-de-Gamboa, 2021a) nahiz jakintzen eraikuntza kolektiboak (Mercer, 2017) agerian utzi du *Moio* testu interesgarria dela DBHko azken ikasmailetan nahiz batxilergoan lantzeko. Estilo propioagatik eta mahai gainean jartzen dituen gaien hurbiltasunagatik, dela transgeneroa, suizidioa, dolua, transfobia, osasun mentala. Gaiak guztiak ere, adin tarte horretarako egokiak identitate eraikuntzarekin lotzen direlako, betiere aldez aurretik landuta, hartzaileen egoerak ikertuta eta irakaslearen bitartekaritzarekin lagunduta (Ballester, 2015).

Laburki, beraz, ikerlan honek ekarri dizkigun ondorio nagusietatik, bi azpimarratuko genituzke, nagusiki. Batetik, aitortzekoa da aztergai dugun obrak transfeminismoaren gaiaren baitan ekarpen oso esanguratsua egiten duela eta horrek irakurle taldeetan fruitua eman dezakeela. Bestetik, hezkuntzaren esparrura jauzi eginez, liburuak gazteen oinarrizko gaitasunetan eragiteko ahalmena duela iritzi diote partaide izan diren irakasleek, hezkuntza literarioan aurrera egiteko ez ezik, errealitate sozialen inguruko jarrera eta eztabaida kritikoa ere sustatzen baitu. Hori horrela, etorkizunera begira, interesgarria litzateke liburua hezkuntza formalera eramatea eta prozesu horiek ere ikergai izatea. Horrekin guz-

tiarekin batera, eta amaitzeko, beharrezkoa izango da literatur kritika feminista eta kolektiboa egiten jarraitzea eta praktika hori zabaltzea euskal testuinguruan ditugun eta izango ditugun bestelako obrekin ere, horrek ahalbidetuko baitugu ezagutza elkarrekin eraikitzea.

6. Bibliografia

Aguilar, C. (2017). La tertulia pedagógica en el practicum en la formación inicial de maestros y maestras. *Revista Iberoamericana de Educación*, *2,* 9-22. <https://doi.org/10.35362/rie732198>

Alvarez-Uria, A. (2011). *Genero eta nazio identitateak Katalina Eleizegiren antzezlanetan* [Doktorego tesia]. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).

Alvarez-Uria, A. (2019). Ez naiz inoiz izango naizen bezalakoa. *Argia*, 2019-11-17.

Alvarez-Uria, A (2022). Literatur kritika feminista. Irakasleentzat tresnak eta irizpide didaktikoak. Hitzaldia. UEU. 2022/07/05.

Bakthin, M. (1981). *The dialogic imagination. Four essays*. University of Texas Press.

Ballester, J. (2015). *La formación lectora y literaria*. Graó.

Bombini, G. & Lomas, C. (2020a). Otra educación literaria. *Textos de Didáctica de la Lengua y la Literatura, 90*, 4-6.

Bombini, G. & Lomas, C. (2020b). Utopías y distopías en la enseñanza literaria. *Textos de Didáctica de la Lengua y la Literatura*, *90*, 7-14.

Bourdieu, P. (2000). *La distinción. Criterio y bases sociales del gusto*. Taurus.

Bronckart, J. P. (2007). *Desarrollo del lenguaje y didáctica de las lenguas*. Miño y Dávila.

Castillo, I. & Retolaza, I. (2013). *Genero ariketak. Feminismoaren subjektuak*. Edo editoriala.

Cerrillo, P. C. (2007). *Literatura Infantil y Juvenil y educación literaria: Hacia una nueva enseñanza de la literatura*. Octaedro.

Chocarro de Luis, E. (2013). Las tertulias dialógicas, un recurso didáctico en la formación de docentes. *Historia y Comunicación Social, 18*, 219-229. <https://doi.org/10.5209/rev_hics.2013.v18.44238>

Colomer, T. (1996). La didáctica de la literatura: temas y líneas de investigación e innovación. In C. Lomas (koord.), *La educación lingüística y literaria en la Enseñanza Secundaria* (123-142. or.). Bartzelonako Unibertsitatea.

Correro, C. & Real, N. (2019). La educación literaria en la etapa infantil. In C. Correro & N. Real (koord.), *La formación de lectores literarios en Educación Infantil* (43-65. or.). Octaedro.

Dueñas, J. D. (2013). La educación literaria. Revisión teórica y perspectivas de futuro. *Didáctica (Lengua y Literatura), 25*, 135-156. <https://doi.org/10.5209/rev_dida.2013.v25.42239>

Egaña, I. (koord). (2010). *Desira desordenatutak. Queer irakurketak (euskal) literaturaz.* Utriusque Vasconiae.

Feinberg, L. (2018). *Mari-mutil handi baten bluesa.* Katakrak.

Fittipaldi, M. (2012). La categorización de las respuestas infantiles ante los textos literarios. Análisis de algunos modelos y propuesta de clasificación. In T. Colomer & M. Fittipaldi (koord.), *La literatura que acoge: Inmigración y lectura de álbumes* (69-86. or.). Banco del Libro-GRETEL, SM.

Flecha, R. (1997). *Compartiendo palabras. El aprendizaje de las personas adultas a través del diálogo*. Paidós.

Gabilondo. J. (2006). *Nazioaren hondarrak. Euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak*. EHU/UPV.

Galarraga, H. (2018). *Literaturaren ikas-irakaskuntzan aurrera egiteko album ilustratuek eta ikasgelako elkarrekintzek eskaintzen dituzten aukerak* [Doktorego tesia]. Mondragon Unibertsitatea.

Gil, R. M. (2019). Currículum y primera educación literaria. De la oralidad a la lengua escrita. In C. Correro & N. Real (koord.), *La formación de lectores literarios en Educación Infantil* (31-42. or.). Octaedro.

Gorrindo, K. (1992). *Ni naizen hori*. Txalaparta.

Ibarra, N. & Ballester, J. (2013). La literatura infantil y juvenil en la formación del maestro. *Lenguaje y Textos, 38*, 11-20.

Lasarte, G. (2015). La novela criminal vasca y el lesbianismo: Amaia Ezpeldoi, detective *queer*. In E. Losada & K. Paszkiewicz (ed.), *Tras la pista. Narrativa criminal escrita por mujeres* (147-161. or.). Ikaria.

Lasarte, G. & Alvarez-Uria, A. (2014). *Gorputza eta generoa. Teoria, didaktika eta esperientziak.* UEU.

Lasarte, G. & Perales-Fernández-de-Gamboa, A. (2021a). Karmele Jaioren *Aitaren etxea*ren kritika kolektiboa eta feminista: proposamen metodologiko berritzailea. *Fontes linguae vasconum: Studia et documenta, 53*(132), 497-514. <https://doi.org/10.35462/flv132.8>

Lasarte, G. & Perales-Fernández- de- Gamboa, A. (2021b). *Literatur klub feministen bisibilizazio premia.* Vitoria-Gasteizko Udaletxeko I. Berdintasun Sariaren memoria.

<http://www.literaturagendafeministaksarean.org>

Lasarte, G. & Perales-Fernández-de-Gamboa, A. (2022). Irakurle klub feministak literatur kritika feminista eta kolektiboaren erakusleiho: Marimutil handi baten bluesa. *Euskera* aldizkaria (prentsan).

Littleton, K. & Mercer, N. (2013). *Interthinking: Putting talk to work.* Routledge.

Lomas, C. (2020). ¿Las mariposas tienen lengua? De la ficción literaria a la ficción cinematográfica. *Textos de Didáctica de la Lengua y la Literatura*, *90*, 41-46.

Mercer, N. (2017). La importancia educativa del habla. In M. Neil, L. Hargreaves & R. García (koord.), *Aprendizaje e interacciones en el aula* (15-35. or.). Hipatia Press.

Miner, K. (2014). Emakume-gorputzak eta gorputz emakumetuak: Leire Bilbao eta Miren Agur Meaberen gorputz poetikoen arteko elkarrizketa bat. In G. Lasarte & A. Alvarez-Uria (2014). *Gorputza eta generoa. Teoria, didaktika eta esperientziak* (51-62. or.). UEU.

Miner, K. (2017). *Nola heldu naiz ni honaino*. Elkar.

Miner, K. (2019). *Moio. Gordetzea ezinezkoa zen.* Elkar.

Miner, K. (2020). *Empar Pineda.* Hernaniko Udala. Berdintasun saila.

Miner, K. (2020). *Turista klasea.* Susa.

Palou, J. & Guash, O. (2013). Presentación del monográfico. Análisis de diálogos para el aprendizaje de la lengua y la literatura. Reflexiones metodológicas. *Cultura y Educación, 25*(4), 421-427. <https://doi.org/10.1174/113564013808906834>

Perales-Fernandez-de-Gamboa, A. (2022). Eskoletan irakurtzen duguna nola deskanonizatu. Proposamen batzuk. Hitzaldia. UEU. 2022ko uztailan.

Rekalde, I., Alonso, J., Arandia, M., Martínez, I. & Zarandona, R. (2014). Las tertulias dilógicas literarias en los procesos de enseñanza universitarios: reflexiones desde la práctica docente. *Revista de Formación e Innovación Educativa Univesitaria, 7*(3), 155-172.

Retolaza, I. (2010). Begirada lesbiarrak Itxaro Bordaren nobelagintzan. In I. Egaña (koord.), *Desira desordenatuak. Queer irakurketak euskal literaturan* (125-138. or.). Utriusque Vasconiae.

Retolaza, I. (2019). Auzia politikoa den heinean. In K. Miner, *Moio. Gordetzea ezinezkoa zen* (99-112. or.). Elkar.

Rojas, Y. (2015). Conversación, construcción colectiva de conocimientos y producción textual. *Revista Oralidad-es, 1*(2), 179-190.

Sancho, E. (2016). Las tertulias literarias dialógicas. *Textos de Didáctica de la Lengua y la Literatura, 74*, 69-73.

Sampedro, A. (2019). Ez zena izendatzea eta oroitzea. *Berria*, 2020-05-17.

Quecedo, R. & Castaño, C. (2003). Introducción a la metodología de investigación cualitativa. *Revista de Psicodidáctica, 14*, 5-40.

Vygotsky, L. (1977). *Pensamiento y lenguaje*. La Pléyade.

Vygotsky, L. (1979). *El desarrollo de los procesos psicológicos superiores*. Crítica.

Bernard Etxepareren *Doctrina Christiana* eskuztatzen

Rereading *Bernard Etxepare's* Doctrina Christiana

Patxi Salaberri Muñoa
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Hautatu eta bereizi beharra,
horra gizakiari eman izan zaion dohaia eta zigorra
Koldo Mitxelena

Jasotze data: 2022.02.23 Onartze data: 2022.03.30

Laburpena

Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* (1545) liburuaren baitan argitaratu *Doctrina Christiana* nabartu-pikardatuan ez ditu ulertze-bideak lar errazten gaiak desberdindu gabe eta jarraian azaltzen dituzten bertso-lerroen eraketak. Haren baitan dautzan koherentzia-hariak bereizi eta ezartzea besterik ez du bilatzen artikulu honek, eta horretarako, osagaien disekzio heterodoxo batez baliatuko da, betiere irizpide tematiko eta formal objektibotan oinarrituta.

Gako-hitzak: B. Etxepare, *Doctrina Christiana,* koherentzia, berrirakurketa.

Abstract

The variegation of the edition in chained lines and without thematic differentiation of the *Doctrina Christiana* inscribed in the book *Linguae Vasconum Primitiae* (1545) by Bernard Etxepare presents objective difficulties for its correct comprehension. The present essay aims to establish the lines of coherence of the same and offers for this purpose a heterodox dissection of its various elements on the basis of both thematic and formal criteria.

Keywords: B. Etxepare, *Doctrina Christiana,* coherence, rereading.

1. Iturantz destatzen. 2. *LVP*ren barne-multzokatze klasikoak. 3. *Doktrina Kristiana (DK).* 4. Beste begirada bat saiatzen. 5. *DK*ren gai-taxuketa. 6. Atalak bereizten. 6.1. Sarrera. 6.2. Eguneroko beharkizunak. 6.3. Igandeko beharkizunak. 6.4. Gogoeta-gaiak. 6.5. Otoitzak. 6.6. *DK*ren osagarria: "Amorosen gaztiguia". 7. Bibliografia. Eranskina: Irakurketa-proposamena. Bernard Etxepare DOKTRINA KRISTIANA.

1. Iturantz destatzen

Testu klasikoak modernotzearen aldeko zale sutsu izan gabe ere, edonork daki, edo sumatzen du bederen, Bernard Etxepareren *Lingua Vasconum Primitiae* (aurrerantzean *LVP*) liburuttoaren barneko *Doctrina Christiana* (aurrerantzean *DK*) atalak biziki eskertuko lukeela alderdi tematikoa –edo erlijiosoa, nahiago bada– argiagotzeko saioren bat eskainiko balitzaio. Izatez, argitaratua izan den moduan hartuta, hau da, bertso-lerroak segidan emanda eta gai-multzoak bereizi gabe, testuaren jarioa berez dena baino astunago eta ilunago suertatu ohi zaio irakurleari, lanbrotze orokor horri, ondorio gisa, beste efektu kaltegarririk ere isurtzen zaiolarik, besteak beste, lausoago bilakatzen direla Etxeparek erabilitako koherentziak, garapen-moduak eta baita –eta ez da hau gutxiestekoena– forma poetikoak berak ere.

Generoak genero eta urruntasunak urruntasun (konparazio grafikorako baino ez baitakargu adibidea hona), antzeko zerbait gertatu bide zitzaion Etxepareren garaikidea eta, aldi berean, "tránsfuga de la *Devoción moderna* al Humanismo" (García Villoslada, 1956, 350. or.) izan omen zen Erasmo Erroterdamekoaren *Eromenaren gorespena* liburuari ere: haren irakurketa hagitz azkartu zen A.-G. Meusnier de Querlon-ek, 1765ean, liburuaren atal bereizketa taxuz burutu eta 68 kapitulutan finkaturik utzi zuenean.

Etxepareren ekarpena argiago ager daitekeela sinetsirik, bada, liburuttoaren alderdi ilunpetu eta ilunpetsuena birpasatu nahi izan dugu honako honetan, *Doktrina*ren atalak –ordura arteko tradizioan errotuak, bestalde (ikus Aldekoa, 2010)– identifikatuz eta, ustez behintzat, egokiago

bereiziz eta desberdinduz, betiere xede nagusia haren irakurketa erraztea dela ahaztu gabe.

Ulerbidea laharrez garbiago uzteko, doktrinaren ustezko hariez, logikaz eta garapenaz arituko gara, oro har, jarraian. Irudipena dugu Etxeparek liburuan barrena ondutako formei ere, batik bat estrofei dagozkienei, aratzago eta koherenteago iritziko diela irakurleak horrela. Orrialdeetan barrena aditzera emango den horren guztiaren laburbiltze praktikoa eta grafikoa izatea besterik ez du espero amaierako eranskinak.

2. *LV*Pren barne-multzokatze klasikoak

Argiegi ez dauden disekzio-irizpideak baliatu ohi badira ere, ezaguna da 1545eko edizioaren *kopla*-hurrenkera hausten ez duten hamabost osagai (pieza? poema? kopla?[1]) desberdineko bildumatzat hartzen dela Etxepareren *Lingua Vasconum Primitiae* liburua.

Horrezaz gainera, ohiko irakurketan erabili izan den taxuketa –hitz lauzko hitzaurre gisakoaz gaineko koplena, alegia– aipatu hamabost piezak lau multzotan bereiztera mugatu da[2]. Horrela, doktrina kristauari dagozkion bertso-lerroen sorta luzeak (ia liburuttoaren erdiak) osatu ohi du lehen multzoa (I), maitasunezkotzat hartu izan diren hamaika *koplek* (II-XII) osatu dute bigarrena, autobiografikoa bide den hurrengo poemari (XIII) egokitu zaio hirugarren "multzoa", eta amaierako kanta moduko biek (XIV-XV) eratu ohi dute azkena.

Ezin jakin, dena den, autonomotzat jotzen diren piezak bereizteko, bakoitzaren izenburuaren aurreko paragrafo-zeinua edo antigrafoa (¶) hartu izan den irizpide nagusitzat, baina badira, halere, horrelako zeinurik eraman ez arren, salbuespentzat jo behar izan direnak –horrela berresten omen da araua–, poema gisa hartutako besteren bat[3] baino arras

[1] Izendapen hauek ez dira gure uztakoak, bibliografian ikus daitekeenez, eta, besterik adierazi ezean, sinonimo gisa erabiliko dira hurrengo orrialdeetan.

[2] Kopla eta bertso-lerroen erreferentziak, lehendabizi Lafonek (1999 [1951]) eta gero Altunak 1980an paratutako edizio kritikoan emandako eran eskainiko dira lan honetan, hots, lehendabizi pieza, poema edo bertso-sortaren zenbakia sistema erromatarraren arabera jarria, eta segidan bertso-lerroei dagozkien ondozkapen-zenbakiak.

[3] Poematzat hartu ohi den tetrastiko bakarreko XI. *kopla* dugu bitxiena eta ez, laburra izanagatik, argiena. Honela mintzo zen Lafon: "L'absence de toute ponctuation accroit encore l'obscurité de cette petite piece. On ne sait meme pas si les quatre vers sont placés dans la bouche de la meme personne. Le seul point clair est qu'il s'agit d'une dispute. Ce quatrain, dont le titre forme un vers, est écrit dans le meme metre que la piece précédente. S'agit-il de la meme femme? Est-ce un épilogue de la piece qui précede?" (Lafon, 1999 [1952], 784. or.).

poemago baitira, esate baterako, "Mossen Bernat Echaparere cantuya" eta "Contrapas" izenekoak (XIII.a eta XIV.a, hurrenez hurren).

*DK*ren barruko 450 bertso-lerrotan barrena ere hirutan azaltzen da besteetan poema-identifikatzailea bide den antigrafoa eta, horretan oinarri hartuta edo, *zati*-mugatzaile hustzat jo izan da. Eta nabarmendu nahi genuke *zati* hitza, zeren honetan –erlijioaren eremu lokaztuen abantailak, antza– inor ez baita ez poemaz eta ez koplaz mintzo. Hortik, beraz, bertan antzeman izan diren tamaina zeharo desberdineko hiru *zati* edo *parteak*: "Doctrina Christiana", "Hamar manamenduyac" eta "Iudicio generala"[4].

Halamoduzko logika horren ondorioz, *DK* zipriztintzen duten antigraforik gabeko izenburudun zatiek ez dute trataera bera jaso[5], nahiz eta haietako batek hasieran "Iudizio jenerala"k ere ez daraman kapitulu-letra distiratsua eraman buruan[6].

Erantsi beharrik ez da disekzio eta multzokatze-formula horrek, *zati* eta *koplen* arteko ustezko[7] antz eta desberdintasun kategorizatugabeetan oinarritzean, aurreneko interpretazio-karraju meharra ezartzen diola

[4] Honela laburtzen du Aldekoak (2010, 3-4. or.): "La obra está dividida en tres partes. En la primera, el autor se extiende desde una primera enseñanza dogmática de la fe cristiana hasta el aparejo o preparación para la muerte, dejando en medio enseñanzas sobre algunos sacramentos (bautismo, eucaristía, penitencia, extremaunción) y preceptos de la Iglesia (oir misa, confesión). En la segunda parte, de manera sumaria y sin ningún desarrollo posterior, se exponen los mandamientos de la Iglesia, y la tercera esta dedicada al Juicio final".

[5] Diogun moduan, izenburu hutsak ez du parterik, atalik edota poemarik nortzeko baliorik izan eta, hori dela bide, besteren osagaitzat geratu dira, esaterako, izenburudun nabarmen diren "Orazione igandeko" (I, 58-hk), "Harmak erioaren kontra" (I, 180-hk) eta "Orazionia" (I, 389-hk) izenekoak. Esan behar da, bestalde, azken "Orazionia" honek erraz asko "zuri" zezakeela laugarren parte bat, Judizio Unibertsalaren ondoko otoitz atal luzea jasoz. Tamalez, kapitulu-hizkirik bai baina antigraforik ez ageri.

[6] Bi motako edo, tamainari so eginez gero —ba ote horrek hemen garrantzirik?—, hiru motako kapitulu-letrak baliatzen dira *LVP*n pieza edo poemen hasieran, guztiak birritan baizik ez errepikatuak: a) txikiena (bi lerroren zabalerakoa), xumeena eta hornidurarik gabeko mota (A letra I, 389.an, "Orazionia"-ren hasieran, eta B hizkia IX.ean); b) handiena (bospasei lerroren zabalera hartzen duena) eta hornidurez ikusgarriena den kapitulu-letra (eskaintza-gutunaren buru-burukoa [E letra] eta bukaeran dagoen frantsesezko "Extrait" antigrafodunak daramana [S letra]); c) eta, azkenik, hornitua eta erdiko tamainakoa den hizki mota (hiru lerroren zabalerakoa: M hizkia I, 1ean eta A letra I, 214an).

[7] Honako lan honek Etxepareren bertso-lerroen irakurketa hertsia egiteari heldu nahi dion arren, argi da hipotesiek eta "ustezko" hitzek aginduko dutela ibilbidean zehar. Barka bekigu, beraz, etengabe inplizituki dagoena agerian jartzen ez badugu beti.

irakurle jasankorrari. Baina kanpandorrera daramaten zurubi kiribilei ez bezala, honako honi ez zaio falta bestetara aiseago gaindi litekeen estutasun gaitzik.

Beste disekzio eta sailkatze-molde batek, beheraxeago erakusten saiatuko garenez, ikuspegi aberatsagoa ekar lezake hizpide dugun *doktrina*ren irakurketara behinik behin, eta, akaso, *kopla* edo *parte* direlakoen interpretazioa bera ere beste norabideren baterantz bideratu. Horietako bat izan liteke, esaterako, Lafonek mahairatu eta orain arte behintzat ebatzi gabe dagoen auzi interesgarri bati buruzkoa, hots, ea pieza guztiak kantatuak izateko onduak zirenetz edota, erantsiko genuke guk hemen, ea, doinuak gorabehera, kantatuak izateko baldintzak betetzen zituztenetz[8].

Edonola ere, aipatu partiketa hirukoitz zurrunean oinarritu izan dira *DK*ren irakurketa-proposamenik ezagunenak, kontutan hartu ere gabe horrela jokatuz, nabaria den bezala, batetik erlijiozko sail osoaren hasierako lerroburu nagusi eta orokorra dena ("Doctrina Christiana") arras parekatuta geratzen dela haren barneko atal-izenburu huts diren beste biekin ("Hamar manamenduyac" eta "Iudicio generala"), eta, bigarrenik, ez dela berdin jokatzen izenburu larri diruditen eta letrakera berdina daramaten beste bi izenbururekin, hots, "Harmac eryoaren contra" izenekoarekin (I, 180-199) eta, batik bat, guztiz autonomoa izateaz gainera, "Iudizio generala" delakoak ere buruan ez daraman kapitulu-letra argia –kopla bat bereizteko zeinutzat ere har litekeena eta "Amorez errequericia" poemak daramanaren parekoa eta tamainakoa (IX, 1-2) dena, alegiaduen "Oracionia" delakoarekin (I, 389-448).

Hein handi batean, beraz, literatur diskriminazio-ezaugarri araztzat hartu ohi da edonondik begiratuta ere editore eta inprimatzaileen irizpide zalantzakorra, tipo-falta, trebetasun eza edo akats hutsaren fruitua bide dena.

3. *Doktrina Kristiana* (*DK*)

Taxuketak taxuketa, begi-bistakoa da *DK*n hasieratik bertatik azaltzen direla, nahasirik baleude bezala, erredundanteak diruditen ideiak,

[8] Honela uste zuen Lafonek: "La *Doctrina Christiana* et meme, malgré son titre, la «chanson» de M. Bernard Echepare ne l'ont certainement pas été. Elles sont trop longues, et, de plus, elles contiennent des strophes dont le nombre de vers n'est pas toujours le meme (4, 5 et 6)" (Lafon, 1999 [1957], 796. or.). Hemen proposatuko denaren arabera, ustezko "irregulartasun" horiek ez dira zertan anomalia izan eta are gutxiago ziratekeen kantatuak izateko estakuru.

Jainkoaz eta hark egindakoez oroitzeko deiak, erlijiozko formulak, hausnarketarako eta onbideratzeko gomendioak, betebeharretarako "agindu" praktikoak, pasarte narratiboak, eta han-hemenka, adizki neutroko estrofa-multzoen tonua hautsiz, hitano zuzenez zipriztindutako pasarteak.

Erlijioaren handia *dotrina* xumera jaisteko metodotzat har liteke hori guztia apika, baina irakurlearen kezka nagusia ez da azalpen horrekin itzaltzen. Are gehiago, batzuetan doktrina-multzo erraldoi horretan arras da zail zuhaitzak –barka metaforaren herbala!– zuhamuxketatik eta are laharretatik eta belar arruntetik bereizten. Eta, ondorioz, eragotzi egiten zaio irakurleari atalak behar bezala irakurtzeko eta ulertzeko bidea. Zeren eta erlijiozko gaiak berez gerta badaitezke irensgaitz eta lehor, *DK*n zehar begietaratzen den nahasmahasa bera gerta liteke irakurlea bertsoak irakurtzetik –edo, hoberenean, arretaz irakurtzetik– gibelaraz lezakeen arrazoia edota, zintzo irakurtzen segitu arren, barrenean dauden ahapaldirik esanguratsuenez eta lirikoenez ere konturatzeko igarotzeko zioa.

Estrofa-multzoen ia etenik gabeko luzera eta *dotrinek* berezko duten gai- eta formula-aniztasun anabasatsu erredundanteak genituzke, bada, kementsu hurreratzen zaion irakurleari adorea apal liezaioketen lehen faktoreak.

Ez dirudi, bestalde, erlijiozko tematika gotorreko atala izateak 450 bertso-lerroko multzo osoa pieza bakartzat hartzera behar lezakeenik. Eta ez da askoz egokiagoa hiru zatiko banaketan oinarritutako irakurketa ere, tamaina zeharo desorekatuko hiru "parte" horiek –"Doctrina Christiana" [I, 1-213], "Hamar manamenduyac" [I, 214-225] eta "Iudicio generala" [I, 226-450]– ezer gutxi xamur baitezakete *DK*ren ulertze-maila, batez ere direlako multzo horien baitan hamaika elementu zeharo desberdin eta, ustez, bateraezin aurkitzen direnean, eta batik bat guztiak ez maila bereko eta ez autonomia-gradu berdinekoak.

Begi-bistakoa da interpretazio horretara daramaten atal-izenburuak ez direla inondik ere gainerako poemen izendapenen pareko, eranskin deskribatzaile hutsa baizik. Eta areago: aurreneko idazpurua ere ("Doctrina christiana") ezin dela geroagoko beste bien mailakotzat hartu, izatez, hasieratik amaierarainoko *corpusa* edo *doktrina* bera izendatzeko generikoa baita argi eta garbi.

Lerroburu horiek, beraz, balio dutena besterik ez dute balio, eta inoiz ezer ulertuko bada, haien balioa eta funtzioa ulertzetik abiatu behar da.

Hartara, Etxeparek emandako konfigurazioari eta hitzen bidez –ez kaligramen bidez– jakinarazten duenari heldu behar zaie arretaz, gehiago bereizi behar direnak taxutuz eta finkatuz, eta betiere liburuak islatzen duen linealtasun gorabeheratsua –eta eman uste zitzaion koherentzia-haria– ezbaian jarri gabe, ahapaldi eta bertsoek duten segida urratu gabe eta, ahal delarik, irakurketa okerregietarako bideak harriztatu gabe.

Adibide xehe bat dioguna argitzeko: (azpi)titulu propio eta guzti erantsita eramanda elkarren artean bereizienak eta esanahiaren aldetik aratzenak diren *DK*ren hasierako hainbat lerroalde (I, 21-57), harrigarriro, "otoitz"tzat jo izan dira tradizionalki. Ardura apur batez begiratzen dionak, horratik, badaki ez direla inondik inora ez *otoitz* eta ez *orazione*, irakurleari[9] luzatzen zaizkion portaera-oharrak baizik. Areago, egunean zehar eta leku desberdinetan debotoki jokatzeko aholku-multzo haren baitan dagoen *otoitz* erako bakarra Ama Birjinari zuzendutako laukoa baino ez da (I, 49-52). Halaz ere, dena jarraian jarrita ikusteak, nonbait, *otoitz*-inpresioa ekarri dio ikertzaile bati baino gehiagori[10].

Gaizki interpretatzeko arrisku gutxiago du, itxuraz, sainduei eskainitako bost bertso-lerroko ahapaldiaren ondoko otoitzak (I, 58-77), ez baita beraiei zuzendutako otoitza. Alegia, izenburu propioa darama ("Oracione igandeco") eta Jainkoari zuzen-zuzen luzatua da. Guztiarekin ere, ez bide du okerra eragiteko aukerarik galtzen[11].

Hori horrela, zilegi da pentsatzea, beste begirada batekin hautematean, bestelako aurpegia azal lezaketela agian *Doktrina*ren orrialdeek, aurpegi konplexuagoa eta aberatsagoa gure ustez, eta, bertso eta estrofen ikuspuntuaren aldetik, biribilagoa ere ziur aski. Eta nonbait zalantza gutxiago legoke atal-zati diruditenetako ez gutxi *kopla* edo poema autonomotzat hartzeko, izan ere, sistema klasiko-tradizionalean poemei eskatu ohi zitzaizkien gutxieneko ezaugarri tematiko-formalak eta autotelikoak erakusten baitituzte oro har.

---

[9] Jasota gera bedi, "irakurle" hitzaren bitartez, Etxepareren liburuaren irakurlea, bestek ozenki irakurri edo kantatutakoaren entzulea zein, oro har, testuaren hartzaile dena adierazi nahi izango dela aurrerantzean.

[10] Honatx, etxekoenetara jo gabe, kanporantz zabaldu den iritzi hedatuena adibide: "[...] *des prières en fonction des* moments de la journée (matin, soir, dimanche), des objets cultuels (crucifix), des lieux (cimetière) dans la *Doctrina* réduite" (Courouau, 2012, 185. or.; gurea da letrakera etzana [hemendik aurrera: g.l.e.]).

[11] "[...] des prières aux saints (dans la *Doctrina*)" (Courouau, 2012, 185. or.). Erantsi behar da sainduentzako otoitzik ez dela *Doktrina* guztian.

*DK*ren egituraketari eta Etxeparek hartarako bilbaturiko koherentzia-hariei erreparatzetik hasi beharko, bada.

4. Beste begirada bat saiatzen

Ebidentzia bat aintzat hartuz hel geniezaioke erronkari. Honatx: izenburuak izenburu, eta "Doctrina Christiana" tituluak espektatiba gaitzak ireki bazitzakeen arren, ez zen Etxepareren asmoa ohiko doktrina bat atontzea[12], eta horrexegatik hain zuzen askietsia zuen zehaztasunik gabeko "cerbait doctrina" bertsotan eskaintzea. Edo hobeto esanda, ikuspegi doktrinal orokorra koplatan eskaintzea zen nahi zuena, bertso haietako batzuk oies samarrak suerta bazitezkeen ere.

Aratza, hortaz, egitasmoa: ez katixima larririk eta ez doktrina sistematizaturik[13], eta bai, berriz, irakurle/hartzailearentzat kristau-sinesmenaren funtsezkoena izan uste zitekeena formula mnemotekniko ikaserrazetan luzatzea[14], planteamendu ez-sistematiko horrek ohiko muga formaletatik at eraman zezakeen arren[15].

Agerikoa da Etxeparek funtsezko jo zuenak sinesmen kristaua ulertzeko molde bat edo beste islatzen duela halabeharrez. Eta bai, izan liteke Etxepareren sentsibilitatean *devotio moderna* delakoaren[16] eraginez bilbaturiko sinesmen-motaren baten aztarnarik egotea *DK*n barrena.

---

[12] Aldekoak dioena dioela ("la doctrina de Etxepare no es en sí misma sino rudimentaria e incompleta" [2010, 7. or.]), jakina da nekez bizkarrera dakiokeela egin zezakeenaren falta huraxe egin nahi ez zuenari.

[13] Etxepareren *DK* garaiko katiximekin kontrastatu ahal izateko, ikus Sánchez Herrero 1986 eta 1990.

[14] Lan honen luze-zabalera dela eta, beste baterako utziko dira bertso-lerroen formatuaz eta haiek kantatzeko erabil zitekeen musikari buruzko oharrak. Halere, ez dirudi Altuna errealitatetik urruti ibili zenik honako hau idatzi zuenean: "Etxepare [...], erdi aroko tradizio luze batean, elizak bereziki gorde, landu eta herriak oso ezaguna zuenean, txertaturik dago" (Altuna, 1981, 327. or.).

[15] "[...] la «Doctrina Christiana» [...] abarca los primeros 450 versos, de un total de 1.159 que componen el libro, sin tener en cuenta los 145 correspondientes al segundo poema, dedicado a la Virgen, con lo que sumaríamos 595 versos. Es decir, la temática religiosa –*DK* bera, esango genuke hemen– abarca más de la mitad del libro" (Aldekoa, 2010, 2. or.).

[16] Honela ulertu izan da *Devotio moderna*: "corriente espiritual que en la segunda mitad del siglo XIV brotó en los Países Bajos [...], corriente que se canalizó en la asociación de los «Hermanos de la Vida común» [...] y en la Congregación agustiniana de Canónigos Regulares de Windesheim, y que en el siglo XV y principios del XVI fertilizó [...] los jardines de los claustros y los anchos campos del pueblo cristiano" (García Villoslada, 1956, 315. or.). Hascher-Burger-ek eta Joldersma-k gogorarazi bezala

Eragin espiritualisten presentzia-hipotesiaren harira letozke, adibidez, gure autorearen jokamoldean sumatzen diren hiru gako nagusi, hots, arima-azterketaren premia, gogoeta xumeak burutzeko komenentzia eta otoitzaren garrantzia[17]. Are gehiago, Etxeparek baliatu bide zituen musika eta doinuek berek ere bazuketen haren eraginik, beste toki batean azalduko den bezala[18]. Alabaina, eta egin izan diren argitze-ahaleginak inolaz ere gutxietsi gabe, sinesmen-*corpus* osatuaren –edo doktrina sistematiko baten– faltak ilun samar uzten ditu oraindik Etxepareren erlijiozko hautuak zehazki ezagutzeko bideak[19]. Eta ez dirudi, tamalez, peritestualitate editorialetan jarritako fedeak uste izan den bezainbeste argi litzakeenik[20].

Funtsezko koherentzia eta garapen teologiko-doktrinalak, bestalde, nekez izan zitezkeen Trentoz geroztik burututako katixima eta dotrina-

(2008, 319. or.), "the Devotio Moderna was closely aligned with developments in late-medieval spirituality across Europe". Eta, jakina, Europa barrena zabaldu bazen, ez litzateke harritzekoa euskal esparruetara ere iritsi izana, besteak beste, Donejakue bidea baliatuz.

[17] *Devotio moderna*ren definiziorik falta ez bada ere, interesgarri izan daiteke García Villosladak (1956, 317. or.) ohiko ezaugarriei (Kristozentrismo praktikoa, aszetismoa, moralismoa, barne-pietatea, mundutik urruntzea...) eransten dizkien beste hainbat gogoratzea, haietakoren bat Etxeparerenean ere azal baitaiteke: otoitz metodikoa, jarrera antiespekulatiboa, subjektibismoa eta izaera afektiboa eta Humanismoarekin zerikusirik ez duen bibliofilia.

[18] Ohartarazi dezagun, esaterako, hainbat gomendio luzatu zituela Gersonek berak Europan barrena trumilka hedatzen hasia zen *Magnificat* delakoa armonikoki kantatu ahal izan zedin. Kanta hark mila inguru musika-konposaketa ezagutu zituen XV eta XVI. mendeetan, tartean Luterok alemaneraz prestatutako bertsioarekin ondu zen interpretazio polifonikoa (c. 1532).

[19] Gogoratu beharrekoa da Erromak 1542an Inkisizioa (berr)abitzean hasi zirela mugimendu hauek guztiak itzaltzen, handiak baitziren, nonbait, mesfidantzak eta protestantismoarekin zituzten antzak (Williams 1983, 13-hk). Etxeparek, halaz ere, zuhurtziaz jokatu zuen erlijiozko gatazkaren erreferentziatzat har bide daitekeena bertsoetara zuenean. Ama Birjinari zuzendutako hitzak dira: "amak eztu sofritzeko semen artian gerlarik;/ samurturik badakutsu gure gaizkiegatik,/ ororen ama zira eta bake gitzazu bertarik" (II, 133-135).

[20] Azaleko antzak gorabehera, Etxeparerenean ez da korronte espiritual ospetsuenetan funtsezko diren hainbat kontzeptu –zail?– aipatu ere egiten. Gersonek bere *Doctrine*ren hasieran bertan sinetsi beharreko lehen puntu bezala dakarren Hirutasun Santua delakoari buruzko erreferentziarik eza da bat: "Premierement nous devons croire et tenir qu il est un dieu en trois personnes q˜ sont le pere et le filz et le saint esperit par qui a este fait et cree tout le monde" (Gerson, ˜1479 [2r^{a}]). Eta harrigarria bada ere, gizakiaren santifikazioan inplizitua omen dagoen Espiritu Santuari buruzko aipamenik ere ez da liburu osoan egiten. Esan dezagun, bidenabar, berdin jokatzen dela Eliza Santari dagokionez.

liburuetakoak bezalakoak, azken hauetan edukiak ondo eta trinko kategorizatuta ekartzearekin batera, ikaragarrizko garrantzia eman baitzitzaien adierazpideen ortodoxiari eta hizkuntzaren zuzentasunari eta zehaztapenari berari ere[21], ahaztu gabe, baiki, *giza-haragia*ren inguruko kontuak eta ahuleziak ere Etxeparek erakutsi ez zuen perspektiba zigortzailetik hartu izan zirela Kontzilio berriaren erabakiz.

Jakina, liburua kaleratu zenetik ia milurteko erdia igarota, urruneko eta lauso geratzen zaio egungo irakurleari hango *doktrina* oro. Gainera, *DK*ren antolamendu eta josturetan edukietan adina gertatu ohi da gandua, eta sarritan erredundantzia-itxurako hainbat adaska ernaltzen zaie desbideratzeko gertu, adar haiei zentzua eta izerdia ematen dien zuhaitzenborra egoki kokatua ageri bada ere testuan.

*DK*ren hostoen azpiko adajea ulertu eta argira ekartzeko, bada, irizpide tinkoz jokatu behar da, testuari funtsezko ezer aldatu gabe betiere. Hartara, jorratutako puntuak ulertzetik, atalak zedarritzetik eta hasiera-amaieraren araberako "disekzio"tik abiatuko gara lehendabizi, gai bakoitzari dagokion lerro-multzokatzea eratuz eta izendapen egokiren bat esleituz. Era berean, estrofa-motari ere parametro zedarriztatzaile iritziko diogu zenbaitetan, besteak beste, "irregularrak" diruditenak[22] –tetrastiko ez diren bost eta sei bertso-lerrokoak, esan nahi baita[23]– adierazle egokia gerta daitezkeelako pieza, *kopla* edo txatal baten mugak finkatzeko unean.

Esku artean dugun eginkizun honetan ez da gutxiestekoa errimaren garrantzia ere[24]. Izatez, hari tematikoa lainotsuegia denetan batik bat, arreta-seinale suerta daiteke haren tupusteko aldaketa bera[25].

---

[21] Erantsi beharrik ez dago Etxeparerena ez bezalako zurruntasun eta "logika"rekin jokatu zutela kalbindarrek ere; Leizarragaren idazlanak lekuko.

[22] Uler bedi, hemen, estrofen ustezko irregulartasunaz jardutean, ez dela, espresuki adierazi bitartean bederen, bertso-lerroen labur-luzeari buruzko erreferentziarik egiten

[23] Bat baino gehiago dira, ikusiko denez, izan gabe ere, sei bertso-lerrokotzat hartu izan diren estrofak. Zazpi bertso-lerrotan moldatutako bakarrak ere (I, 105-111) beste era batez irakurria izateko parada eskain lezake, ziur asko.

[24] Ezaguna da /*i*/ hizkiaren gainean eraikitzen duela Etxeparek *DK*ko asonantzia-jolas gehiena, soinu hori –soinua, hotsa, efektu fonikoa baita Etxepareren errima– gero beste hizkiren batek ozenduta joan badaiteke ere. Agerikoa da, edonola ere, *-ia* errima duela erregularrena eta hainbat atali batasuna emateko gogokoena (goizeko beharkizunen atalean, Heriotzari dagozkion estrofetan, otoitzetan –igandekoan, Jainkoari eta Ama Birjinari eskainitakoetan–, Jainkoaren hitzak ematean, etab.).

[25] Ez dira falta estrofa bakan hutsetan edo gutxi batzuetan baino erabiltzen ez diren errima bitxiak: -[*i*...]*en* (I, 92-96), -[*t*]*u* (I, 1-4, 17-20, 97-100), etab.

Ez dago horretan guztian lege finkorik halaz ere, eta bai, gure aburuz, ahozko tradizio baten oihartzunik, kantu ez beti estu eta erreglatuegia lagun izan duen ahozko tradizio batenik, alegia.

5. *DK*ren gai-taxuketa

Oro har esango genuke, hasierako ikuspegi orokorra eragotz dezakeen behe-lainoa behin altxatuta, aratz samarra dela Etxepareren doktrinaren ehundura. Haren sustrai-sareak, funtsean, fede-aitorpena –*Credo* delakoari dagokion baiezpen-multzoa– du oinarri inplizitu, eta formula horretako hiru ataletatik garrantzizkoenak diren abiapuntuak jasotzen ditu iparrorratz gisara[26]: Jainkoari eta haren ahalguztiduntasunari buruzko aitortza[27], Jainkoaren seme Jesukristori, haren amari eta erredentzio-lanari buruzkoa eta, azkenik, bekatuen barkazioari eta gizakiaren santifikazioari buruzkoa.

Baina izan, hausnarrarazle –eta ez, aditz-aginteraren erabilera gorabehera, agindu-emaile– izan nahi du bertso bidez transmititzen den *doktrina* honek, hau da, gogoeta-bide eta, aldi berean, irakurlearengan onbideratzeko erreakzio *kristaua* probokatu nahi duen baliabide.

Agerikoa den zerbait berrestea da, ondorioz, doktrina-hartzailearen hausnarketa sustatzean haren *pietate* eta salbazio pertsonala gararaztea zuela xede esatea, hartarako –garaiko gizarte- eta erlijio-dinamikekin sintonian (ikus Delumeau, 2012, 262-274. or.)– beldurraren faktorea hautatu izan bazuen ere konbertsiorako tresnarik eraginkorrentzat. Ez kasualitatez, noski, eskaini zaikie bertso-lerro gehienak (I, 138-380), erlijio kristauaren arabera bizitzaren amaieran ezagutuko omen ditugun *Azkenki* izenekoei: Heriotza, Azken Epaia, Infernua eta Paradisua[28].

---

[26] Honelako obra batean nekez jaso zitekeen, jakina, *Kredo*aren eduki dogmatiko guztia, baina, goraxeago adierazi legez, Espiritu Santuari dagokion atalaren ez-agertzea da nabariena, eta, agian, Elizaren erreferentzia-falta, egun susmagarrien bilaka litekeena.

[27] Jainkoak bere irudira egindako gizakia, lekuko.

[28] Azkenkiak fede-dogmatzat ditu erlijio katolikoak, hildakoen berpiztea, munduaren akabera, Kristoren bigarren etorrera eta, oraintsu arte behitzat, purgatorioaren existentzia bezalatsu. Honatx Eliza katolikoaren azalpena: "969. ¿Qué se entiende por Novísimos? – Novísimos se llaman en los Libros Santos las cosas postreras que acaecerán al hombre. 970. ¿Cuántos son los Novísimos o Postrimerías del hombre? – Los Novísimos o Postrimerías del hombre son cuatro Muerte, Juicio, Infierno y Gloria. 971. ¿Por qué los Novísimos se llaman Postrimerías del hombre? – Los Novísimos se llaman Postrimerías del hombre, porque la muerte es la cosa postrera que sucede

Asmo didaktikoa ere eragile, Judizio Jeneralari[29] dagokion Azkenkiaren atala izan da izenburu propioa eta orrialde-kopuru gehien jaso dituena Etxepareren liburuan, irakurleak ongi dakikeenez, une larri hartan erabakiko baita gizakiaren aurrerantzeko eta behin betiko egoera: edo zeruko gloria eternalarena, edo infernuko pena amaiezinarena.

Aurrenik, gogoetaldi pertsonala luke Etxeparek ikusmiran, eta hartara bideratu zuen, hain zuzen, estrategia diskurtsiboa, aipatutako hariez, ehunduraz eta errekurtsoez baliatuta. Badirudi, halaber, ongi ohartua zela haien bitartez piz zitekeen talde-gogoetaldiaz[30], izan ere, *koplak,* bakanka zein lagunartean abesteko onduak baitziren, betiere, esana dugu jadanik, ezagunak zituzten doinu-moldeak erabiliz. Edo bestela adierazita: koplen transmisioarekin batera, nolabaiteko jarduera eta hausnarketa kolektiboa proposatzen zitzaizkien bertsoen jasotzaile izan zitezkeen guztiei.

Koplen edukiak, beren berariazko xumetasunagatik nonbait, ez du orduko erlijio-gatazken islarik eskaintzen[31]. Are gehiago: garaiko haizeteak inguruan hedarazten ari ziren zalantzak ez hauspotzeko beharbada, bitara mugatu zituen Etxeparek bertsoen xede nagusiak: Jainkoaren handitasunaz hausnartzea eta hura glorifikatzea[32] lehenik, eta, Maria birjina bi-

---

al hombre en este mundo; el Juicio de Dios es el último de los juicios que hemos de sufrir; el Infierno es el mal extremo que tendrán los malos, y la Gloria, -el sumo bien que poseerán los buenos. 972. ¿Cuándo hemos de pensar en nuestras Postrimerías?– Conviene pensar todos los días en nuestras Postrimerías, y sobre todo en la oración de la mañana al despertarnos, a la noche antes de acostarnos, y siempre que nos sintiéremos tentados, porque este pensamiento es eficacísimo para hacernos huir del pecado" (Pio X, 1973, VII. kap.: "De los Novísimos y de otros medios principales para evitar el pecado"). Dena den, azken unean hiru baino ez omen ditu zuzenean ezagutuko gizakiaren arimak, kontrajarriak eta elkarren baztertzaile baitira Infernua eta Paradisua.

[29] Erabili ohi diren beste izendapen batzuk: *Juizio, Judizio, Epai Handia/Orokorra/Jenerala/Unibertsala, Azken Juizioa...*

[30] Singularreko bigarren pertsonaren eta pluraleko lehenaren erabilera orokortzaileak adibide.

[31] Egia-edo bada ere Oroz Arizkurenek dioena ("El tenor popular y sencillo de los versos religiosos no se prestaba a disquisiciones por descarrilamientos heréticos" [2008, 453. or.]), gutxi batzuk baino ezagutzen ez zuten bazter-mintzaira batean idatzia izateak berak libra zezakeen poema-bilduma bat –hau berau tartean– Sorbonako teologoek edota gainerako jakintsu larriek aztertua izatetik eta arazoetatik.

[32] Hamar Aginduetatik at ere, maiz gogorarazia da mezu –agindu– hori *DK*n: "Jangoikua lauda ezak gauza ororen buruian" (I, 208), "goiz et'arrats orhituki haren izena laudatu" (I, 20), etab.

tarteko jarririk, bekatariaren konbertsioa eta beste munduan salbazioa lortzea, bigarrenik.

Etxepareren bertso-lerroetan ez da ageri besterik, ez diskisizio teologikorik, ez azalgaitza bezain ulertezina den Hirutasunaren ingurukorik, ez Eliza Santuarekiko betebeharrik, ez hierarkiarekiko beharkizunik, ez erlijiozko lehiarik sorraraz zezakeenik. Eta hori ere, besterik argitzen ez den bitartean behintzat, Etxeparek pentsatzen zuenaren adierazgarritzat hartu behar da.

Gure autoreak paperean positibatu pentsakeran, dena den, *devotio moderna*ren osagaien ukitu estilizatuak antzematen dira han-hemen, esan bezala[33]. Eta, akaso, erlijio-erreformatzaileen egitasmoekin loturarik izan zezaketenak ez islatzeko ahalegina[34].

Edonola ere, ez da sarasketarra mezu lauak eta xumeak errepikatzeaz nekatzen ("pentsa!", "orhit!", "lauda!"...)[35]. Haren aburuz, daraman bizitzaren inguruan hausnartu behar du sinesle kristauak, hausnartu, gaizki egindakoez damutu eta penitentzia egin. Eta, ondorioz, bizitza ere behar du "reglatu", hots, nork bere bizimodua Jainkoaren aginduen parametro bakunen barnera bideratu eta hala, zuzen eta egoki, jokatu.

Hartara, hausnarketak nahitaezkoa izango du sinesleen egunerokotasunera egokitzea eta, bide batez, huraxe aintzat hartuko duten irizpide kronologikoak eta tokitasunezkoak zaindu eta errespetatzea, kristau arruntarentzat gauza bat baita lanegunek libreago uzten dioten denbora apurrean egin dezakeena, eta beste bat, Jainkoari bete-betean zor dion

[33] Ikus 3. atalean azaldutakoa.

[34] Nekez jakin daiteke, adibide bat jartzearren, noraino eragin zion Etxepareri *Sola* ospetsuak ez hedarazteko edota ez aitortzeko kezkak, baina aski agerikoa da *Sola Fide* delakoaren aurrean hasiera-hasieratik saiatu zela "obra onak" nabarmentzen (I, 15), gauzak hain argi ez badaude ere *Sola Scriptura* eta *Sola Gratia*ri zegokienez. Ildo horretan, komeni da oroitzea Trentokoaren aurreko eta ondoko hogei bat urtetan kaleratutako *dotrinetan* biziki areagotu zirela zalantzak eta nahasmenak, eta, erreforma protestantearen eragin lanbrotsua zela eta, idaztera ausartzen zen inortxok ez zuela erabat ziur zein alderditan jokatzen ari zen. Etxepareren adinkide Ponce de la Fuente dugu horren adibiderik adierazgarrienetako bat. Doktrinagile sutsua, 1548tik 1555era bitartean espainiar monarkiaren predikaria eta, oro har, "el predicador más célebre de España" (Bataillon, 1966, 528. or.) izatetik 1558an Inkisizioak atxilotua izatera igaro zen... zalantza ezinezko luteranotzat jo zutelako. Eta inolako duda-mudarik gerta ez zedin, kartzelan hil eta lurperatua izan ondoren, hilobitik aterea eta errea izan zen handik gutxira, fede-auto bat medio.

[35] Izatez, *pentsatu* eta *oroitu* ditu Etxeparek gogoetarako aditz xaxatzaile baliatuenak.

atseden-egunean egin dezakeena; gauza bat etxean egotea, eta beste bat eliza barruan.

Ikusmira teokratikotik ez asago, Etxeparek gogoeta-materia gehiago luzatzen dio sinesleari libre samar edo dagoenerako. Eta bereizi egiten du bi une kronologikotan gaitegia, bakoitzari dagozkion beharkizunak aholkatuz: egunero egiteko diren beharkizunak eta otoitzak, batetik (I, 17-57), eta batik bat aisialdi luzea eskaintzen duten igande eta jai-egunetan burutzekoa den gogo-jardun sakonagorako materia eta beharkizunak, bestetik[36].

Denborazko ardatz bi horien inguruan garatzen da, oro har, Etxepareren *Doktrina Kristiana*, eta horietan oinarrituta luzatuko dugu jarraian bertso-lerro eta estrofen bereizte/banatze/multzokatze-proposamena.

6. Atalak bereizten

6.1. Sarrera

Okerrik egiteko arrisku lar gabe esan daiteke izenbururik ez daraman sarrera moduko bat atondu nahi izan ziola Etxeparek *DK*ri, osagai desberdineko bost estrofa monorrimoz eratua, bakoitzak hamabost silabakotzat hartu ohi diren launa bertso-lerro daramatzala (I, 1-20)[37].

Hari tematikoari gagozkiola, sarasketarrak transmititu nahi zuenaren muina laburbiltzen da lehen ahapaldi-sorta horretan. *Incipit* dei genezakeen aurreneko tetrastikoan, esaterako, argi adierazten zaio irakurlearri gizaki gisa duen eginkizun nagusia: "Munduian den gizon orok behar luke pensatu" eta gogoeta egin erlijio kristauan ezin funtsezkoago diren bi motiboren inguruan, Bibliako *Hasiera* liburuan jasoak bi-biak[38], hots,

[36] "Orhituki igandian behar dugu pensatu/ zenbatetan egin dugun aste hartan bekhatu;/ orhit eta Jeinkoari barkhamendu eskatu,/ atorra nola arim'ere aste oroz garbitu" (I, 97-100).

[37] Dagokion tokian hizpidera ekarriko bada ere, ez da lan honen xedea Etxepareren metrikari buruz jardutea. Momentuz, beraz, onar bekigu bestek eta guk geuk hanhemen esandakoez baliatzea.

[38] Etxeparek inoiz ez zuen besteren erreferentziarik xaloena ere egin, ez eta, *DK*ri gagozkiola, *Eskritura saindu*enik ere, *dotrina*ri eman nahi izan zion tonu apalean ez baitzen erudiziorako edota eskolioetarako tokirik. Erraz asko erants zezakeen, esate baterako, Nafarroako Margaritak 1531ko *Le Miroi*ren tartekatutakoen antzeko erreferentzia biblikorik, edota honelatsu ekin *DK*ri –barka asmazioaren ausardia!–: "Iangoikoak Scripturan erraiten du ozenki". Jakina, "gabezia" horrek, Bibliari dagokionez batik bat, bestelako arrazoirik ere izan zezakeen, hots, jorratutako gaietatik itzuri zitekeen *Sola Scriptura* susmagarriaren inguruko arazo oro oinarririk gabe

Jainkoa dugula gizakiaren sortzailea, batetik, eta bere irudira egin zuela gure arima, bigarrenik. Eta kreazio-obraren handitasunaz eta garrantziaz inori zalantzarik gera ez zekion, banan-banan zehaztu zituen Etxeparek jarraian Jainkoak "bere irudi propiara" sorturiko arimari emandako hiru "potentziak", gizakiak, askatasunaren erakusgarri zuzena izanik, onerako zein gaizkirako bidea hautatzeko darabiltzanak eta, hori gutxi bailitzan, heriotzaren ondoren ere gordeko lituzkeenak[39].

Agerikoa da laburbiltze arrai hartan berariaz zehaztuak utzi zituela gure autoreak hirurak[40], teologikoki haietxek zurkaizten baitute *DK*ren egitura. Alegia, Memoria iraganari –egindakoari eta gertatutakoari– estekaturik legoke; Endelgua edo Adimendua orainaldiari lotua, eta mundua eta gizakiaren burua ezagutzeko tresnatzat eskainia. Borondatea, aldiz, etorkizunerako aurreikuspenak egiteko gaitasuntzat du gizakiak. Hirurak, beraz, elkarren artean trinko uztartuak, eta, jainkozko diren heinean, hirurak gizakia Jainkoaren paretsu bilakatzen dutenak.

*DK*ko orrialdeetan garatu eskeman, bada, Memoria litzateke potentziarik funtsezkoena; hark ahalbidetzen ditu Adimendua eta Borondatea, eta hura gabe ez da beste biak abian jartzerik. Memoriak, hortaz, denboraren dimentsioan kokatzen gaitu bete-betean, eta oroimen hutsa ez den

uztea. Nolanahi ere den, *DK*tik at ere ez zuen Etxeparek ageriko literatur erreferentziarik libururatu; alegia, autorea identifikatu gabe utzi zuen liburu-amaierako hexametro hartatik at –oinarrian Ovidioren "Flebile principio melior fortuna sequatur" (*Metamorfosiak* VII. lib., 518. bertso-lerroa) zuena–, ez greziar, ez erromatar eta ez garaikideen lorratzik ez da haren lerroaldeen azalean.

[39] Gogoan izatekoa da, taxonomia trimenbre horren guraso izan zen Agustin Hiponakoaz geroztik (ik. ~419: 1956, 10. lib., 572-609: "En que se muestra la existencia de otra trinidad en el alma del hombre y aparece com más evidencia en la memoria, en el entendimiento y en la voluntad"), Hirutasun Santuaren isla eta iruditzat hartu izan direla aipatu potentziak. Paralelismo horretan, Oroimenak Aitaren irudia islatuko luke, huraxe baita munduko gauza guztien hasiera, iraunarazlea eta amaiera; Semearen irudia Adimenduak, eta Espiritu Santuarena, azkenik, Borondateak.

[40] *Potentzia*k modu berezian ordenatzearen arrazoia, ohikoagoa baita beste segida batean ematea (memoria-endelgua-borondatea), honetan letzake: hitzen ordena arruntean eta zegokien deklinabide-kasu bera baliatuta emanez gero, jolas silabikoa behartuegi gera zitekeen (mugatuan: memoriaz, endelguiaz, bo-ron-da-te-az; mugagabean: memoriaz, endelguz, borondatez). Hautatu zuen ordenarekin ere, antzera ateratzen zen kontua kasu bera erabiliz gero: me-mo-ri-az, bo-ron-da-te-az, en-del-gu-[i]az. Ordena honetan, halere, beste era batera konputa zitekeen bertso-lerroa mugagabearekin: memoriaz,/ borondatez// en-del-guz go-/ar-ni-tu. Baina, itxura duenez, erritmo orekatuagoa eta musikalagoa iruditu zitzaion azkenean egindako hautuarena (hemistikio bien hasierako "oihartzuna" barne: memoriaz.../endelguiaz...).

neurrian, hari ere, beste biekin batera, dagokio salbaziorako erantzukizuna. Ildo horretan, Memoria dugu *doktrina*n barrena maizen iradokitzen zaigun potentzia, aldioro erabiltzen baita –hasieran batez ere– *oroitu* aditza agintera forman ("orhit adi!"). Jakina, behin Memoriak orainaldira ekarrita, Adimenduaren unea dagokio sinesleari, haren bidez aztertu eta baloratu behar baitu oraina, jarraian, damua eta kontrizioa tarteko, eta Borondateari tokia eginez, bekatari-portaera molda edo alda dezan.

Ahalmen horiezaz baliatzeko gomendioa du, azken batean, liburuak ardatz[41].

Incipit horretako zutarrietan oin harturik, bada, Jainkoa guregana –hartzaile/irakurleongana– hurbilarazteko logika laua garatu du Etxeparek ondoren (I, 5-16), *gu geu* garelarik lerrootako koprotagonistak, eta ez jadanik hasierako "gizon oro" indibidualizatu gabekoa. Logika xumea eta arras grafikoa, erantsi beharko litzateke segidan, lauko bakoitzeko lehen bi bertso-lerroak eguneroko bizimodutik ateratako adibidez hornitu baititu eta hurrengo bietan Jainkoa-gizakia harremanetarako "ondorioak" eskaini, beste munduan salbazioa ("gloria") lortzeko egin behar ditu-*gu*nak laburbilduz: ongi egin eta jokatu, Jainkoa zerbitzatu, obra onak egin eta bekaturik ez[42].

Horrela jardungo du hiru aldiz, hiru laukotan zehar.

Sarrera horretako azken laukoak, horratik, hurrengo atalaren irekiera dakarren gomendio praktikoa aurkeztuko du: "zeren Jeinkoa *egun oroz* ongi ari baitzaigu,/ guk ere hala behar dugu harzaz unsa orhitu,/ gure hatse eta fina hura dela pensatu,/ *goiz et'arrats* orhituki haren izena laudatu" (I, 17-20; g.l.e. [gurea da letrakera etzana]). Edo bestela esanda, gizakiaz arduratzegatik Jainkoari zor omen zaion erreprozitatearen kariaz, harekiko beharkizunak gogorarazten zaizkio irakurleari: Jainkoaz

[41] Horren adibide esanguratsuena beheragoko "Orazione igandeko" izenekoak dakarkigu. Han, salbaziorako laburbide gisa, laguntza berezia eskatzen zaio Jainkoari potentzia erabakigarrienak trinko manten daitezen. Endelgua dela eta, "bizi nizan artian eta erioko phunduian/ *zuk idazu, othoi, oso neure endelgamenduia*,/ alteratu gabetarik zure fede sainduian/ gauzen unsa egiteko neure azken finian" (I, 60-63; g.l.e) eta, Borondatea ahul ez dadin, "*eta orduian zuk idazu indar eta grazia*/ bekhatuiez ukheiteko bide dudan doluia/ perfektuki egiteko neure konfesionia" (I, 64-66; g.l.e.).

[42] Hemen horretan sakonduko ez bada ere, garrantzi eta esangura doktrinal handia du Etxeparek obra onak egiteari dagokion puntuaz hasieran bertan dagien errepikapenak (I, 8 eta 15 bertso-lerroetan, hain zuzen), une haietan funtsezkoa baitzen, izan ere, fede hutsaren bidezko salbazioaren planteamendu protestantea Erromako elizaren esparrutik bereiztean.

oroitzeko beharkizuna, gure hasiera eta amaiera huraxe baino ez dela hausnartzekoa eta haren izena eta izana etengabe eta ohartuki, gogoa harengan dugula, gorestekoa.

Atalak garatu ahala ikusiko denez, lerroxka horietan datza *DK*ren erdiguneko zutarria, gainerakoak —zein bere mailan, noski, eta Ama birjinari eginkizun berezi eta paregabea esleituta— ehundura guztia osatzera datozelarik.

Segidan, gomendio-sorta hori hitz hutsetan geratu gabe eguneroko bizimoduan txertatzen has dadin, egingarri diren bi multzotan bereizita luzatzen zaizkio irakurleari zereginok: egunero –edo ia egunero[43]– egin beharko lituzkeenak, batetik, eta, hori ezinezko gertatuz gero, gutxienez igandero burutzeko liratekeenak, bestetik.

Arrazoiak arrazoi, ez dirudi erlijiozko eginkizunak horrela markatzeko xinpletasuna *Devotio Moderna*ren eraginetik urruti zegoenik, ez behintzat aurreko mendean hainbat esparru erlijiosotan hasiberriekin ohi zen eskemarenetik[44]: "in the early years there was little proscription: *adherents meditated in the morning upon arising, and in the evening before going to bed*" (Hascher-Burger & Joldersma, 2008, 322. or.; g.l.e.). Dena den, antzak eta eraginak bilatzen hastekotan, interes gehiagokoak dira Gersonek *La Doctrine de bien vivre en ce monde* liburu ospetsuan luzatutako aholkuak[45]: "est tres bon conseil que *une fois ou deux le iour au soir et au matin eta au moins les festes* une personne retourne a soy" (Gerson ˜1479, [32 rº]; g.l.e.).

Erraz areago litezke, kontuak zehazte aldera, Gersonen aipuak edota haren hitzetatik tiratutakoak ere, Etxeparerengandik kronologikoki hurbilago suertatu zen honako hau bezala:

> [...] *chascun chrestien doit souvent a tout le moins une fois la sepmaine / comme au dimenche retourner a soy: et se examiner sa conscience* des faultes

[43] Argi du Etxeparek jende xumeak ezin dituela hainbat eta hainbat gauza egunero burutu, arrazoi desberdinak (geografikoak, lanbidezkoak...) medio. Hortik, beraz, "Goizian" egiteko zirenak aipatzen hastean salbuespena onesten duen "albadagik" delako formula ezartzearena (I, 25).

[44] Hertsiago eta konplexuago zuten hasiberri ez zirenek meditazioa: "the organization and the extent of meditational schemes increased in complexity through time" (Hascher-Burger & Joldersma, 2008, 322. or.).

[45] Unea da gogoratzeko ezen "l'ouvrage de Gerson (*Opus tripartitum*) servait un peu partout en France de texte de base pour la doctrine chrétienne" (Salgado, 1981, 531-532. or.).

> quil a faictes en icelle sepmanie: et soy convertir a dieu en suy disant et offrant ses dessus dictes veritez. *Et encores bon seroit que tous*: au moins les simples qui ne vont pas souvent a confesse *une fois le iour: comme au soir avant que dormir feissent une recollection de ce quilz ont fait par la iournee.* En laquelle silz treuvent navoir commis auscun peche mortel de ce en doibvent humblement remercier dieu et luy en rendre graces (La Fosse, 1529, [42-43]; g.l.e.).

Gure egileak, itxura duenez, debozio-aztura xume haien ildokoen transposizioa egin zuen bere *doktrina*n, beharbada horrela errazago heda eta finka zitezkeelako erlijioa lanbide ez zuen gizataldeetan eta baita ere geografikoki aski sakabanatuta eta elizguneetatik urruti bizi zen jende xaloaren artean.

6.2. Eguneroko beharkizunak

Atal zeharo praktikoa da *egunero egiteko* diren ataza erlijiosoak ezartzen dituena (I, 21-57). Hemen ez da dotrina-garapenik eta ez otoitz-multzorik ageri[46], eta bai, berriz, gomendio/agindu-sorta praktikorik.

Burutu beharreko horiek *goizez eta arratsaldez* egiteko sailkatuak eskaini zituen Etxeparek, ataltxo bakoitza bere izenburuarekin, eta goizekoak kopuruz askoz ugariago direla arratsaldekoak baino, azken hauek Jainkoari gomendatzera eta "peril guzietarik" begiratzeko otoitz egitera aholkatzera mugatzen baitira[47].

Baina bere xumetasunean, eta labur bada ere, badu iruzkintzekorik atal horrek.

Lehen ñabardura garrantzitsua: eguneroko beharkizun guztiak gizonezkoei zuzenduak diruditen hitano-formekin daude eratuak, aginterazko aditzak baliatuz. Honetan ez ezik, *DK*ren beste hainbat ataletan barrena ere aski era sistematikoan egingo du Etxeparek hitanozkoaren erabilera hori, hartzaile emakumezkorik esperoko ez balu bezala. Eta hala izango zen, agian, baina zehaztapenen baten premia du horrek.

Aurreko eta ondoko aditz-kontrasteak (zuketa/hiketa) ikusita, erraz ondoriozta lezake egungo irakurleak Etxeparek batzuetan bi hartzailemotari luzatu ziela idazlana, *DK* irakurtzeko eta kantatzeko orduan bi

[46] Ikus goragoko 10 eta 11. oharrak.

[47] "Arratsian etzitian gomend'adi Jeinkoari/ eta othoi begir'ezan peril guzietarik" (I, 21-22).

estatus desberdineko jendea aintzat hartu izan balu bezala: multzo batean jende xehea, hurbilekoa, mutila eta gaztea ziurrenik; bestean, ostera, gizarte-estatus garaiko jendea, begirune berezikoa, elizgizonak eta, akaso, emakumeak. Lehen multzokoari hika mintzo zitzaiokeen, zuketa bigarrenekoentzat gordeta.

Baina garbi bide dagoena bestela ere izan zitekeen, haatik. Izatez, Etxeparek bi aditz-modu horien bitartez erdietsi nahi izan zuena lotuago egon zitekeen bi osagai edo ingurune kateketikorekin: batetik, sermoi girokoago eta formalago-edo den ingurunea, non aditz-forma neutroagoak erabiltzen diren doktrina azaltzean (horrek ez du galarazten eskema dialogikoa edota zutano alokutiboaren erabilera); eta, bestetik, norberaren baitan eragitea bilatzen duen osagaia. Honek barne-ahotsa –kontzientzia– irudikatuko lukeen mintzoa baliatuko luke irakurlearengan oroitu beharrekoak gogorarazteko edota nolabaiteko zauskada emozionalak sortzeko (era aski aseptikoan batzuetan –hemen legez–, zirika-mirika bestetan). Hauxe genuke nonbait hitanoaren erabileraren zioa. *Toka* erak erraztu besterik ez zuen egingo gero irakurle orok estrofak gogoratu eta errepikatzearena, dakigunez, tradizionalki hizketa-mota hori izan baita nor –berdin gizona zein emakumezkoa– bere buruarekin mintzatzean erabili dena.

Beharkizunen banaketarekin lotua dator hurrengo oharñoa. Haietarako uneak egokiro adierazita datozen arren, nabarmengarria da "arratsian" egiteko omen den bat bederen ez dela egiazki arratsaldean burutzekoa, goizean baizik, iratzartzean[48]. Kontraesankorra iruditu arren, argi da bazuela han agertzeko arrazoi modukorik, Etxeparek nonbait ez baitzeritzon egoki hain zeregin xeherako aparteko ahapaldirik baliatzeari. Gainera, egiteko espiritual horien espazio fisikoa "etxea" –ohatzea, logela– izateak ongixko erraztu zion bertan egiteko ziren guztiak unitate bakartzat hartzeko eta horrela, eta era berean, etxetik kanpo burutu behar zirenak "Goizian" izeneko multzoko ahapaldietan jasotzeko (I, 25-57)[49].

[48] "Gero irazar adinian orhit adi bertarik/ zenbait ere orazione erraitera debotki" (I, 23-24). Beheraxeago helduko diogun arren, gogora dezagun momentuz ez zebilela gure elizgizon bertsogilea ohiko erlijio-eskemetatik kanpo eta, ondorioz, mota honetako otoitz eta orazioneen aipamenak egiten dituenetan, irakurleak jadanik buruz ikasiak dituen formuletara igortzen duela inplizituki (aitagurea, agurmaria, kredoa, etab.).

[49] Ez bedi ahantzi "Goizian" lerroburuaren azpiko lehen tetrastikoa (I, 25-28) ondoren datozen zazpi ahapaldien sarrera-funtzioa betetzeko taxutua izan zela, ia guztiei haren tamaina –ez balio– bereko izenburu bana ezarri bazitzaien ere.

Denborazkoak gabe, espazialak izan ziren, hortaz, eguneroko aholku haietarako erabili parametro nagusiak[50], agerikoa baita eguneroko eginkizun erlijioso larriak toki fisikoekin irmo uztartuak aurkeztu nahi izan zituela Etxeparek *DK*n.

Hari horretatik tiratuz, ez zaio interesgarritasunik ments espazioen gradazioan sarasketarrak islatu zuen ikusmoldeari ere. Izatez, goizean, behin etxetik at egonda, aurrenik *hilerria* eta ondoren *eliza* agertzea berdin uler daiteke esparru sakratuen[51] konfigurazio fisikoarekin lotua (hilerria elizaren atarian edo inguruan kokatua[52]), zein gorago aipatu Memoria potentziarekin uztartua edo, bestela esan, oroimenaren ariketarekin eta gu bezalako hildakoez[53] gogoratzeko jarrera nabarmentzeko premiarekin[54], horrek eskaintzen omen baitu heriotzaz eta Azken Epaiketan jaso daitekeen ordainaz hausnartzeko biderik egokiena.

---

[50] Badirudi denbora-marka horiek gune –herri zein hiri– urbanoen konfigurazio tradizionala dutela ikusmugan, populazio bateratukoa alegia, betebehar zenbait (goizean egitekoak, hain zuzen) nekez izan baitzitezkeen nolabaiteko entitatea –eta hilerri, eliza, sagrarioa– zuten herrietatik urrun bizi zirenei zuzenduak.

[51] Esparru erlijiosoetan apaizek nahiz eliztarrek burutzen zituzten gehiegikerien aurrean, Basilea-Florentziako kontzilioak (1431-1445) argi utzi zuen elizak eta hilerriak otoitz-lekuak zirela eta debekatuta geratzen zela jai profanorik egitea.

[52] Ariès-ek jaso bezala (1999, 46hk), VI. mendearen erdialdetik aurrerako Kontzilioek debekatu egin zuten hildakoak elizen barnean lurperatzea. Euskal lurraldeetan ohi zenari dagokionez, "una posible evolución en cuanto a los emplazamientos sepulturales en el País Vasco pudo ser como sigue. En la Alta Edad Media serían mayoría los cementerios adosados a los muros exteriores de iglesias y ermitas, con una funcionalidad múltiple, no sólo inhumatoria, sino también de lugar de asamblea pública, de ocio y de toma de decisiones. La costumbre de reunirse en los cementerios para celebrar ayuntamientos se reforzó cuando la mayor parte de estos se cubrieron con pórticos. De hecho en la documentación de los siglos XVI al XIX se utilizan indistintamente los términos "cementerio", "atrio" y "pórtico" para hacer alusión a una misma realidad. En muchos lugares estuvo vigente esta práctica hasta bien avanzado el siglo XVIII, cuando ya se llevaban muchas décadas de enterramientos intraeclesiáticos. Bastantes de estos templos quedaron durante la Baja Edad Media reducida a la condición de ermitas y perdieron su capacidad parroquial y por lo tanto inhumadora; otros la mantuvieron, pero iniciaron un tan lento como imparable proceso de paso a enterrar en el interior de la iglesias, que arranca, según los lugares, de los siglos XV ó XVI." (Madariaga, 1998, 261. or.), izan ere, "los privilegios que en siglos pasados permitían el enterramiento dentro de la iglesia a determinadas personas fueron ampliándose a fuerza de no ser respetados y en el siglo XVI todo el mundo podía gozar de ellos si pagaba los derechos correspondientes" (Martínez Gil, 2000, 437. or.).

[53] "Hi nolako ziradela bizi ziren artian" (I, 30).

[54] "Hilez unsa orhit adi" (I, 29).

Espazio-konfigurazioaren karietara, sarasketarrak arreta berezia jarri du eliztarrak behin elizan sartuta egin ohi duen ibilbide fisikoan eta erlijiosoan. Hartara, eta betiere ohiko imaginario kristauaren barrutian, bataiarria jarri du lehendabiziko zedarri[55].

Ondoko urratsak, Etxepareren aburuz, Eliza kristauak teologikoki eta sinbolikoki duen gune garrantzizkoenera –fisikoki ere erdigune den horretara– bideratu behar dira, han egoten baita sineslearen begirada eta gogoa erakarri behar dituen Jesus salbatzailearen "gorputz sainduia". Jakina, euskaristiaren sakramentua gomutara dakarren erreferentzia ez-espazial hori begientzat ikusezina ohi da meza-garaitik at, baina aldarea eta sagrarioa ditu nahitaezko kokagune fisiko. Hau da, sinesle kristauak olata kontsagratuak gordetzen dituen sagrarioa besterik ez du ikusiko eta haren aurrean burutu beharko ditu gogo-jarduna, esker-ematea eta gurtzea[56].

Segidan, gizakiaren erredentzioa sinbolizatzen duen "kurutzea"ri so eginez burutu beharreko hausnarraldiaren ondoren ("orhit adi", "pensa ezak"), erredentzioan irudi funtsezkoa den Jainkoaren Amaren aldia dator. Nabarmentzekoa da –besteak beste, Etxepareren atxikimendu marianoaren aurreneko seinaletzat har daitekeelako[57]– hari, "Andredona Maria"ri, eta ez besteri, eskaintzen zaiola *DK*k dakarren lehen otoitz formala (I, 49-52).

Eguneroko betekizunekin bukatzeko, Eliza katolikoak "Santuen Elkartasun"tzat jo ohi duen debozioari dedikatu behar omen zaizkio bisitaldiaren azken uneak (I, 53-57)[58], bereiziki eta "singularki", gure autoreak

[55] Bataioa iragate-ohikune den heinean, usadio hedatua da bataiarria fisikoki eraikuntzaren sarreraren ondo-ondoan jartzearena, izatez, sinbolismo erlijiosoaren begiradapean, jadanik bataiatua –kristau bilakatua– denarentzat baino ez baita eliza barneko esparru sakratua.

[56] Besterik adierazi bada ere (Aldekoa, 2010, 9. or.), ez dirudi tetrastiko horretan azken Oliaduraren erreferentziarik egiten denik, gizakia "azken finian" dignoki errezibitua izateko grazia baino ez baita eskatzen, eta hori, geroago ikusiko denez, *trois veritez* direlakoen bitartez ere jaso daiteke.

[57] Tematika marianoa, Gonzalez-Blancok egiaztatu legez (2010, 303-304. or.), oso maiz errepikatua da Erdi Aroan frantsesez, italieraz eta gaztelaniaz idatzitako poemetan, eta bereziki alejandrinoak baliatuz ondutako tetrastiko monorrimoetan. Ikusiko den bezala, Etxeparek hogeita hamar ahapalditik gora eskaintzen dizkio Ama birjinari bere liburuttoan, otoitzak direla bide.

[58] Maiz eman ohi zaion kutsu anekdotikotik harago, Sainduen bisitaldia tinko uztartua doa *Kredo*an Santuen Elkartasunari aitortzen zaion dogma-balioarekin.

dioen moduan, hiru santu-mota gogoan harturik: irakurlearen gogokoena, eliza horretako patroi dena eta, azkenik, egunean eguneko santua.

Ohargarria den puntu bat: azken ahapaldi horretan ageri da liburuko lehen "irregulartasun" estrofikoa, tetrastikoa gabe, bost bertso-lerrokoa baita. Hondarreko lerroan bertan izan lezake horrek, halaz ere, bestetarako ere balioko lukeen azalpenik. Hau da, atalaren amaiera izanik, aurreko bertso-lerroaren doinu ber(tsu)a errepikatuta modula zitekeen kantatua izatean, nolabaiteko *koda* edo esakune didaktikoa sortuz[59]. Esanahiari gagozkiola, gainera, bertso-lerroak berdin jaso eta laburtzen du Sainduekiko betebeharra zein atalean zehar aipatu Jainko eta Andredona Mariariarekikoa. Amaiera ezin egokiagoa, beraz, "Orhituki othoi egin, dakizkian balia" delako hura.

Honetara iritsita, zilegi dirudi galdetzeak zergatik, iradoki arren ("[...] orhit adi bertarik/ zenbait ere orazione erraitera debotki" [I, 23-24]), ez ote zuen Etxeparek inolako erritu eta otoitz arauturik erantsi ez etxean, goiz-arratsez, otoizteko, eta ez elizan egiteko edo errezatzeko. Ohikoa da garaiko doktrinetan, eta are ohikoago gero, Trentokoaren ondoren, jaikitzean zeinatzea, nork bere burua Jainkoari gomendatzea eta otoitzak eta formula zehatzak ere (kredoa, aitagurea, agurmaria...) ahotan izatea; ohikoa, aldi berean, elizaratzean ur bedeinkatua baliatzea eta genuflexio, belaunikatze, erreberentzia edota begiramen-keinurik egitea.

Ez dago horrelakorik *DK*n. Eta ez dirudi harritzekoa beharko lukeenik[60] edota, inoiz adierazi den bezala, ahanzturagatik izan zenik ere ustezko "gabezia" hori[61].

Eta ez da haren koplen artean horrelakorik ageri, batetik, orduko sinesle gehienek jakin, buruz zekizkitelako kristauentzat funtsezko ziren

[59] Bosgarren bertso-lerroa, gehienetan, amaiera-kadentziatzat edo har litekeela ematen du, alegia, behin bakarrik errepika zitekeena edota, erabili musikaren arabera, baita birritan ere. Azken honetan estrofak, kantilazioa medio, sei bertso-lerrokoen tankera har zezakeen praktikan. Eta, bide batez, "irregulartasunak" erregularrago bilakatu.

[60] "Sorprende que oraciones como el «Pater noster», «Ave María» o «Salve Regina», romanceadas en algunas doctrinas y cartillas de doctrinas cristianas de la primera mitad del siglo xvi, brillen por su ausencia en la doctrina de Etxepare y ni siquiera se haga mención de ellas. Así, el verso 24 de la Doctrina de Etxepare, en el que se hace mención del rezo de oraciones, no dice más que «zenbait ere orazione erraitera debotki» (I, 24)" (Aldekoa, 2010, 5. or., 11. oharra).

[61] "[...] *ahantziz* «Gure Aita», «Agur Maria» eta «Sinesten dut»" (Haritxelar, 2011, 25. or.; g.l.e.).

keinu, erritu eta otoitzak. Eta bestetik, eta ez garrantzi gutxiagokoa, finko ziren eta jadanik buruz ikasiak zituzten formula haiek[62] bertso-moldetara eramanda eta, hein batean bederen, aizunduta ikusteak "zinezko" otoitzen lardaskatzea baino ez zekarkiekeelako eliztarrei. Edo bestela esanda, pentsaezina zen Kontzilioetan zehar xedatutako formula finkoak, haietako batzuk eduki dogmatikoa juntagailuetaraino eramanak zituztenak[63], bertsoen malgutasunera bildu nahi izatea. Eta are pentsaezinago *in tribulationis tempore...*

Eta ez da, azkenik –*but not least*–, Etxepareren liburuan horrelakorik aipatzen, batik bat haren eskaintza gogoetatzeko gonbit erara pentsatua eta gogoeta eragiteko taxutua izan zelako, eta ez, agerikoa den bezala, ohiko katixima-saioei zegokiena irakasteko[64]. Esparru espiritualetik hurbilago, beraz, pragmatismo doktrinaletik baino.

6.3. Igandeko beharkizunak

"Orazione igandeko" otoitz deprekatorioarekin hasten da guk "Igandeko beharkizunak" deitu dugun atala (I, 58-104). Oro har, gogoeta-aldiari atea irekitzen dion sarrera modukoaren eginkizuna du *orazione* honek eta, formari dagokionez, otoitz berezi samarra da enparaukoekin alderatuta.

Lehen begiratuan sei lerroko bi ahapaldiz eta bi laukoz eraikia azaldu arren, garatu diskurtsoaren hariaren etenei jaramonik egin ez balekie[65], bost laukoz osatua dela pentsa liteke. Baina horrela ez balitz ere, kan-

[62] Aldekoaren ustez, "las oraciones principales en Etxepare seguro que se recitaban en latín, de otro modo, su doctrina hubiera procurado una muestra de ellas" (Aldekoa 2010, 5, 11. oharra). Alabaina, baitezpadakoa ez den korolarioa isurtzen zaio hemen irristakorregia den hipotesiari.

[63] Gogora bedi Hirutasun-formularen zurruna: "Aitaren *eta* Semearen *eta* Espiritu Santuaren izenean. Amen" (g.l.e.).

[64] Horretan letzake ohiko *dotrina* ez den *doktrina* honen bereizgarri larriena. Baina argitasun gehiago eman lezakeen kontrako adibiderik nahi izango bagenu, kristauek ikasi beharreko formula finkotzat har litezkeen eta Etxeparek bai dakartzan Hamar Aginduei begiratzea genuke zuzenena. Beheraxeago ikusiko denez, delako Dekalogoa, ezer berezi izatekotan, gehiago izan da, hemen, Azken Judizioari egokiro aurre egiteko gogoetara eta penitentziara bulkatzeko oroigarritzat tartekatua, huraxe omen baita Jainkoak gizakia epaitzeko erabiliko duen lege nagusia, ikasi beharreko irakaspentzat erantsia baino.

[65] Agerikoa da, baina, ez dutela tetrastikotan azaldu ahal izateko hausketa estrofikorik onartzen, batik bat, geroagoko ohar batean ikusiko dugun legez, seiko haietako bigarrenari (I, 64-69) emandako garapenak.

tatzeko orduan –baldin, itxura duenez, kantatzeko prestatua bazen–, bost laukotarako musika-eskemak bideratua izan zitekeen erraz asko[66].

Edukiaren aldetik, halaz ere, otoitzaren gorputzetik at legoke hasierako bertso-lerro parea, delako orazionea entzuna izateko erregu hutsa baita, izatez[67].

Nabarmena da, bestalde, bizitzaren azken unera begira ondua dela otoitza[68]. Haren bidez, une garrantzizko hartarako *adimendua* osorik izatea eskatzen zaio Jainkoari gauzak fedearen esparruan eta behar bezala egin ahal izateko, adimendu kristau oso horrek baino ez baitezake salbaziorako bidea berma. Otoitz oro legez, hainbat gauzatarako laguntza-eskaera aurkezten du tartean, berdin bekatuen dolu-damua izateko, zein aitorpena perfektuki egiteko, bekatuen barkamena lortzeko eta komunioa eta behar diren gainerako sakramentuak ere jasotzera iristeko[69].

Ohar bat, halere. "Baietare behar diren bertze sagramentuiak" (I, 69) badio ere, zail da interpretatzen pluralaren erabilera, ez bada –eta hala behar luke, baiki– inplizitu dagoena baliatzen. Alegia, baldin eta, edonork dakien bezala, bataioa (eta denboran eta forman lar bereizten ez zen "sendotza" izenekoa) jasoa bazuen irakurle kristauak, eta ahapaldian aipatzen diren penitentzia eta eukaristia aintzat hartzen ez badira, bi baino ez ziren kristau xumeari zegozkion "bertze sagramenduiak"[70]: azken oliadura eta ezkontza. Bi-biak ziren, beraz, "erioko punduian" ongi "reglaturik" behar ziren "bertze sagramenduiak"[71].

---

[66] Argitaratzear dugun beste lan batean helduko zaio musikaren auziari.

[67] Aurre-eskari honen parekoa da Andra Mariari zuzendutako otoitzaren ondoko distikoa (I, 449-450). Hangoa Altunaren edizio kritikoak aurreko tetrastikoari lotu eta sei bertso-lerroko estrofa bilakturik eskaini bazuen ere, 1545eko argitalpenak ezin argiago azaltzen du ez dela hori irakurketa zuzena, hurrengo orrialdearen buruan eta estrofa-hasierei dagokien inprimatze-koskarekin ikusi baitzuen argia. Garbi bereizita, beraz.

[68] "Erioko phunduian" delakoaz gainera, hogei bertso-lerrotan birritan errepikatua da "azken finian" ere, eta beste hiru aldiz une larri haren erreferentzia egiten duen "orduian" delakoa.

[69] Sei lerroko bigarren ahapaldia da konbertsioaren muina eta bidea argien eta ortodoxoen trinkotzen eta laburtzen dituen eskema liburu guztian, era linealean gainera: bekatu-damu-aitorpen-barkamen-sakramentu-salbazio. Gehitu beharrik ez dago, formalki, edukiak berak eskatzen zuela hori guztia sei lerroko ahapaldi luzean taxutua izatea. Eta fruitu gisa, esaterik bai?, e*sticomitia*z ezin egokiago baliatzen den harribitxi didaktiko eta mnemoteknikoa.

[70] Agerikoa da ez zela apaizgoarena kristau guztiei aholka zekiekeen sakramentua.

[71] Gogoratu behar da lege-balioko ezkontza zirela "fedea eman"-ez (zin eginez) burutzen zirenak ere. Horiek, baina, ez zuten sakramenduaren babesik harik eta Elizaren

Bukaerako bi laukoak *aitagurea* formularen azken atalen islada modukoa dira, betiere interjekzio bidezko era deprekatorio indartsuaren formatupean ("othoi, entzun iazadazu", "othoi, enguztazu", "har, othoi"...).

Otoitza amaitutakoan, irakurtzaileari luzatutako gaztigu praktikoa eta argigarria erantsi zuen sarasketarrak (I, 78-82), aurrerago ere errepikatuko ziren hurbiltasun-estiloan eta tonuan, eta hitanozko tokaren formatupean, eguneroko beharkizunei eskainitako lehen atal osoan bezala.

Esan dezagun, halaber, igandekoen atalean egon arren, goizez eta arratsaldez egiteko zirenen erreferentzia egin zuela sarasketarrak estrofa horretan[72], garbi asko onetsia baitzuen gorago beharkizun zenbait eguneroegiteko ezintasuna[73]. Ezintasun horrek, baina, ez dio inori gutxienez astean behin –igandez, eskuarki– Jainkoarekin konplitzetik libratzeko onespenik ematen.

Formaz den bezainbatean, eguneroko eta asteroko beharkizunen burutzea gogorarazteko funtzioa izan lezakeen *koda* modura –behin edo birritan errepika zitekeena, alegia– har liteke bost lerroko ahapaldi honen amaierako bertsoa.

Guztiarekin ere, ez litzateke horretan bukatuko bigarren ataltzat jo dugun hau. Jarraian, azpiatal berria balitz bezala eta bost ahapaldiren anabasa-itxuraren azpian (I, 83-104)[74], sinesleak gutxienik igandero –"aste oroz igandian", alegia (I, 82)– burutu beharko lituzkeen eginkizun

benedikazioa zuten arte. Asko ala gutxi izan, horiek ere bide ditu Etxeparek ikusmiran (ikus beheragoko 163. oharra).

[72] "Etzaiala, othoi, neke gauza hoien egitia/ *egun oroz ezin bada, aste oroz igandian*" (I, 81-82; g.l.e.).

[73] Eguneroko hausnarketa izatea nahi bide zuen Etxeparek lehen ataleko guztia, baina badaki jendearen bizimoduak, monasterio-kumeak ez izanik, eragotzi egin dezakeela hartan hainbeste denbora eskaintzea. Hortik, bada, bertso-lerroa: "*Albadagik* joan adi elizara goizian" (I, 25; g.l.e.).

[74] Ondoko ahapaldiek halamoduzko loturak baino erakusten ez dituztelako erabili da hemen anabasa hitza, eta baita ere, bestalde, bertso-multzo honi hasiera ematen bide dion tetrastikoa beherago ere errepikatuko delako hitzez hitz (I, 252-255). Horretaz gainera, errima desberdineko bi bosteko daramatza bigarren eta hirugarren ahapalditzat eta beste bi lauko, errima desberdinekoak hauek ere, amaieran. Areago, estrofa batean (I, 92-96) baliatutako asonantzia-jolasa (*egiten, egoizten, partitzen, dagien, faltatzen*) ez da *DK*n berriro errepikatuko, ez eta formarik xumeenean ere (*-e*). Horrek, jakina, ahapaldia gehiegi beharturik sartu ez ote zen zalantza sorraraz lezake segidan.

funtsezkoenei ematen zaie sarrera, arimaren salbaziorako ezinbesteko direnei, hain zuzen.

Eta hasteko, arimaren kontrako hiru bekatu nagusietatik lehena eta hurbilena oroitarazten du Etxeparek: Munduarekiko atxikipenarena[75]. Egilearen autoerreferentzia banarekin[76] irekitzen diren bi estrofatan garatua, azkenean –hirugarren estrofan– pertsona hiltzean haren arimak ezagutuko duen bakardadea azpimarratzera iristea da sarasketarraren asmoa, "mundu huneki hain borthizki josirik" (I, 88) egon izanak ezertarako balioko ez duela erakutsiz.

Harrigarri gerta lekioke egungo irakurleari arimaren kontrako bigarren eta, batik bat, hirugarren etsai gaitza, Haragiarena –Trentoko kontzilioaz geroztik, eta oraintsura arte behintzat, protagonismo ezin handiagoa hartu duena[77]– hemen zuzen aipatuta ez azaltzea[78]. Baina harridurak harridura, eta Deabruarena ahaztu gabe bada ere, begi-bistakoa izango zaio irakurleari beste (garai bateko?) sentsibilitate batez mintzo zaigula gabezia hori eta, ongi ulerturik, Munduaren jostura arriskutsuen artean antzematen zuela Etxeparek printzipioz sozialki eta erlijiosoki beranduxeago bezain larria ez zeritzon bekatu hura ere[79].

Azken ahapaldi bietan laburtu legez, argi luke irakurleak iganderoko jardun hori betetzearekin: bekatuarekin dituen loturei buruzko gogoetaldia burutzea —kontzientzia-azterketa, mintzaira erlijiosoaren arabera— lehendabizi, bekatuez damutzea jarraian, eta Jainkoari barkamena eskatzea, azkenik.

Ohar bedi azkenaurreko estrofak (I, 97-100) laburtze- eta gogorarazte-funtzioarekin tartekatua dirudiela, argi esaten baitzaio irakurle kristauari astean zehar egindako bekatuei buruzko gogoeta eta, Jainkoari barkamena eskatuz, arimaren garbitzea dituela igandeko eginkizun na-

[75] Testuinguru horretan "gure etsaia" ez da, inoiz pentsatu izan den bezala, Deabrua, Arimaren lehen etsaia baizik.

[76] "Gure artian haur dakusat" (I, 83) eta "anhitz jendez miraz nago" (I, 87).

[77] Axularren *Gero* liburua (1643) ikustea besterik ez dago Trentoko kontzilioaren erabakiz haragiaren bekatuari eman zitzaion garrantzi larriaz ohartzeko, liburu guztiko 60 kapituluetatik zenbat eta 14 kapitulu osorik (80 orrialde) eskaini baitzitzaizkion.

[78] Judizio Jeneralaren amaieran Jainkoak kondenatuen bekatuez egin errepasoan azalduko dira hiru bekatuok espresuki aipatuak: "Bai erhoki konplazitu ene kontra etsaia,/ demonio, haragia, baietare munduia" (I, 355-356).

[79] Agian eredu modura ez, baina nekez izan zezakeen ezezagun Etxeparek 1503ra arte "Aita santu" izan zuten Alejandro VI.aren bizimodu laxoa eta "haragizalea".

gusiak[80]. Lelo modukoa litzateke, beraz, egin beharrekoak errazago iltza zekizkion irakurleari gogoan.

Funtzio berdintsua bide du hurrengo tetrastikoak ere (I, 101-104), orain eta hemen ongi/gaizki jokatzearen garrantzia heriotzaren ondoko egoerara proiektatuz. Baina badu, aldi berean, jarraian datorrenaren aurretikoa izateko eginkizuna ere. Atalean esandakoaren sintesia, bada, eta hurrengo gogoeta-gaietan sartzeko giltza.

6.4. Gogoeta-gaiak

Irakurlearen oldozketa kristaua bideratzeko puntuz osatua legoke hirugarren atal hau (I, 105-380), eta hark nahi duenean –ez, preseski eta halabeharrez, igandeetan– irakur, kanta edota hausnar ditzakeen bertsoz ondua agertzen da.

Ahapaldi-sorta luze hau da, ezbairik gabe, Etxepareren liburuak eraginen ikuspuntutik so eginik duen aipagarriena, bertan islatzen baitira haren erlijiozko norabidearen lerro esanguratsuenetakoak. *Devotio Moderna*ren ubide zabaletik isuria dirudi, adibidez, *DK*n meditazioari eta, haren baitan, gogoeta-gai zenbaiti emandako garrantziak: "An important method of spiritual development was meditation on central theological themes, particularly hell, heaven, death, and the Passion of Christ" (Hascher-Burger & Joldersma, 2008, 319. or.)[81].

Hizpide dugun atal honek erakusten duenez, ez zebilen Etxepare handik urruti gai horietako funtsezkoenak hausnargaitzat proposatzean, honako hiru hauek jorratu baitzituen zehatz-mehatz: Kristoren Pasioa, batetik, eta Heriotza eta Judizio Jenerala izeneko *Azkenkiak*[82], bestetik.

---

[80] "Orhituki *igandian behar dugu pensatu*/ zenbatetan egin dugun *aste hartan bekhatu*;/ orhit eta Jeinkoari barkhamendu eskatu,/ *atorra nola arim'ere aste oroz garbitu*" (I, 97-100; g.l.e.).

[81] Honela zioen *Devotio moderna*n laikoen eredu zen Bizitza Komuneko Anaien kidegoak beren *Consuetudines* direlakoetan: "Quas materias sic solemus dividiree et alternare, ut meditemur sabbatis *de peccatis*; dominica die *de regno coelorum*; feriis secundis *de morte*; feriis tertiis de beneficiis Dei; feriis quartis *de iudicio*; feriis quintis *de poenis inferni*; feriis sextis *de passione Domini* [...]" (apud García Villoslada, 1956, 324. or.; g.l.e.).

[82] Azkenkitzat hartu ohi diren Zerua eta Infernua ez dira Etxeparerenean beren-beregiko gogoeta-gai, harentzat, itxura duenez, heriotzarainoko bidea ongi eginez gero berez datorkeen sari edo zigor baizik ez baitira (ikus I, 101-104).

Horrela begiraturik, ageriago geratu uste da Etxeparek proposatzen duen gogo-jardunaren ibilbide-logika: lehendabizi, besteren –Jesukristoren– sakrifizio eta oinaze eredugarriari buruzko hausnarketa eta, bigarrenik, Azkenkien orena iristean, nork bere baitan igaro –eta gero jasan edo gozatu– beharko duenari buruzkoa.

Errepara bekio, orobat, gogoeten garapenak gordetzen duen hari kronologiko linealari: mundu honetan gertatua (hots, Kristoren Pasioa) aurrenik, besterako ate den Heriotza segidan, Hamar Aginduak hurren (une haietarako beste inoiz baino gogoan iltzatuago eta begiratuago beharko baitira) eta, azkenik, infernura/zerura bideratuko gaituen Judizio Jenerala.

Baina gatozen gogoeta-gaiok atalka ikustera.

6.4.1. Kristoren Pasioa

Honela izendatu dugun txatalak (I, 112-128) bi estanpa gogoetagarri hauek jasotzen ditu: lehena, Jesukristoren oinaze fisikoarena –infernuko zigor beldurgarria jasatera iritsi behar ez izateko eredu genukeena–, eta hark amarengan sorrarazitako sufrikarioarena, bigarrena.

Formalki, sarrera orokor gisako zazpi bertso-lerroko ahapaldiak ematen dio hasiera txatalari, egilearen autoerreferentzia bat buruan daramala (I, 105-111). Nabarmentzekoa da lerroaldearen egitura *DK*n emandako beste adibideren baten antzera taxutua dagoela (ikus, esaterako, I, 5-6, 9-10 eta 13-14). Hau da, aurreneko bi bertso-lerroetan irakurlearentzat ezaguna den bizitza arrunteko etsenplu grafikoa baliatuz (artzain-ardi-otsoa), gogoeta-esparru erlijiosora bideratzen du Etxeparek naturaltasunez haria, hartarako ezohikoa duen estrofa-mota badarabil ere. Esan behar da, zazpi bertso-lerroko luzera duen estrofa honi gagozkiola, bakarra dela obra guztian barrena[83], eta horrexegatik, hain zuzen, sorrarazten duela zalantzaren bat, besteak beste, ea, estrofa bakarrekoa izan beharrean, bertso-lerrorik "galdua" geratu zitzaien bi laukoz osatua ote zen[84].

Lerro-kopurua bere horretan utzita ere, beti susma daiteke ea, inplizituki bederen, zortzi lerroko estrofa baten (edo, esan bezala, lauko biren) aurrean ote gauden, honelakoetan, koplak kantatzeko erabili doi-

[83] Lehen begiratua bitxi samarrak gertatzen badira ere, maiztxo ageri dira bost eta sei bertso-lerroko estrofak ere.

[84] Aurreko estrofatik eta ondokotik bereizten dituen hoskidetasunak (*-i[k]*) sendotu egin lezake akaso hipotesi hori.

nuak eta formatuak medio, azken bertso-lerroa erraz asko izan baizitekeen errepikatua izateko prestatua[85]. Hemengo honen esangurak, erantsi beharrik ez da, ezin egokiagoa dirudi *bis* modura (epilogo, esakune edo *koda* bezala) jokatua izateko: "Hala zinets eztazana dauke enganaturik" (I, 111).

Zeinahi ere den hipotesi horren bentura, bertso-lerrootan hausnargaitzat aurkezten den Pasioarekiko uztarketa kontzeptuala Jainkoak gizakiari arima –nola artzainak ardia– zaintzeko bizkarreratu omen dion erantzukizunean datza, eta nola gizakiak, ondorioz, ardura horren kudeaketaren inguruko "kondu hertsia" eman beharko dion azkenean.

Jesukristok gurutzean isuritako odola arimaren salbaziorako bide delarik, tradizio kristauan Kalbarioko oinazeen kontenplazioan premiazkoa bezain ohikoa da sinesleen begirada Ama Birjinarenganaino jaistea. Eta horixe egiten du Etxeparek *Stabat Mater* kanta oroitarazten duen bi ahapaldiko eszena atxikiz.

Jesukristoren amari estilo zuzenean luzatutako bost bertso-lerroko otoitzak (I, 124-128) emango lioke amaiera txatal honi. Hemen ere, bosgarren bertso-lerroa erraz asko izan zitekeen amaiera-kadentzia modura erantsia: "Hek nigatik ziradela ari nuzu khonduia"[86].

Ezin ziur jakin, bestalde, nola interpreta daitezkeen ondoren tartekatutako bi ahapaldiak (I, 129-138), bi-biak bost lerrokoak, baina oraingoan hitanoz taxutuak. Berriro ere, zalantza da ea haietako azken bertso-lerroak amaierako musika-kadentzia baliatuko luketen esaldi autonomotzat ere har litezkeen, bost bertso-lerroko estrofa-mota honek, antza, bai baitu edukiak ixtera edota biribiltzera zuzendua dirudien funtzio moduko bat. Areago, bere xumetasunean, greziar antzerkian koruak betetzen zituen eginkizunetako bat edo beste –errituala, mugatzailea, aitzinatzailea...– gogorarazten du ahapaldi-mota honek. Irakurlearen barneahotsa irudikatzeko eginkizuna nonbait.

---

[85] Ustezko irregulartasunek erabateko erregulartasuna ezkuta dezakete sarritan. Gogora bedi, aldeak alde, Monteverdik beste genero eta beste molde batez diharduela dioenean: "Il s'agit d'une mélodie qui se répète à chaque vers, c'est-à-dire à chacun des quatre décasyllabes dont se compose ordinairement la strophe, avec une seule et assez légère variation à la fin du dernier (AAAA'). *Il est bien évident qu'avec une telle mélodie le nombre des vers dans la strophe n'a pas besoin d'être identique; et il n'y a rien de choquant si la cinquième strophe a ici cinq vers au lieu d'en avoir quatre* (Schéma AAAAA')" (Monteverdi, 1959, 134-135. or.; g.l.e.).

[86] Ikus 59. oharra.

Argi da, halaz ere, gurutzean hildakoaren miserikordia eta ahalguztiduntasuna gomutatzeko ezarriak direla[87] eta, hein batean bederen, trantsiziozko ahapalditzat ere har litezkeela, batik bat haietako bigarrenak honako hau aurreratzen duenean: "[...] salbatzia, damnatzia, erioa eta bizia,/ estenditzen orotara haren potestatia./ Ezi eskapa hari ehor, dauginian manuia" (I, 136-138).

6.4.2. Azkenkiak

Luzeena genukeen bigarren gogoeta-txatal honetan (I, 139-380), letra larrizko larderiaren enblema ohi diren Azkenkiak edo Azken Finak aurkeztu dizkio Etxeparek irakurleari, haietan gogoa finkatuz, bizitzan agertu bekatari-portaeraz taxuz hausnar dezan eta balora, eta onbidera dadin[88], kristau-doktrinaren arabera argi jakin behar baitu gizakiak eternitate guztirako egokituko omen zaion egoera heriotzaren unetik aurrera ebatziko dela, nahiz eta izatez, eraman duen bizitza dela eta, aurretik erabakita-edo daramala irits daitekeen une hartara[89].

Etxeparek, bistan da, ez zuen "azkenki" izendapena erabili, baina nabaria da horietako gaitzenak zituela gogoan hurrengo *kopla*-sorta luzea ontzean[90]. Gaitzenak diogu zeren eta, doktrina kristauaren arabera lau badira ere Azkenkiok (Heriotza, Azken Epaia, Infernua eta Paradisua), Etxeparek ez zituen modu zuzenean garatu Paradisuari eta Infernuari dagozkienak[91], zeharka eta printzatan baizik. Paradisua, egia esan, Jain-

[87] Biak hasten dira berdin, barne-ahotsa mintzatuko bailitzaigun: "Orhit adi [...]".

[88] Erreformak ere oso gogoko zituen arren, Erdi Aroko kristau-teologiak dakar Azkenkien inguruko lanketa garrantzitsuena. Ruiz Gallegosek dioen bezala, "La configuración de las postrimerías ha constituido uno de los elementos más sobresalientes en la ideología medieval. En la Baja Edad Media, en un momento en el que la justicia se convierte en una de las preocupaciones esenciales de la sociedad civil, además de que el derecho canónico ha sido fortalecido, la concepción del sistema judicial divino y la estructuración del más allá adquieren una especial relevancia" (Ruiz Gallegos, 2018, 12. or.).

[89] Oroitzekoa da Azkenkien baliagarritasun pedagogikoarena betidanik izan duela trenkatua tradizio kristauak eta haietatik isuri ohi den izu-ikaran jarria izan dituela gainak eta pikainak. Testamentu Zaharreko *Eklesiastikoa* edo *Ben Sirak-en Jakinduria* liburua da horretaz garbikien mintzo dena. Honatx Duvoisinen itzulpena: "zure egintza orotan *orhoit zaite zure azken egunaz, eta ez duzu behinere bekhaturik eginen*" (Si 7: 40; g.l.e.). Hain zuzen ere, pasarte horretan oinarritu dira Azkenki izenekoei emandako inportantzia eta gailentasuna.

[90] Beranduago, *Sinesten dut –Kredo–* delakoaren azken atalak izan dira sinesleak Azkenkiez pentsaraztera bideratu dituztenak (heriotza, hil eta bizien epaiketa, bizitza eternoa zeruan edo akaso infernuan).

koaren saria izango omen da, baina ez du aukera larregirik eskaintzen kopletan modu erakargarrian landua izateko[92]; emankorrago zatekeen Infernuaren inguruko gogoeta, garaiko ikonografiak erakusten zituen oinaze, tortura eta sofrikarioekin. Alabaina, beldurraren mamua konbertsiorako eragingarri gisa erabili bazuen ere, Etxeparek ez zuen Infernua gai berezitzat aurkeztu, han-hemenka aipatu baizik[93]. Ez infernua eta ez paradisua, beraz[94].

Hondarrean, Herioa eta Judizio Jenerala –haiekin batera munduak ezagutuko duen hondamendi fisikoa ahaztu gabe[95]– izan ziren *DK*n gogoeta-gaitzat eskainitako Azkenkiak.

Garapenaren aldetik, Azken Epaia du Etxeparek luzeena eta, horrexegatik hain zuzen, Azkenkien gune nagusia. Hartan daude orrialderik bizienak eta beldurgarrienak, eta ez da harritzekoa, izan ere, judizio hartan burutuko omen baita gizakiak bizitza honetan egindakoen eta egin gabekoen behin betiko ebaluazioa, eta horren arabera dagokiokeen golardoa edo kondena ebatziko.

Hemen, zalantzaren batekin bada ere, Azkenkien sarreratzat hartu izan dugu beste mundurako gaztigua ematen duen tetrastikoa (I, 139-142), horrek irekitzen baitu, sinbolikoki bederen, heriotzatik aurrerako

[91] Purgatorioa *DK*n ez agertzearen arrazoiak xinplea dirudi: ez da Azkenki eta, horrezaz gainera, ez dio bekatariari izuaren *plus*a eransten, alderantziz baizik, salbatzeko itxaropena hauspotu eta areagotu egiten dio. Eta ez da hori, ikusi bezala, Etxeparek bilatzen duena.

[92] Birritan bakarrik azaltzen da "parabizuia" *DK*n eta beste behin-edo "gloria" hitza haren sinonimotzat harturik: "glorian ezpa ifernuian" (I, 243).

[93] Bekatuaren bidetik gibelarazteko Etxeparek infernuaz eman zituen albiste sakabanatuak ez doaz ohiko topikoetatik harago: "Harren bier emanen du sentenzia pizuia/ elgarreki pena diten *ifernuko garrian*,/ *sekulako suian eta ezein pausu gabian*" (I, 256-258), "Orai dela zuiendako maradizionia,/ *ifernuko suia eta iagoitiko nekia*,/ *eta zuien konpainia demonio guzia*" (I, 357-359); "damnatuiak *ifernuian bethi dolorereki*" (I, 373), "Bekhatorek *ifernuian dute pena handia*,/ *pena handi, izigarri, ezein pausu gabia*;/ *sekulakoz egon behar hango sugar bizian*" (I, 176-178; g.l.e.).

[94] Ez du, esaterako, konparaziorik hirurehun urte lehenago Berceokoak *Los signos del Juicio Final* delakoan (~1250: 2003) azkenki bi hauei eman zien garapen luze eta, infernuari dagokionez, lazgarriarekin.

[95] "[...] este tipo de obras ponen de relieve la atracción que la Edad Media mostraba por la llegada de los terribles sucesos que tendrían lugar en los últimos tiempos [...] Es comprensible el éxito obtenido por estos temas apocalípticos en una sociedad castigada por guerras, hambre, dificultades económicas, enfermedades, etc., además de que todo ello era observado desde un punto de vista profundamente religioso" (Ruiz Gallegos, 2018, 12. or.).

egoera: "nor nolako izan giren orduian ageriko da,/ egin, erran, pentsatuia, ageriko guziak" (I, 141-142).

6.4.2.1. Herioa

Etxeparek paratutako lehen Azkenkia gizakiari kronologikoki Judizio Unibertsala baino lehenago etorriko zaion *Heriotza*rena da.

Oro har, era konplexu samarrean atonduta dago eta, haren bitartez, heriotzako orduaz oroitzera eta hausnartzera gonbidatzen du Etxeparek[96], eta halaber, "erioa dauginian" (I, 146) prest egon ahal izateko, orain bertan penitentzia egiten hastera aholkatzen.

Horrekin batera, eta heriotzako orduan konfesatzeko aukera ezaren aurrean[97] (eta, beharbada, Etxepareren inguruetan atzematen zen egoera hedatua zen hori), "Harmak erioaren kontra" izenburuko piezatxo ospetsuaren moldaketa tartekatu zuen autoreak (I, 180-195)[98], Gersonen lana iturritzat harturik (Aldekoa, 2010, 12. or.), eta irakurleari salbaziorako igaro-baimentzat eskainiz[99].

Esan gabe doa gorputzaren heriotzarekin parekatu ahal balitz bezala jokatu nahi izan dela hemen hilezkorra omen den arimaren heriotza metaforikoarekin. Formula horrek, baina, ez du heriotza fisikoaren erreferentziarik egiten eta bai, berriz, azken orduan salbazioa erdiesteko ezin-

[96] "Batbederak pentsa beza arimaren gainian/ nola salbaturen duen hura bere finian" (I, 174-175).

[97] Beheraxeago zehaztuko duenez, konfesio hutsa ere ez da nahikoa salbatua izateko: "Eta hoiek egiazki ehork hala ezpaditu,/ albailiaki duda gabe ezin dateiela salbu/ bere bekhatuiak oro baditu ere konfesatu" (I, 196-198).

[98] Eguneroko beharkizunekin lotuta joan zitezkeen "egiak" dira hauek: "Est tres bon conseil que *une fois ou deux le iour au soir et au matin eta au moins les festes* une personne retourne a soy et advise se elle peut *dire ces trois beritez pour estre en le stat de grace et hors des mains de l'ennemy*" (Gerson, ˜1479 [32 rº-vº]; g.l.e.). Etxeparenean ez bezala, Hamar Aginduen ondoan ezarri ohi ziren edizio desberdinetan.

[99] Askotxo izan ziren aipatu "harmak", latinez zein beste hitzkuntzatan, atxikita zeramatzaten *Opus tripartitum* eta *Traitè de dix commandements* direlakoen edizioak. Interesgarrienetako bat, Etxepareren eskuetara iritsia zitekeelako, Urkizuk (2012, 220. or.) gogorarazitako *Opus tripartitum, ou catéchisme en français* izenekoa, "que les Eveques de France, dans leurs Synodes, recommanderent auc Curés et insérérent dans leurs Rituels. C'est le Modele des Catechismes" (hemen erabilitako eskuizkribuan, buru aldean [2vº] idatzitako iruzkina). Liburuaren barnean erantsitako ohar batek dioen bezala, "ce traitié compila venerable [...] Jehan de Gerson [...] pour le salut du peuple chrestien, et l'envoia à l'evesque de Paris, affin que il le feist publier par les curés en toutes les eglises parochiales de son eveschié, par tous diemenches et festes de l'an, en lieu de sermon" (Gerson, 1404, 47. or.).

bestekoa den *kontrizio* delakoaz. Eta hor ez da ez rigorismorik eta ez hertsikeriarik, Elizaren doktrina tradizionala baizik. Horregatik, hain zuzen, ez dira jorratutako ideiak kontrizio-eskema klasikoetatik aldentzen. Hots: nork bere burua, Jainkoa laidoztatu duelako, bekatoretzat aitortu eta damutu behar du lehendabizi; une hartan bertan gogo irmoa izan behar luke handik aurrera, eta bizitza guztian, bekatutik begiratzeko, eta ezin du ahaztu, azkenez, urtean behin bederen, garizuman, egiazko konfesioa egiteko eta jarritako penitentzia betetzeko desira zintzoa agertu behar duela bere baitan.

Ez dira konplexutasun gehiagokoak hurrengo bi ahapaldiak ere (I, 196-204), ez edukiaren aldetik, bederen. Izatez, Gersonen iturri beraren moldaketa dira eta, funtsean, nabarmen uzten dute aipatu hiru "egiek" irakasten dutena gabe ez dela salbaziorik. Eta penitentziaren ortodoxia arruntenaren baitan betiere, argi uzten da segidan ez dela munduan *kontrizio*rik ez dagitenen *absoluzioa* eman dezakeen ez apaiz, ez apezpiku eta ez aita santurik ere[100], alferrikakoa baita bekatuen ahozko aitortze hutsa, pertsonaia horien aurrean belaunikatu arren. Ezin hobeto laburbiltzen da ideia hori azken lerroak seinalatutako kontrastean: Jainkoaren baitan *gogoa* jartzen ez bada, *hitzak oro* dira alferrikako (I, 204).

Gardena, bada, erlijio kristauak sinesleari heriotzako orduan, bekatu larrian eta konfesatzeko aukerarik gabe egon arren, luzatzen dion aukera: bekatu guztiez bihotz kontritoz damutzea eta Jainkoari barkamena eskatzea. Horixe omen bizitzaren azken-azken uneko salbaziorako formula.

Arazotsuago ikusi izan da, haatik, azken bi estrofa horien forma, aski bereziak baitira eraketa-ezaugarriei dagokienez eta, horren karietara, ikertzaile bat baino gehiago ausartu izan da beranduago –edo beste esku

[100] Gersonen obretatik zuzen jasoak izan gabe ere, haren jarraitzaileen libururen batetik bilduak izan daitezke pasarteok, edizio kontrolatuak-edo zirenetan, esaterako, ez baitira beti hiru hierakia-mailak aipatzen: "[...] certissime sciant [...] *non episcopum aut papam* tales absolvere posse" (˜1470, [14]; g.l.e.). Orobat, "Sachent tels gens quil *nest prelat ne mesmes le pape* qui les puisse ou doye absouldre"(˜1492, B4vº; g.l.e.). Ondoko honen tankerakoetan, ordea, bai: "[...] silz congnoissent en icelle iournee avoir offense dieu mortellement: lors doivent recourir au precedent remede en disant les trois veritez susescriptes lesquelles quiconques veritablement ne pourra dire homme qui na encores desplaisance de ses pechez: mais persevere en iceus: ou na propos de soy amander: et de fuyr et evyter les occasions de peche pour ladvenir. *Sache tour tel quil est en estat de dampnation. Et quil ny a prebstre/evesque ou pape* qui luy peust donner absolution pose mesmes que des pechez par luy commis il feist confession" (La Fosse, 1529, [43]; g.l.e.).

batek akaso– tartekatuak izan ote ziren susmatzera. Altunak gordinki zioenez, "Bi ahapaldiok belarrian min ematen diote Etxepareren bertso guztiak behin eta berriro irakurri eta haien doinura ohitu denari. Trabaz eta zoztorrez beteak daude. Gure ustez biok ez dira Etxeparerenak" (Altuna, 1980, 42. or., 196. bertso-lerroari dagokion oharrean).

Harriduraz mintzo zen aurrerago ere ahapaldi horietako[101] neurkerari eta alderdi fonetikoari zegokienez:

> Laburkiro: bi ahapaldiotan ez dugu ia bertso zuzen bat bakarrik eta zuzena esatean hauxe esan nahi dugu batipat: beste guztien artean ehuneko laurogei baino gehiago diren bezalakorik. Hots, eskema honi egokitzen zaionik: 4 + 4 / / 4 + 3, lauko bakoitza hitzaren azkenarekin batera datorrela. Horrezaz gain bestetan ez bezalako fonetika aldakuntzak agertzen dira (Altuna, 1980, 44-45. or., 204. oharra).

Baina ahapaldi biek nolabaiteko "irregulartasunak" dakartzatela onartu arren[102], ezin inor ziur egon noraino izan zitekeen Altunaren irizpide metrikoa Etxepareren bertso-lerroak baloratzeko neurgailu egoki, azpeitiarrak dioena dioela, sarasketarraren "metrika" ez baita, eskuarki, silabaka hertsiki eta matematikoki burutzen; ez ahapaldi bi horietan eta ez beste hainbatetan. Horrek, noski, maiz gaitzetsia izan den eta orrialdeotan garatuko ez den hipotesiari heltzera eraman gintzake, honako hau planteatuko lukeen hipotesiari, alegia: garai hartan ezagun ziren doinuak erabil zitzakeen Etxeparek bertsoak ontzeko, silabakako metrikaren hertsapenik ez zuela; doinu haiek markatu hots-multzo edo pausoen bidez onduko zituen, beraz, bertso-lerroak eta estrofak, eta doinu haiekin edo antzeko moldekoekin kantatuko zituzten gero irakurleek bertsoak.

Hipotesi horrekin errazago uler litezke, agian, bai bertso zuzenak eta bai "anomaliak", bertsoen taxutze-era ez-kuantitatiboak malgutasun handiagoa onartzen baitu hitzekin jokatzeko unean eta bai sinalefak, sineresiak, dialefak eta bestelakoak bihotzerrerik gabe egiteko.

Egia ere da, anabasa itxurako horretan, azken estrofak eskema dialogikoari heltzen diola, baina irakurleari zuzentzean zutano alokutiboa du aditz-ezaugarri[103], hain zuzen ere, jarraian datozen bi ahapaldiekin kon-

[101] Honako hau zioen haietako batez (I, 199): "Hau da, agian, obra osoaren bertsorik traketsena" (Altuna, 1980, 43. or., 199. oharra).

[102] Ez dira, neurriari dagokionez, inondik ere irregular, hexadekasilaboen moldeetatik asago diren bertso-lerroak baizik. Ezer bitxi izatekotan, ez aurrekoekin eta ez ondokoekin bat ez dagien hoskidetasuna da (*-u* bokalean oinarritua). Bereizgarri biak batera gertatzean sortzen dira "anomalia"ren inpresioa eta susmoak.

traste –eta etenketa– bizia sortuz, hitanoa baitarabilte azken hauek. Zeinahi ere den horren arrazoia, nabarmendu nahi genuke tetrastikoen artean salbuespen dirudien bosgarren bertso-lerroak erraz bete zezakeela, musikaz baliatzean, piezaren epilogo moduko baten funtzioa, hau da, amaieran oroitu beharreko mezuaren laburpena esakune edo *koda* eran atondua, eta seguruenik laugarren bertso-lerroari zegokion soinu bera errepikatuaz kantatzekoa: "Gogua gabe hura baitan, hitzak oro afer tuzu" (I, 204).

6.4.2.2. Azkenkien arteko zubia. Hamar Manamenduiak

Gomendio-tonua galtzen ez duten aparteko bi estrofa horiek iraganik, agerikoa da *DK*ko eta *Heriotza*ri buruzko gainerako koplek duten hoskidetasun nagusiari (*-[i]a*) heltzen zaiola hurrengo bi estrofetan (I, 205-213)[104]. Haien berezitasun formala, dena den, hitanozko aditz-formen erabileran datza, bat-batean, toka mintzo baitzaio Etxepare irakurleari[105]. Aurrekoen agindu-eitea galtzen ez duten "eztenkada" errukitsuak dira hartzailearentzat, zirika ari zaion barne-ahotsaren itxurapean.

Formaren aldetik, estrofa "traketsaren" eskema genuke berriz ere aurrean, lehena lau bertso-lerrokoa den bitartean, bostekoa da-eta bigarrena[106]. Azken honen bukaera, bestetan bezala, amaierako esakune la-

[103] Diogun, bide batez, honako estrofa honetako zuketa alokutiboaren erregulartasuna salbuespentzat har badaiteke ere, beste zenbaitetan agertzen den anabasak (baldin anabasa bada "adizki neutroak eta zukako alokutiboak uztarturik" aurkitzea) ez duela Alberdik ateratako konklusiora eramaten, hots, Etxepareren adibide "erakusgarri hauetatik guztiotatik batez ere zutanoaren zalantzakortasuna, finkotasunik eza eta hautazkotasuna ondorioztatzen dira antzinako testuetarako" (Alberdi d/g). Hau da, nekez ondoriozta daiteke garai hartako zutanoaren finkotasuna edo finkotasunik eza Etxeparek dagien erabileratik, sarasketarrak, izan ere, bertsoen *neurri* delakoak eskatzen ziolako erabili baitzuen zuketa nahasia, ez bestegatik. Azken batean, zutano neutroa eta zutano alokutiboa bat ziren komunikazio-paradigman, eta bat eta bera –edo bertsua– forman ere. Hautazkotasuna bai, ondoriozta daiteke, beraz, baina ez finkotasunik eza.

[104] Lehena, gainerako gehienak bezalatsu, *-ia* bokaletan oinarritzen den bitartean (aurreneko hiru amaieretan -[*e*]*...ia* baten oihartzuna ere "entzuten" da), bigarrenak -[*e*]*...a* du ezaugarri.

[105] "Regla ezak", "emak", "lauda ezak", "ezin aite", "ukeiena", etab.

[106] Ez du Etxeparek behin ere *bi*sik (bertso-lerroaren errepikapenik, alegia) agerian egiten, baina uste izatekoa da hemen, lehenago baliatu duen eta geroago ere baliatuko duen moldea –baita, apika, doinu-motari ere zegokiona– duela gogoan (ik. I, 129-138 eta II, 64-73, hurrenez hurren), hots, bosna bertso-lerroko estrofa bi segidan emanak, hizpide dugun honako honen bosgarren lerro hipotetikoa, praktikan, laugarrena errepikatuz osatuko litzatekeelarik: "Jangoikua lauda ezak gauza ororen buruian" (I, 208).

burbiltzaile errepikagarritzat interpreta liteke ziur asko: "Lege honi segi bedi salbu nahi duiena" (I, 213).

Horrekin loturik, bi hitz llabur ahapaldiok *DK*n dituzten funtzioei gagozkiela. Herioaren Azkenkia amaituta, lehen eta bigarren ataletako beharkizunekiko kateatze modukoa antzematen da irakurleari ematen zaizkion aginduetan. Dena den, estrofok "Judizio jenerala" delakora iristeko hedatzen duten pasabidea da kohesioaren aldetik azpimarragarriena, bertan uztarketa linguistikoa eta formala egiten baita epaiketa-lege izango diren Hamar Aginduekin, aldi berean sarrera egin eta ohiko sintesia aurreratzen delarik (I, 208).

Jakina, uztartze horretan hitanoa ez da Dekalogoarekiko lokarri soila. Izatez, haren ondoan, hoskidetasun-bokal nagusi bera (*-i*)[107] erantsita dakarten bi bertso-lerroek ere (I, 224-225) errepikatu besterik ez dute egiten –oraingoan zuketaz baliatuz– esakune gisakotzat definitu dugun 213. lerroaren mezua, batean "lege" eta bestean "Manamendu" badira ere darabiltzan terminoak[108].

Baina harago ere iristen da delako uztarketa hori, aurreneko estrofa biak (I, 205-213), izan ere, Mandamentuen laburpenerako aurkeztu ohi den amaierako agindu bikoitzaren biltzaile huts baitira, ezer izatekotan: "Jangoikua lauda ezak gauza ororen buruian" (I, 208) eta "berzer egin eztazala nahi ez ukeiena, ezetare falta ere hiaurk nahi duiana" (I, 211-212)[109].

Joan-etorriko mugimendu batekin, beraz, hedatua geratu zen bi Azkenki gaitzen arteko sarea, hedatua eta Heriotik Judiziorako trantsizioa berretsia, jainkozko Aginduak baitira salbazio eternalerako merezimenduak ebazteko Azken Judizioan astinduko den kode "penala".

---

[107] Ez dira hemen Etxepareren jolas fonetikoak iruzkinduko, baina aintzat hartzeko modukoa da Hamar Aginduetarako dagien hautu-sorta kateatua: gain*etik*, ban*oki*, deb*otki*, luz*eki*, gaitz*etsi*, h*unki*, ed*uki*, fals*uki*, gaix*toki*, just*oki*.

[108] "Manamenduiak hoiek dira, Jangoikuak emanik, / hok begira ditzagula, salba giten hegatik" (I, 224-225).

[109] Honela euskaratu zuen Leizarragak "Legue guciaren sommarioa" omen dena: "Onhetsiren duc eure Iainco Iauna eure bihotz guciaz, eta eure arima guciaz, eta eure adimendu guciaz. Haur duc Manamendu lehena eta handia. Eta bigarrenac hura irudi dic, baita, Onhetsiren duc eure hurcoa eure buruä beçala. Bi manamendu hautaric dependitzen dira Legue gucia eta Prophetac" (1571: *ABC*, 1402. or.).

Hamar manamenduiak

Eskuarki, *LVP*ren lehen edizioan izenburuaren ezkerraldean antigrafoa (¶) jarria duelako, errima propioa eta bereizia daramalako eta aurreko-ondoko atalekin bestelako loturarik antzeman ez zaiolako hartu izan da "Hamar Manamenduiak" *DK*ren bigarren parte edo pieza autonomotzat.

Hamabi bertso-lerro ditu delako "parte" honek (I, 214-225): Aginduei dagokien bertso-lerro bana[110], batetik, eta beste bi bertso aholku-emaile amaieran, bestetik. Aditz-formari dagokionez, *toka* darabil Etxeparek dekalogoa xehatzean. Kasu honetan, horratik, tentazioa egon liteke pentsatzeko ea tradizio judu-kristauak bulkatua izan ote zen aditz-generoaren hautaketa-faktorea, usadio hartan populua zein gizakumea baitira agindu eta mezuen hartzaile "naturala"[111]. Inertziak inertzia, besterik adierazten du gizonezkoek bakarrik egin omen zitzaketen bekatuen trataerak (ikus 6. eta 9. aginduak). Badirudi, bada, hikaz markatutako gainerako lerroaldeekin sintonian egina dela[112].

Gogoan hartzekoa da, bestalde, Etxeparek ez duela ondoko bi lerroetan (I, 224-225) hitanorik baliatu; haietan, gorago aipatu estilo kateketiko neutrora igaro da, diskurtsoa nolazpait objektibotasunera eta, begirune berezia merezi ala ez, hartzaile ororengana itzuli nahi izan balu bezala. Izan ere, eta bihoa hori honi buruzko azken oharkizun modura, Dekalogoa ontzean beste xederik izan balu (jende xeheari bakarrik zuzendu, esate baterako), ez zukeen Etxeparek bertsoen neurkeran hitanoa erabiltzeko eragozpenik izango, silabikoki ezin hobeto moldatuko baitziren guztiak bertso-lerroen "neurri"ra: *dira* > *dituk, ditzagula* > *ditzaiala, ditzagula, giten* > *hadin, giten*. Erantsi behar da, halaber, ezin izango zukeela alderantziz jokatu Dekalogoa zuketa neutroa baliatuz ondu nahi izan balu,

[110] Nabarmen utzi behar da molde berriak ez diola Dekalogoari funtsezkorik ezer ez aldatzen eta ez nahastekatzen; eta horrezaz gain, eta aldi berean, argi erakusten duela Etxepareren trebetasuna funtsezko Agindu horiek guztiak bertso-eredu finkora egokitzeko.

[111] Gurean Leizarragak erakutsi moduan, Aginduak Israelgo populuari zuzendu zitzaizkion eta, hartara, tokaz baliatu omen zen Jainkoa hari mintzatzeko eta dekalogoa luzatzeko orduan: "Behadi, Israel: Ni nauc hire [...] 1. Eztuc ukanen *niçaz* berce Iaincoric ene aitzinean [...]" (1571: *ABC*, 1399-1401).

[112] Ez da ahanztekoa Ziburuko Etxeberrik *Manual devotionezcoa*n eskaintzen duen bertsio trentotarrak aurreneko bost Manamenduetan Etxeparenekin duen antza: "Iongoico bat onhetz eçac, eta adora devotqui,/ Eta haren icenaz ez ciñic eguin vanoqui./ Guehiago beguira çac igandea saiñduqui,/ Eta burassoak ondra, bici adin lucequi./ Nihor hill ezteçaquela, ez bihotcez gaitcetsi" (1669 [1627], 12. or.).

hemistikioak, Altunaren etsimendurako, behar baino gehiago luzatuko baitzitzaizkiokeen[113].

Azpimarra dezagun, berriro bada ere, Hamar Aginduak hor kokaturik egotea ez dela, inondik ere, zortearen, kasualitatearen edota Etxepareren aliritzirako joko-zaletasun poetikoaren fruitu. Mandamentuak, izatez, Jainkoak Judizio Jeneralean epai-lege larri modura baliatuko duen araudia dira. Horren ondorioz, bere burua eta arima salbaturik ikusi nahi lituzkeen irakurleak, nola edo hala, ongi irakurri, ezin hobeto ikasi, etengabe gogoratu eta ezinbestez bete beharko lituzke.

Ez da Dekalogoaren kokapenarena, dena den, Etxepareren originaltasunari zor zaion zerbait. Garai hartako dotrinetan ere ez zen ezezaguna, Judizio Jenerala landu baino lehen, bertan etsaminatua eta epaitua izango omen zen "temarioa" –Aginduak, alegia– eranstea, sineslea jarraian, dekalogoa irakurtzean, Jainkoaren aurka burututako bekatuen inguruko hausnarketa, damu eta penitzentzia egiten has zedin. Desberdintasunak handiak eta ugariak badira ere, oso antzeko aurkezpena egiten du atal horretan, adibidez, Etxepareren garaikide zen Pedro de Córdoba-k 1544an kaleratutako *Dotrina Cristiana para instrucion e informacion de los indios* delakoak (ikus Medina, 1987, 94. or.)[114].

6.4.2.3. Judizio Jenerala

Gogoeta-gaien atalaren barnean *Judizio Jeneral*ari dagokion Azkenkia dugu lerrotan luzeena, ikuspuntu narratibotik begiratuta interesgarriena eta, kristauen sinesmenerako, gomutagarriena (I, 226-380). Edonola ere, *DK*ren ohiko irakurketan hartzen duen luzera murriztua utziko da proposatzen ari garen egituraketa honetan, Azkenkiari buruzko gogoetaldiaren bukaeran itsatsitako otoitzak –"Oracionia" izenekoa barne– beste atal bat osatzera igaroko dira eta.

---

[113] Ez dira neurriz baliokide *ador'ezak* eta *ador'ezazu*, *ohora itzak* eta *ohora itzazu*, *eztazala* eta *eztezazula*, etab.

[114] Berdintsua da planteamendua protestantismoaren esparru batzuetan ere: "El Juicio Final que tendrá lugar después de la Resurrección. Por medio de Jesucristo, Dios juzgará a toda persona para determinar la gloria eterna que esta recibirá. *Ese juicio se basará en la obediencia personal a los mandamientos de Dios*, y en la aceptación del sacrificio expiatorio de Jesucristo" (Iglesia de Jesucristo de los Santos de los Últimos Días). Egungo eliza katolikoak, berriz, beste modu batean planteatzen bide du Azken Epaiaren auzia, dekalogoaren literalitatera gabe, "Zoriontasunak" izenekoetara begira hain zuzen (Centofanti, 2020).

Agerikoa da Etxeparek ez duela hemen kristau teologiak bereizten duen *judizio partikularra* edo norberari hiltzean egiten omen zaion berehalako epaiketa aintzat hartzen. Eta ongi ezaguna izan bazezakeen ere[115], pentsa daiteke izuaren faktoreak bultzatu zuela, garaiko bibliografia eta ikonografia ezagunenaren ildoan[116], *Azken Judizioa* bakarrik erakustera; beldurtze pedagogikoaren faktoreak[117] eta baita ere, nola ez, *epai partikularra*k sozialki zeukan interesik ezak bultzatua, esan nahi baita[118].

Zuzenean eta norberarena gogorarazi ere gabe heldu zion, bada, sarasketarrak munduaren amaieran, guztiok hilda egotean, Jainkoak burutuko omen duen epaiketa *kolektiboa*ren gaiari.

Esan daiteke, formalki bederen, Azkenkiaren zinezko garapenaren sarreratzat har litekeen bost bertso-lerroko estrofa dagoela haren buruan (I, 226-230). Goragoko beste zenbaitetan bezalatsu, honetan ere bosgarren lerroak behin edota birritan errepika zitekeen *koda*ren funtzioa erakusten bide du, txatal honetako mezu nagusiaren epilogo laburbiltzailea, ikaserraza eta aise errepikatzeko modukoa baita[119]. Eta badu, orobat, *DK* guztian zehar ereina eta hedatua den *oroitze* kontzeptuarekin ere uztarketarik, uztarketa zuzenik, Jainkoak berak Epaiketaren amaieran dioenez[120], *oroitzea*n, Jainkoaz eta inplikazio guztiekin *oroitzea*n alegia, bai-

[115] Diogun, gauzak argitze aldera, erromatar doktrinaren arabera, heriotza gertatu bezain azkar Jainkoaren erabateko zuzentasunak erabakitzen duela zein diren norberaren arimaren berehalako ordainsaria eta betiereko zoria. *Judizio jeneral*ak berretsi egiten omen du *Judizio partikularreko* ebazpena, nahiz eta, azkena, kolektibo eta osoa den heinean, areagotu ere egin ditzakeen sariak eta zigorrak. Inplizituki dogmatzat jaso zen *Judizio partikular*raren auzia Eugenio IV. elizburuak 1439ko Florentziako Kontzilioan Batasun-Dekretuan Azkenkiez xedatutako atalean (*Bula Laetentur coeli*).

[116] Aski da mende bat lehenagora joatea ospetsu bilakatuko ziren *Azken Juizio*en errealismo kutsagarriaz ohartzeko (Fra Angelico, Jan Van Eyck eta beste). Etxepareren argitalpenaa baino hiruzpalau urte lehenagokoa da Michelangelok Kapera Sixtinoan margotutako *Judizioa* ere.

[117] "Las manifestaciones dedicadas a la justicia divina, es decir, al Juicio Final y al juicio del alma, se encuentran impregnadas de un intenso valor moral, dirigido a la búsqueda de unos comportamientos acorde a los principios cristianos. Estos escritos e imágenes exhortan al cambio de conducta" (Ruiz Gallegos, 2018, 11. or.).

[118] Ezin da ahaztu, halaber, doktrina kristauan baduela *Judizio Handi* honek lekukotasunaren eginkizuna, hots, ebazpena eta haren arrazoiak guztion aurrean, publikoki, ematearena.

[119] -"Harzaz unsa orhitzia zuhurtzia handi da" (I, 230). Ohar bekio, bidenabar, bigarren hemistikioari, klitxetzat finkatua azaltzen baita geroagoko beste poema batean ere ("Bertzen gaitzaz zenzatzia zuhurtzia handi da" [XIII, 15]).

[120] "Erranen du bekhatorer dolorezki orduian:/ *Nizaz etzineten orhit bizi zinetenian*;/ hanbat ongi nik eginik zuier zuien mendian,/ esker hon bat ukhen eztut zuieganik bizian" (I, 340; g.l.e.).

tatza azken buruan zinezko salbazioa. Funtsean, Jainkoaz *untsa* oroitzea, haren justiziaz, miserikordiaz, majestateaz, erredentzioaz oroitzea, sainduez oroitzea, hildakoez oroitzea, Azken Epaiaz oroitzea, otoitz egiteaz oroitzea, bekatuez oroitzea da, Etxepareren hitzetan, salbazioa erdiesteko gakoa, horiezaz guztiez oroitzeak ez bailekarkioke onik baizik sinesleari.

Edukien mailakatzeari dagokionez, Judizio Handirako deia dator lehendabizi, oso estilo beliko eragingarrian ondua, gainera: "Arma! Arma! Mundu oro judizio handira!" (I, 231). Halere, elementu asko eta desberdinak lotzen dituen haria da Judizio Jenerala josten duena, guztian barrena pasarte narratibo bizirik, aholku praktikorik zein bestelakorik falta ez dela[121]. Berau da, izatez, *DK*ko atalik anitzena[122] eta, koherentziaren haria ia eten gabe, heriotzatik infernuko kondenarainoko bidea erakusten duena, tartean, jakina, Azken Epaiaren eszenografia-osagai gaitzenak –Juizioaren garrantzia eta eraketa-modua, kokapena eta garapena, epaiketaren erabateko unibertsaltasuna[123], seinaleak, Jainkoaren mintzaldia, sententzia... – daudelarik.

Giza-tradizio latzenei segituz, konbertsiorako tresna egoki deritzo Etxeparek ere eternitatean gerta daitekeenaren izua eta larderia sustatzeari[124], eta ondorioz, sinesleen baitan beldurra sorraraztea du xede Judizioaz dagien irudikapenak. Azken zigorraren beldurrak egungo bekatuarekiko izua sorrarazi dezan, azken buruan.

Labur-zurrean, bada, "kreadore handia"k Juizio Jeneralerako egindako deiarekin eta aginduekin hasten da txatal hau (I, 226-247). Ondokoaren garapenean, aldiz, bada harrigarri-edo den zerbait, haria hautsi eta zintzilik uzten duten bi tetrastiko erantsi baitira segidan, biak, irudiz,

[121] Baditu Azkenki honek prolepsiaz baliatu behar den narrazio-forma berezi bat eta, aldi berean, osagai interesgarri zenbait, gaien disposizio "kronologikoan" islatuz joango direnak eta hemengo honetan ezin buru daitekeen miaketa zehatza eskertuko luketenak.

[122] Ez da bertan falta, bestalde, bertso-kopuru desberdineko estrofarik: bost lerroko bederatzi eta sei lerroko hiru.

[123] *Dantza makabroa*n irudikatutako "sozializazioa", alegia.

[124] Historiak utzitako lekukotasunak eta gizakiaren eskarmentuak berak erakusten dute izua eta beldurra direla bizimoldeak aldarazteko erarik eraginkorrenak (ikus, besteak beste, Delumeau, 2012). Bizitza guztiaren ondoren, hamaika arrangura sorrarazi duen *Dies irae* ezaguna iritsiko omen da, hots, nork bere buruari, kanta izugarri horrek islatu bezala, egin beharko dion galdera larrienaren eguna: zer erantzungo nik orduan Jainkoari? Guztiarekin ere, oroitarazi behar da ez dela Etxepare inguruotako autorerik sutsuena izua astintzeko unean.

irakurlearen kontzientzia ukitzeko tartekatuak. Lehenean, Jainkoaren "potestate handia"z pentsa dezala aholkatzen zaio jende onari (I, 248-249), eta, bigarrenean, gorago ere aurkeztu duen lauko bera (I, 83-86) errepikatzen da osorik (I, 252-255)[125]. Zutanoa erabili da bigarrenean, ez ordea –edo ez hain argi, bederen[126]– lehendabizikoan[127], zeinak behiala baliatu ohi zen koruaren ahotsa, hunkigarria zinez, gogorarazten baitu atzera ere. Guztiarekin ere, modu bitxian interpolatuak dirudite tetrastiko biek, hausnarketari bidea irekitzen dioten arren, hautsi ere egiten dute-eta, aldi berean, Judizioaren haria.

Hurrengo laukoan (I, 256-259) heltzen zaio bi estrofa gorago zintzilikaturik utzitako hariari. Bertan, hasiera anaforiko jadanik –urruntasunagatik– ilunak ("haren bier") lehenago aipatutako gorputza eta arima dakartza berriro gogora, Judizioan elkarrekin penatzeko eror dakiekeen ebazpenari buruz berandu baino lehen oldozteko erregua egiten delarik: "Orok, othoi, onsa pensa zer den irabazia!" (I, 259).

Txatal berri-emaile modukoa tartekatu zuen segidan Etxeparek (I, 260-269), Epaiaren erraldoia eta erakutsiko omen duen bortizkeria ordura arte ezezaguna azalduz eta epaiketaren osagarri juridikoak (jujea, demandantak, defendentak, sententzia) zehaztuz. Hartako bigarren ahapaldiaren eduki deskribatzailea zela eta, bistan da tetrastikoaren mugak hausteko premian aurkitu zela gure egilea eta, ondorioz, ez zuela eragozpenik izan estrofari sei bertso-lerro emateko.

"Egun hartan" (*Dies magnus irae* hartan [Ap 6:17])[128] gertatzen hasiko omen den egoeraren koadroa –iragarpen argia eta zehatza– eskaini zuen ondoren (I, 270-289), osagairik funtsezkoenak ondokoak zituelarik: bekataria bakarrik, isilik eta beldurrez aurkituko da, bekatuak berak izango dira haren kontra mintzatuko direnak[129], une hartan epaileak ez du inola-

[125] Nekez erantzun dakioke bikoizte bitxi honen inguruko zalantzari: nahita jarria? nahasketaren baten fruitua? bestelakorik?

[126] Jokatua den aditz bakarra, galdera baten barnean formulatua da, horrek berezko dakarren neutralizazioarekin. Estrofa, beraz, berdin koka liteke zutanozein hitanotestuinguruetan. Balantza alde batera oker lezakeen berezitasuna, hitanoaren hipotesiaren aurka dagoen bakarra adieraztearren, honako hau: "jende honak" dira mezu-jasotzaileak eta ez "hi heu", irakurle.

[127] Hitanoa ez da formalki *DK* huts den atalean berriro azalduko (ez dugu, noski, aintzat hartzen hizpide dugunarekin zerikusirik ez duen hiketa [I, 282]). Hurrengo agerraldia "Amorosen gaztiguia"n izango du (II, 64-73).

[128] Lehenago Herioarekin gertatu bezala, orain hemen "egun hartan" eta "orduian" dira Judizio Jeneralaren burutze-unea aditzera emateko formulak.

ko erregurik –otoitzik– entzungo[130]. Gomendioa, beraz, aratza eta esakune bezala errepikatzeko modukoa: "egun harzaz orhit giten, othoi, hara gaberik!" (I, 289). Nabarmentzekoa da estrofa biak seina bertso-lerroko bilakatuta azaldu izana[131].

Aurrekoa bezain garrantzi handiko mezua, halaber, hurrengo estrofetakoa (I, 290-306), Jainkoaren justiziaren aurrean gizaki guztiak berdinak izango direla diotenetakoa[132]. Horren arabera, zehaztu eta ziurtatu egiten da agintari politikoak, eliz hierarkiakoak, jakitunak zein lanbide liberalekoak irakurle xumea bezala tratatuko dituela Epaile nagusiak, "eta bardin jujaturen [dituela] handia eta xipia" (I, 301).

Jainkozko justiziaren sozializazio horrek bideratzen du, baldinbere, azken erregua: "Elas, othoi, orok egin orai penitenzia,/ egun hartan gero eztugun egiteko handia" (I, 305-306). Bertso-lerro biok bosteko estrofa baten amaiera ez ezik, txatal edo ideia-multzo bat ere ixten dute, horrek erregua osatzeko eskaintzen dien aukerarekin.

Hurrengo estrofa biak ere bosna bertso-lerrokoak diren arren, ez dute aurrekoaren antzik, nonbait gai beldurgarri berria zehatz garatzeko eta kontatzeko premiak luzarazten dizkio-eta ahapaldiak[133]. Ildo horretan, eta sinestunek espero bezala –Bibliak iragarria baita[134]–, naturak ere

[129] Hitanoaren erabilerak badu bekatuen ezpainetan bestetan antzematen ez den ukitu berezia, mespretxuzkoa ez dena, baina testuinguru horretan bekatariari zuzendutakoan honen kontzientziaren tokia hartu eta kutsatu egiten duena: "Hire kontra heben gituk, ihaurorrek eginik" (I, 282).

[130] Hiru tetrastikotan bana eta kanta zitezkeen seina bertso-lerroko bi estrofa sorrarazi ditu hemen ere poetaren grina narratiboak (I, 278-289).

[131] Azken bokalaren mugatik atereaz aberastu zituen bertso-lerroen amaierako kidetasun fonikoak ere biotan: *gainetik, azpitik, aldetik, publiki, eginik, barnetik* eta *lekhurik, bathirik, jarririk, ixilik, othoy*[*i*]*k*, *gaberik.*

[132] "[...] la imagen de la justicia divina es la imagen de la justicia ideal, el modelo que deben seguir jueces y gobernantes. Las grande composiciones de finales de la Edad Media que tienen como tema el Juicio Final muestran a Cristo impartiendo justicia, es decir, ejerciendo una función propia de reyes. Esta imagen constituye una manifestación pública de un soberano glorioso, victorioso, triunfal, acompañado por su corte de oficiales; en otras palabras, el prototipo para la justicia terrestre. Sin embargo, esta no es una visión reservada a una minoría de privilegiados, sino que su aparición en las portadas medievales de las iglesias constituye una imagen pública, expuesta ante cualquier espectador: un testimonio de que la sentencia de Dios no tendrá en cuenta las diferencias sociales" (Ruiz Gallegos, 2018, 12. or.).

[133] Narrazio-premia berdintsua islatzen dute beheragoko beste ahapaldi batzuk ere, hala nola I, 329-333, 334-338 eta 376-380.

[134] Aiko, konparaziorako, Mateo eta Lukas ebanjelarien bertsioak Etxepareren garaikide Leizarragaren hitzetan: "Eta bertan egun hetaco tribulationearen ondoan, iguzquia

azalduko omen ditu antonomasiazko *Eguna* iritsia dela adieraziko duten "seinaleak" (I, 307-320). Bistan da, haien artean doktrinalki latzagorik eta gordinagorik bada ere, Etxeparek arras baztertu dituela *DK*n dagien irudikapenetik eskatologia kristauak argiro zehaztu ohi dituen beste hainbat, hots, antikristoaren etorrerarena, apostasia orokortzearena, judutarren konbertsioarena, etab. Haien aipamen hutsak erakar zitzakeen zailtasun, ulertezin, eztabaida eta auziak saihestuz, bada, irakurleei ulergarriago eta hunkigarriago zitzaizkien efektu kosmiko-geologiko larriak zituztenak baino ez zituen seinaletzat aurkeztu.

Bezperetako seinale horiek eta gero[135] etorriko omen da, Leizarragak jaso bezala, "[...] hire hirá, eta hilén demborá, iugea ditecençát" (Ap 11: 18)[136]. Hortaz, "hilak oro" arima-gorputzetan "eskusatu gaberik"[137] bertararaziko duen *tronpeta*ren mintzoari (I, 321-324) men egin ondoren burutuko da judizio-bilkura.

Hartara, iragarritako *Epai*aren koadroa irudikatuko du sarasketarrak[138], guk hemen bi txataletan bana genezakeena, hots, bilkurari dagokiona (I, 325-359), batetik, eta sententziari eta haren burutzapenari buruzkoa (I, 360-380), bestetik. Eszenografian ez da faltako, noski, epaiaren jokalekuari eta partaideen kokapenari buruzko albisterik, Jainkoaren zerutikako etorrera[139] eta hitz erdiragarrienik[140], ebazpenaren eta berehala-

ilhunduren da, eta eztu emanen ilharguiac bere arguia, eta içarrac eroriren dirade cerutic, eta ceruëtaco verthuteac ikaraturen dirade" (Mt 24:29). "Orduan içanen dirade signoac iguzquian et ilharguian eta içarretan: eta lurrean afflictione nationetan ez iaquinez cer eguin, orroaz daudela itsassoa eta bagác: Hala non guiçonac hilac beçalacaturen baitirade iciduraren handiz, eta mundura ethorriren diraden *gaitzén* beguira egoitez: ecen ceruëtaco verthuteac ikaraturen dirade" (Lk 21:25-26).

[135] Ez da, ikus daitekeenez, Etxepare diskisiziozale –liburuan, bederen– eta ez da diskisiziotan ere sartu ea aurreko zazpi egunetan azalduko diren seinaleak edo hamabostetan, eta aski deritzo "seinaliak jinen dira aitzinetik" esateari.

[136] Testamentu Berriko aipuak Leizarragaren bertsiotik eta Testamentu Zaharrekoak Duvoisinen *vulgata*tik jaso arren, Bibliako liburuen erreferentziak Elizen Arteko Bibliak xedatutako laburduren bitartez emango dira hemen.

[137] Adizkia aldatuta –*dugu*– errepikatu izan du Etxeparek azkenki honen hasieran agertutako bertso lerro hau. Ikus "Orok hara behar *dute* eskusatu gaberik" (I, 263; g.l.e.).

[138] Ikus honetarako eta hurrengoetarako erreferentzia diren Mt 24:31 eta 1 Ko 15:52hk eta 1 Ts 4:16.

[139] Esan bezala, Mateoren ildotik, aldaketa esanguratsu zenbaitekin bada ere. Jainkoa ez bide da, adibidez, Etxeparek dioen bezala agertuko ("jauginen da rigoroski *sainduieki* zerutik" [I, 330; g.l.e.]), aingeruekin baizik (Mt 16:27 eta 25:31). Berdintsu gertatzen da Epaiaren kokalekuarekin: Etxeparek bi kontzeptu uztartzen (nahasten?) ditu Epailea "Josafaten egonen da airian jarririk" dioenean (I, 331). Irakurleak ondo dakienez, "Josafateko harana"/"Josafateko zelaia" bitan baino ez da Biblian azaltzen,

ko burutzapenarenik eta ez bestelakoenik ere (lurrak irekiko omen dira, bekatoreak irentsiko ditu handik ateratako suak, etab.). Okerrena, baina, erremediorik gabeko damuaren arazoa da eta, nola ez, kondenatuek aurkituko omen duten betiereko suarena.

Xede didaktikoaren aldetik, azpimarragarria da azken estrofen grafikotasun estilizatuak bilatzen eta lortzen duen efektu latz, harrigarri eta beldurgarria: lurraren eta eguzki-sistemaren perturbazioa, munduaren eta bizitzaren amaiera, etab. (I, 372-380). Onbideratzeko eragingarria, guztia izango omen da orduan izugarri eta ikaragarri bekatarientzat. Merezi du gogora ekartzea:

> Hantik harat ezta izanen bi erretatu baiezi
> Damnatuiak ifernuian bethi dolorereki
> Salbatuiak Jeinkoareki bethi alegeraki
> Iangoikuak dagiela gure partia hoieki.
>
> Zeruia ezta ebiliren hantik harat jagoitik
> Iguzkia egonen da orienten geldirik
> Ilhargia ozidenten begiz begi jarririk
> Egun honek iraunen du eben eta jagoitik
> Alabana ez izanen heben gauza bizirik.

Antzerki-hizkuntzan esan ohi den eran, Azkenkiari buruzko gogoetaldiaren bukaera zinez apoteosikoa, beraz, Etxeparek eskaintzen duena.

Nolanahi ere, interesgarria izan daiteke irakurleak atera beharko lituzkeen konklusioetarako lerrootan Jainkoak infernuratzear zeudenei zuzendutako mintzaldiaz (I, 340-359) oharkizun llabur bat egitea, gorago aipatu legez, *DK*n etengabe azpimarratutako bekatu nagusiari heltzen baitio lehen lerroan bertan: "*Nizaz ezineten orhit* bizi zinetenian".

---

biak liburu berean eta Jainkoaren Epai-lekua adierazteko (Jl 3:2 eta 3:12; egungo *TZ*ean: Jl 4:2 eta 4:12); Epaia "airean" burutzearena, ordea, *Testamentu Berri*ko kontua da: "Guero gu viciric goitico garatenoc, harrapaturen garate hequin batean hodeyetan Iaunaren aitzinera airetan: eta halaz bethi Iaunarequin içanen gara" (I Ts 4:17, Leizarragaren bertsioan).

[140] Dohatsutasunen aipuan ere Mateo ebanjelariaren pasarteei segitzen die testuak hein handi batean (Mt 25:41-43). Jainkoaren hitzei eskaini estrofetako azkenak daraman bosgarren bertso-lerroak, bestalde, erraz asko bete dezake jadanik aipatua izan dugun esakune eta epilogo-funtzioa: "eta zuien konpainia demonio guzia" (I, 359). Barne-errimak areagotu besterik ez du egiten inpresio hori.

Balirudike –honatx oharkizuna– bereziki *DK*ren aurreneko estrofetan esandakoa bera izan zuela Etxeparek gogoan hausnarraldiaren "zikloa" dei genezakeen atal hau biribiltzeko eta ixteko orduan: "Zeren Jeinkoa egun oroz ongi ari baitzaigu,/ *guk ere hala behar dugu harzaz unsa orhitu*" (I, 17-18; g.l.e.).

Sarasketarraren sentsibilitate espiritualaren arabera, *Jainkoaz oroitzea*, harengan *gogoa* jartzea da salbazioa erdiesteko gakoa, *oroitze* horretan inplizituki barneratuta dauden Dekalogoa eta Dohatsutasunak gertatuko baitira, praktika jainkozkoan, Epaiaren neurgailu azken sententzia ebazterakoan.

6.5. Otoitzak

Gogoeta-gaiak bukatuta, haien osagarri modura jarritako otoitzen atalak ixten du *Doktrina Kristiana* (I, 381-450). Izatez, bi baino ez dira otoitzok: bata laburra (bi tetrastiko), askoz luzeagoa bestea (hamabost estrofa). Dena den, haien deprekazio-izaera medio, gogoeta-gaietatik bereizita irakurri eta ulertu behar dira baitezpada.

Judizio osoaren hausnarraldiaren amaierako lehen otoitza, espero izatekoa zen legez, salba edo kondena gaitzakeen Jainkoari zuzendua da (I, 381-388), baina era trinko-laburrean zuzendua, ondoko "Orazionia" izenekoari bidea lehenbailehen ireki nahi izan balitzaio bezala. Eta hala dirudi eta halaxe da, ez baitu besterik adierazten bigarren tetrastikoaren azken bertso-lerroko "zure ama anderia"ren bitartekaritzaz baliatu ahal izateko eskaerak.

Segidan, hortaz, "andredona Maria"ri zuzendutako "Orazionia" izenekoa dator, harekin *DK*ri amaiera ematen zaiolarik (I, 389-450). Besterik ez balitz ere (eta bada, izan, besterik, aurrerago ikusiko den legez), amaiera honetan atzemango litzateke Etxepareren debozioa eta, are, hiperdulia aparta Ama Birjinarekiko.

Otoitzaren eraketa, nolanahi ere, ez da ohiko formulazioetatik lar aldentzen. Hau da, *Ave Maria*ren ideia nagusiak gaitzat eta abiapuntutzat harturik[141], salbaziorako bitartekaritza- eta laguntza-eskariak erantsiz osatu zuen Etxeparek estrofa-sorta. Ukitu pertsonala ments ez duen *Ave Maria* klasikoaren garapen modukoa da, beraz, eskainitakoa[142], betiere,

[141] Funtsean, lehen parteko "*Ave Maria, gratia plena*" eta hirugarreneko "*Mater Dei*" eta "*ora pro nobis peccatoribus, nunc, et in hora mortis nostrae*" pasarteak (ikus Savonarola, 1978 [1496], 82. or.).

ezin hori ere ahantzi, honetan ere inguruko erromantzeren bateko iturburu edo eragilerik izan zuelako inpresioa utzirik[143].

Berezitasunik azpimarratzekotan, orazionia biribil bilakatzeko jolasa nabarmen liteke, hasi bezala bukatzen baita, Andre dona Maria agurtzeko baliatutako hitz berekin, alegia: *Ave Maria.* Hain zuzen ere, Gersonek hemeretzi urte zituenetik sistematikoki erabiltzen zuen agurtze-mota bera[144]. Eta ez dirudi kasualitateari egotzi dakiokeenik antzekotasun hori, eskerga izan baitzen Gersonen eragina kultu marianoaren sustapenean ere (ikus Salgado, 1981, 532-536. or.).

Formalki hamabost tetrastiko erregularrez osatua bada ere, erreferentzia nagusitzat hartu ohi den Altunaren edizio kritikoan sei bertso-lerroko ahapaldia balitz bezala aurkezten da haietako azkena. Hau da, azken tetrastikoa denari hurrengo orrialdean paratuak diren beste bi bertso-lerroak erantsi zaizkio, gogoan izan gabe distiko hori estrofa guztien hasierei dagokien inprimatze-koska daramala aurrean eta ez duela, ondorioz, zerikusirik tetrastikoarekin. Ezanahiaren aldetik ere argi da *orazione*tik at dagola delako distikoa, Ama Birjinari zuzendutako erregua baita "orazione haur derrana" –aurreko "Orazionia" izenekoa dioena, alegia– aintzat har eta gomenda dezan[145].

Ezin, beraz, Altunak eman bezala jaso azken bi bertso-lerro horiek seiko bat osatuz.

Baina harantzago doa kontua. Bereizketak bereizketa, azken bertso-lerro pare honek bat egin lezake –egin, egiten du– hurrengo *kopla*ren hasierarekin, han ere distiko itxurako bi sarrera-bertso "solte" ageri baitira. Baina ez dezagun aurrera berehalakoan iruzkinduko duguna.

---

[142] *Salve Regina*tik jasoak dira, bestalde, bertan baliatu eta garatutako hainbat motibo: *regina eta mater misericordiae*, *spes nostra*, *advocata nostra*, etab. Interesgarria, orobat, Duns Escotori zor zaion "makulata gabia" dohatsutasuna presentzia (I, 407). Frantziskotarraren "*potuit, decuit, ergo fecit*" ospetsuaren fruitu hura dogma bihurtuko zen, ezaguna denez, Etxeparerena baino hiru mende beranduago (1854).

[143] Urkizuk zioen bezala, "Etxepareren iturriak aztertuko bagenitu sakonki [...] ez leudeke [...] seguruen urruti Gaztelako poetak, gaztelaniaren ezagutza eta eragina nabari baitzen zenbait poematan, hala nola Katalunya eta Probentzakoak" (Urkizu, 2012, 221. or.).

[144] Massonek dioenez, "il résolut de garder systématiquement comme habitude ce qui était venu d'abord d'un élan instinctif de piété filiale. Il faisait donc réciter l'*Ave Maria* avant le sermon et recommandait cette pratique [...]" (Masson, 1894, 196. or.).

[145] Estrofaren amaieran erantsitako lerro pare honen gisakoa da "Orazione igandeko" izenekoaren hasiera (I, 58-59). Guk han aurre-eskaritzat definitu dugun hura sei bertso-lerroko estrofa modura aurkeztua da.

Erants dezagun, edonola ere, otoitz honek islatzen duenaren arabera, Etxeparek erakutsitako kultu hiperdulikoa ez zela larregi urruntzen inguruko hainbat herrialdetan, eragin desberdinak medio, zabaldua zen debozio marianoan ohi zenetik:

> Zoals veel schilderijen en gezangen uit deze tijd laten zien, was zij de belangrijkste middelares tussen de gewone zondige mens en Christus, de Goddelijke rechter na de dood. Als hemelse koningin en bruid werd van haar bij haar Zoon de krachtigste voorspraak verwacht. Daarop duidt ook de laatste zin in de antifoon *Ave Regina*: na een uitgebreide lofprijzing van Maria's eigenschappen eindigt de tekst met een smeekbede om bemiddeling bij haar zoon Christus ter vergeving van de zonden. Voor de mensen uit de late Middeleeuwen die, geteisterd door pest en oorlog, dagelijks de dood voor ogen hadden, was de devotie tot Maria als bruid en koningin van levensbelang (Hascher-Burger & Kouwenhoven, 2000, 162. or.)[146].

Horraino, bada, Etxepareren *Doktrina Kristiana*, formalki hor bukatzen baita *DK*ri dagokion atala. Baina guztiarekin ere, hitz bi gehitu nahi genituzke *Doktrina*ren barruti erlijioso estutik at kokatu ohi den hurrengo poema "profano"aren karietara.

6.6. *DK*ren osagarria: "Amorosen gaztiguia"

Doktrina Kristiana ixtera zetorren "Orazionia" ez zitzaion Etxepare Mariazaleari (barka Ama Birjinazaletasuna adierazteko baliatu kalifikatibo anbiguoa!) gainerako poemetatik bereizita eta isolatuta geratu, egiten zuenaz ongi oharturik, lokarri sendoa bezain sibilinoa prestatu baitzuen irakurle arruntarentzat interes gehiagokoak ziren gaiak tratatzera igaro aurretik.

Eta horrela, "Amorosen gaztiguia" poemari (II, 1-145) egokitu zitzaion espirituaren lanketari eskainitako bertso lehorrak amodioen mun-

[146] "Garai hartako margolan eta kantika askok erakusten duten moduan, gizaki bekatari arruntaren eta hil ondoko epaile jainkotiarra izango zen Kristoren arteko bitartekari nagusia zen hura [Maria, alegia]. Zeruko erregina eta emaztea izanik, bitartekatzarik ahaltsuena espero zen harengandik Semearen aurrean. *Ave Regina* antifonaren azken esaldian ere adierazten da hori: Mariaren nolakotasunak goraipatu ondoren, testuak Kristo semearen aurrean bekatuen barkamena lortzeko bitartekaritza eskaera egiten du. Erdi Aroaren amaieran, izurriteek eta gerrek jota, egunero heriotzari aurre egiten zion jendearentzat, emazte eta erregina zen Mariarekiko debozioak berebiziko garrantzia zuen" (gurea da itzulpena).

du labil eta lerrakorraren koplekin uztartzeko eginkizuna burutzea[147] eta gai berrien atari izatea[148].

Aurreneko begiratuan, esan legez, profanoa lirudikeen poema da honako hau; profanoa eta amodiozkoa, batzuen ustez, eta, are, baita erotismoaren esparrukoa ere behar bezala irakurri ez duen bakarren batenez.

Aitzitik, arrunt bestelakoa du poema luze honek[149] muina, sarasketarrak berak irakurrarazten digun zinezko muina, alegia. Irakurleak erraz ikus dezakeen bezala, kopla-sorta arimaren hirugarren etsaia omen den Haragiarekin lotua dago kontzeptualki, eta haren sareetan ez erortzeko formula debozionalak luzatzen ditu bereziki.

Agerikoa da Etxeparek, egokitu zitzaion errealitateagatik edota espero zituen irakurleen xumeagatik, elkarrengandik hurbil eta gehiegi bereizi gabe utzi nahi izan zituela giza-adimenaren esparruko etsaiak (Mundua eta Haragia), eta batik bat, lehenaren eragite-bideari aski abstraktu eta azaltzeko lausoegi zeritzolako beharbada[150]. Baina Haragiarena azalerrazago daitekeen arren –kristauen doktrinaren arabera, zazpi bekatu buruzagiak hartzen ditu "etsai" honek bere baitan–, sexu-jokoen hondalean erortzeko arriskua zuten harremanei baino ez zien heldu Etxeparek poema honetan.

Ildo horretan, gizaki orok bide du, hala edo hola, maitemintzeko joera, goizago edo beranduago Haragiaren erresumara bulkatzen duena eskuarki, eta, haren baitan, bekatuarenera[151]. Jakina, hartara irristatu baino lehen ezarri nahi ditu Etxeparek eragozpenak eta langak, eta, oro-

[147] Haritxelarrek "Emazten fabore" poemari ere luzatzen dio zubi-funtzio hori, nahiz eta argi azpimarratzen duen "Amorosen gaztiguia" dela "amodio dibinoaren alde" agertzen dena (Haritxelar, 2011, 38. or.). Ikus, orobat, Toledo, 2008.

[148] Toledok bestetara ere hedatu nahi duen hipotesiari "zabalegia" iritzi dakiokeen arren, haren hitzak guztiz baliagarriak dira poema honek betetzen duen funtzioa definitzeko: "Andre Mariaz igorri nahi duen lekzioa da kopla profanoei bidea irekitzen diena eta, gisa honetan, mundu sakratua eta mundu profanoa uztarturik azaltzen dira" (Toledo, 2008, 634. or.).

[149] Kuriositate hutsez bada ere, ustez profano direnen sailkapenean berau da luzeena (145 bertso-lerro). "Mosen Bernat Echapareren kantuia" dator bigarren (102 bertso-lerro) eta "Amorosen disputa" hirugarren (74 bertso-lerro).

[150] Zehaztu gabeko "engainu" hitza da Munduarekin uztartzen duen kalifikatiboa (II, 74-77) eta, aldi berean, "amoros gaixoa"-ri ere bizkarreratzen diona (II, 64). "Erho jokhatuia" eta "erhogoatan" aritzea omen da horren guztiaren fruitua.

[151] Hori ezaguturik, denbora laburrean egiten du jauzi Etxeparek batetik bestera, hau da, "Amore bat hautatzeko konseilu bat nekeie" (II, 5) esatetik "Bekhatuzko amoria bethi date traidore" (II, 15) baieztatzera.

bat, bizitza kristaurako[152] bide egokiena erakutsi eta eredutzat proposatu. Ikus daitekeenez, Andre Mariaren "maitale" bilakatzea da bide hori[153], bide arras espirituala eta debozioaren bitartez lantzekoa eta garatzekoa.

Alderdi formaletik so eginik ere badu lokarri antzekoa izan daitekeen ezaugarri ageriagorik, bai baitirudi, izan ere, *DK*ren bukaerako otoitzen azken distikoa[154] "Amorosen gaztiguia"ren *sartzaile* ere badela[155] eta, areago, aurrez aurre azaltzen zaion izenburua gorabehera, tetrastikoa ere osa lezakeela ondoren datorren bertso-lerro parearekin[156].

Ezin ahantz daiteke, bestalde, tipografikoki nola dauden kokatuta eta nolako bereizketa aurkeztu zuen 1545eko edizioak: *DK*ren amaierakotzat jotzen diren bertso-lerro biok C4vº orrialdearen hasieran daude jarrita eta, poema berriaren izenburua tarteko, hurrengo estrofetatik zeharo bereizturik aurkezten dira haren aurreneko bi bertso-lerroak, asonantzia bera ere "Orazionia"rena (*-ia*) mantentzen dutelarik, eta ez, inondik ere, ondoren datozen lau estrofena (*-e*).

Direnak direla, "Amorosen gaztiguia" *DK*ren osagarritzat jo behar da bete-betean, batik bat, esan bezala, barruti espirituala eta mundanoa lotzeko eta urtzeko eginkizuna eman zaiolako eta lerroetan barrena horixe islatzen duelako; eta aldi berean, poemaren azken barne-koplek, batez ere guk hemen arras autonomotzat hartu izan ditugunek (II, 88-145), *Doktrina*ra itzularazten dutelako irakurlearen gogoa –azken aldiz itzularazi gainera liburu guztian[157]–, haren begirada eta arreta Andredona Ma-

[152] Hori aditzera emateko ez du Etxeparek, noski, "kristau" hitza aipatzeko premiarik.

[153] "Andre hona har dazagun orok gure amore;/ bertze oro utzi eta egin hari ohore" (II, 32-33) eta "Emazte eta gizon orok, har amore Maria" (II, 49). Formulazio horietan ez zegoen urruti Gersonek idatzitakoetatik: "[...] O pecheur [...] ayme donc icelle mere" (Salgado, 1981, 535. or.).

[154] Goraxeago aipatutakoa, hots, "Orazione haur derrana, andredona Maria,/ othoi, gomendatu duzun hila eta bizia" (I, 449-450).

[155] *Sartzaile* diogunean, poemaren gaia, buruko distikoaren puntua, erritmoa eta baita ere, agian, soinua bideratuko lituzkeen sarbideaz mintzo gara. Ildo horretako sarbide-jolasa antzematen da beste hainbat poematan ere. Bereziki azpimarragarria da, adibidez, "Amorosen gaztiguia"ren amaiera aldeko hots-kalakak "Emazten fabore", "Ezkonduien koplak" eta "Amorosen partizia" izenekoen aurkezpen-distiko edo exordioetan duen eragina, hirurak hasarazten baititu *-ik* errimarekin.

[156] "Bertzek bertzerik gogoan eta nik andredona Maria/ Andre hona dakigula guzior othoi balia" (II, 1-2). Ohikotzat jotzen du Altunak, besterik antzeman gabe, Etxeparek distiko bat erabiltzea poemen sarrera gisara (Altuna, 1980, 84. or., 1. oharra).

[157] Ez dute inolaz ere funtzio berdina betetzen autobiografikotzat hartu izan den *kantuia*ren ahapaldietan barrena Jainkoari zuzendutako deiek (XIII, 29-46 eta 92-102).

riak gizakizaren salbazio-egitasmoan duen bitartekaritza-funtziora daramatzatelarik betiere[158].

Alegia, giza-amodiozko poema batez ari garela pentsatu nahi izango bagenu ere, argi dio haren bigarren erdialde oso-osoak ez dela horrela. Eta are, horrelakoetan laburbiltzaile edo ondorio-emaile ohi den azken tetrastikoak ere ez luke gezurtatuko hori, Andra Mariari zuzenduriko erregu/otoitz aratza baita Haragiaren esparruan egin genitzakeen bekatuetatik begira gaitzan: "Ama eztia nik badagit zure kontra faltarik/ zuk gaztiga eta dreza nazazu othoi bertarik./ Elas, norat ihes naidi zu neure ama uzirik?/ Neuretako eztazagut zu nolako amarik" (II, 142-145).

Ez legoke zalantzarik, hortaz, *Doktrina*ren amaiera eta atal profanoaren hasiera uztartzeko jaioa den poema baten aurrean gaudela baieztatzeko, esan bezala, parte horien bien arteko zubi-lana egiten baitu, bi-biei dagozkien ezaugarriez baliatuta, baina giza-harremanetarako ere Mariaren nagusigoa eta eredugarritasuna proposatuz[159].

Azpimarratu behar da, haatik, hainbat txatal bereiz daitezkeela poeman zehar[160], ez beti garapen lineal hertsi bati erantzuten diotenak. Lerro hauetara dakargun disekzioak, behin-behineko irakurketa-proposamen eran bada ere, agerian eta koherentziaz bereizirik utzi nahi lituzke txatal horiek eta haien garrantzia.

Hartara, ezin hobeto poemaratu zituen Etxeparek bitarteko erretorikoak. Izan ere, ariketa erretoriko delikatutzat irakur daiteke genero "deliberatzaile"az baliatutako poema hau. Ezaguna denez, entzuleen erabakia bultzatzeko generoa da eta eragozpenak edo abantailak eta kome-

[158] Ez da falta horretaz diharduen bertso-lerrorik: "Ararteko zakizkula digun [Jainkoak] barkhamenduia" (II, 91), "zuri gomendatzen gira hilik eta bizirik" (II, 103), "Jeinkoa jaun den gauza ororen zu zirade andere" (II, 108), "Unsa zuk har banenzazu gomendutan gogotik" (II, 120), "Ororen ama zira eta bake gitzazu bertarik" (II, 132), "Fin honera hel gitzazu, giren salbuietarik" (II, 141), etab.

[159] Ama birjina eta gizakia –gizon zein emakume– maitasun-objektu parekagarritzat hartzean, Etxeparek giza-emozioak eta afektibotasuna areagotzen dituen erlijiositate-modua planteatzen duela ere esan liteke, devotio modernaren eskemetatik ez urruti legokeena, azken buruan.

[160] Hiru zati edo estrofa-multzo bereizten ditu Haritxelarrek "olerki" honetan: "1.Berzek berzerik gogoan (1-5). 2.Nik andredona Maria (6-19). 3.Andredona Mariaren geriza galdeginez (20-32)" (Haritxelar, 2011, 24. or.). Eta honela zehazten du aurrerago: "lau ahapaldi aski ditu [Etxeparek] amodio profanoaren gaitzesteko, hamairu behar ditu amodio dibinoaren goresteko eta hamabost dira, Andre honaren laudatzeko eta bereziki otoizteko" (Haritxelar, 2011, 31. or.). Ikus daitekeenez, nahasteren bat tarteko, zuzendu beharrekoak dira emandako zifra eta kopuru batzuk.

nentziak dira diskurtsoaren garapenean azpimarratzen direnak, bilatzen denaren arabera betiere. Amaieran –eta baita ere tarteka-marteka– sustatzen denaren apelazioa egin ohi da, entzuleek argi jakin dezaten zer den hautatu behar dutena.

Ez zuen bestela jokatu Etxeparek. Exordioan azaldu zuen garatuko zuen gaia (II, 1-2); bestek egindako hautuaren eragozpenak nabarmendu zituen gero (II, 3-19); arrazoizko hautu batek behar zituen baldintzak mahairatu zituen segidan (zer-nolako ezaugarriak izan behar zituen hautatu beharko zuketen amodio horrek [II, 20-24]). Eta amaitzeko, konklusiorantz abiatuz, nork bete zitzakeen ezaugarri on horiek guztiak azaldu zuen. Jakina, tarteka eta amaieran egindako hautatze-deiek ez zuten zalantzarik uzten entzuleak hautatu behar zuenaz (II, 32 eta 49).

Hurrengo estrofa parea hautuaren bikaintasun miresgarriaz mintzo den bitartean (II, 51-59), dozena erdi bat ahapaldiren ondoren, *doktrina*rik hertsienari heltzen zaio segidan poemari amaiera emateko (II, 88-145).

Horixe eskema nagusia, bada; baina zertxobait gehiago zehaztu nahi genuke.

Gaia zentratzeko –eta *DK*rekin uztartzeko–, tankera txundigarriko exordioa baliatu zuen sarasketarrak, berak jadanik egina zuen hautua bestek egiten zutenarekin kontrastean jarriz (II, 1). Erretorika klasikoak teorizatu[161] eta baladetan ohi zen bezala, Etxeparek ustekabean harrapatu nahi izan zuen horrela entzulea, honek, sumatu ere egin gabe, nondik nora joan zitekeen koplen haria, arreta jar ziezaien hurren zetozen koplei. Ezin ahantz daiteke *doktrina* hutsa zen eremutik atera berria zela une hartan irakurlea eta amodio gizatiarriaren aurrean jarri zuela deblauki koplagileak.

Hurrengo lau estrofek (II, 3-19) nekez apal dezakete irakurlearen harridura, elizgizonak berak hitz egiten dio amodioetan izandako eskarmentu propioaz, eta horrela mintzatu bitartean, maitasun mundutarraren arazoak eta estakuruak azaltzen dizkio gordinki, giza-harremanekiko mesfidantza eta ezkortasun erako inpresioa sorraraziz[162].

[161] Ikus Zizerok exordioaz dioena (e.a.a. 86: 1913, 12-15).

[162] Etxeparek dioenez, probetxurik gabekoak dira amodioak oro, eta arima galtzeko eta penak eta oinazeak jasan behar izateko baino ez dute balio. Eta eskarmentuaren balantzea ez da positiboa, besteak beste, "amoretan [...] leial denik batere" ez dagoela sumatzen duelako, joia eta oparien boterez edota hitz ederren balakuz maitemindua –emakumeak bide ditu berriz ere ikusmiran, hoberenak diruditenak barne– "anitzetan" baita mutagarri edo traidore, eta batik bat bekatuzko jolasa tartean dabilenean.

Zalantzak ezin erabat ezaba genitzakeen arren, hura guztia irakurtzean, susmatzekoa da, Kristoren ama eredu, ezkontza kristau eta debotoaren esparruko amodioa aldarrikatu nahi izan zuela, gainerako guztiak (sakramentutik at zeuden amodioak eta "fede" hutsa emanez burutzen ziren elkartzeak[163] barne) agerian utziz. Baina egia da ahapaldion azaleko mezuak gizakien arteko maitasun-harremanez ez fidatzera bulkatzen zuela, ez soil-soilik bekatuzkoez, eta, hori aitzakiatzat, ezinezko bezala ikusarazi nahi izan zuela amodio-mota biak, gizatiarra eta hiperdulikoa, uztartzeko aukera.

Halaz ere, erkaketaren terminoak muturretaraino eramaten dituen jolas "deliberatzaile" horretan zaila da Etxeparek ezkor antzean botatzen dituen –sofisma– guztiei jaramonik egitea edota horrela pentsatzen zuela uste izatea, bertso-lerro horiek ez baitute maitasun gizatiar hoberena ere taxuz eusteko zutiko finkorik uzten. Poema hau, haren pentsamendua desitxuratuko ez badugu, jolas poetiko-erretorikoaren fruitu hanpatu bezala irakurtzea besterik ez zaigu geratzen.

Zeinahi ere den orain arte egin irakurketa, itxaropenerako aukera izan daitekeenaren giltza eskainzen da segidan, aurkezturiko kontrasteez baliatuta (II, 20-50). Garapen sendo eta zolia Etxeparek kopla hauetan dagiena, lehendabizi amodio-kontutan hasi nahi lukeenak bere baitan desira bide lezakeena azaleratuz ("Amore bat nahi nuke liadutanik egia,/ bizi eta hilez gero hain lakidan balia") eta ondoren, egilea gai omen denez tenore horretan dauden guztiei "amore bat hautatzeko" kontseilua luzatzeko, desira hori egingarri bilakatzeko bidea erakutsiz.

Hartara, autorearen ustezko amodio-eskarmentua eskaintzen da errealitate itsuaren ispilutzat eta egin beharko litzatekeenaren eredu modura, "mundu oro iraganik" ez omen baitu aurkitu itxaropenak (mundu honetakoak zein gerokoak) bete ditzakeen "bertzerik, Jeinkoaren ama hona grazia oroz" beterikoa baizik (II, 24-25). Eskarmentu horrek esanarazten dio gainerako amoreek[164] ez dituztela gizakiak maitasunean jarri nahi lituzkeen espektatibak betetzen, *andredonaz* aparteko beste guztiak hutsalak direlako[165]. Bide bakarra baino ez benetako amodioa ezagutu eta

[163] Anitz dira "fedea eman" –zin egin– eta gero hitza betetzen ez zutenen aurkako auziak eta ebazpenak orduko lege-sistemetan. Euskal testuetara igaro diren Gipuzkoa eta Nafarroako kasu adierazgarri batzuk Etxepareren garaikoak dira (ik. Mitxelena, 1964, 149-154. or.; Sarasola, 1983, 103-104. or.).

[164] Formulazioan neutro samarra dirudien arren, pentsatzekoa da, gizonezko irakurlearri zuzentzen zaion heinean, emakumeez ari dela batik bat horrelako guztietan.

erdiesteko; hortik, beraz, aholkua: "Andre hona har dazagun orok gure amore;/ bertze oro utzi eta egin hari ohore" (II, 32-33). Gainera, bestelako abantailak gorabehera, maitasun gizatiarrek sorrarazi ohi duten pribatizazio-arazorik aurkezten ez duen maitasuna da "Andre hona"rena: guztiguztiok har dezakegu hura amore, hura "ororentzat [...] baita, leial dela, abastu" (II, 44).

Oharkizun bat multzo honetako bi estrofa "irregularrei" dagokienez. Bost bertso-lerrokoan (II, 36-40)[166], bosgarrena, aurreko gehienetan adierazi legez, kodatzat har litekeela ematen du, behin bakarrik edota, erabili musikaren arabera, birritan ere errepika zitekeena, estrofa, kantu-praktikarekin, sei bertso-lerrokoen tankerako bilakatuta utzirik.

Sei bertso-lerroz osaturik azaltzen da bestea (II, 45-50), eta esanahiaren aldetik trinko osatzen dute seiok ahapaldia, bat bera ere sobran egon gabe. Baina gorago adierazi den moduan, izan liteke azken bertso-lerro parea Etxeparek atal-amaierako epifonema bezala joa izatea; horrek esan nahi lezake kantilazioan laugarren bertso-lerroaren doinu errepikatuarekin abestu zitekeela. Gainera, distiko errimatu bezala azaltzean, sententzia, aforismo edota, are, jakulatoria modura ikasteko eta errepikatzeko ezaugarria ere har lezake akaso. Hau da, poema errezitatu ahala, tarteka, lelo erara kantatua izateko ezaugarria.

Aurreko multzotik bereizi nahi izan dugun estrofa parea dugu, seguruenik, *DK* osoko liluragarriena, batik bat bigarrena[167]. Lehen laukoak (II, 51-54), Mariaren "garbitasun" miresgarria gaitzat, haren ikonoa ikusteko gonbita egiten du[168]. Bat-batean azaldutako zutano alokutiboaren arrazoia, bestalde, bertsoaren neurri egokia lortzeko premia da, besterik gabe, eta ez du oihartzunik izango ondoren datorren bost lerroko estrofan (II, 55-59). Esan bezala, eta *adynata* edo ezinezko direnen topiko erretorikoa baliatuz, gainerakoetan erakusten ez duen lirismoaren indarra-

[165] "Amoriak bano dira harzaz bertze guziak" (II, 28).

[166] Aipatzeke utzi dugun arren, berdintsu esan liteke goraxeagoko estrofaz ere (II, 15-19).

[167] Lafonek idatzi bezala, "ces vers sont parmi les plus beaux de l'ouvrage" (Lafon, 1999 [1952], 768. or.).

[168] Haren "figuraren ekhustiaz dakikezu egia" (II, 54). Ohar llabur bat, dena den, aurreko bertsoan egin ohi den interpretazioaz. Altunak "Bana vistaz hilcençuyen nahicari saxuya" bertso-lerroan *hilcen çuyen* irakurri nahi badu ere (1980, 94-95. or., 52. oharra), ez dugu guk hark bezain argi auzia, eta nahiago dugu, aukeran, Lafonek proposatutakoa: "Bana vistaz hil cençuyen nahicari saxuya" (1999 [1952], 767-768. or.).

rekin tindatzen du Etxeparek bertan *andredona*k gurekiko izan lezakeen leialtasuna[169]. Alderdi fonikoa ere beste inon baino landuagoa da honako honetan[170], zeren eta, hoskidetasunez eta barne-errimez gainera, ez baitira falta bestelako homofoniak sortu nahi dituzten jolasak ere (*hur guzia / lur guzian, iguzkia / egiazki...*). Harribitxi poetikoa, zinez, gerokoan, Ama birjinaren ordez, Ama Euskarari egokitua ere baliatu izan dena. Azpimarratu gabe utziko dugu, azkenez, jadanik nabarmendua duguna, hots, bosgarren bertso-lerroaren biribilak[171] behin edo birritan errepikatua izateko erakusten duen egokitasuna, sei lerro birtualeko bilaka baitezake ahapaldia kantatzeko-unean.

Arrunt ezberdina da hurrengo ahapaldi-sortak ematen duen inpresioa (II, 60-73), bai esanahiaren aldetik eta bai tankerarenetik *DK*n ikusitako gogoeta-jardunera eta irakurlea Mariaren amodio-deboziora deitzera itzultzen baitira hiru estrofok[172]. Lehena zuketa neutroaz baliatzen den bitartean, beste biek hitanoari heltzen diote, gorago azaldu ildoan betiere, hau da, norberari bere barne-ahotsa mintzatuko balitzaio bezala[173].

Formalki, sei lerroko estrofa da hirugarrena eta, itxuraz behintzat, amaierako bertso biei dagokie azken unera arte zabalik izan daitekeen itxaropenaren mezua epifonema gisa laburbiltzea: "Finian ere eztik uzten hark galtzera beria;/ orduian ere bere eskuian dik grazia guzia" (II, 72-73).

Ñabardura bat, halere, azken bi ahapaldi hauen molde-desberdintasuna dela bide. Grafikoki batak tetrastiko eta hurrengoak sei bertso-lerroko diruditen arren, zalantza da, kasu honetan bereziki[174], ez ote gau-

[169] Gizakiak *andredona*rekiko duen leialtasunaren araberakoa izango da, itxura duenez, Maria birjinak gizakiari luzatuko dion ordaina.

[170] Errazago atzeman lezake hori guztia irakurleak baldin eta bosteko estrofa, hemistikioak bertso-lerrotzat hartuz, molde ertaineko hamarreko bihur baleza.

[171] Ohar bekio haren balio didaktiko-epifonematikoari: "balinetan egiazki gu bagaude hargana" (I, 59).

[172] Deprekazio-formula horiek *Doktrina*ren muinean barneratzen dute berriro irakurlea, poemaren pisu erlijiosoa –eta ondokoekiko uztartze-funtzioa– areagotuta utziz.

[173] Inoiz egilea pasarte horretan bere buruari mintzo zaiola adierazi izan bada ere (ik. Alberdi d/g), ez dirudi horrela denik, irakurleari zuzenduak baitira hitzok; hori bai, kontzientziaren edo barne-ahotsaren funtzio hartuko balute bezala.

[174] 1545eko edizioari erreparatuz gero, zinez susma liteke tipografia-eragozpenak izan zitezkeela bertso-multzokatze horren zioa. Hau da, testu-konposaketa aitzina zihoala, aurreneko estrofari zegozkion bost lerrook orrialde berean sartu ezin izanak eta hurrengo orrialdearen buruan lerro solte bat jarri behar izateak, begien aurrean, pare-parean, zabaltzen ziren orrialde biei lerro alargun huts banarekin hasiera emanez, zeharo antiestetikoa zatekeen edizioak biziki zaintzen zituen inprimatzaile batentzat.

den bosna bertso-lerroko bi estrofaren aurrean[175], bakoitza ideia eta une desberdin banarekin lotua. Horrela bereiziz gero, sei bertso-lerrokoa dirudienaren lehen bertsoa ezin hobeto uztartuko litzateke aurrekoarekin eta, aldi berean, premiazko gomendioa (eta horrelako estrofek ezinbesteko duten aditza aginteran) erantsiko lioke ahapaldiari bukaera biribila izateko: "Denbora duian artian egik ahal hongia" (II, 68). Agerikoa da, gainera, ideia- eta denbora-puntualizazioak lekartzakeela hurrengo bertso-lerroak ere, Ama birjinak luza omen dezakeen salbazio-aukera herioaren uneraino atzeratuz: "Erioa dauginian miraz dukek orduia" (II, 69).

Funtzionalki, oraintsu iradoki moduan, eraldatutako estrofa biak lirateke barne-mintzoaren adierazpen, eta beraien bosgarren bertso-lerroek, zein bere lekuan, koda-eginkizuna izango lukete errezitatzeko eta kantatzeko momentuan.

Egia da, orobat, guk beste multzo batean bilduko genituzkeen ondoko hiru estrofak (II, 74-87) bete-betean uztartuta daudela azken estrofa horiekin biekin, aurkezteko unean, haien oihartzun neutralizatua –barne-ahotsetik kanpo, esan nahi baita– balira bezala aurkeztuta badira ere. Uztartze-kateak begi bat luke gizakia Munduak engainatua daramala dioen ideian[176] eta beste begi bat "andere graziosa"ren amatasun-senean.

Mundu honen engainua salatzen duen tetrastikoan oinarriturik, oso ehundura logikoko garapena ematen zaie txatal berriaren ahapaldiei, egilearen autoerreferentziek irekitzen dituzten bigarren eta hirugarren estrofak, hurrenez hurren, Jainkoarenganako itzulera desiatuz eta Ama birjinari gomendatzeko aholkua luzatuz mamitzen direlarik.

Gehi dezagun, halaber, hirugarren ahapaldiak (II, 82-87) eta goraxeago ikusi dugun hitanozko azkenak (II, 68-73), bi-biak formalki seina bertso-lerrokoak, badutela, garatu kontzeptuak direla eta, haien artean antzik edo, nahiago bada, ez dutela elkarren arteko oihartzun-ukiturik ments, batez ere azken bi lerroetako epifonema modukoetan, hots, "finian ere *eztik uzten hark galtzera beria,*/ orduian ere bere eskuian dik grazia guzia" (II, 72-73; g.l.e.) eta "hanbat bada graziosa ama ororen gainian,/ *jin*

[175] Jolas bertsua egin du gorago ere, batik bat segidan emandako bi estrofetan (I, 129-133 eta I, 134-138), biak hitanoa darabilten multzoetakoak.

[176] Ikus "Elas, amoros gaixoa, hire enganatuia,/ erhogoatan badaramak eure mende guzia!" (II, 64) bertso-lerroekiko loturak jarraikako hiru estrofen hasiera-bertsoetan islatuak: "Mundu honek anhitz jende enganatu darama" (II, 74), "Nihaur ere ebili niz anhicetan erhoric" (II, 78) eta "Ni bezala anhitz duzu halakorik munduian" (II, 82).

dadinik eztu uzten hartu gabe grazian" (II, 86-87; g.l.e.). Eta paralelismo horietan, diogun berriz ere, "hitano barnekoia/zutano neutralizatzailea" hautua, zein dagokion tokian, baliatuz.

Orain arte bestela irakurri izan bada ere, agerikoa da 1545eko edizioan tarte handiagoa utzi zela aipatutako azken estrofaren segidan (D2r^{o}), ondoko kopletatik garbi bereizi beharra adierazi nahi izan balitz bezala. Eta berdin gertatzen da beheraxeago beste tarteren batekin ere (ikus ondoko orrialdea [D2v^{o}]).

Inork ez du, baina, txikikeria horietan behar beste arretarik jarri. Eta jarri beharra zegoen eta dago, baiki. Zeren eta bi multzo bereizitan banatzen da, oro har, poemaren edukia, bi multzo bereizi eta desberdinetan non lehendabiziko multzoaren argudiatze-garapenetik beste tonu bateko multzoa ernalduko duen hari debotoa sortzen baita. Horrela ikusi bide zuen Etxeparek poemaren osoa eta horrela, ohartuki, ekin zion ondoko multzoko koplen ontzeari. Maria birjinari zuzendutako otoitzak atontzeari, alegia.

Otoitz mariano hutsak izan ziren, hartara, Etxeparek hurrengo estrofa guztietan prestatuak. Hamairu estrofa, orotara (II, 88-145). Aski erregularrak gehienak[177], badira haien artean arrunt autonomoak –zinez autotelikoak– direnak eta ez dira falta bereizte-mugak lauso samarrak dituztenak[178], baina, edozelan ere, aski biribilak dira otoitz oro alderdi for-

[177] Tetrastikotan biltzen dira otoitz gehienak, baina badira sei bertso-lerroko estrofak daramatzatenak ere. Bi otoitz genituzke berezienak, halere: bata zerrendako bigarrena, seina bertso-lerroko bi estrofa dituena eta, bestea, tamaina berdintsukotzat hartua izan den azken aurrekoa (II, 136-141). Azken honek zalantzaren bat sortzen du, halere. Zinez pentsa liteke, izan ere, hurrengo orrialdean paratuak diren azken bi bertso-lerroak (II, 140-141) hurrengo estrofaren lehendabiziko biekin ere osa zezaketela tetrastikoa –kantatuak izateko orduan, bederen–, solte geratuko ziratekeen amaierako beste biek hurrengo poemaren sarrerarako puntuak eta "oin-emaile" izan zitezkeelarik. Horrela balitz, "Amorosen gaztiguia"-ren hasierakoaz aipatu dugun estiloko beste tetrastiko bat osatuko lukete (II, 144-145 & III, 1-2), non errimak ere ez lukeen ondoko estrofekin loturarik. Are gehiago, hipotesiak eraman gintzake pentsatzera hurrengo poema batzuen puntuak eta oin-emaile izateko eginkizun berdina izan zuela formula horrek (ik. "Ezkonduien koplak", "Amorosen partizia"...). Horrek, zalantzarik gabe, Toledok planteatutako hipotesiarekin ere egin lezake bat: "Lehen hamabi kopletarako gaia eman ziotenak erlijioa eta maitasun mundutarra badira ere, gaiok ez zituen jorratu bakoitza bere aldetik, elkarrekin zer-ikusirik ez luketen barruti autonomo moduan, baizik eta elkarri hertsiki loturik dagoen koplamultzoa osatuz" (Toledo, 2008, 628. or.). Ez da hain argia, baina, ondoren dioena, hots, poema-multzoaren burutzapena aldez aurretik egindako plangintza bati erantzuten diola, ezaguna baita sarri askotan, eta letren esparruan batik bat, arianarian osatzen direla gero planifikazioaren fruitu diruditenak ere.

maletik begiratuta (erregu, aditz-forma...). Guztietatik isurtzen da, halaber, Ama birjinaren ohiko dohainen oihartzuna, haietako asko Gersonek ireki tradizioak bereziki sustatuak[179]. Badira, horiezaz gain, ohikoago direnak ere: zeru-lurren erregina, ararteko, errukizko aterpe, bekatarien babesle, bakegile, sorosle... Eta, goian aipatu legez, ez da falta orbangabearen erreferentziarik ere (II, 90).

"Azken erregua" izendatu dugun lerroaldeak (formalki tetrastikoa, baina... gaiaren arabera bi distiko?) ematen dio amaiera arima zeharo erlijiosoa eta gorputza bitarikoa-edo dituen poema hiperduliko honi.

Ikusi dugunaren arabera, ikuspuntu pedagogikoak agindu zuen *DK*ren amaierako ardatz estrategiko honen eraketan, biziki lehorra suerta zitekeen atal doktrinal hutsetik irakurlearen gogokoago –baina aldi berean erlijioaren menpe jarri beharreko– ziren amodioen atalera naturaltasunez eta jauzi-inpresiorik gabe iritsi ahal izateko. Bide egokia, beraz, jainkotasunetik ezin hurbilago omen dagoen gizaki batez baliatzearena sinesmen zerutarrak munduaren gordinera igaroarazteko.

7. Bibliografia

Agustin Hiponakoa (1956 [˜419]). *Tratado sobre la Trinidad.* In L. Arias (itzul.), *Obras de san Agustín en edición bilingüe,* V, 10. lib. (572-609. or.). Madil: BAC.

Alberdi, X. (d/g). Euskararen tratamenduak eta aditz alokutiboa. *Sareko Euskal Gramatika* (SEG). <https://www.ehu.eus/seg/gizt/5/4>

Aldekoa Beitia, I. (2010). Bernard Etxepare: «Doctrina Christiana» y poesía amatoria. *Egan, 44*, 1-40.

Altuna, P. (1980). *Linguae Vasconum Primitiae (Edizio kritikoa).* Bilbo: Mensajero.

[178] Kexu da, hori dela eta, Altuna ere: "batek ez daki honako hau aurreko ala ondoko bertsoari lotu" (Altuna, 1980, 112. or., 140. oharra).

[179] Gersonek sentontasunean –"in solatium peregrinationis meae vergentis in occasum"– bildutako *Collectorium super Magnificat* izenekoaren lehen partean azaltzen diren Mariaren dohatsutasunetako gehienak baliatzen ditu Etxeparek: graziaz betea, Ahalguztidunaren edertasunen jasotzailea, Jainkoaren ama, ama eta birjina, kreaturetan perfektuena eta parerik gabekoa...

Altuna, P. (1981). Etxepare, herri poeta. In A. Tovar et al. (arg.), *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak* (321-341. or.). Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

Berceo, G. (2003 [˜1250]). *Los signos del Juicio Final.* In J.G. García López & C. Clavería (arg.), *Obras completas de Gonzalo de Berceo* (199-212. or.). Madril. <http://www.vallenajerilla.com/berceo/claveriagarcia/juicio final.pdf>

Centofanti, S. (2020). El juicio final y la compasión de Dios. *VaticanoNews*, 2020/01. Edizio digitala. <https://www.vaticannews.va/es/papa/news/2020-01/el-juicio-final-y-la-compasion-de-dios.html>

Courouau, J.-F. (2012). *Et non autrement. Marginalisation et résistance des langues de France (XVIe – XVIIe siècle).* Geneva: Droz.

Delumeau, J. (2012). *El miedo en Occidente.* Madril: Taurus.

Etxeberri "Ziburukoa", J. (1669 [1627]), *Manual devotionezcoa.* Bordele: I. Mongiron Millanges. <https://klasikoak.armiarma.eus/faksimileak/17/EtxebZibuManual.pdf>

Etxepare, B. (1545). *Linguae Vasconum Primitiae.* Bordele: François Morpain. <https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/btv1b8609513p>

Fontanini, B. (1543). *Trattato utilissimo del Beneficio di Gesu Christo crocifisso, verso I christiani.* Venezia: Bernardinum de Bindonis. <www.pul.it/cattedra/upload_files/64/10305-13_Beneficio%20di%20Cristo%201543.pdf>

García Villoslada, R. (1956). Rasgos característicos de la 'Devotio Moderna'. *Manresa. Revista de información e investigación ascética y mística*, *108*, 315-350.

Gerson, J. (1404). *Opus tripartitum, ou catéchisme en français.* Eskuizkribua, <https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/btv1b90609803>

Gerson, J. (˜1470). *Opus tripartitum.* (d/g) <https://uvadoc.uva.es/handle/10324/28984>

Gerson, J. (˜1479). *La Doctrine de bien vivre en ce monde.* Flandria: Colard Mansion.

Gerson, J. (˜1492). *Opus tripartitum, gallice*. (Paris, e/g) <https://gallica.bnf.fr/ ark:/12148/bpt6k10903228>

Haritxelhar, J. (2011). Amorosen gaztiguia. *Egan, 64-3/4*, 23-38.

Hascher-Burger, U. & Joldersma, H. (2008). Introduction: Music and the Devotio Moderna. *Church History and Religious Culture, 88-3*, 313-328.

Hascher-Burger, U. & Kouwenhoven, G. (2000). Maria tussen de akten. Drie devotiegezangen in een register uit Hattem. *Madoc. Tijdschrift over de Middeleeuwen, 14-3*, 156-163. <https://www.dbnl.org/tekst/_mad00 1200001_01/_mad001200001_01_0034.php>

Iglesia Jesucristo de Los Santos de los Últimos Días. *(Edizio digitala:)* Guía para el Estudio de las Escrituras. Juicio final. <https://www.churchofjesuschrist.org/study/scriptures/gs/judgment-the-last?lang=spa>

Lafon, R. (1999 [1951]). La langue de Bernard Dechepare. In J. Haritxelar & P. Xarriton (arg.), *Vasconiana. R. Lafonen lanak* (729-758. or.). Bilbo: Euskaltzaindia, Iker 11.

Lafon, R. (1999 [1952]). Notes pour une édition critique et un traduction française des *Linguae Vasconum Primitiae* de Bernard Dechepare. In J. Haritxelar & P. Xarriton (arg.), *Vasconiana. R. Lafonen lanak* (759-794. or.). Bilbo: Euskaltzaindia, Iker 11.

Lafon, R. (1999 [1957]). Sur la versification de Dechepare. In J. Haritxelar & P. Xarriton (arg.), *Vasconiana. R. Lafonen lanak* (795-800. or.). Bilbo: Euskaltzaindia, Iker 11.

La Fosse, G. de (1529). *Le Guidon et gouvernement du monde* [...]. *Avec ung petit enseignement pour soy oster de peche/ selon la doctrine et opinion Maistre Jehan Gerson.* Paris.

Leizarraga, J. (1900 [1571]). *Abc, edo Christinoen instructionea.* In Th. Linschmann & H. Schuchardt, *Testamentu Berria. Othoitza ecclesiasticoen forma. Catechismea. Kalendrera. ABC*. Estrasburgo. [Orain: Bilbo: Euskaltzaindia, 1990, 1391-1438].

Madariaga Orbea, J. (1998). *Una noble señora: Herio Anderea. Actitudes ante la muerte en el País Vasco. Siglos XVIII y XIX*. Bilbo.

Margarita Valois, Nafarroakoa (1531). *Le miroir de l'âme pécherresse.* Alençon: Simon du Bois. <https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k701209>

Masson, A.-L. (1894). *Jean Gerson. Sa vie, son temps, ses oeuvres. Precedé d'un introduction sur le Moyen Âge.* Lyon: Emmanuel Vitte.

Mitxelena, K. (1964). *Textos arcaicos vascos*. Madril: Minotauro.

Monteverdi, A. (1959). La laisse épique. In *La technique littéraire des chansons de geste. Actes du colloque de Liège (septembre 1957)* (128-140. or.). Paris: Les Belles Lettres (Bibliothèque de la Faculté de philosophie et lettres de l'Université de Liège, 150).

Oroz Arizkuren, F. J. (2008). *Linguae Vasconum Primitiae: ¿1545*? Hurgando en una resolución del Parlement de Bourdeaux y en *Debile principium melior fortuna sequatur*. In *Jean Haritschelhar-i omenaldia* (431-472. or.). Bilbo: Euskaltzaindia, Iker 21.

Pio X (1973). *Catecismo mayor. Prescrito por San Pío X el 15 de julio de 1905.* [Orain:] <http://www.clerus.org/bibliaclerusonline/pt/fzt.htm.>

Ruiz Gallegos, Y. (2018). *Aproximación al estudio del Juicio Final y del Juicio del Alma en la corona de Castilla en la Baja Edad Media.* Bilbo: EHU.

Salgado, J.-M. (1981). La Dévotion Mariale au XVI siècle à la Lumière. Des manuels de Catéchèse en usage en Amérique Latine, en France, en Espagne et en Italie. *Marian Library Studies, 13*, 6. artik., 397-632.

Sánchez Herrero, J. (1986). La literatura catequética en la Península Ibérica. 1236-1553. *En la España Medieval*, V. lib., Madril, Universidad Complutense, 1051-1117.

Sánchez Herrero, J. (1990). Alfabetización y catequesis en España y en América durante el siglo XVI. In J. I. Saranyana eta beste, *Evangelización y teología en América (siglo XVI). X Simposio Internacional de Teología de la Universidad de Navarra* (I lib., 237-263. or.). Iruñea.

Sarasola, I. (1983). Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos. *ASJU*, *XVII*, 69-212.

Savonarola, G. (1978 [1496]). Esposizione sopra l'orazione della Vergine Text. *Marian Library Studies, 10,* 81-105. <http://ecommons.udayton.edu/ml_studies/vol10/iss1/7>

Toledo Lezeta, A. M. (2008). *Linguae Vasconum Primitiae*, bi partetan banaturik. In *Jean Haritschelhar-i omenaldia* (625-644. or.). Bilbo: Euskaltzaindia, Iker 21.

Urkizu, P. (2012). Bernat Etxeparen bizitza-garaiaz albiste gehiago eta Linguae Vasconum Primitiae (1545)-ren berrirakurketa. *RLLCGV, XVII*, 203-224.

Williams, G. H. (1983). *La reforma radical.* México: Fondo de Cultura Económica.

Zizero, M. T. (1913 [-86]). *Obras completas*. 1. t. Madril: Sucesores de Hernando.

ERANSKINA
Irakurketa-proposamena

Artikuluan zehar landutakoaren harira, hautsi egin da hemen *LVP*ren 1545eko edizioak lehen ataletan agertu ohi duen egituraketa klasikoa eta beste berri bat eman zaio. Horren ondorioz, hiru zutabetan banatuta aurkituko ditu irakurleak *DK*ri dagozkion ahapaldiak, zutabe bakoitzaren barnean antzematen uste diren txatal, pieza edo koplak ere behar bestetan bereizita azalduko direlarik. Berdintsu jokatu da *DK*ren osagarritzat jo dugun "Amorosen gaztiguia" izeneko poemarekin ere.

Honatx, zehaztuta, zutabeetako bakoitzean bilduko diren estrofen sailkapenerako baliatutako irizpideak:

1) Ezker aldeko zutabean, Etxeparek era neutroan eta zutanoa erabiliz proposatutako gogoetak, kontaketak eta aholkuak ageri dira. Edukiak hobeto bereizteko, letra etzanak eta kakotxak baliatu dira Jainkoarenak omen diren hitzak testuratzean. Argitzepremia berak bultzaturik, letrakera etzanez aurkeztu dira –baina kakotxik gabe– hausnartzeko eta portaera-aldaketarako dei eta gonbit zuzenak ere (*elas!,* etab.).

2) Zuketan ondutako otoitzak eta jakulatoria gisakoak erdiko zutabean jarri dira kakotxen artean.

3) Artikuluan argitu arrazoiak medio, eskuin aldeko zutabean lerrokatu dira irakurleari hitanoz luzatutako estrofak. Hitanoa eta agintera ditu zutabe horrek ezaugarri nagusi ("orhit adi", "pensa ezak", "othoi egik", etab.), eta horrek bulkatu gaitu "Hamar Aginduak" delakoa ere eskuinean jartzera.

4) Ez dira Etxepareren uztakoak kako zuzenen artean tartekatu ditugun izenburu, hitz eta zenbakiak: [xyz]. Guk geuk asmatutakoak dira, testua egokiago ulertzen lagun zezaketelakoan.

5) Estrofa bakoitzaren hasieran, ezkerraldean, ondozkapen-zenbakiak jarri dira artikuluan barrena aipatutako bertso-lerroak aiseago aurkitu ahal izateko.

Bernard Etxepare

I

DOKTRINA KRISTIANA

[0.- SARRERA]

Munduian den gizon orok behar luke pensatu
Jangoikoak nola duien batbedera formatu,
bere irudi propiara gure arima kreatu,
memoriaz, borondatez, endelguiaz goarnitu.

[Adibide bidezko gaztigua]

Ezein jaunek eztu nahi muthil gaixtoa eduki
ez pagatu soldatarik zerbizatu gaberik;
Jangoikoa ari duzu hala hala gureki:
gloriarik ez emanen hongi egin gaberik.

Muthilek gure zerbitzutan deramate urthia,
soldata aphur bategatik hartzen pena handia.
Jangoikoak behar luke guk bezanbat balia;
zerbitzatu behar dugu emaitekoz gloria.

Ogirik eztakusat biltzen hazi erein gaberik;
nork zer hazi erein [baitu] biltzen dizi komunki.
Obra honak ukenen du goalardona frangoki,
baietare bekhatuiak punizione segurki.

[Korolario gisako gomendioa]

17 Zeren Jeinkoa egun oroz ongi ari baitzaigu,
guk ere hala behar dugu harzaz unsa orhitu,
gure hatse eta fina hura dela pensatu,
goiz et'arrats orhituki haren izena laudatu.

[I.- EGUNEROKO BEHARKIZUNAK]

Arratsian

21 *Arratsian etzitian gomend'adi Jeinkoari*
eta othoi begir'ezan peril guzietarik;
gero iratzar adinian orhit adi bertarik
zenbait ere orazione erraitera debotki.

Goizian

[Gomendioa]

25 *Albadagik joan adi elizara goizian,*
Jeinkoari han gomenda bere etxe sainduian.
Han sartzian pensa ezak aitzinian nor duian,
norekila mintzo izan han agoen artian.

Ilherrian

29 *Hilez unsa orhit adi ilherrian sartzian,*
hi nolako ziradela bizi ziren artian;
hek bezala hil behar duk eta ez jakin orduia.
Othoi egik Jeinkoari deien barkhamenduia.

[Elizan]

Batheiarria

Elizara izanian so egik bateiarrira;
pensa ezak han duiala rezebitu fedia,
Jeinkoaren grazia eta salbatzeko bidia.
Hari egin albaiteza lehen ezagutzia.

Gorputz sainduia

Bertan gero so albaitegi non den gorputz sainduia.
Pensa ezak hura dela hire salbazalia;
ador'ezak debozionez eta galde grazia
azken finian eman diazan rezebitze dignia.

Kurutzea

Kruzifika ikhus eta orhit adi orduian
nola izan redemitu haren odol sainduiaz;
hark erio haritu dik hiri leian bizia.
Pensa ezak nola eman hari bere ordia.

Andredona Maria

Andere hona den lekura ailtxa itzak begiak;
mundu oro eztakidik hura bezain balia.
Jeinkoaren hurranena hura diagok glorian:
graziak oro bere eskuian nahi duien orduian.

[**Andre Mariari otoitza**]

"O, andere gloriosa eta ama eztia!
Zutan dago bekhatoren esperanza guzia.
Ni zugana niatorkezu, bekhatore handia,
arimaren salbatzera zu zakiztan balia".

Sainduier

53 *Sainduier ere egin ezak heure ezagutzia,*
singularki nortan baituk heure debozionia.
Zein sainduren besta daten orhit egun berian
eta noren izenetan fundatu den eliza.
Orhituki othoi egin, dakizkian balia.

[II.- IGANDEKO BEHARKIZUNAK]

Orazione igandeko

[Aurre-eskaria]

58 "Miserikordiaz bethe ziraden jaun eztia,
othoi, entzun iazadazu neure orazionia!"

[Otoitza]

60 "Bizi nizan artian eta erioko phunduian
zuk idazu, othoi, oso neure endelgamenduia,
alteratu gabetarik zure fede sainduian
gauzen unsa egiteko neure azken finian.

64 Eta orduian zuk idazu indar eta grazia
bekhatuiez ukheiteko bide dudan doluia,
perfektuki egiteko neure konfesionia,
neure bekhatuiez oroz dudan barkhamenduia,
bai digneki errezebi zure gorputz sainduia,
baietare behar diren berze sagramenduiak.

70 Etsai gaitza jinen baita tentatzera orduian
nontik engana niroien bere arte guziaz,
othoi, jauna, enguztazu lagun zure sainduiak
en'etsaiak benzi enazan neure azken finian.

74 Ene arima orduian har, othoi, zure glorian,
nola baita redemitu zure odol sainduiaz,
eta nik han dakusadan zure begitartia
eta sainduieki lauda zure majestatia".

78 *Goiz et'arrats egiten duk buluz eta beztitzia,*
gorputzaren zerbitzutan barazkari afaria.
Arimaren salbatzeko Jeinkoaren ohorian
etzaiala, othoi, neke gauza hoien egitia,
egun oroz ezin bada, aste oroz igandian.

83 Gure artian haur dakusat itsutarzun handia:
nola dugun zerbitzatzen hanbat gure etsaia,
Jangoikua deskonozi, gure salbazalia,
eta orok ezagutzen dela bidegabia.

87 Anhitz jendez miraz nago, neure buruiaz lehenik,
nola gauden mundu huneki hain borthizki josirik,
hanbat jende dakuskula hunek enganaturik;
oranokoak igorri'tu oro buluzkorririk
eta eztute gerokoek hantik eskapatzerik.

92 Person'oro hil denian hirur zathi egiten:
gorputzori usteltzera lur hotzian egoizten,
unharzuna ahaidiek bertan dute partitzen,
arima gaixoa dabilela norat ahal dagien;
hain biaje bortitzian konpainia faltatzen.

Orhituki igandian behar dugu pensatu
zenbatetan egin dugun aste hartan bekhatu;
orhit eta Jeinkoari barkhamendu eskatu,
atorra nola arim'ere aste oroz garbitu.

Bi pundutan diagozu gure gauza guzia:
hongi egin badazagu, segur parabizuia;
bekhatutan hil dadina, bertan kondenatuia.
berze biderik ezin date; hobenari begira.

[III.- GOGOETA-GAIAK]

[*1.- KRISTOREN PASIOA*]

Ehon ere eztakusat hain laxo den artzainik,
otsoa khentzen eztuienik bere ardietarik.
Gure arimaz kargu dugu Jangoikuak emanik;
nola gobernatzen dugun batbederak so begi;
kondu hertsi behar dugu harzaz eman segurki
nori baitu bere odolaz karioki erosi.
Hala zinets eztazana dauke enganaturik.

[Gogoetaldia]

Kontenplatu behar dugu pasione sainduia
eta sendi bihotzian haren pena handia;
nola zagoen kurutzian oro zauriz bethia,
huin-eskuiak itzaturik eta buluzkorria,

ohoineki urkaturik, nola gaizkigilia,
eta arhantzez koroaturik mundu ororen jabia;
haren gorputz prezioso eta delikatuia
gaizki eskarniaturik eta zathikatuia.

Elas, orduian nola zagoen haren a(ri)ma tristia,
haren ama maitia eta mundu ororen habia,
pena hetan ekusteaz bere seme maitia
eta hiltzen begietan mundu ororen bizia!

[Andre Mariari otoitza]

"Bihotzian diraustazu gertuz, ama eztia,
zure orduko doloriak eta bihotz zauriak:
begiez nola zenakusan zure jabe handia
orotarik lariola odol preziatuia.
Hek nigatik ziradela ari nuzu khonduia".

Orhit adi nola duian egin anhitz bekhatu,
heien kausaz merexitu anhitzetan hondatu,
bere miserikordiaz nola huien guardatu
eta, dolu ukhen baduk, bertan oro barkhatu;
eta agian hik eginen bertan berriz bekhatu.

Orhit adi Jengoikoaren majestate handiaz,
zeruia, lurra, itxasoa dadutzala eskuian,
salbatzia, damnatzia, erioa eta bizia,
estenditzen orotara haren potestatia.
Ezi eskapa hari ehor, dauginian manuia.

[*2.- AZKENKIAK*]

Mundu honetan badirogu batak bertzia engana,
bana bertzian egiatik batbedera joanen da;
nor nolako izan giren orduian ageriko da,
egin, erran, pensatuiak, ageriko guziak.

[HERIOTZA]

Orhit adi Jeinkoaren justizia handiaz,
nola orok behar dugun eman khondu hertsia,
egin oroz rezebitu gure merexituia,
erioa dauginian, baita haren mezuia.

Ordu hartan afer date hari apelatzia;
hark ehori eztemaio oren baten ephia,
ezetare estimatzen xipia ez handia.
Batbederak egarriko orduian bere haxia.

Orduian zer eginen dut, gaixo bekhataria?
Arartekoak faltaturen, kontra juje handia;
abokatzen eztakike ehork haren gortian,
ogen oro publikoki agerturen orduian.

Elas, othoi, orok egin orai penitenzia!
Behar orduian eztukegu gero agian aizina;
anhitz jende enganatu doa luzamenduiaz;
seguraturik ehork eztu egun baten bizia.

Gu girade egun oroz herioaren azpian;
behar dugu prest eduki gure gauza guzia,
gure gauzez ordenatu, oso giren artian,
gero eztugun egiteko hezaz azken finian.
Arimaz aski egiteko badukegu orduian.

Pensa, othoi, nola gauden bi bideren erdian,
salba bano damnatzeko perileko punduian.
Ehor fida eztadila, othoi, banitatian;
sainduiak etziraden sarthu banitatez glorian.

Elas, othoi, hunat beha bekhatore guzia!
Bekhatuiaz damnatzen du Jangoikuak munduia;
zeren hanbat bekhatutan deramagu bizia
eta guhaurk gure faltaz galtzen gure buruia?

Artzain orok biltzen ditu ardiak arratsaldian,
lekhu honerat eramaiten eguraldi gaitzian.
Batbederak pensa beza arimaren gainian
nola salbaturen duen hura bere finian.

Bekhatorek ifernuian dute pena handia,
pena handi, izigarri, ezein pausu gabia;
sekulakoz egon behar hango sugar bizian.
Zuhur denak, hara eztohen, egin penitenzia.

Harmak erioaren kontra

Erioa jaugiten da guti uste denian
eta agian ez emanen konfesione ephia.
Hirur gauza albaditu ehork ere egiaz,
nola ere hil baitadi, doha salbamenduian.

"Lehen egia
O, jaun hona! Aitortzen dut bekhatore nizala
eta gaizki egitiaz ogen handi dudala.
Nik baitzitut ofensatu bide eztudan bezala,
dolu dizit eta damu zure kontra eginaz.

Bigarren egia
O, jaun hona! Gogo dizit oren present honetan
goardatzeko bekhaturik bizi nizan artian.
Othoi, jauna, zuk idazu indar eta grazia
gogo honetan irauteko neure bizi guzian!

Heren egia
O, jaun hona! Gogo dizit garizuma denian
egiazki egiteko neure konfesionia,
baietare konplitzeko didan penitenzia.
Othoi, jauna, zuk konfirma ene borondatia!"

Eta hoiek egiazki ehork hala ezpaditu,
albailiaki duda gabe ezin dateiela salbu,
bere bekhatuiak oro baditu ere konfesatu.
Eta hala zinhets beza nahi eztenak enganatu.

Apezek ez apezpikuk ezetare aita sainduk
absolbatzen halakoaren ezein bothererik eztu.
Jangoikua bethiere bihotzera so diagozu;
guhaurk bano segurago gure gogua diakutsu;
gogua gabe hura baitan, hitzak oro afer tuzu.

Regla ezak egun oroz onsa heure etxia;
eure gauza guzietan emak dilijenzia;
eta eure trabailuia duian penitenzia,
Jangoikua lauda ezak gauza ororen buruian.

209 *Honekila albaiteza bethi ere konbersa;*
gaixtoeki ezin aite gaizki bezi probetxa.
berzer egin eztazala nahi ez ukeiena,
ezetare falta ere hiaurk nahi duiana.
Lege honi segi bedi salbu nahi duiena.

Hamar manamenduiak

214 *Ador'ezak Jangoiko bat onhets oroz gainetik.*
Haren izena ez jura kausa gabe banoki.
Igandiak eta bestak sanktifika debotki.
Aita eta ama ohora itzak, bizi izan luzeki.
Ehor erho eztazala, ezetare gaitzetsi.
Nork beria baiezila emazterik ez hunki.
berzerena eztazala ebatsi ez eduki.
Fama gaitzik eztemala lagunari falsuki.
berzen emazte-alabak ez desira gaixtoki,
ezetare unhasuna, lekot bedi justoki.

224 *Manamenduiak hoiek dira, Jangoikuak emanik;*
hok begira ditzagula, salba giten hegatik.

JUDIZIO JENERALA

226 Judizio jeneralaz nola orhit eztira,
bekhatutan bizi dira bethi bere aisira.
Egun hartan gal ezkiten, aitzinetik begira,
han orduian eztukegu ehork ere aizina.
Harzaz unsa orhitzia zuhurtzia handi da.

[I.- Judizio Handirako deia]

Arma! arma! Mundu oro judizio handira!
Zeru eta lur ororen kreadore handia
munduiaren jujatzera rigoroski heldu da.
Nola gauden aphaindurik bat bederak begira!

Manamendu igorten du mundu guzietarik
jende oro bat dakion Josafaten bildurik,
ehon ere ehor ere eskapatu gaberik.
Zeru eta lur guzia daude ikharaturik.

Erioa manatzen du, ezein falta gaberik
hilak oro dakatzela aitzinera bizirik,
hantik harat eztukela bothererik jagoitik.
Mundu oro jarriren da bi lekutan hertsirik:
glorian ezpa ifernuian; ezta eskapatzerik.

Manatzen du ifernuia handi eta bortizki
han direnak igor'itzan luzamendu gaberik,
arima eta gorputzetan nahi tuiela ikhusi
eta emanen daraiela zer baitute merezi.

[Gomendioa]

Jende honak, onsa pensa juje hunen gainian
nola duien guzietan potestate handia,
erioan, ifernuian, zeru eta lurrian.
Zeren dabil haren kontra, bada, bekhatoria?

[Hausnarketa errepikatua]

Gure artian haur dakusat itsutarzun handia:
nola dugun zerbitzatzen hanbat gure etsaia;
Jangoikoa deskonozi, gure salbazalia,
eta orok ezagutzen dela bidegabia.

[Gai-arrahartzea]

Haren bier emanen du sentenzia pizuia
elgarreki pena diten ifernuko garrian,
sekulako suian eta ezein pausu gabian.
Orok, othoi, onsa pensa zer den irabazia!

[II.- Judizioaren garrantzia eta osagaiak]

Egundano ezta izan, ez izanen jagoitik,
judizio hain handirik ezetare borthitzik.
Sortu eta sortzekoak, hilez gero pizturik,
orok hara behar dute eskusatu gaberik.

Anhitz gauza behar dira judizio handian:
jujeak duien potestate parte ororen gainian,
demandantak erran dezan bere kausa egiaz,
baietare defendentak bere defensionia,
porogatu datenian nork dukeien zuzena,
sentenziaz eman dezan jujiak nori beria.

[III.- Judizioaren hasiera: "Egun hartan"]

Egun hartan juje date mundu ororen jabia,
baitu ororen gainian potestate handia.
Akusari bera date, eta konzienzia;
bekhatu oro publikoki ageriko orduian.

Bekhatoren kontra date orduian mundu guzia,
zeren duten ofenditu haien kreazalia.
Ordu hartan ixil dauke triste bekhatoria:
orotarik zerraturik daude pausu guziak.

Juje jauna iraturik egonen da gainetik;
irestera aphaindurik ifernuia azpitik;
etsai gaitza akusatzen ezkerreko aldetik.
Bekhatuiak eskuinetik mintzaturen publiki:
"Hire kontra heben gituk, ihaurorrek eginik».
Gaizkienik kontra date konzienzia barnetik.

Estaltzeko ez izanen ehon ere lekhurik.
Agertzera nork eginen ordu hartan bathirik?
Mundu oro egonen da haien kontra jarririk,
sainduak ere ordu hartan oro egonen ixilik,
jujeak ere ez entzunen ezein ere othoiik.
Egun harzaz orhit giten, othoi, hara gaberik!

[IV- Epaiaren unibertsaltasuna]

Non dirate egun hartan hebengo jaun-erregiak,
duke, konde, markes, zaldun eta berze jaun nobliak
eta haien armadako gizon sendoen balentiak?
Ordu hartan baliako guti haien potenziak.

Jurista eta theologo, poeta eta doktoriak,
prokurador, adbokatu, juje eta notariak?
Ordu hartan ageriko klarki haien maliziak
eta guti baliako kautela eta parleriak.

Aita saindu, kardenale, aphez eta prelatuiak?
Berez eta ardi oroz eman behar han konduia.
Egun hartan handiena izanen da erratuia
eta bardin jujaturen handia eta xipia.

Afer date egun hartan hari apelatzia.
Ehon ere eztazagu jaunik bere gainian.
Malizia gaitzi zaika eta maite egia.
Elas, othoi, orok egin orai penitenzia,
egun hartan gero eztugun egiteko handia!

[V- Aldez aurreko seinaleak]

Seinaliak jinen dira aitzinetik tristerik:
elementak ebiliren oro tribulaturik,
iguzkia, ilhargia odoletan etzinik,
itxasoa samurturik goiti eta beheiti;
hango arrainak iziturik ebiliren jalgirik.

Eta lurra izigarri oro ikharaturik,
zuhamuiek dakartela odolezko izerdi.
Tenpestatez, igortziriz, aire oro samurrik;
mendi eta harri oro elgar zatikaturik.
Mundu oro jarriren da suiak arrasaturik.

Juje jaunak manaturen, bera jaugin gaberik,
gauza oro xahu dezan behin suiak lehenik,
satsu eta kirats oro dohen mundu guzitik.
Eta hala jarriren da lur guzia errerik.

Tronpeta da mintzaturen mundu guzietarik:
“Hilak oro! Jaiki huna zuien hobietarik,
arima eta gorputzetan oro bertan pizturik!”
Orok hara behar dugu eskusatu gaberik.

[VI.- Judizioaren burutzapena]

Justu oro iganen da bertan goiti airian
eta egonen eskoinetik jujearen aldean;
bekhatoreak dolorezki sugarrian lurrian,
harik eta danzuteno sentenzia gainian.

Dagoenian jende oro aitzinian bildurik,
jauginen da rigoroski sainduieki zerutik.
Josafaten egonen da airian gora jarririk,
bekhatorer eginen du arrangura handirik.
Haren hitzak ezarriren oro erdiraturik.

Hartu nahi zuienian pasione saindua,
haren kontra jin zenian armaturik jendia,
hitz huts batez iziturik egozi'tu lurrian.
Juiatzera dauginian majestate handian,
nola eztu lotsaturen ordu hartan munduia?

Erranen du bekhatorer dolorezki orduian:
"Nizaz ezineten orhit bizi zinetenian;
hanbat ongi nik eginik zuier zuien mendian,
esker hon bat ukhen eztut zuieganik bizian.

Zer ere hon baituzuie, oro dira eniak:
gorputz eta hon guziak, baietare arimak;
zuiendako egin ditut lurra eta zeruiak,
iguzkia, ilhargia eta fruktu guziak.

Suiak bero, hurak xahu, hats hartzeko airia,
ainguruiak zuien goarda, ararteko sainduiak.
Zuiegatik ezarri dut gero neure bizia.
Hoiegatik orogatik zer da zuien paguia?

Ikhusirik anhitzetan beharrian pobria,
eri, gose, egarria eta buluzkorria,
ene izenian anhitzetan galdeginik limosna,
zuiek ukhen baituzuie hezaz guti ansia.

Bai erhoki konplazitu ene kontra etsaia,
demonio, haragia, baietare munduia.
Orai dela zuiendako maradizionia,
ifernuko suia eta jagoitiko nekia,
eta zuien konpainia demonio guzia"

[VII- Sententziaren burutzapena]

Ezta anhitz luzaturen exekuzionia.
Bertan date irekiren lurra oren berian;
su hareki iretsiren oro bere barnian.
Haur izanen bekhatoren undar irabazia.

Elas, nola izanen den heben damu handia,
damu handi, izigarri, remedio gabia,
hanbat jende sekulakoz damnaturen denian!
"O, jaun huna! Zuk gizazu othoi hantik begira!"

Beretara itzuliren ditu gero begiak:
"Goazen oro elgarreki, ene adiskidiak!
Bethi eta sekulakoz gauden ene glorian,
desir oro konpliturik alegria handian!"

Hantik harat ezta izanen bi erretatu baiezi:
damnatuiak ifernuian bethi dolorereki;
salbatuiak Jeinkoareki bethi alegeraki.
Jangoikuak dagiela gure partia hoieki!

Zeruia ezta ebiliren hantik harat jagoitik:
iguzkia egonen da orienten geldirik,
ilhargia okzidenten begiz begi jarririk.
Egun honek iraunen du eben eta jagoitik;
alabana, ez izanen heben gauza bizirik.

[IV.- OTOITZAK]

[Jainkoari]

"O, jaun hona! Zu zirade gure kreazalia;
bekhatore bagir'ere, oro gira zuriak.
Gure faltaz gal eztadin, othoi, zure egina,
bekhaturik garbitzazu othoi gure arimak.

Baldin erideiten bada gutan falta handia,
are duzu handiago zutan pietatia.
Zuretarik giren, othoi, egiguzu grazia.
Zure ama anderia dakigula balia!".

Orazionia
[Ama birjinari]

"Ave Maria, anderia grazia oroz bethia,
Jeinkoaren ama birjen berak ordenatuia,
zeru eta lur ororen erregina dignia,
bekhatoren adbokata eta konfortaria!

Ni zugana niatorkezu, bekhatore handia,
karioki othoitzera zu zakiztan balia,
digne ezpaniz aipatzera zure izen sainduia,
ez jitera aitzinera, zeren bainiz satsuia.

Miserikordiaz bethe ziren andere handia
enazazula, othoi, iraitz eta ez menosprezia!
Zuk gibela badidazu, elas, ama eztia,
ordu hartan diakusazut galdu neure buruia.

Hanbat nuzu gauza orotan ni berthute gabia,
oren oroz bekhatutan nabilena galduia
eta bethi erratuia nola ardi itsuia,
mundu hunek, haragiak, bethi enganatuia.

Zu baitzira grazia ororen ama eta iturburuia,
berthute eta hon guzien thesorera handia,
egundano bekhatutan makulatu gabia,
berthutetan segitzeko egidazu grazia.

Zutan dago bekhatoren remedio guzia,
esperanza, osagarri eta salbamenduia.
Zuk gibela demazuna nola baita galduia,
zure gomenduian dena halaber da salbuia.

Jeinkoak zuri eman dizi potestate handia,
haren ama ziren gero, ama ere maitia,
zeru eta lur orotan duzun hanbat balia,
zer zuk galde baitagizu, den konplitu guzia,

eta zure eskutik duten berze orok grazia
eta salba zuk dezazun zuri gomendatuia.
O, andere exzelente, ezein pare gabia,
salbatuietarik nizan egidazu grazia!

Zuri gomendatzen nuzu hila eta bizia,
neure gorputz eta arima eta dudan guzia.
Othoi, behar orduietan zu zakitzat balia
eta, othoi, zuk goberna ene bizi guzia;

eta irabaz Jeinkoaganik indar eta grazia,
bekhatuiez egiteko unsa penitenzia,
eta gero berthutetan deramadan bizia
eta egin gauza orotan haren borondatia.

Begira, othoi, meskabutik ene gorputz pobria;
bekhatutan hil eznadin egidazu grazia,
sekulakoz damnaturik enoian galduia,
bana zure eskutik dudan salbatzeko bidia.

Eta gero, dauginian ene eriotzia,
arimaren partitzeko oren izigarria,
ordu hartan behar baitut eman kondu hertsia,
egin oroz rezebitu neure merexituia,

eta ez jakin lehen gaoian non daten ostatuia,
ezetare, zu ezpazira, nor dakidan balia,
ordu hartan hel zakitzat, othoi, ama eztia,
ararteko leial eta neure aiutaria.

Othoi, zure gomenduian har arima tristia,
ordu hartan jo eztezan ifernuko bidia.
Zure seme jaunareki egidazu bakia,
bekhatuiak barkhaturik didan parabizuia,

eta nik han dakusadan zure begitartia
eta sainduieki lauda haren majestatia.
Zeren unsa orhit ziten nizaz, ama eztia,
gogo honez erranen dut zuri Ave Maria".

"Orazione haur derrana, andredona Maria,
othoi, gomendatu duzun hila eta bizia".

II

AMOROSEN GAZTIGUIA

Berzek berzerik gogoan eta nik andredona Maria.
Andre hona dakigula guzior, othoi, balia.

[I]

Amorosak nahi nuke honat beha balite;
hon lizaten gaztigurik agian entzun liroite.
Amore bat hautatzeko konseilu bat nekeie,
balinetan sekulakoz gogoan sar balekie.

[Amodioen eragozpenak]

Nihaurk ere ukhen dizit zeinbait ere amore,
bana hantik eztut ukhen probetxurik batere;
anhitz pena, arima gal, harena eta neuri'ere.
Amoretan plazer baten mila dira dolore.

Amoretan othe date leial denik batere,
hitz ederrez ezpa joiaz mutha eztadin hura ere?
Hoben uste duienori anhitzetan traidore;
hobena date gaitzenik, arimaren berere.

Bekhatuzko amoria bethi date traidore.
Erioa dauginian, egia zogeri date.
Hartu duten plazer oro orduian iragan date;
bekhatuia gelditzen da penatzeko gero ere:
anhitz plazer ukhen badu, anhitz behar dolore.

[II]

Amore bat nahi nuke liadutanik egia,
bizi eta hilez gero hain lakidan balia.
Zerbitzatu nahi nuke halakoa bizian.
Heben labur bizia da, jagoitikoz bertzia.

Mundu oro iraganik ez eriden berzerik,
Jeinkoaren ama hona grazia oroz betherik.
Haren amore izateko ezta ehor dignerik.
Unsa zerbitza dazagun; maite gitu bertarik.

Amoriak bano dira harzaz berze guziak.
Behar handien denian, faltaturen bertziak.
Uste bano lehen gira hiltzen bekhatoriak.
Hark aiuta ezpagitza, nola giren galduiak!

Andre hona har dazagun orok gure amore;
berze oro utzi eta egin hari ohore.
Hala egin badazagu, ohoratu girate;
berzegatik, hura gabe, oro galdu girade.

Jeinkoaz landan mundu orok eztu hanbat balia.
Zeruia, lurra, itxasoa, haren peko guzia;
orotara hedatzen du, behar bada, eskuia.
Bera handi izan arren, preziatzen xipia.
Halakoa utzi eta, non dukegu bertzia?

Berze amoreak baten bezi eztirade perestu;
nork beria bertziari eztu nahi partitu.
Ama birjen gloriosa hanbat bada konplitu,
ororentzat bera baita, leial dela, abastu.

Amorosek badagite behin bere nahia,
handiago jiten zaie berze nahikaria;
ezi ukhen behin ere bere konplimenduia;
bethi peitu deramate bere mende guzia.

Emazte eta gizon orok, har amore Maria
eta orori baitekegu berak konplimenduia.

[III]

Andre honak ukhen dizi ederretan grazia
ehork hura gaixteriaz ezin lezan inbia,
bana bistaz hil zenzuien nahikari satsuia;
figuraren ekhustiaz dakikezu egia.

Itxasoan hur guzia, zeruietan izarra,
oihanetan itzalori, lur guzian belharra,
egunari iguzkia, gau belzari ilhuna
lehen faltaturen dira ezi hura gugana,
balinetan egiazki gu bagaude hargana.

Zeren, bada, erho gira gaixo bekhatariak?
Andre leial honegana goazen othoi guziak!
Elas, othoi, aribira berze amore falsuiak!
Harekila segur dugu behar dugun guzia.

Elas, amoros gaixoa, hire enganatuia,
erhogoatan badaramak eure mende guzia!
Ene andere graziosa *ezpadakik balia,*
bai bizian bai hilian bethi oha galduia.
Denbora duian artian egik ahal hongia.

69 *Erioa dauginian miraz dukek orduia.*
Orduian ere nahi baduk onsa jalgi dagia,
onsa hari gomendadi; nik diosat egia:
finian ere eztik uzten hark galtzera beria;
orduian ere bere eskuian dik grazia guzia.

[IV]

74 Mundu honek anhitz jende enganatu darama;
jagoitikoz bizi ustez haren sehi dabiltza;
guti uste duienian ehor utzi darama.
Erho jokhatuia date hartan fida dadina.

78 Nihaur ere ebili niz anhitzetan erhorik,
gaoaz eta egunaz ere hotzik eta berorik,
loa galdu, pena aski, bana ez arimagatik.
Orai oro nahi nuke liren Jeinkoagatik.

82 Ni bezala anhitz duzu halakorik munduian
mende oro dohatenik bethi banaglorian.
Ohart giten buruiari denbora den artian:
andre honak har gitzake gomendutan agian.
Hanbat bada graziosa ama ororen gainian
jin dadinik eztu uzten hartu gabe grazian.

[V.- Otoitzak Mariari]

[Maria orbangabea ararteko]

88 "Kulpa gabe ehor ezta; haur da segur egia.
Bekhatuiaz damnatzen du Jangoikoak munduia.
Bekhaturik ezta izan zutan, andre handia;
ararteko zakizkula, digun barkhamenduia".

[Maria, errukizko aterpe]

"Bekhatoren salbatzeko Jeinkoak egin zinduzen,
bere buruia egin dizi juje justiziaren,
zu miserikordiaren refujio zinaden,
nola berak justizian ezin salba litzake,
zure miserikordiaz remedia litezen,
balinetan egiazki zugana jin balite.

Egundano ezta izan ez izanen jagoitik
bekhatore hain andirik ezetare satsurik,
bere bidian jaugin bada zuri gomendaturik,
ukhen eztuien barkhamendu zure amorekatik;
ez galdu da ez galduren zure gomendukorik.
Zuri gomendatzen gira hilik eta bizirik".

[Maria, Jainkoaren ama, birjina eta zeru-lurren erregina]

"Berze emaztiak ama dira zenbait haurto xipiren
eta gero obororik punzela ezin dirate.
Zu, anderia, ama zira birjinarik Jeinkoaren
eta geroz erregina zeru eta lurraren.

Jeinkoa jaun den gauza ororen zu zirade andere.
Arrazoin da mundu orok dagien zuri ohore,
ezi hala ari zauku Jesukristo bera ere.
Zuk bezanbat dignitate mundu orok eztuke.

O, anderia, ezin date ehor zure bardinik.
Gainekorik zuk eztuzu Jeinko beraz berzerik;
Jeinko ezten berze oro dago zure azpitik;
Jeinkoaren ama zira mundu oroz gainetik.

Mundu orok eztu egin zuk bezanbat hargatik.
Orogatik bano oboro hark ere daidi zugatik;
bere ama ezin utzi obeditu gaberik.
Othoi, grazia egiguzu giren zuienetarik".

[Maria, bekatarien babesle]

"Unsa zuk har banenzazu gomendutan gogotik;
ezin damna naindeiela zinesten dut segurki.
Anhitz begiratu duzu galduren zenetarik;
niri ere hel zakitzat, othoi, galdu gaberik".

[Maria, bakegile]

"Ehonere gaitzik ezta zuk ken eztirozunik,
ezetare hontasunik zure eskuian eztenik;
denbora eta leku orotan, ezein duda gaberik,
graziak oro zure eskuian Jangoikoak emanik.

Nahi duiena hala duke amak semiaganik;
seme honak anhitz daidi amaren amorekatik;
gure natura haritu du zutan amoraturik;
Jangoikoa ezarri duzu gure anaieturik.

Haren eta gure ororen ama zira dignerik;
amak eztu sofritzeko semen artian gerlarik;
samurturik badakutsu gure gaizkiegatik,
ororen ama zira eta bake gitzazu bertarik".

[Maria, ararteko eta sorosle]

"Orai egiten diraden gaizki handiegatik
Jeinkoak ondatu zukeien lur guzia engoitik,
balinetan zu ezpazina ararteko gugatik.
Oro sostengatzen gitu zure othoiegatik.

Gu gaixtoak izan arren, ezten zutan faltarik,
Fin honera hel gitzazu, giren salbuietarik".

[Azken erregua]

"Ama eztia, nik badagit zure kontra faltarik,
zuk gaztiga eta dreza nazazu, othoi, bertarik".

"Elas! norat ihes naidi, zu, neure ama, utzirik?
Neuretako eztazagut zu nolako amarik".

IKERMATERIALAK

Ohar batzuk "Eusko gudariak" kantuaren doinuaren jatorriaz

Inaxio LOPEZ DE ARANA ARRIETA
Administrazioko itzultzailea

"Eusko gudariak" kantua Gerra Zibilean eta frankismoaren garaian Euskal Herriko ereserkitzat hartu zen, nahiz eta Eusko Jaurlaritzak 1936an "Eusko Abendaren Ereserkia" ("Gora ta gora") doinua hautatu Euskadiko ereserkia izateko.

Gerraostean, gazte abertzale guztiek euskal ereserkitzat hartu zuten "Eusko gudariak", eta 1970ean, ahobatezkotasun hori areago berreste aldera nolabait, Burgosko prozesuan auzipetuek eta publikoak batera kantatu zuten. 1977an, Espainiako Gobernuak legeztatu zuen, Kultura ministroaren proposamenari jarraikiz; ordurako, ezker abertzaleak antolatutako manifestazio askoren amaieran kantatzen zen.

1983an, Euskal Autonomia Erkidegoko bandera eta ereserkia zeintzuk izango ziren erabakitzen ari zirenean, "Eusko gudariak" izan zen ereserkia izateko aukeretako bat (besteak: "Gernikako arbola" eta "Eusko Abendaren Ereserkia"). Gaur egun, "Eusko gudariak" oraindik ereserki modura erabiltzen da ezker abertzalearen ekitaldietan.

"Eusko gudariak" kantuaren doinuaren jatorriaz bezainbatean, ez dago adostasunik; gai horren inguruan bi iritzi daudela ikusten dugu.

"MANDO BATEN GAINEAN" bertsoa

Batzuen ustez[1], doinuaren egilea Alejandro Lizaso gudarien kapitain eta txistulari oriotarra izan zen, zeinak oinarritzat hartu baitzuen Inda-

[1] https://www.euskonews.eus/0553zbk/efem55302es.html

lezio Bizkarrondo "Bilintx" bertsolari ospetsuak Domingo Kanpañari botatako "Mando baten gainean" bertsoa, Luis Urteaga musikariak harmonizatua, eta aldaketa batzuk egin zizkion, bigarren zatia kementsuagoa izan zedin; horretarako, "irrintzi bat entzun da" hitzez hasten den ahapaldia sortu zuen. Hauxe da "Mando baten gainean" bertsoaren eta erantzunen partitura[2]:



Hauek dira bertsoaren eta erantzunen hitzak (Zavala, 1978, 252. or.):

Mando baten gañian
Domingo Kanpaña,
etzijuak utsirik
mando orren gaña.

[2] https://www.eusko-ikaskuntza.eus/es/fondo-documental/cancionero-vasco/ab-5051/

Azpiyan dijuana
mandua dek baña,
gañekua ere badek
azpikua aña,
mando baten gañian
bestia alajaña!

Indalecio, Indalecio
Indalecio moko,
uste al dek
uste al dek
ez autela joko?

Berriz esaten banak
Indalecio moko
ezurrak autzi arte
ez diyat lajako.

Partituraren lehen zatia ikusita (bi-lauko konpasean dagoena), bistan da doinua "Eusko gudariak" kantarena dela, aldaketa txiki batzuk gorabehera. Zehazki, aldaketa horiek bertsoaren hirugarren puntuan hasten dira (*azpiyan dijuana mandua dek baña, gañekua ere badek azpikua aña, mando baten gañian bestia alajaña!*). Gero (hiru-lauko konpasa hasten den tokian), beste doinu bat hasten da, arrunt diferentea; izan ere, Bilintxen bertsoari Domingo Kanpañak emandako erantzuna hasten da eta hor doinua aldatzen da.

Antonio Zabalak bertso horretaz honela dio (1978, 252. or.): "Bilintxek Domingo Kanpañari bota ziona baño bertso ezagunagorik, oso gutxi izango da Euskalerrian. Orregatik, oraingo ontan ez gera jardungo zenbat tokitan arkitu degun eta bakoitzak zer aldaketak dituen esaten. Luzeegia litzake. Argitaraldirik zarrena, guk arkitu ditugunetan, Etxeberria ta Gimon'en *Ecos de Vasconia* kanta-bilduman dago (Etxeverría & Gimón, 1895, 28-29. or.). Itzak zeñenak diran adierazteko, onela dio: *Poesía de Campaña y Vilinch*; Kanpañak erantzuna eman baitzion; etzan ixilik gelditu. Ta doinuagatik onela esaten du: *Música de XXX*; erriaren ahotik jasotakoa, beraz". Herri-doinua dela bai, argi esaten du, baina, zoritxarrez, ez du zehazten zer urtetakoa den.

Bertsoa hemen dago entzungai:
https://www.youtube.com/watch?v=yLTj8-t-Blo

"Atzo Bilbon nengoan" bertso sorta

Beste batzuen ustez, ordea, "Eusko gudariak" kantuaren hitzak EAJko Euskadi Buru Batzar eta Bizkai Buru Batzarreko presidente Jose Maria Garate Azkarragak ondu zituen, 1932an. Abestiaren doinua Aralarrera egindako mendi-irteera batean entzun zuen aurreneko aldiz, eta, hainbeste gustatu zitzaion, ezen lagun bati esan baitzion doinu horrekin kantu abertzale bat egin behar zela. Esan eta egin: gau hartan bertan idatzi zuen Garatek kantu hura, eta hurrengo egunean Bilboko Euzko Gaztedi EGIra eraman.

Doinua Arabako Oleta herrian aurkitutako "Atzo Bilbon nengoan" bertso sortaren herri-doinutik hartu zen. Doinu hari Resurreccion Maria Azkue euskalari handiak eman zion zabalkundea, bere "Cancionero Popular Vasco" lan erraldoiaren bidez (Azkue, 1980, 296-298. or.); Engrazia Lazkano oletar laguntzaile oparoari ikasi zion.

Doinu horretaz honela dio Emilio Donado Urigoitiak (2003, 380. or.): "La melodía de esta danza ("Atzo Bilbon nengoan") es particularmente interesante por ser la base musical del himno vasco *Eusko Gudariak* cantado desde la guerra de 1936".

Hona hemen bi kantuen partiturak (Azkue, 1980, 296-298. or.)[3]:



[3] http://getxosarri.blogspot.com/2012/05/garate-y-el-eusko-gudariak.html

Hauxe da "Atzo Bilbon nengoan" bertso sortaren herri-doinuaren partitura osoa (Donado Urigoitia, 2003, 379. or.):



Eta, liburu beretik hartuta, hauexek dira hitzak (Donado Urigoitia, 2003, 380. or.):

1. Atzo Bilbon nengoan
ta gaur Bitorian,
sarri ura agortu da
gure iturrian.
O! Neska farandona
akerran bekoki
zazpi arto-zati ta
baba lapiko bi.
Lara larala lera...

2. Mendiolan ei dagoz
iru neskatila,
asko egoten dira
eurari begira.
Bata da Mari Pepa,
bestea Karlota,
irugarrena bere
txairo-txairoa da.
Lara larala lera...

3. Tiriki-tiki-tauki
or dona senarra?
Tiriki-tiki-tauki
basora joan da.
Bart gaberdian
arek eroan katua!
A zekusenak utsik
ezeukan barrua.
Lara larala lera...

Gaztelaniazko itzulpena ere ematen dute Emilio Donado Urigoitiaren argitalpen horretan (2003, 380. or.):

1. Ayer estuve en Bilbao, hoy en Vitoria; a menudo se ha secado el agua de nuestra fuente. ¡Oh garrida marimacho! Frente de macho cabrío; siete trozos de borona y dos pucheros de alubia (son tu alimento), Lara larala lera...

2. Dicen que hay tres muchachas en Mendiola; muchos suelen estar mirándolas. La una es Mari Pepa, la otra Carlota, la tercera es también guapota. Lara larala lera...

> 3. Tiriki-tiki-tauki, ¿dónde está el marido (tuyo)? Tiriki-tiki-tauki, ha ido al bosque. De vino iba cargado ayer de madrugada. Aquella que le viera iría (también cargada). Lara larala lera...

Doinua hemen dago entzungai:
https://www.youtube.com/watch?v=HaBPtOEutpE

Hitzatzea

Beraz, labur esanda, iritzi baten arabera, "Eusko gudariak" kantuaren doinua "Mando baten gainean" bertsotik hartu zen, eta, beste iritziaren arabera, ordea, "Atzo Bilbon nengoan" bertso-sortatik. Guk ez dugu ez bataren ez bestearen alde egingo; horretarako, datu gehiago beharko genituzke.

Bukatzeko, bihoakio hemendik nire esker onik bihozkorrena Oletako Marivi Aldasorori, berak emandako laguntza gabe ezinezko izango bainuen lan hau egitea.

Bibliografia

Azkue R. M. (1980). *Cancionero Popular Vasco*. 3. argitaraldia. Bilbo: Euskaltzaindia.

Donado Urigoitia Emilio J. (2003). *Otxandio, Oleta, Gatzaga, Legutio eta Ubideko euskal herri-kantak = Canciones populares vascas de Otxandio, Olaeta, Gatzaga, Legutio y Ubidea*. Otxandio (Bizkaia): Fundación Andresa Landa Axpe.

Echeverría, J. M. & Gimón, J. (1895). *Ecos de Vasconia [Música impresa] / arreglados para piano y canto por los maestros Echeverría y Guimon*. Donostia: A. Díaz y Cía editores.

Zavala, A. (1978). *Bilintx. Indalecio Bizcarrondo. 1831-1876 Bizitza eta Bertsoak / Vida y Poesías*. Donostia: Caja de Ahorros Municipal de San Sebastian.

SORTZE LANAK

POESIA
ITZULPENAK

Poesia

Zedarritze-ariketa bat[1]

Castillo Suarez

Zer da bihotz bat taupadarik ez badu.
Zer da zure baitatik erauzten dizuten hori,
bere aitari betiko lotuko zaituena nahi ez baduzu ere.
Fetu ilun, txiki eta likin bat,
odol eta mintzen artean igerian.

Biluzik zaude anda batean,
ume jaioberrien argazkiez inguratuta.
Eskutik heltzen dizu abandonatuko zaituela erabaki duen gizonak.
Arduraz apuntatzen du hartu behar dituzun botiken hurrenkera,
eta negar egiten du autora sartzerakoan.
Zuk ere negar egiten duzu.
Badakizulako dezepzio baten guraso izanen zaretela beti.
Ezerk ez zaituztela lotuko hemendik aurrera,
soilik zuen indar guztiekin entzun nahi zenuten bihotz hura,
oroitzapenetan besterik taupada egiten ez duena.

[1] Euskal Idazleen Elkartearen webgunean argitaratua, 2022ko maiatzaren 4an: https://idazleak.eus/eu/uberan/zedarritze-ariketa-bat

Medikuak hoztasunez esaten dizu
gorputzak memoriarik ez duela,
lehengo berbera izanen zarela.
Baina oroitzea da bizitzeko zure modua.

Beldur batek ordezkatzen du umeki bat.
Hura itzaltzeko zain zaude,
Erabaki dezan ez zarela nahikoa erakargarria zuri lotuta egoteko.
Beldur bat,
beste zerbaiten antzik ez duena,
ez bada lotsarena.
Hortzak garbitzen dituzu odola egin arte
zauri bat behar duzulako horri erreparatzeko:
odol gorri eta usaingabea.
Zauriak azkar sendatzen badu
elkar maitatzeari utzi diozuelako da.

Hankartea minberatua duzu oraindik,
baina zerbait egin nahiko zenuke orain arte egin ez duzuna:
diskoteka batean dantzatu,
larrutan egin hondartzatik gertuko hoteletan,
urruneko familia bisitatu auto alemaniar batean,
ezpainak gorriz pintatu,
etorkizun brioleta zarela sinetsi,
gauza xumeak ulertzen saiatu,
minutuen leku zehatza jakin.
Izan ere, ingurukoei ez diegu erreparatzen
min ematen diguten arte.
Mundua hondoratzen ari da,
baina salbamendu txalekoa duzu jantzita
zuen bihotzen oihartzunak estaltzeko.

Bainugelako zakarrontzian pilatzen dira haurdunaldi-probak.
Orbain batzuk ez dira inoiz erabat sendatzen,
baina erre gabe ukitu ahal izaten ditugu.
Orbainek ez dute ezertarako balio,
ez bada oroitarazten digutelako beste batzuen beharra dugula.

Aldi berean ikasten da maitasuna eta dolua zedarritzen.

ITZULPENAK

Bijilantzia[1]

Julian Barnes
Itzultzailea: Izaskun Etxebeste Zubizarreta[2]

Alemanari bultza egin nionean hasi zen guztia. Tira, austriarra zen akaso —azken batean, Mozartena zen kontzertua— eta kontua ez zen egiaz orduan hasi, urte batzuk lehenago baizik. Hala ere, hobe da data zehatz bat ematea, ezta?

Beraz: azaroko ostegun bat, Royal Festival Halla, arratsaldeko zazpi eta erdiak, Mozarten K595 Andras Schiff-ek interpretatuta, eta jarraian Xostakovitxen laugarrena. Gogoan dut nola pentsatu nuen, eztanda egiten nuelarik, Xostakovitxen pieza horrek musikaren historiako pasarterik ozenenetarikoak zituela, eta ez zela erraza ezer entzutea *haien* gainetik. Baina aurrera jauzi egitea da hori. Zazpiak eta hogeita bederatzi: aretoa beteta zegoen, eta entzuleak normalak ziren. Sartzen azkenak behetik zetozen, kontzertu aurretik babesleak eskainitako edariak hartzetik. Badakizue nolakoa den jende klase hori: «hara!, eta erdiak hortxe-hortxe izango dira, baina buka dezagun kopa hau, egin dezagun komunetik buelta, igo gaitezen patxadaz, eta pasatu gaitezen indarka dozena-erdi bat lagunen gainetik gure eserlekuetara iristeko. Ez zagok presarik, adiskidea: antolatzaileak jarri dik sos puska bat, eta Haitink maisuak itxaron zezakek zertxobait gehiago kamerinoan».

Austro-alemaniarra —bakoitzari berea emateko— zazpiak eta hogeita hiruan iritsi zen, gutxienez. Txikitxoa zen, burusoiltzen hasia, betau-

[1] *The Lemon Table* [Mahai limoi-kolorea] (2004) narrazio liburuan argitaratua.

[2] (I. O.:) Narrazio honen itzulpena, zilegi bazait, musikak bizi zuen aita zenari eskaintzen diot, hark esan ohi zuenez, eztula etxean eginda joan behar baita kontzertuetara.

rrekoak zeramatzan eta alkandora-lepo hegaldunean tximeleta-begizta gorria. Ez zen etiketa-jantzia, zehazki; beharbada haren jatorriko lurraldean kalerako erabiltzen zen janzkeraren bat zen. Handiputz samarra ere bazela pentsatu nuen, eta ez soilik alboan bi emakume zeramatzalako, bakoitza alde banatan. Esango nuke hogeita hamar urte pasatxo zituztela hirurek ere: zentzu pixka bat izateko adina urte, alegia. «Eserleku onak dira hauek» esan zuen, nire aurreko lerroan beren tokiak aurkitu zituztenean. J 37, 38 eta 39. Nirea K 37a zen. Istantean hartu nuen begitan. Erosi zituen sarrerak zirela-eta nesken aurrean bere burua goratuz. Pentsatzen dut agentzia batean erosiko zituela beharbada, eta lasaitua hartuko zuela; baina ez zuen halakorik adierazi. Eta zergatik emango diot zalantzaren onura?

Esan bezala, entzuleria normala zen. Ehunetik laurogei hiriko ospitaleetan eguneko baimena jasotakoak, biriketako sailak eta otorrinolaringologia departamentuak lehentasuna izan baitzuten sarrerak hartzerakoan. Laurogeita hamabost dezibeletik gorako eztula baduzu, erreserbatu orain eserleku hobea. Jendeak ez du behintzat puzkerrik botatzen kontzertuetan. Ez dut sekula inor puzkerka entzun. Zuek bai? Haatik, pentsatzen dut botatzen dituztela. Eta horrek arrazoia ematen dit, partez: mutur batekoa isilarazi badaiteke, zergatik ez bestekoa? Nire eskarmentuaren arabera, bi-bietan jasotzen dugu aurretiaz ohartarazpen kopuru berbera, gutxi gorabehera. Baina jendea, oro har, ez da aritzen puzker-jario zaratatsuan Mozart entzutean. Horregatik uste dut basakeria erabatekoan erortzetik gordetzen gaituen zibilizazio-geruza meharraren aztarna apur batzuk atxikitzen direla oraindik.

Hasierako allegroa aski ongi joan zen: dominstiku pare bat, karkaxa trinkozko kasu gaizto bat anfiteatroaren erdian, ia-ia esku-hartze kirurgikoa behar izan zuena, erloju digital bat eta egitarauaren orri-pasa dezente. Batzuetan pentsatzen dut egitarauen azaletan argibideak jarri beharko lituzketela. Adibidez: «Hau egitarau bat da. Gaur entzungo duzun musikari buruzko informazioa dakar. Begirada bat eman nahiko diozu, agian, kontzertua hasi aurretik. Hartara, jakingo duzu zer jotzen ari diren. Horretan denbora gehiegi ematen baduzu, galarazte bisuala eragingo duzu eta baita intentsitate apaleko zarata zenbait ere, kontzertuaren zati bat galduko duzu, eta ingurukoak gogaitzeko arriskua izango duzu, bereziki K 37 eserlekuko gizasemea». Noizean behin egitarauak informazio testutxo bat ekarriko luke, erdi aholkua-edo litzatekeena, telefono mugikorrei buruz edo eztul egiterakoan musuzapia erabili beharrari buruz. Baina inork jarriko al lieke arretarik? Erretzaileek zigarro-pake-

teetako osasun-oharra irakurtzean bezala litzateke. Mezua jasotzen dute, bai, baina ez dute egiaz jasotzen: neurri batean ez dute uste beraiei dagokienik. Gauza bera gertatuko zaie eztulkariei. Ez nuke sobera ulerbera azaldu nahi: barkamenari bide ematea litzateke hori. Eta informazio gisa, zenbatetan ikusten duzue musuzapi bat ateratzen soinua moteltzeko? Plateako atzealdean nengoen behin, T 21ean. Bachen *Kontzertu Bikoitza*. Nire aldamenekoa, T 20, ipursaltoka hasi zen bat-batean, zaldi izu baten gainean balego bezala. Pelbisa aurrera ekarrita, patrikak miatzen hasi zen ero moduan musuzapiaren bila, eta harekin batera giltza-sorta handi bat ere ateratzea lortu zuen. Haiek erortzean nahasirik, musuzapia askatu zuen eta dominstikuak hainbat norabidetan egin zuen eztanda. Mila esker anitz, T 20. Giltzei begira pasatu zuen gero, larri, mugimendu lentoaren erdia. Azkenean, haiek oinazpian hartuta konpondu zuen arazoa, eta satisfazio airearekin itzuli zituen begiak bakarlariengana. Tarteka, haren zapata higikorraren azpitik zetorren zalaparta metaliko arin batek apaindura mesedegarri batzuk eransten zizkion Bachen partiturari.

Amaitu zen allegroa, eta Haitink maisuak burua makurtu zuen astiro, baimena emanez bezala guztioi listu-ontzia erabiltzeko eta Gabonetako erosketei buruz solas egiteko. J 39k —emakume vienar ilehoria, egitaraua nahaspilatu eta orrazkera konpondu zalea— gauza asko topatu zituen J 38ko Alkandora-lepo Hegaldun jaunari kontatzeko. Gizonak baiezkoa egiten zion buruarekin, jertseen edo halako zerbaiten prezioari buruz zioenaz adostasuna erakusteko. Schiffek zeramanaren ukitu delikatuaz ari ziren agian, nahiz zalantza egitera lerratuko nintzatekeen. Haitinkek burua goratu zuen berriketen emisioa eteteko ordua zela jakinarazteko, batuta jaso zuen eztulak amai zitezen eskatzeko, eta, ondoren, belarria albo batera eramanez, buelta-erdi sotil bat eman zuen, adierazi nahian berak, orain, bere aldetik behintzat, piano-jotzailearen sarrera arreta osoz entzuteko asmoa zuela. *Larghettoa*, seguru asko jakingo duzuenez, pianoko solo batez hasten da, egitaraua irakurtzeko lana hartu zutenek espero zuten «melodia soil eta lasai» bat iragarriz. Huraxe da, gainera, Mozartek ez tronpetarik, ez klarineterik eta ez danborrik ez erabiltzea deliberatu zuen kontzertua: beste era batera esanda, pianoari are arreta handiagoa jartzeko eskatzen zaigu. Eta orduantxe, Haitinkek burua oraindik alboratua zuela eta Schiff lehen konpas lasaiak eskaintzen hasi zitzaigunean, orduantxe oroitu zen J 39 jertseei buruz esateko utzi zituenez.

Aurrerantz makurtu nintzen, eta hatz ukaldi bat eman nion alemanari. Edo austriarrari. Ez dut ezer atzerritarren kontra, bidenabar esanda. Onartzen dut britainiar kankailu, hanburgesaz elikatu eta Munduko Ko-

pako elastikodun bat izan balitz, bi aldiz pentsatuko nukeela. Eta halaxe egin nuen austro-alemaniarraren kasuan ere. Honela. Bat: *nire* herrialdera zatoz musika entzutera; bada, ez zaitez portatu oraindik zurean bazina bezala. Eta bi: zure jatorria nik uste dudana delarik, are okerragoa da Mozarten kontzertu batean portaera hori izatea. Hortaz, erpurua eta lehen bi hatzak elkarturik tripode bat osatu, eta bultzada bat eman nion J 38ri. Gogor. Itzuli egin zen instintiboki, eta begirada zorrotza bota nion, hatz bat ezpainen gainean jarriz. J 39k berriketari utzi zion, J 38 errudun sentitzen zela zirudien, nire satisfaziorako, eta J 37k apur bat ikaratua egoteko itxura zuen. K 37 —ni— musikara itzuli zen. Ezin izan nintzen erabat kontzentratu, egia esan. Bozkarioa sentitzen nuen nire barnean gora etortzen, dominstiku baten gisan. Egin nuen azkenean, hainbeste urteren buruan!

Etxeratu nintzenean, Andrewk bere ohiko logika erabili zuen ni zapuzten saiatzeko. Beharbada nire biktimak uste zuen zuzen portatu zela, inguruko guztiak berdin jokatzen ari zirelako; ez zuen hezibiderik gabe jokatu, ezpada hezibide oneko agertzen saiatu zen: *wenn in London...* Horrez gain, eta alternatiba gisa, Andrewk jakin nahi zuen ea kontua ez ote zen garai hartako musika asko errege-erreginen eta duke-dukesen gorteetarako konposatzen zela, eta ea halako mezenasak ez ote ziren hara eta hona ibiliko beren segizioekin afaltzen ari ziren bitartean, harpajotzaileari oilasko hezurrak jaurtiz eta aldamenekoen emazteak limurtzen saiatuz, haien enplegatu xumeak espineta nola astintzen zuen ia kasu eman gabe. Baina musika ez zen konposatzen portaera txarra gogoan izanik, egin nuen protesta. Nola dakizu hori, erantzun zidan Andrewk: seguruenik musikagile horiek bazekiten beren musika nola entzungo zen, eta idazten zuten musika aski ozena izango zen oilasko-hezur-jaurtiketa edo korroskada orokorrak estaltzeko, edo bestela, seguruago agian, saiatuko ziren idazten edertasun hain erdiragarriko doinuak, non barrualdeko baronet likits batek ere utziko baitzion une batez botikariaren emaztearen haragi estali gabeei zirri egiteari. Ez ote du musika horrek erronka horregatik iraun —edo agian arrazoi horregatik, hain zuzen— hain denbora luzean eta hain ongi? Bestalde, eta azkenik, oso litekeena zen nire aldameneko lepo-hegaldun kaltegabe hura barrualdeko baronet haren oinordeko zuzen bat izatea, hura bezalaxe portatzen ari zena, besterik gabe: sarrera ordaindu zuen, eta eskubidea zuen nahi beste arreta jartzeko edo ez jartzeko.

—Vienan —esan nion—, duela hogei edo hogeita hamar urte, operara joan eta den eztulik txikiena egiten bazenuen, lekaio bat azalduko zitzai-

zun belaunetarainoko galtzak eta ileorde hautseztatu bat jantzita, eta eztularen kontrako goxoki bat emango zizun.

—Horrek areago galaraziko zion arreta jendeari.

—Hurrengo batean ez egiten ikasten zuten.

—Edonola ere, ez dut ulertzen zergatik jarraitzen duzun kontzertuetara joaten.

—Nire osasunaren onerako, mediku jauna.

—Kontrara eragiten dizula dirudi.

—Ez diot inorengatik utziko kontzertuetara joateari —esan nuen—. Inorengatik ere ez.

—Ez gara horretaz ari —erantzun zidan, begiak itzuliz.

—Ni ez nintzen horretaz ari.

—Konforme.

Andrewren ustez etxean geratu beharko nuke nire musika-katearekin, nire CD bildumarekin, eta gure auzo eramankorrekin, zeinak nekez entzuten baititugu eztarriak libratzen mehelinaz bestaldean. Zertarako hartzen duzu kontzertuetara joateko lana, galdetzen dit, horrek ernegatu egiten bazaitu? Joaten naiz, erantzuten diot, zeren musika-areto batean zaudenean, sarrera ordaindu eta bertaratzeko ahalegina egin ondoren, arreta handiagoz entzuten baituzu. Esaten didazunagatik ez, erantzuten dit: gehienean arreta galdurik egoten zarela dirudi. Tira, arreta handiagoa jarriko nuke arreta galaraziko ez balidate. Eta zeri jarriko zenioke arreta handiagoa, galdera teoriko huts-hutsa eginda? (ikusten duzue zeinen probokatzailea gerta daitekeen Andrew). Une batez hausnartu ondoren, zera esan nion: bada, pasarte ozenei eta pasarte sotilei, hain zuzen. Pasarte ozenei, zeren, punta-puntako musika-kate bat edukiagatik ere, ezer ezin bailiteke konpara ehun musikari edo gehiago zure aurrean guztia emanez, airea soinuz betez ari direneko errealitatearekin. Eta pasarte sotilei, zeren, are paradoxikoagoa dena, uste baitezakezu edozein goi-fidelitate ekipok aski ongi erreproduzi ditzakeela. Baina ez da hala. Esaterako, *larghetto*aren hasierako konpas horiek, hogei, hogeita hamar edo berrogeita hamar metroan barrena espazioan hedatuz; nahiz hedatzea ez den hitz zuzena, bidean emandako denbora iradokitzen baitu, eta musika zuganantz datorrenean, denbora nozio oro ezerezten da, ezerezten diren bezala espazioa eta lekua, bestalde.

—Eta zer moduz joan zen Xostakovitxena? Aski ozen sasikumeen zaratak estaltzeko?

—Tira —erantzun nion—, interesgarria da diozun hori. Badakizu nola hasten den klimax boteretsu horiekin, ezta? Hor konturatu nintzen pasarte ozenei buruz esan nahi izan dudanaz. Guztiak ari ziren hots ahalik handiena ateratzen —metalezko instrumentuak, tinbalak, dunbala—, eta badakizu zer zen horien guztien gainetik entzuten zena? Xilofonoa. Emakume batek jotzen zuen, eta ezkila batena bezain argi iristen zitzaigun hotsa. Bada, disko batean entzun izan bagenu, pentsatuko genuen ingeniaritza-lan sofistikatu baten emaitza izan zela... *nabarmentzea* edo nola ere deitzen dioten. Aretoan, aldiz, bagenekien Xostakovitxek halaxe entzun zedin nahi zuela.

—Ongi pasatu zenuen, orduan?

—Baina era berean konturatu nintzen tonuak duela garrantzia. *Piccolo*a ere berdin nagusitzen da. Kontua ez da soilik, hortaz, eztula edo doministikua eta haien bolumena, baizik zer-nolako testura musikalarekin ari den lehian. Eta horrek esan nahi du, jakina, pasarterik ozenenetan ere ezin zarela erlaxatu.

—Datozela zuretzat eztularen kontrako goxokiak eta ileorde hautseztatuak —esan zuen Andrewk—. Bestela, uste dut zeharo burutik egingo duzula, benetan.

—Zuk esatea ere... —erantzun nion.

Bazekien zertaz ari nintzen. Mintza nadin apur bat Andrewri buruz. Elkarrekin bizi gara azken hogei urte edo gehiagoan; berrogei osatu gabe genituen elkar ezagutu genuenean. Viktoria eta Alberto Museoko altzarien sailean egiten du lan. Bizikletaz joaten da hara egunero, izan euri ala eguzki, Londres alderik alde zeharkatuta. Hara bidean bi gauza egiten ditu: kaseteetan grabatutako liburuak entzuten ditu walkmanean, eta sutako egurra noiz begiztatuko ibiltzen da. Badakit ez sinestekoa dirudiela, baina gehienetan lortzen du bere otarrea betetzea, arratseko surako lain. Hortaz, pedalei eraginez joaten da leku zibilizatu honetatik beste batera, *Daniel Derond*aren 325. kasetea entzunez eta, aldi berean, adar jausiei eta edukiontziei adi.

Baina hori ez da guztia. Andrewk su egurra erraz lortzeko zeharbide mordo bat ezagutzen badu ere, ibilbidean denbora nahikoa eta gehiegi ematen du auto-ilaratan trabatuta. Eta badakizue nolakoak diren auto-gi-

dariak: gainerako autoei besterik ez diete erreparatzen. Autobusei eta kamioiei ere bai, jakina; motor-gidariei, tarteka; txirrindulariei, sekula ere ez. Eta honek bere onetik ateratzen du Andrew. Hortxe ibiltzen dira, beren ipurdi gainetan eserita, gas-isuriak airera jaurtiz, pertsona bakarra auto bakoitzeko, ingurumenaren abusatzaile berekoiz beteriko errenkadatan, bolantea etengabe biratuz berrogeita bost zentimetroko tarte batean sartzen saiatzeko, txirrindularirik inguruan baden lehenago begiratu ere egin gabe. Andrewk oihu egiten die. Andrew, nire adiskide, bidelagun eta maitale-ohi zibilizatu hori, Andrew, zaharberritzaile batekin marketeria guztiz finezko pieza baten gainean konkorturik egun erdia pasatu duen hori, Andrew, belarriak victoriar aristokraten garaiko esaldiz beteak dituen hori, oihu batean lehertzen da:

—Putakume halakoa!

Orobat oihukatzen die «Minbiziak joko ahal hau!» edo «Sar hadi kamioi baten azpira, ipurdi-aurpegi hori!».

Galdetzen diot ea zer esaten dien emakumezko gidariei:

—A! Ez diet puta deitzen —erantzuten dit—. «Atso zahar zikin halakoa» esanez betetzen dut haiekikoa.

Eta pedalei eragiten die berriz ere, su egur bila eta Gwendolen Harleth-ez kezkaturik. Gidari batek bidea mozten zionean, autoen sabaiak kolpekatzen zituen. Dinbi eta danba, ardi-larruz forraturiko eskularru batez. Straussen edo Henzeren obretako trumoi-xaflen hots bera aterako zuen. Hegaletako ispiluak ere plegatzen zizkien tanpez, autoaren kontra; honek asko haserretzen zituen sasikume haiek. Baina gaurgero ez du halakorik egiten: duela urtebete inguru asko izutu zen, parean Mondeo urdin bat jarri eta bizikletatik bota zuenean, gidariak iradokizun mehatxagarri zenbait egiten zizkiola. Orain ahots betean «putakume halakoak» oihukatu besterik ez die egiten. Ez dute ezer esaterik, horixe eta bera baitira, eta bai baitakite.

Eztularen kontrako goxokiak eramaten hasi nintzen kontzertuetara. Isun gisa ematen nizkien eskura irismenean nituen arau-hausleei, eta atsedenaldietan urrunagokoei. Ez zen oso ideia arrakastatsua izan, aurreikusi behar izan nukeenez. Kontzertu baten erdian norbaiti goxoki bilgarridun bat ematen badiozu, paperetik askatzean ateratzen duen zarata entzun behar duzu ondoren. Eta bilgarririk gabeko bat ematen badiozu, nekez sartuko du ahoan seguruenik, ezta?

Zenbait ez zen ohartu ere egiten erasoan ari nintzela edo mendekua hartzen; adeitasunezko keinu bat zela uste zuten. Eta arrats batez mutil gazte hura gerarazi nuen barra inguruan, eta eskua jarri nion ukondoan, baina ez keinuak zalantzarik ez sortzeko bezain gogor. Itzuli egin zen: jertse lepoluze beltza eta larruzko jaka, ile hori tentea eta santu-aurpegi zabala. Suediarra agian, daniarra, beharbada finlandiarra. Luzatzen ari nintzaionari begiratu zion.

—Amak beti esaten zidan sekula ez onartzeko gizon atseginek emandako goxokirik —esan zuen irribarre batez.

—Eztulka ari zinen —erantzun nion, haserretu itxura eman ezinik ia.

—Eskerrik asko—. Bilgarriaren mutur batetik heldu, eta hatzetatik kendu zidan, emeki tiratuz—. Zerbait hartu nahi al duzu?

Ez, ez, ez nuen ezer hartu nahi. Zergatik? Aipatzen ez dugun kontu horrengatik. 2A solairutik behera doazen albo-eskailera horietan nengoen. Andrew komunera joana zen, eta ni mutil harekin hizketan hasi nintzen. Asti gehiago izango nuela uste nuen. Telefono zenbakiak trukatzen ari ginela, jiratu eta Andrew ikusi nuen guri begira. Ez nuen erraza bigarren eskuko auto bat erosten ari nintzelako plantak egitea. Edo hura lehen aldia zelakoa. Edo beste... zena zelakoa, egia esan. Ez ginen sartu bigarren zatia entzutera (Mahlerren laugarrena), eta iluntze luze eta eskasa izan genuen horren ordez. Eta hura izan zen Andrew kontzertu batera nirekin etorri zen azken aldia. Nire ohea partekatzeko gogoa ere joan zitzaion, gainera. Esaten zidan oraindik (seguru asko) maite ninduela, oraindik (seguru asko) nirekin biziko zela, baina ez zuela sekula gehiago nirekin larrutan egin nahi. Eta geroago esan zidan are larrutarako erdibidean zegoen ezer ere ez zuela nahi, mila esker anitz. Beharbada pentsatuko duzue horrek eramango ninduela esatera «bai, atera trago bat, mesedez» suediar edo finlandiar edo dena delako gazte irribarretsu eta santu-aurpegidunari. Bada erraturik zaudete. Ez, ez nuen nahi, eskerrik asko, ez.

Zaila da nola jokatu asmatzea, ezta? Eta gauza bera gertatuko zaie musikariei ere. Bronkitisak jotako sasikume horiei entzungor eginez gero, arriskatzen dira itxura ematera hain daudela musikan buru-belarri sartuak, non, aizu, egizu nahi adina eztul, ze ez baitute antzeman ere egingo. Aldiz, beraien autoritatea ezartzera entseatzen badira... Nik ikusi dut Brendel eskuak tekletatik jasotzen Beethovenen sonata baten erdian eta begiratu zorrotz bat botatzen erruduna zegoen inguru aldera. Sasiku-

mea, ordea, ez da ziurrenik konturatu ere egiten errietan ari zaizkionik, eta gainerako guztiak, berriz, urduritzen hasten gara Brendelek haria galdu ote duen ala ez pentsatuz eta abar.

Beste estrategia bat jarraitzea erabaki nuen. Goxokiarena txirrindulariak auto-gidariari egiten dion keinu anbiguo baten antzerakoa zen: eskerrik asko, bihotzez, bai, errei batetik bestera etengabe pasatzeagatik; batbatean balaztatu eta bihotzeko bat izateko asmotan nenbilen, hain zuzen. Ezta pentsatu ere. Agian bazen garaia haien autoen sabaiak zertxobait kolpekatzeko.

Jakizue aski sendoa naizela fisikoki: bi hamarkadaz gimnasiora joateak ez dit batere kalterik egin; batez besteko kontzertuzale erkinarekin alderatuta, ni kamioilari bat izan ninteke. Gainera, traje urdin ilun bat jantzi nuen, sargaren tankerako oihal lodi batekoa, alkandora zuria, gorbata urdin ilun kolorebakarra eta, papar-hegalean, armarri heraldikoa zuen intsignia bat. Berariaz diseinatu nuen efektu hori. Gaizkile batek aise har nintzakeen aretozain ofizialtzat. Azkenik, plateatik palkoen sailera lekualdatu nintzen. Auditoriumaren inguru osoan hedatzen dira palkoak: handik zuzendaria ikus dezakezu, eta baita platea eta anfiteatroaren aurreko erdialdea zaindu ere. Aretozain honek ez zuen goxokirik banatzen. Aretozain honek atsedenaldira arte itxaroten zuen, eta orduan arau-hauslearen atzetik joaten zen —ahal zuen erarik nabarmenenean— barraraino edo Tamesisen ertzaren ikuspegi panoramikoa eskaintzen duten gune bereizezin horietako bateraino.

—Barka, jauna, baina ba al dakizu zenbat dezibel hartzen dituen itotzen ez den eztul batek?

Arras urduri begiratzen zidaten, arduratzen bainintzen neure ahotsa ere ez itotzeaz.

—85 inguru, kalkulatzen denez —jarraitzen nuen—. Tronpetaren nota *fortissimo* batek bezainbat, gutxi gorabehera.

Laster ikasi nuen ez niela aukerarik eman behar azaltzeko nondik atera zuten eztarri nardagarri hura eta ez zutela sekula gehiago egingo edo dena delakoa.

—Beraz, jauna, eskertuko genizuke...

Eta alde egiten nuen, *genizuke*-ren *guk* hori geratzen zelarik nire estatus erdi ofizialaren berrespen gisa.

Emakumeekin ezberdin jokatzen nuen. Andrewk azaldu bezala, bereizketa egin beharra dago «putakume halakoa»ren eta «atso zahar zikin halakoa»ren artean. Sarritan, haien gizonezko laguna edo senarra izaten zen arazo, oso zitekeena baitzen hark bere baitan ernatzen sumatzea zantzu batzuk, leizeak esku dotorez margoturiko bisonte gorriztaz lohitzen ziren garaikoak.

—Sentitzen dugu *zinez* zuk eztula izatea, andrea —esaten nien, ahots apal ia-ia medikoan—, baina orkestrari eta zuzendariari ez die askorik laguntzen.

Hori are iraingarriagoa gertatzen zen esandakoaz ohartzen zirenean; areago zen autoaren hegaletako ispiluak tanpez plegatzea, sabaia kolpekatzea baino.

Baina nik nahi nuen autoaren sabaia kolpekatu ere. Nahi nuen iraingarri izan. Bidezkoa iruditzen zitzaidan. Hortaz, erasorako hainbat aukera garatu nituen. Adibidez, gaizkilea identifikatuko nuen (estatistikoki gizonezkoa izaten zen gehienetan), atzetik jarraituko nion atsedenaldiko kafea edo pinta-erdia hartzen ari zen lekuraino, eta terapeutek ez-erasokorra deitzen dioten tonuan galdetuko nion:

—Barka, jauna, baina artea gogoko al duzu? Joaten al zara museo eta galerietara?

Galdera honek harrera ona izaten zuen gehienetan, mesfidantzaz tindatua bazen ere. Paper-taula bat eta galde-sorta bat ote nituen ezkutatuta? Horregatik, laster batean emango nion segida lehen galdera horri:

—Eta zein dela esango zenuke zure koadrorik gogokoena? Edo gogokoetarik bat, behintzat?

Jendeari gustatzen zaio hori galde diezaioten, eta sari gisa jaso nezake *Belar-gurdia* erantzuna, edo *Ispiluko Venus* edo Moneten *Igebelarrak* edo beste zernahi.

—Tira, bada imajina ezazu hau —esango nien, guztiz adeitsu eta irribarretsu—: zutik zaude *Ispiluko Venus*en aurrean, eta ni zure inguruan nago, eta, munduan ezer baino gehiago maite duzun koadro ikaragarri ospetsu horri begira zaudela, hasten naiz ni tuka, harik eta oihal zati batzuk txistuz erabat estaliak geratzen diren arte. Eta ez dut behin bakarrik egiten, baizik zenbaitetan. Zer pentsatuko zenuke zuk? —eta eutsiko nion batere-paper-taularik-gabeko-gizon-zentzudun tonuari.

Erantzunek batzuetan akzioa proposatzen dute, eta besteetan gogoeta: «Zaindariari deituko nioke» edo «Zeharo pitzatuta zaudela pentsatuko nuke».

—Horixe eta bera —erantzuten dut, apur bat gerturatuz—. Bada orduan *ez ezazu* (eta hemen zenbaitetan kolpetxo bat ematen diet hatzekin sorbaldan edo bularrean, espero dutena baino apur bat bortitzagoa), *ez ezazu* eztulik egin Mozarten erdian. *Ispiluko Venus*en gainean tu egitea bezalakoa da hori.

Gehienak lotsatu egiten dira, horretara ezkero, eta gutxi batzuek denda batean lapurretan harrapatu balituzte bezala erantzuteko jendetasuna erakusten dute. Batek edo bik esaten dute: «Zu nor zarela uste duzu?», zeinari erantzuten baitiot: «Sarrera ordaindu duen bat, zeuk bezalaxe». Ohartzekoa da inoiz ez dudala adierazten enplegatu bat naizenik. Ondoren eransten dut: «Eta ez dizut begirik kenduko».

Zenbaitek gezurra esaten dute. «Alergia da, belar onduari» esaten dute, eta nik erantzuten diet: «Zeurekin ekarri al duzu, bada, belar ondua?». Ikasle itxura zuen batek barkamena eskatu zidan une egokia hautatzen ez omen zuelako asmatu: «Uste nuen obra ezagutzen nuela. Uste nuen bat-bateko *crescendo* bat zetorrela jarraian, eta ez *diminuendo* bat». Suntsitu egin nuen begiradarekin, imajina dezakezuenez.

Ez dezaket esan, ordea, guztiak atsegin edo burumakur agertzen direnik. Traje marradunaz jantzitako tipoak, alubita liskarzaleak, atzetik emakume kalakariak daramatzaten idiskoak... horrelakoak zailak gerta daitezke. Gerta liteke nire prozeduretako bat saiatu eta haiek «Nor demontre zarela uste duzu?» edo «Ospa hemendik, aditu?» eta horrelakoak erantzutea, gaia saihestuz, eta zenbaitek begiratzen didate tipo arraroa *neu* banintz bezala, eta bizkarra ematen didate. Ez dut gogoko portaera hori, jendetasunik gabekoa iruditzen zait, eta horregatik beharbada ukondokada txiki bat eman niezaioke edaria daraman besoari, horrek bultzatzen dituelarik nigana jiratzera, eta, bakarrik badaude, gerturatzen naiz eta esaten diet: «Badakizu zer? *Putakume nazkagarri* bat zara, eta ez dizut begirik kenduko». Gehienetan ez zaie gustatzen inork hala hitz egiterik. Jakina, aurrean emakumerik bada, hitzak neurtu egiten ditut:

—Nola sentitzen da bat —galdetzen diet, eta ondoren etenaldi bat egiten dut deskripzio zehatzaren bila ari banintz bezala— halako *astakaiku berekoi puska* izanik?

Batek Festival Halleko aretozain bati deitu zion. Haren asmoari antzeman nionez, baso xume bat ur eskuan hartu eta esertzera joan nintzen, kendu nuen paparretik armarri heraldikoa, eta pertsona ikaragarri zentzuduna bihurtu nintzen:

—Zeinen kontent nagoen ekarri zaituelako! Norbaiten bila nenbilen hau galdetzeko: Zertan da zehazki areto honetako politika, eztulkari zaratatsu eta jarraituei dagokienez? Pentsatzekoa da une jakin batean haiek kanporatzeko neurriak hartzen dituzuela. Erreklamatzeko prozedura azalduko bazenit, ziur naiz gaurko entzule askok atseginez babestuko luketela nire eskaera etorkizunean sarrerak erostea debekatzeko zera... jaun honi.

Andrewk soluzio praktikoak asmatzen jarraitzen du. Esaten dit hobe nukeela Festival Hall utzi eta Wigmore Hall-era joatea. Esaten dit etxean geratu beharko nukeela nire diskoak entzuten. Esaten dit hainbeste denbora ematen dudala begirale lanetan, ezen ziurrenik ezingo naizela musikan kontzentratu. Erantzuten diot ez dudala Wigmore Hallera joan nahi: gerorako gordetzen ari naiz ganbera-musika. Festival Hallera, Albert Hallera eta Barbicanera joan nahi dut, eta inork ez dit eragotziko. Andrewk esaten dit eserleku merkeak hartu beharko nituzkeela, korukoak edo zutikakoen artekoak. Esaten dit eserleku garestiak hartzen dituztenak BMWak, Range Roverrak edo Volvo handiak gidatzen dituztenen tankerakoak direla —izan ere, pertsona berberak izango dira seguru asko—, putakume hutsak, alegia, eta ea zer nahi dudan, bada.

Esaten diot bi proposamen ditudala haien portaera hobetzeko. Lehena, goialdean fokuak ezartzea, eta baten batek aterako balu neurri batetik gorako zarataren bat —neurri hori adierazia letorkeelarik egitarauan, eta baita inprimatua ere txartelean, egitaraua erosten ez dutenak ere zigorraren jakitun izan daitezen—, haren eserleku gaineko argia piztuko litzateke, eta pertsona horrek bertan egon beharko luke, zepoan harrapatuta bezala, kontzertuaren amaiera arte. Bigarren iradokizuna diskretuagoa litzateke. Aretoko eserleku bakoitza elektrifikatua legoke, eta entzule zaratatsuari deskarga txiki bat askatuko litzaioke, egiten duen eztul, muki-soinu edo dominstikuaren bolumenaren araberakoa. Honela, hainbat espezierekin egindako laborategi-esperimentuek erakutsi duten gisan, araua berriro urratzeko gogoa kenduz joango litzaioke arau-hausleari.

Andrewk esan zuen bi oztopo nagusi aurreikusten zizkiola nire planari, lege-arloko gogoetak alde batera utzita. Lehena zen ezen, gizaki bati

deskarga elektriko bat ematen badiozu, oso litekeena dela aurrez egin zuena baino zarata handiagoa ateratzea. Eta bigarrenik, nire estrategia aldeztu nahi bazuen ere, lerratzen zela pentsatzera kontzertuzaleak elektrokutatzeak ederki asko ekar zezakeela, ondorio praktiko gisa, haiek aurrerantzean sarrerak erreserbatzeko gogo txikiagoa izatea. Eta, jakina, Londresko Filarmonikak areto zeharo huts baten aurrean joko balu, orduan ez nuela kezkatu beharrik izango musikaz kanpoko inolako zaratarengatik. Eta, baietz, horrekin nire helburua erdietsiko nuela, nahiz, aulkietan neurea beste ipurdirik gabe, orkestrak babes ekonomiko bideraezina beharko lukeen.

Zeinen probokatzailea gerta daitekeen Andrew, ezta? Galdetu nion ea bera inoiz saiatu ote zen entzuten gizadiaren musika isil eta tristea, norbait telefono mugikorra erabiltzen ari zen bitartean.

—Auskalo zein instrumenturekin joko litzatekeen musika hori —erantzun zidan—. Beharbada inolako instrumenturekin ez. Zuk egingo zenukeena da mila kontzertuzale inguru segurtasun-uhal batekin eserlekuetan lotu eta korronte elektriko bat pasarazi diskretuki haien gorputzetik, esanez hobe dutela zaratarik ez ateratzea, deskarga handiago bat jaso nahi ez badute. Intziri eta auhen sorrak entzungo zenituzke, eta askotariko txilio itoak; eta horixe da gizadiaren musika isil eta tristea.

—Ziniko hutsa zara —esan nion—. Bada, niri ez zait batere ideia txarra iruditzen.

—Zenbat urte dituzu?

—Jakin beharko zenuke hori. Ahaztu egin zinen nire azken urtebetetzeaz.

—Horrek zer zaharra naizen besterik ez du erakusten. Aurrera, esazu.

—Zu baino hiru urte gehiago.

—Beraz?

—Hirurogeita bi.

—Eta, esan oker banabil, baina zu ez zara beti horrelakoa izan?

—Ez, mediku jauna.

—Gazte zinela, kontzertuetara joan, eseri eta gustura egoten zinen musika entzuten, besterik gabe?

—Nire gogoramenean, bai, mediku jauna.

—Eta zer da orain gertatzen dena? Gainerakoek dute portaera okerragoa, ala zu zaude sentiberago adinarekin?

—Jendea okerrago portatzen da *orain*, eta horrek bihurtzen nau sentiberago.

—Eta noiz antzeman zenuen aldaketa hori jendearen portaeran?

—Nirekin etortzeari utzi zenionean.

—Ez gara horretaz ari.

—Ni ez naiz horretaz ari. Zuk galdetu didazu. Orduantxe hasi ziren portaera okerragoa izaten. Nirekin etortzeari utzi zenionean.

Andrew horretan pentsatzen geratu zen tarte batez.

—Eta horrek frogatzen du nik diodana. Bakarrik joaten hasi zinen arte, ez zinen konturatzen. Beraz, zurea da arazoa eta ez haiena.

—Bada, etorri berriro ere nirekin, eta ez dut arazorik izango.

—Ez gara horretaz ari.

—Ez, ez gara horretaz ari.

Pare bat egun geroago, gizon bat zangotrabatu nuen eskaileretan. Portaera bereziki gaitzesgarria izan zuen: azken minutuan sartuz, gona motzeko emagaldu bat lagun zuela; hankak zabal-zabal eginda eserlekua atzera bultzatuz eta ingurura begira ari izanez, burua alferrik jiraka; berriketan eta laztanketan jardunez mugimendu arteko atsedenaldietan (non, eta Sibeliusen kontzertuan!), eta, nola ez, egitarauarekin paperhotsa atereaz. Eta gero, asmatu zer egin zuen azken mugimenduan! Emakumearen aldera makurtu zen, besoa gainetik pasatu, eta hari bikoitzeko biolin-nota zenbait jo zituen haren izterraren barnealdean. Ez konturatzeko plantak egin zituen emakumeak, gero maitekiro atabalatu zuen lagunaren eskua bere egitarauarekin, eta gizona zuzen jarri zen berriz eserlekuan, satisfazio irriño bat zuela bere aurpegi harroputz eta ergel hartan.

Atsedenaldian, zuzenean joan nintzen haiengana. Gizona ez zegoen oso... esan dezagun... etorkor. Ni zeharka bultzatu, eta aurrera egin zuen «Hoa popatik hartzera, babo alaena!» besterik esan gabe. Hori entzunda, atzetik jarraitu nien kanpora, eta 2A solairuko albo-eskaileretan behera

ondoren. Nabari zen gizonak presa handia zuela. Seguruenik eztarria garbitu nahi zuen eta listua bota, eta eztul egin eta dominístiku, eta erre eta edan eta erloju digitalaren alarma martxan jarri mugikorraz dei bat egin behar zuela gogora ziezaion. Hortaz, orkatila trabatu nion kolpe batez, eta muturrez aurrera joan zen eskailera-atalaren erdian gaindi. Gizon sendoa zen, eta odola zeriola zirudien. Lagun zuen emakumea, ez zena adeitsuagoa izan eta irribarre maltzur bat egin zuena besteak «Hoa popatik hartzera, babo alaena!» bota zidanean, oihuka hasi zen. Bai, pentsatu nuen urruntzen ari nintzela, agian ikasiko duzu Sibeliusen biolin-kontzertua etorkizunean errespetu handiagoz tratatzen.

Zeren, errespetu kontua baita, ezta? Eta errespeturik ez baduzu, izaten irakatsi beharko zaizu. Benetako proba, proba bakarra da zibilizatuagoak bilakatzen ari ote garen ala ez. Ez al zaudete ados?

GOGOAN

Juan SAN MARTIN, *Egan*eko zuzendari ohia

Koldo ZUBELDIA, idazle zaldibiarra

Juan San Martin *Egan*eko zuzendari ohia gogoan

Koro Segurola
Egan aldizkaria

Egan literatura aldizkariak gogora ekarri nahi du Juan San Martinen jaiotzaren mendeurrena (1922-2022), aldizkari honetako zuzendari izan zen aldetik (1983-1989). Koldo Mitxelenak —orduko zuzendariak— eskatuta hartu zuen ardura, eta bi euskaltzainek elkarrekin zuzendu zuten aldizkaria 1987. urtera arte, Mitxelena zendu zen arte. Hortik aurrera, Iñaki Zumalderekin batera eraman zuen *Egan*eko gidaritza.

Orduan Juan San Martinek "gertakari"tzat jo zuen *Egan*ek "euskal literaturagintzan 30 urte" bete izana, literatura gaiei loturiko euskarazko aldizkari batek "ez zuelako inoiz horrenbeste iraun" (*Egan,* 1984-5/6, 5-7. or.). Garai horretan aldizkariak ibilbide berri bat hartu zuen, narratibaren arloan, batez ere, eta euskal idazle berriei bere lekua egiten utzi zitzaien.

60ko hamarkadatik, aldizkariaren ardura hartu baino hogei urte lehenagotik, idatzi ugari argitaratu zituen *Egan*en euskarari eta literaturari buruzkoak. Horren erakusgarri da 2005ean *Egan*ek argitaratutako antologia, Oier San Martin semeak prestatua. *Juan San Martinen Antologia* 1960. urtetik 1987. urtera arte aldizkarian argitara emandako idazlanen bilduma da. Orain, bere gorazarretan, antologia hori aldizkariaren webgunean eskuragarri jarri dugu.

Harrezkero, 90eko hamarkadatik ere makina bat orrialde bete zuen San Martinek *Egan*en, 2018ko lehen alean argitaratu genituen aurkibideetan ikus daitekeen bezala: *Aurkibideak 1948-1992 / 1993-2017*.

Juan Luis Zabala idazlearen eta *Egan*eko kidearen idazlana Juan San Martin gogoratzera eta omentzera dator, eta oroz gainetik gure esker ona adieraztera, izan zirelako baikara.

Juan San Martin, euskal kulturaren noranahikoa[1]

Juan Luis ZABALA

Euskaltzaletu zenetik hil zen arte, euskararen beharretara egokitutako *todoterreno* edo noranahiko ibilgailu baten modukoa izan zen Juan San Martin Ortiz de Zarate, benetako *lanroberra*, euskarak eta euskal kulturak zer behar huraxe bilatzen eta ematen saiatu zen idazle, euskaltzain, eragile, espeleologo, arkeologo, etnografo, mendizale eta argazkilari saiatu, erne eta nekaezina.

«*Si alguien ha sido un todoterreno de nuestra cultura, ése ha sido Juan San Martín*», idatzi zuen Jose Luis Lizundia idazle eta euskaltzainak Juan San Martini buruz, *El País* egunkarian 2005eko maiatzaren 31n argitaratutako artikuluan, adiskide zendu berria gogoan zuela. Hots: «Gure kulturan noranahikorik izan bada, hori Juan San Martin izan da». Esaldi horretatik abiatuta, San Martinen askotariko lanak eta merituak aletu zituen Lizundiak idazlan hartan, jorratu zituen alor guztiak ezin aipaturik, asti eta espazio faltaz.

1922ko ekainaren 23an jaio zen, Eibarren Juan San Martin, lagunek *Juanito* deitua. Otxandiokoa zuen ama, Eibarkoa aita, Eguren baserrian jaiotako eskopetagile liberal eta ezkertiarra. Anaia bat eta arreba bi zeuzkan. 36ko Gerra hasi zenean, aitak Valentziara jo zuen Errepublikako Gobernuaren alde borrokatzera, eta amak lau seme-alabekin ihes egin behar izan zuen, Iurrera lehenik, Bilbora, Santanderrera eta Gijónera gero. Gijóndik Bordelera itsasontzi batean ihesean zihoazela, preso hartu zituzten frankistek ama eta lau haurrideak, eta Ferrolera eraman.

Ferroldik Eibarrera itzuli zirenean, jaiotetxea suntsituta aurkitu zuten, eta Juanito, 17 urteko gaztea, tornulari lanean hasi zen. Gauetan,

[1] Euskal Idazleen Elkartearen webgunean argitaratua, 2022ko ekainaren 20an, Juan San Martinen jaiotzaren lehen mendeurrenerako hiru egun falta zirela. https://idazleak.eus/eu/uberan/juan-san-martin-euskal-kulturaren-noranahikoa

ordea, teknika industrialei buruzko ikasketak egiten aritzen zen. Bestelako aukerarik ezean, autodidakta izan zen arlo horretan, beste askotan bezala. Jakintza ugaritara irekita, ikasten nekatzen ez zen jakin-min handiko autodidakta.

Madrilen eta Burgosen egin zuen soldaduska, eta euskara itzultzaile lanetan aritzea egokitu zitzaion tarte horretan. Soldadu zegoela amari idatzitako gutunek euskaltzaletu zuten Juan San Martin, haiei ekiterakoan jabetu baitzen ez zegoela amarekin mintzatzen zuen hizkuntzan alfabetatuta. Horrek bere kabuz alfabetatzera eraman zuen. Urte batzuk geroago, 1959an, Eibarko Ikastolaren sorreran parte hartu zuen.

1950ean hasi zen euskaraz artikuluak argitaratzen, eta 1959an plazaratu zuen lehen liburua, Juan Antonio Mogelen biografia. Poesia ere idatzi zuen garai hartan, *Otsalar* ezizenez, eta garaiko euskal poesiaren erreferentzia nagusietako bat izan zen. 1964an euskaltzain oso izendatu zuten eta hurrengo urteetan euskara batuaren aldeko ekintzaile nagusietako bat izan zen, Txillardegi, Koldo Mitxelena, Luis Villasante eta besteren ekimenei babesa eta laguntza praktikoa emanez. Horrezaz gain, 1983tik 1989 arte *Egan* aldizkariaren zuzendari izan zen: Koldo Mitxelena orduko zuzendariarekin batera 1987. urtera arte, Mitxelena hil arte; ondotik, Iñaki Zumalde eta biek eraman zuten aldizkariaren ardura.

Politikan ere parte hartu zuen. Eusko Kontseilu Nagusiko kide izan zen 1978an, eta 1989an Euskal Autonomia Erkidegoko Araarteko izendatu zuten. 1995era arte izan zen kargu horretan, eta 1994an eta 1995ean Europako arartekoen Ombudsman Institutuko lehendakari izan zen.

Mendizale porrokatua eta nekaezina izan zen gaztetatik, eta eskia eta alpinismoa ere praktikatu zituen. Baita espeleologia ere. Gazterik hasi zen, 40ko hamarkadan, Aranzadi Zientzia Elkartearen espeleologia sailerako lanak egiten, Eibar inguruko leize-zuloak esploratzen eta katalogatzen. Aurrerago, beste esplorazio batzuetan parte hartu zuen. Lan asko egin zuen Eibarko Club Deportivo elkartean ere.

Hondarribian bizi izan zen azken urteetan, eta han hil zen, 2005eko maiatzaren 30ean. Eibarko seme kuttun izendatu zuten hurrengo urtean, 2006ko azaroaren 17an. Hil aurretik, 2003an, izendapen bera emana zion Hondarribiak.

1. Juan San Martin, idazle

Anaitasuna eta *Euzko Gogoa* aldizkarietan idatzi zituen lehen artikuluak Juan San Martinek, 1950eko hamarkadaren hasieran, kulturaren in-

guruko gaiak landuz batez ere. Imanol Berriatuak zuzentzen zuen, orduan, *Anaitasuna*; Jokin Zaitegik, *Euzko Gogoa*.

Juan Antonio Mogelen biografia kaleratu zuen 1959an, *Juan Antonio Mogel ta Urkitza. Bere bizitza ta lanak* izenburuarekin. Horixe izan zen argitaratu zuen lehendabiziko liburua.

Zirikadak, ipuin barregarridun bilduma (Itxaropena, Kuliska sorta, 1960) eta *Eztenkadak. Gertaera barregarrien liburua* (Itxaropena, Kuliska sorta, 1965) kaleratu zituen hurrengo urteetan. Eibar eta Soraluze aldeko umorezko kontakizun herrikoiak jaso zituen liburu horietan, baserriko girokoak batzuk baina kalekoak gehienak, mendebaldeko azpieuskalkian emanak. Liburu bietako prosak Nikolas Ormaetxea *Orixe*-ren eta Seber Altuberen laudorioak jaso zituen. Eibarko Udalak berrargitaratu egin zituen bi liburuok 2003an.

Jon Bilbao bibliografoaren laguntzaile izan zen Eusko Bibliographia taldean, eta taldeko horretako zuzendaritzako kide ere izendatu zuten gero. Toribio Etxebarriaren bi libururen hitzaurreak ere idatzi zituen. Gertuko eredu eta erreferente garrantzitsutzat izan zuen beti San Martinek Etxebarria, batez ere haren humanismoari atxikita.

Beste poeta batzuen lanak itzultzeaz gain, Salvador Espriurenak eta Bertol Brechtenak besteak beste, poema ugari argitaratu zuen 1954 eta 1977 artean, *Egan* eta *Olerti* aldizkarietan batez ere, *Otsalar* ezizenez gehienetan, eta 1960ko hamarkadako euskal poesian erreferentzia garrantzitsua izatera iritsi zen.

Hala ere, hamarkada horretan ez zuen berak idatzitako poema libururik argitaratu. Bai, ordea, garai hartako euskal poeten antologia bat, Uhin berri. 1964-1969 (Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, 1969). Joxan Artze, Joxe Azurmendi, Manex Erdozaintzi-Etxart, Jose Angel Irigarai, Daniel Landart, Amaia Lasa, Julen Lekuona, Xabier Lete, Luis Mari Mujika, Manex Pagola eta Ibon Sarasolaren testuak bildu zituen, beste askorenen artean.

San Martinen poesia ezagutzeko aukera osoena eta egokiena *Giro gori* liburua da, Felix Marañaren bultzadaz Euskal Herriko Unibertsitateak 1998an argitaratutako antologia. Huraxe izan zuen lehen eta azken poema liburua San Martinek. Liburu horri buruz idatzitako erreseina kritikoen artean, aipagarria da Andolin Eguzkitzak *Euskaldunon Egunkaria*-n 2001eko otsailaren 17an argitaratutakoa. San Martinen poesiagintzaz honako hau idatzi zuen, besteak beste, Eguzkitzak lan hartan:

> Oso da interesgarria Otsalarren poemak begiratzea, ederto ikusten delako denok dakiguna, gurasoen seme-alabok garela, eta San Martinen olerkaritza irakurtzean argi eta garbi ikusten da gerraurreko olerkariak dauzkala buruan, Lizardi, Lauaxeta eta enparauak, baina Arestik iraultza eginen duelarik, berak ere herri-literaturaren elementu, molde eta erak sartzen dituela barra-barra bere lanetan. [...]
>
> Gaien ikuspegitik ere garaikoetan aritzen da San Martin, existentzialismoa alde batetik, aurreko horretan bezala herrimina, eta olerkaritzaren betiereko gaiak, natura eta amodioa, bestetik. Hizkuntzaren moldeetan jartzen badugu begirada baina, kronologikoki dagokion tokia hartu, eta gure literaturaren historian katanbegi bat osatzen lagundu zuela argi eta garbi dago; hasi erabat lizarditarra den hizkuntza, hiztegiz aberats, baina gramatikalki oraino elbarritua ematen duenaz hasten baita, hizkuntza herritar gozo eta adierazkorra sartzen duelako gero, azkenez gure oraingo poesia eta prosaren oinarri den hizkera fresko eta zalua erabiltzeko.

Euskal Idazleen Elkartearen sorrera bultzatu zuten idazleetako bat izan zen, 1982an. Berak idatzi zituen, Euskaltzaindiko Jagon sailburu gisa, Euskal Idazleen Elkartearen asmoak eta helburuak (Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkariaren 2. aldizko XXVII. zenbakiaren separata batean jasoak). «Gizarte zibilizatu batean, literatur ekintzak bultzatzen ez dituen herriaren hizkuntzak, eztu etorkizunik", dio San Martinek txosten horren lehen esaldian».

Poesiaz gain, gai askori buruzko artikuluak eta liburuak idatzi zituen: umoreaz, arteaz, etnologiaz, hizkuntzaz... Hainbat dibulgazio eta saiakera liburu argitaratu zituen, lan horren ondorioz. Honako hauek, besteak beste: *Escritores euskéricos* (La Gran Enciclopedia Vasca, 1968), *Gogoz. Gure herriko gauzak* (Gipuzkoako Aurrezki Kutxa GAK, 1978), *Bidez. Gure herriko gauzak* (GAK, 1981), *Landuz. Gure herriko gauzak* (GAK, 1984), *Euskararen ostarteak* (Erein, 1988), *Antzinako Eibar* (Eibarko Udala, 1993), *Giza eskubideen inguruan* (Elkar, 2000), *Eibar eta Elgetako Toponomastika* (Euskaltzaindia. Eibarko Udala eta Elgetako Udala, 2000), *Antzinatik gaur egunera. Hondarribia* (Elkar, 2003). Horrez gain, San Martinen artikuluen antologia argitaratu zuen *Egan* aldizkariak 2005ean, Oier San Martin semeak prestatutako edizioan. Orain aldizkariaren webgunean jarriko da.

2. Juan San Martin, euskaltzain

Soldaduskan amari gutunak idazterakoan hasi zen euskaltzaletasuna ernetzen Juan San Martinen baitan, orduan jabetu baitzen ez zegoela

alfabetatuta etxean ikasitako hizkuntzan. Francoren aginteak euskararen aurka ezarritako politikek eta hainbat herritarrek euskarari erakusten eta adierazten zioten mespretxuak indartu egin zuten Juanitoren euskaltzaletasun hori.

Lan egiteari utzi gabe, bere kabuz alfabetatu zen San Martin gaztea, eta 1957ko uztailaren 26an izendatu zuten euskaltzain urgazle. Zazpi urte geroago, 1964ko abenduaren 18an, euskaltzain oso. Sarrera hitzaldia hamar urte geroago egin zuen, hala ere, 1974ko irailaren 14an, Urdazubin, gaitzat honako hau hartuta: «Literatura landuaren sorrerako giroa, Axularren garaira arte». Jean Haritxelharrek eman zion erantzuna ekitaldi hartan.

Euskaltzaindiko idazkari izan zen 1967tik 1978ra arte. Ordain ekonomikorik gabeko lan ugari egin zuen akademiaren alde urte horietan: bertsolari txapelketen eta alfabetatze-kanpainen antolaketan parte hartu zuen, gau-eskolak bultzatu zituen, euskararen aldeko era guztietako ekimenetan laguntzeko prest zegoen beti.

Gertutik ezagutu zuen euskara batuaren sorrera-prozesua, eta hasieratik eman zien babesa eta laguntza Koldo Mitxelenari, Luis Villasanteri, Txillardegiri, Gabriel Arestiri, Jean-Louis Davanti eta, oro har, euskara batua bultzatzen zuten gainerako euskaltzain eta idazleei. Ermuko Zina izenpetu zuten idazleetako bat izan zen, 1968an; Arantzazuko Batzarrean parte hartu zuen, urte berean; Bergarakoan, 1978an... Praktikan ere, bere idatzietan, euskara batuaren aldeko jokabidea izan zuen. Aurkari gogorren askotariko erasoei egin behar izan zieten aurre euskara batuaren aldeko prozesu luze, lakar eta korapilatsuan.

1970etik 1978ra arte, Euskaltzaindiko diruzaina izan zen; 1978tik 1988ra arte, Jagon sailburua; euskaltzainburuorde hautatu zuten 1988an, baina kargua hurrengo urtean utzi zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Ararteko izendatu zutelako.

3. Juan San Martin, mendizale, espeleologo eta etnologo

Irakurtzea bezala, gaztetandik izan zuen Juan San Martinek mendizaletasuna bere pasioen artean, eta ez modalitate edo praktika bakarrean: mendigoizaletasuna, alpinismoa, eskia, eskalada... eta baita espeleologia ere.

1940ko hamarkada amaitu baino lehen egin zen Aranzadi Zientzia Elkarteko espeleologia saileko kide, eta Eibar inguruko leize-zuloen esplorazioetan lagundu zuen, Jesus Elosegi Irazusta zuzendari zuela. Aurre-

rago, Oñatin, Mendaron, Erronkarin eta Santa Grazin ere aritu zen espeleologia lanetan, Felix Ruiz de Arkaute espeleologoarekin eta Antonio Arratibel adiskidearekin, besteak beste. 1960an, Santa Graziko San Martin leize-zuloko La Vernako tunela zulatzea ahalbidetu zuten topografia taldeko kide izan zen. Hurrengo urtean, handik gertu, Aranzadi galeria aurkitu zuen taldeko eskalada-arduradunetako bat izan zen.

Mendi Altuetako instruktore titulua eskuratu zuen 1948an, eta eskaladako irakasle eta gidari izan zen hainbat urtez. 1950 eta 1954 artean, hiru bidetatik lortu zuen Cabrales udalerriko (Asturias) Urriellu mendiaren (Naranjo de Bulnes ere deitutakoa) gailurreraino eskalatzea. Bide berriak ireki zituen Pirinioetako hainbat menditan, eta Alpeetan ere ibilbide ugari egin zuen. Espainiako Mendi Federazioak Zilarrezko Domina eman zion 1955ean.

Eibarko Club Deportivo elkarteko kide izan zen, gazterik hasita. Eskalada eta Mendi Altuetako saila sortu zuen, 1949an, elkarte horren barruan, eta elkarteko buru ere izan zen aldi batez. Elkartearen sail artistiko-kulturala ere berak sortu zuen, 1957an. Elkarteak hitzaldi, ikastaro eta erakusketa ugari antolatu zuen ondorengo urteetan, San Martinen dinamismoak bultzatuta.

Idazketarako gai ere izan zuen sarritan mendia, Eibarko kirol elkartearen aldizkarian ez ezik *Pyrenaica* aldizkarian ere, gaztelaniaz hasieran, euskaraz gero.

Espeleologiarekin eta mendizaletasunarekin lotuta, etnologiarako zaletasun handia izan zuen. Joxe Miel Barandiaran eta Julio Caro Baroja maisu eta erreferente nagusitzat harturik, etnografiako hainbat lan argitaratu zituen *Munibe*, *Fontes* eta beste hainbat aldizkaritan. Etnografiako lanak euskaraz idazten eta argitaratzen aitzindarietako bat izan zen.

4. Juan San Martin, bere gizartearekin konprometitutako eragile

Herriaren eta herritarren zerbitzurako bokazioak hartaratuta, Eusko Kontseilu Nagusiko kide izan zen Juan San Martin 1978an, Eusko Jaurlaritza sortu baino pixka bat lehenago, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ararteko izendatu zuten 1989an. Horregatik utzi zuen euskaltzainburuorde kargua, aurreko urtean emana. 1994tik 1995era Europako arartekoen *Ombudsman* Institutuko burua izan zen, eta 1995ean utzi zion EAEko Ararteko izateari ere.

Aurretik, Arte Ederretako Kontseilaria izana zen, eta baita, hainbat urtez, Donostiako San Telmo Museoko Zuzendaritzako kide eta Eibarko San Andres elizaren berriztatze-lanetarako Kontseiluko aholkulari ere.

Luzaz izan zen Aranzadi Zientzia Elkarteko zein RSBAP/EAE Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko kide. EIE Euskal Idazleen Elkarteak eta EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak ohorezko kide izendatu zuten.

Durangoko Liburu eta Disko Azokaren 36. edizioan, Durango merindadeko Adiskideen Gerediaga Elkarteak 2001eko *Durangoko Argizaiola* omen-saria eman zion.

Eibarko Udalak, Udako Euskal Unibertsitatearen laguntzarekin, *Juan San Martin* Beka sortu zuen 2001ean, ikerketa sustatzeko eta Juan San Martin omentzeko. Geroztik, urtero ematen da beka hori.

Hona hemen Juan San Martinek jasotako beste hainbat aipamen, sari eta omenaldi:

- Espainiako Mendi Federazioak Zilarrezko Domina eman zion 1955ean.
- Baionako Euskal Idazleen Entitateak kazetaritzako Lauaxeta saria eman zion 1964an.
- 2002ko ekainaren 3an, Bilboko Liburu Azokak Urrezko Luma eman zion.
- 2003ko urrian, Koldo Mitxelena Kulturuneak Juan San Martinen omenezko jardunaldiak antolatu zituen, *Konpromisoa eta lekukotza euskal kulturaren zerbitzura* izenburupean.
- 2003ko abenduan, Hondarribiko Urrezko Domina eman zioten, eta seme kuttun izendatu.
- 2004ko ekainean, Eusko Ikaskuntzak eta Euskadiko Kutxak, Humanitate, Kultur, Arte eta Gizarte Zientzien 2004ko saria eman zioten.
- 2004ko abuztuan, Zuloaga Museoak omendu zuen.
- 2005eko apirilean, Eibarko seme kuttun izendatu zuten.

5. Juan San Martin, bere hitzetan

Juan San Martinek Imanol Murua Uria kazetariak 1998an egindako elkarrizketan (*Jakin* aldizkariaren 108. zenbakian argitaratua) esandako batzuk jaso ditugu hemen:

Irakurzaletasuna mutikotatik neukan. Auzoan bagenuen neska bat, ni baino lau bat urte zaharragoa, ipuinak irakurtzen zizkiguna. Robinson Crusoe eta halakoak. Horren inguruan, oso mutiko nintzela!, jabetu nintzen liburuetan zer gauza aurki zitezkeen.

Ipuinak-eta irakurtzen nituen orduan, erdaraz. Esploradore kontuak, Livingston-eta, mutikotatik irakurri nituen. Erosi egiten nituen, nire diruarekin. Merkeak ziren. Nobelak koaderno gisa kapituluka saltzeko ohitura ere bazen. Eta gainera, trukaketak genituen: zinemara joaten ginenean, pelikula hasi baino lehen elkartzen ginen elkarri esanez, azokan bezala, «nik hau daukat! trukatuko nuke honegatik!», eta horrela. Batzuk banituen trukatzerik nahi ez nituenak. Gustatu, eta niretzat.

Gerra piztu zenerako, etxean banuen liburu multzo bat. Baina erra etorri zen, etxea erre zen eta ezer gabe gelditu nintzen.

* * *

Ferroldik Pasaiara ekarri gintuzten, itsasoz. Eta handik Eibarrera. Iritsi ginenean, etxerik ez! Beheak jota. Suntsituta dena, lau paretak. Amak ikusi zuenean negarrari eman zion. Inpresio handia egin zidan, eta uste dut nire bizitzan aldaketa handia egin nuela orduan. Lehen ume bihurria nintzen, baina ama horrela ikusirik eta aita non zenik ere ez genekiela...

* * *

Giroa oso txarra zen [36ko Gerraren ondorengo urteetan]. Udaletxean edo beste edozein zentrotan isilik geratu behar, baina trenean, autobusean edo horrelako lekuetan ikasia nuen, nire irakurketetatik, zer erantzun. Autobusean-eta nornahik esaten zizun: *«¡Hable en cristiano!»*. Nornahik! Sarri erdibaserritar erdaraz ondo ez zekienak, karlista zelako. Baina sarriago, kanpoko jendeak, poliziek eta.

Nik erantzuten nien: *«Lo siento mucho, pero yo no seì arameo»*. Berak: *«¡Quiero decir que estamos en EspanÞa y hable usted en espanÞol!»*. Eta nik: *«Pues yo estoy hablando la lengua mas antigua de EspanÞa»*. Jendea adi-adi egoten zen. Eta gero: *«¡Yo no soy separatista, pero veo que usted es un separador!»*.

Horrela erantzuten nien. Jendeak horrekin kontzientzia hartzen zuen eta ni pozik. Hori, zenbat aldiz eta zenbat tokitan! 40ko hamarkadaren erdia pasatu ondoren hasi nintzen horrelako erantzunak ematen. Esaten zidaten lagunek, egunen batean disgustoa izango genuela...

* * *

Behin [soldaduskan], euskaraz entzun eta brigada batek esan zidan: *«¡Malditos vuestros padres que os ensenÞaron esa punÞetera lengua!»... «Oiga, perdone, a miì mis padres no me han ensenÞado nada malo».* Esan banion esan nion! Eman zidan jipoi ikaragarria! Lurrera bota, zapaldu... odolduta utzi ninduen.

Horrek erreakzioa sortarazi zidan: ni mendizale ibili naizenean, artzainekin, baserritarrekin, Gorbean, Aizkorrin, Aralarren... gure hizkuntzarekin toki guztietan ateak irekita izan ditut. Hizkuntzarekin anaiago konpontzen gara... Eta gero, tratu hau hauei? Niretzat azkena izan zen. Hor hasi nintzen kontzientzia hartzen.

* * *

Jon Etxaidek asko orientatu gintuen: zer gramatika ziren interesgarrienak, literatur gomendioak... Ni mugaz haraindiko idazleei begira jarri banintzen, hangoak ere irakurtzen hasi banintzen, Jon Etxaideri zor diot. Esaten zidan bere ustez mugaz haraindiko idazleak tradizio handiagokoak zirela, ezagutu beharrekoak zirela.

* * *

Naranjo lehenengo aldiz igo genuenean, baserriko abarkekin egin genuen. Gero, txirukak hasi zirenean txirukekin.

* * *

Nik beti esaten dut: gizona da lehenago, edozein hizkuntza, edozein etnia eta edozein zera baino. Baina bolumena handia baldin bada, ez dago asimilatzerik.

Euskalduna zeharo baztertzea gertatu zen. Hor joko bat egon da azpitik. Dudarik gabe.

Humanidade aldetik, agian gutxien inporta duena da. Baina, guretzat, euskaldun bezala, inportantea izan da.

* * *

Ikastola [Eibarkoa] 1960an sortu zela dio ikastolaren liburuak, baina nik datuak lehenagokoak ditut, eta inor ibili baldin bazen ni ibili nintzen: 1959an sortu zen ikastola. Pisu batean hasi ginen.

* * *

Aresti ere kezkatuta zegoen, *Otsalar* hori nor zen ez zekiela eta. Irakurriko dizut Arestik zer idatzi zuen 1960an, *Egan*-en: «Larrean argitaratzen den *Olerti* errebistan poeta bat agertzen zaigu, zeineren izenik edo kondiziorik ez dudan nik ezagutzen birrizen batekin eskribatzen duelako: Otsalar. Gauza sakonak eta kementsuak egiten ditu, bortitza da, entelegetsua, adimentsua, zeru muga zabaleko poeta. Lasai dabil poesia gorenengo alor aberatsetatik. Baina formarekin egiten dugu oztopo. Badaki kopla nagusi bat zer ez den ere ez dakiela. Otsalar, funtsaren aldetik, ezin hobea da».

* * *

Baina nik nahiago nuke libreago egon izan banintz. Euskarak hainbeste premia izan ez balu, gehiago dedikatuko nintzatekeen literaturara. Eleberri bat egiten ere hasi nintzen, eta bertan behera utzi nuen. Euskaltzaindian idazkari hasi nintzenetik ez dut izan denborarik ezertarako.

* * *

Zentsura norberaren buruari egiten zaio lehenengo. [*Hoja del Lunes* astelehenetako egunkariko] Zuzendariak babestu egiten ninduen gainera. Ez nuen politika gaiez idazten, kulturaz aritzen nintzen, eta horrela inork ezin zuen moztu. Tarteka, historiari buruzko zerbait, foruen arazoren bat, hurrengoan pertsonaiaren bat mendeurrena edo betetzen zenean... Gai desberdinekin jauzika.

Nik, gainera, gai politikoak beti saihestu ditut. Politikan beraiek egin dute nire kontra, baina nik ez dut politikarik egin. Orduan saihestu egiten nuen, eta orain gehiago.

* * *

Baina [Euskaltzaindiaren Lagunak] kanpaina zela eta ni batetik bestera ibili nintzen batzarrak eginez, eta nire jarraika hasi zen Guardia Zibila. Telefonoa kontrolatua neukan. Eta gerora, orain gutxi arte!, arazoak izan ditut horregatik: Carrero Blanco hil zutenean pasaportea baliogabetu zidaten, Hondarribian etxea miatu zidaten guardia zibilek Aberri Egun batean, pintxazoak kotxean ez dakit zenbat aldiz... Kotxeari gurpil bat kendu eta itsasora bota zuten batean, guardia zibilak horrelakoak egiten ari ziren susmoa zutela esan zidan Hondarribiko alkateak eta, orduan gobernadore zen Julen Elgorriaga ezaguna nuenez, harengana jo nuen. Ahal zuena egingo zuela esan zidan, eta geroztik ez dut arazorik izan. Horrek

erakusten du guardia zibilak zirela niri arazoak sortzen zizkidatenak. Demokrazian! Eta hori guztia, «Euskaltzaindiaren Lagunak» mugimendua sortu nuelako.

* * *

Euskalki bakoitzak baturako eskaini behar du beretik datozen gauzarik garrantzitsuenak. Orain hasi da berriro euskalkiei balioa eman nahirik: balio lokala dute, baina batasunerako lehen pausotzat hartu behar da. Batasuna beharrezkoa da, edo bestela hizkuntzak ez du etorkizunik. Eta batzuetan euskalkiari merezi duen baino garrantzi gehiago ematen ari gara.

* * *

Inportanteak izan dira [Ararteko lanean emandako urteak] humanismo aldera izan dudan joeragatik. Alde horretatik oso gauza politak egitea egokitu zait eta poz handia eraman dut. Baina politikak desengainu handia eman dit. Esan bati gauza bat, eta belarri batetik sartu eta beste batetik irten. Hori askotan, eta kolore guztietako politikoekin. Txarrenak, txantajea eginez, ETAren eta HBren ingurukoak izan dira, baina boto gehien dituzten alderdiek ere presio handia egin didate, eta ez ikusiarena egin, sarri. Esatekoak ere ez dira EAJkoek eta PSOEkoek egin dizkidatenak.

KOLDO ZUBELDIA
idazle zaldibiarraren oroimenez
(1956-2022)

Koldo Zubeldia, Zaldibiko poeta

Ekaitz Goikoetxea

1956an jaio hintzen Ñañarripean, hire Zaldibi maitean. Paregabeko inguruari eta ingurukoei emana, Beasaingo Txindoki institutuan egin hituen batxilergoko ikasketak. Zuzenbidea ikasten hasi, baina euskararen zokondoetan murgildu hintzen Euskaltzaindiaren titulua ateratzeko alfabetatze eskolekin. Irakasle titulua atera, eta 1981ean hasiko hintzen Martuteneko itzultzaile eskolan itzulpengintza ikasten. Orduan erne zitzaian idazle bokazioa, eta loratu poeta sena.

Zaldibiko semea ez ezik, Goierriko kasta ere bahintzen, eta hain zuzen ere, hainbat goierritar sortzailek *Goierriko kasta* modura eskaini genituen errezitaldietan sakondu eta indartuko genian elkarrekiko ezagutza. Eta geroztik, bereziki maite hituen dozena erdi-hamar bat laguni bezala, sarri-sarri deituko higun Irati arrebari eta bioi bizi hintzela jakiteko (hik eta guk), "zazpi poema berri idatzi ditut eta prest nago". 17 segundoko solasa, ez kaixo eta ez agur, nahikoa, bizi hintzela jakiteko. Hik, eta guk.

Eta poemari poema, autoedizioaren bidetik argitaratuko hituen 2005ean hire lehen liburua, *Alamartxo ahantzia* (Erroteta), eta geroago, *Sentimenduen erresuma* (2007), *Ehotako fantasien errota* (2008), *Antologia poetikoa 1984-2009* (2009), *Aralar, gogoko iturri* (2011), *Seigarrena sei* (2012), *Antologia II* (2013), *Harriaren tasunak* (2017) eta *Bederatzigarrena bederatzi* (2020).

Eta bidean ikusi eta ikasiko genian bihotzean ez ezik, mihian maite hituela Zaldibiko hitzak, eta nekez huts egingo hiola Beasaingo gasolindegiko goizean goizeko kafesneari, eta hilabetean behingo Koldo Mitxelena liburutegiko bisitari, eta Hatsaren poesiari, eta Lizardiren baratzari, eta... eta, handia zela eta dela Zaldibiko poeta.

Itaka ere maite huen, eta hogeita hamaika eskutik nahi eta behar izaten huenez, hogeita hamaika aldiz izan genian hi Segura Irratiko gure saioan elkarrizketatu eta hire olerki eta bizipenak berdinik gabeko sa-

kontasuna zuen ahotsean gozatzeko plazera. Eta hire gaixotasun eta beheraldiez arituko hintzen, edo Gabriel Kortarekin elurra galtza motzetan ikusi zenutenekoaz, edo aberriaz, edo euskaraz, edo kukuaz, edo hilabete amaierara gehiegizko itomenik gabe iritsi izanak eragiten zian pozaz, edo politikaz, edo kontsumo gizarteaz... Aske eta libro. Libro, bai, tarteka hiruzpalau poema oparitzen baihizkigun hire liburuetatik.

Eta orain, sarri-sarri itzultzen gaituk urteotan irrati nahiz bestelako uhinetan utzi hizkigun uharetara. Besteak beste, harribitxi hauetara. Eskerrik asko, Koldo, Zaldibiko poeta!

Koldo Zubeldiaren lau poema, Ekaitz Goikoetxeak hautatuak

Malportak Elorrion
San Juan loreak Amurrion
Kamamila Enerion
Oteak Andurion
nik nahi al duzue jakin zer nirudion
Artxabeletik gora dena dela on
dagoenean bonbon
ez dagoenean egon
eta beste guztia hor konpon.

(*Alamartxo ahantzia*, 2005)

* * *

O filantropia
O fameli bukolikoa
O nere fameli filantropiko bukolikoa
O artzaien bizitza neketsua
baserria
gora gure herria
miresmenezko Euskal Herria
suntsitu nahi diguten aberria
goiz antsiz asegaitz egarria.
Xahutu zaidan goi argia
intzez blaitutako zelaia
Eta arbasoak erabilitako laia

(*Seigarrenean sei*, 2012)

* * *

O Zaldibi
Euskera
Nire hizkuntzaren harrobi
Hamabi
Oskarbi zara gaueko zerua
Suntsikor egunez
Euritsu
Distiratsu errukior
Betiereko hori.

(*Seigarrenean sei*, 2012)

* * *

Poeta naiz apasionatua
Sendo samarra dut gorputza
Eta ona bihotza
Lo puska bat zor diot nire buruari
Hustu naiz malkoen artean negarti
Izugarri sartzen ari zait ausardi
Ondo bizitzeko ez nago gertu
Eta egin behar dut sortu eta sortu
Eutsi eta eutsi
Eta ez etsi.

(*Harriaren tasunak*, 2017)

LIBURU AIPAMENAK

Juan Ramon Makusoren poesia

Juan Ramon Makuso's poetry

Maite López Las Heras

Egan 2022 3/4, 195-200

Laburpena

Juan Ramon Makuso errenteriar poeta eta filosofoaren ibilbide literarioaren azalpen bat emango da. 2021ean *Haragi hosto* poesia liburua kaleratu zuela aitzakiatzat harturik, hasieratik hona idatzi dituen saiakera zein poema liburuen deskribapena egingo da, filosofia eta poesia elkarri lotuta egotea posible dela erakutsiz. Ondorengo testua, bada, M. L. L. azkoitiar poeta eta itzultzaileak irakurri zuen 2021eko urriaren 30ean, Koldo Mitxelena Liburutegian, azken liburuko aurkezpenean.

Gako-hitzak: Makuso, poesia, filosofia, poeta, filosofoa.

Abstract

This work will provide an explanation of the literary career of the poet and philosopher Juan Ramon Makuso. Under the pretext of publishing the poetry book "Haragi hosto" in 2021, a description of the essays and poems he has written since the beginning will be described, showing that it is possible that philosophy and poetry are intertwined.The following text was read by the Azkoitian poet and translator M. L. L. on October 30, 2021, in Koldo Mitxelena, at the presentation of his latest book.

Keywords: Makuso, poetry, philosophy, poet, philosopher.

NORA EZA
Ustezko bideak, urak
eraikitzen ditu.
Hostoak, haizearen bideak
zeharkatzen ditu.
Maitasunaren beroak, suak
urtzen ditu.
Gizakiaren bidaiak, lurrak
estaltzen ditu.

Bizitzeak hil egiten du (2004), Juan Ramon Makuso

Poeta eta filosofoa. Sortzaile eta jakituriaren maitale. Pentsamendua eta poesia, biak ala biak, eskutik helduta, hitzaren hatz luzeen bitartez txirikordatuta, *bizitza* hitza bizirik mantentzea delako.

Hasieran hitza zegoela aldarrikatzen dute filosofia erlijiotzat eta poesia jainkotzat duten etengabeko gogoetaren artisauaren bertso-lerro uhinduek, olatuek itsasertza besarkatzean nola. Hitzak geziak dira, Kupidorenak bezalatsu, punta urrekarakoak zein berunezkoak daude, eta haietatik jasotzen du poetak bizitza, errealitatearen aterako giltzak.

Hausnarketaren hastapenaren hagari lotuta egiten du bizitzaren bidean aurrera, ibilbidea urrezkoa izan ez arren, sirenen kantuak entzun, baina tentaldian erori gabe, tinko, galderez betetako ontzian, erantzunei heldu nahi gabe, itsasoaren zaplaztekoak gaziak izan arren; irmo, itaunak behar dituenak berau izateko. Galderak ez baitu geltokirik. Bizitza ez dago Itakan, itsasoan bertan baino.

Gorputza eta arima, hostoa eta sustraia, hutsa eta infinitua. Mitorik gabeko arrazoiketarik ez dago Makusoren olerki labur bezain sakonetan. Muthos-etik logos-erako urratsik ez da ageri, bidea bera baizik, pausoa ibilbidea bera delako, orainean askatzen den erromesaldia, gaurkoan

errotzen den oinkada barea, haren poemen konpas berean. Hemen eta orain, "Hic et nunc" Zizeronen hitzetan.

Axularren esanarekin bat etorriz, bizitzaren ardatz kronologikoan atzera-aurrerarik gabe, erdian kokatzen du izatearen mugarria, ez iraganean, ezta etorkizunean ere, orainaldian baizik.

Platonen haitzuloaren alegoriaren taupadak entzun daitezke, bestalde, gure poetaren bertsoen atze-oihalean. Mundu sentikorra eta mundu ulergarriaren izateak batzen ditu, zentzumena eta ezaguera baitira poemak margotzeko erabiltzen dituen paletako bi kolore nagusi.

Mundura etortzeaz bat, ibilian bidea egiten ari garela gogorarazten du hasieratik Makusoren poesiak, heriotza dela abiapuntu. Haren poemak in itinere munduratutako halabehar metafisikoak. Gizakia, aldiz, sortzearen emaitza.

Delfosko orakuluraino bidaiatzen du norbere burua ezagutzea atzemanezina dela jabetzeko, eta Platonek Sokratesi buruz esandakoaz gertuago, "asko dakien horrek ez du bere burua ezagutzen" dio Makusok, ezagutza absolutua gizakioi ez dagokigulako. *Gure antzekoak dira.*

Etengabeko bilaketan datza, hortaz, heinik handienean, poeta honen poemen funtsa. Atzoko galderak gaurkoak ere badirela du gogora ekartzen, "Carpe diem"-aren ikurrina astinduz, biharko fantasiak utzi eta orainean bustitzeko ahaleginetan. Simone Weil pentsalari frantsesaren hitzen arrastoa ere nabarmena da gure poetaren lerroetan, adiskidetasuna naturaz gaindiko oreka dela diolako lehenengoak, aurkakoen batasuna biek.

Kezka existentzialez gain, lurrekoak ere poetaren begietan daude une oro. Marxen *Kapitala*, esaterako, alemaniar filosofoarekin bat eginez, dirua jainkotzat duen gizartea kritikatzerakoan: jaio, lana egin eta hil. Denbora, izan ere, kapitalaren eskutik eraiki zaigulako.

Greziako *polis*-a gogora ekarriz, oroimenean gordeta duen hiriaren eraldatzea deitoratzen du, Xabier Lizardiren bertso batetik jasotako *Hiri gorazarre* poesia liburuan. Kale zaratatsuetako isiltasuna, gizakion arteko inkomunikazioa, etorkinak edo dirurik ez duenaren babesgabetasuna dira, besteak beste, poetaren kezka nagusiak. "Gizakia da hiriaren oztopo" dio Makusok, Wittgenstein-en etika eta estetika behin eta berriz gogoratuz, "kolorerik gabe biluzik *baitira* formak".

Heriotza, aitzitik, lehen begiratuan dirudienaz urrun, gai erabat lurtarra da Makusoren olerkietan. Estoikoen modura, bizitzaren iheskortasuna onartzen du, hilko garela gogoratzeak bizirik gaudela esan nahi duelako. "Huntzak ibilbidean heriotza du amets"; poetak gauero irriz jasotzen du Morfeoren bisita. Huntzaren ibilbidea poetaren hil-bidea da.

Pavesseren hitzen arrasto likatsu bezain distiratsua nabari da Makusoren bertso-lerroetan, italiar poetarekin bat baitator heriotzak ororentzat duela begirada gomutaraztean.

Hiltzea bakarka egiten dugun ekintza den gisara, **bakardadearen** aipua oso ohikoa da Hopper-en margolanekin erka daitezkeen olerki koloretsuetan. Jendez inguraturik egon arren, bakarrik dagoela sentitzen duelako hainbatetan poeta-pentsalariak, *odolak ura garbitzen duen heinean.* Monet-en tren-geltoki lausotuen tankerako irudiak sarritan dakartza gogora bakartasunaren hezurdura poemetan margotzeko. "Zeruko izarrak ere ez daude bakarrik, baina bakoitza bat da" baieztatzen du *Oraina galdua* deituriko solasaldi platonikoan, poesiazko filosofian. Poesia baita haren babesa, poesia bere mundu. Poesia, Joan Margaritek zioen moduan, miserikordia etxea.

Txillidak eskulturarekin haizea orraztu zuen moduan, Makusok hitzekin ferekatzen ditu gizakiaren betiereko kezkarik orokorrenak zein banakoen sentimendurik barrenekoenak.

Bizitza ibaiko ur iheskorrarekin parekatzen du, hain kideko zaion udazkeneko hosto urrekararen sehaska likidoaren bidaiarekin, *gizakion kontzientzia biluzia agerian utziz*, haizeak putz egindako orbelak haragi gorria iraunkorra dela erakusten duelarik.

Egia bilatzeko, akaso, bakarrik egotea ezinbestekotzat jotzen du filosofoak, begiak, egia nahi ez, eta iritzia baitu erditzen. Heidegger alemaniar filosofoaren zantzuak ageri dira *aletheia* edo egiaren bilaketa etsian. Egia behin-behinekoa dela dio Poperrek, eta Makuso ados ageri da zauri eder horrekin. Txantxangorriak, ordea, bazekien, eta inori ez zion kantatu, egiaren bidea gezurra dela.

Eta gezur guztien gainetik, **maitasuna**. Gizakiok bakardadea maitasunarekin ordezkatu nahi dugula adierazten du poetak, maitasuna errazegi *esaten* dugula auhendatzen, hura *azaldu* beharrean. Kandelaren garra nola, haizeak itzaltzen badu, ez zen maitasuna, hala dio berak.

Halere, amodioa da gizakion arteko lokarria, *gizadiaren* haria, zu eta ni elkartu edo bananduko gaituen Moiren patuzko erabaki mehea. Maitasuna, amairik gabeko opera. Bizitza, opari bat.

Bibliografia

Makuso, J. R. (2004). *Bizitzeak hil egiten du.* Bilbo: Ediciones Beta.

Makuso, J. R. (2006). *Hiri gorazarre.* Bilbo: Elea argitaletxea.

Makuso, J. R. (2009). *Huntza hezur berritan*. Donostia: Erein.

Makuso, J. R. (2009). *Joan Margarit. Miserikordia etxea.* Donostia: Meettok.

Makuso, J. R. (2014). *Hitzak argi.* Iruñea: Pamiela.

Makuso, J. R. (2018). *Oraina galdua. Solasaldi platonikoa.* Donostia: Erein.

Makuso, J. R. (2021). *Haragi hosto*. Donostia: Balea Zuria.

IDAZLANAK AURKEZTEKO JARRAIBIDEAK

Idazlanak aurkezteko jarraibideak

Egan aldizkari seihilabetekaria da. Aldizkariaren aro berriko xede nagusia literatura arloko ikerketa-artikuluak argitaratzea da. Sail horretan aldizkariak leku egin nahi die saiakera eiteko idazlanei eta baita ikerketa materialak (erreferentziazko edota gai zehatz baten inguruko bibliografiak, corpus argitaragabeak...) direnei ere. Orobat argitara emango dira literaturaz diharduten liburuen aipamenak. Beste diziplina bati atxikiak izan arren, literaturarekin ageriko lotura izan dezaketen lanak ere aintzat hartuko dira.

Literatura azterketen lerroa ez ezik sorkuntzarena ere zabalik du *Egan*ek, eta poesia, narrazio laburrak eta itzulpenak biltzen ditu, aldizkariaren ibilbideari jarraituz.

Jatorrizko idazlanak aurkezteko jarraibide hauek irakurgai daude aldizkariaren webgunean ere, «bidalketak» atalean:
https://www.rsbap.org/ojs/index.php/egan

Egan aldizkaria honako zerrenda, aurkibide eta datu-base hauetan dago: Aurkinet-Euskaldok; Dialnet; Euskal ondare bibliografiko digitalizatua; ÍNDICES-CSIC; Inguma, Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basea; LATINDEX (2.0 Katalogoa. 2018-); MIAR; REBIUN; ROAD, Directory of Open Access scholarly resources; SUDOC; WorldCat.

1. Jarraibide orokorrak

- Idazlan argitaragabeak onartuko dira.
- Jatorrizkoak euskarri elektronikoan (DOC(X) edo ODT formatuetan) bidaliko dira; PDF bertsio bat ere bidal daiteke. Lanen bidalketak online egin behar dira, OJS plataformaren bidez: https://www.rsbap.org/ojs/index.php/egan/submissions
  OJS erabiltzeko zailtasunik izanez gero, bidali egan.bascongada@gmail.com helbidera.

- Ikerketa-artikuluak eta saiakera saileko lanak argitaratzeko, Erredakzio Kontseiluak bi kanpo-ebaluatzaileren iritzia jasoko du; gainerako idazlanek ez dute kanpo-ebaluaziorik izango. Artikuluaren testua anonimoa izango da. Egilearen datuak artikuluaren aparteko orrialde batean adieraziko dira: izen-abizenak, filiazioa (unibertsitatea, erakundea...), helbidea, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa.
- Urteko lehen alean argitaratzeko, jatorrizkoak martxoaren amaiera arte bidal daitezke eta bigarren alerako, irailaren 15a arte.
- Testuak euskara batuan idatzita eta ondoren zehazten diren arauetara egokituta bidaliko dira.

2. Artikuluen egitura eta formatua

2.1. Egitura

Testua ikerketa-artikuluen ohiko atalez osatua egotea gomendatzen da: sarrera (artikuluaren gaia, helburuak eta metodologia zehaztuz), artikuluaren erdiko atalak, ondorioak eta, amaitzeko, bibliografia eta eranskinak.

2.2. Formatu orokorra

- **Izenburua**: Times New Roman 14, letra xehe lodian, erdian lerrokatua. Azpian, letra mota berean, ingelesez idatziko da.
- **Laburpena** eta **gako-hitzak**: izenburuak Times New Roman 12, letra xehe lodian, ezkerrean lerrokatuak. Laburpenaren testua paragrafo bakarrean, eta ingelesez ere idatziko da. Gako-hitzak ere euskaraz eta ingelesez adieraziko dira, eta gehienez ere bost idatziko dira.
- **Testua**: Times New Roman 12, justifikatua, lerroarte bakuna. Paragrafoaren hasieran 1,25 cm-ko koska utziko da, eta paragrafotik paragrafora lerro zuri bat.
- **Atalak**. Maila hauek bereiziko dira: 1. Lehen maila (12, letra xehe lodia); 1.1. Bigarren maila (12, letra xehe lodia); 1.1.1. Hirugarren maila (12, letra lodi etzana). Guztiak ezkerrean lerrokatuta joango dira eta amaieran punturik gabe.

- **Ortotipografia**
  - Komatxo moten mailaketa: “xxx «xxx» xxx” . Komatxo bakunak (‘ ’) hitz bakanen adiera edo itzulpenak emateko erabiliko dira.
  - Puntua beti ixteko komatxoen ondoren idatziko da: “esan zuen”.
  - Letra etzanez joango dira beste hizkuntza batean idatzitako hitz solteak, metalinguistikoki erabilitako terminoak, liburuen izenburuak eta aldizkarien edo egunkarien izenak. Halaber, letra etzanez idatziko dira izen-abizenen ondoan aipatzen diren goitizenak: Juan Jose Alkain, *Udarregi*; bakarrik doazenean, letra arruntez.
  - Etzanean edo komatxo artean diren hitzen ondoko deklinabide-atzizkia marratxorik gabe idatziko da: *Egan*en.
  - Siglak: maiuskula txikian.

2.3. Aipuak

- Lau lerro baino laburragoak “komatxo” artean testuan bertan jasoko dira. Aipu luzeak aparteko pasartean idatziko dira, testuko letra-tamaina berean, 2 cm-ko koskarekin lerro guztietan eta komatxorik gabe. Aipuaren aurretik eta ondoren tarteko lerro zuri bat utziko da.
- **Bertsoa** denean 2 cm-ko koskarekin sartuko da, baina “komatxo” artean. Bertsoen edo olerkien hitzak lerro betean idazten direnean, bertso-lerroak bereizteko zehar-marra erabiliko da eta alde banatan zuriunea utziko da: xxx / xxx.
- Salbuespen gisa bestelako jokabideak ere onar daitezke, testuaren segidak edo bestelako arrazoiek hala eskatzen badute.

- **Aipu barruko idazketa**
  - Aipuaren barruko paragrafo artean lerro zuririk ez sartu.
  - Idatzi gabe utzi den testu zatia kako zuzenen artean hiru etenpuntu jarrita adieraziko da.
  - Jatorrizko testuan ez dauden hitzak eransteko kako zuzenak erabiliko dira.

– Egileak nabarmendu nahi dituen hitzak letra etzanez jarriko dira.
– Oin-oharretako aipu luzeak koskarik gabe eta komatxo artean idatziko dira.
– Aipuaren amaierako puntua erreferentziaren ondoren ipiniko da.
– *Azpimarra gurea*, *itzulpena gurea* moduko oharrak erreferentzia bibliografikoaren ondoren idatziko dira: (Biasi, 1998. Itzulpena gurea).

2.4. Oin-oharrak

- Oharren deia zenbakien bidez egingo da, eta zenbakia puntuazio-markaren aurretik joango da.
- Orri-oinetan agertuko dira, eta ez testuaren bukaeran. Orri-oinean letra-tamaina: 10.

2.5. Erreferentzia bibliografikoak

APA arauak jarraituko dira erreferentzia bibliografikoetarako. Oinarrizko arauak azaltzen dira hemen. Xehetasun gehiago behar izanez gero, ikus:

<https://www.ehu.eus/documents/2293351/2391784/normas_apa_tfg.pdf>

2.5.1. *Testu barruko erreferentzia bibliografikoak*

- Autorea-urtea sisteman antolatuko da, modu honetan: (San Martin, 2001, 195-196. or.).
- Autore ezberdinen aipamenak puntu eta komaz bereiziko dira: (Grésillon, 1990; Hay, 2002). Autore bakar baten lanak aipatzean, komaz banatuko dira: (Irigarai, 1953, 1954).
- Autorearen izena diskurtsoaren parte bada, aski da argitalpen urtea eta orriak adieraztea.
- Orrialde zenbakiak osorik idatziko dira: 316-319 (eta ez 316-9).
- Jarraikoak ez badira, komaz bereiziko dira: 5, 16.
- Liburukiak dataren ondotik jarriko dira, koma batez bereiziz: (Vinson, 1983, I, 5-46. or.).

2.5.2. *Bibliografia*

- Atal honetan zerrendatuko dira testuan zehar erabili diren erreferentzia guztiak, eta ez besterik, **Bibliografia** izenburupean: Times New Roman 12, letra xehe lodian, ezkerrean lerrokatua.
- Sarreren artean lerro zuririk ez, baina bigarren lerrotik aurrera 1 cm-ko koskarekin.
- Hurrenkera alfabetikoan antolatuko da. Autore batek lan bat baino gehiago duenean, sarrera bakoitzean errepikatuko da bere izena. Autore baten lanak kronologikoki zerrendatuko dira, eta urte bereko argitalpen bat baino gehiago aipatzen bada, letrak ezarriko dira urtearen jarraian: 1981a, 1981b... Beste autore batekin edo batzuekin egindako lanak bakarka egindakoaren ondoren joango dira, alfabetikoki eta kronologikoki zerrendatuak.
- Deitura(k) letra xehean, hasierakoa(k) salbu. Izenaren iniziala. Autore bat baino gehiago dagoenean komaz bereiziko dira, eta azken autorearen aurretik "&" zeinua jarriko da: Deitura, I., Deitura, I. & Deitura, I. Hiru autoretik gora "et al." laburdura erabil daiteke, letra arruntez.
- **Liburuak**

  Deitura, Izenaren iniziala. (Argitalpen urtea). *Izenburua*. Argitaralekua: Argitaletxea.

  > Artze, J. (2013). *Bizitzaren atea dukegu heriotza*. Donostia: Elkar.

  – Sailak eta bildumak argitaletxearen ondotik idatziko dira, koma batez bereiziz:

  > Kardaberaz, A.^{js} (2004) [1761]. *Eusqueraren berri onac*. Bilbo: Euskaltzaindia, Euskararen lekukoak 23.

  – Informazio gehigarria erantsi nahi denean, amaieran idatziko da kako zuzenen artean:

  > Bourdieu, P. (1992). *Les règles de l'art. Genèse et structure du champ littéraire*. Paris: Seuil. [Gazt. ed., Kauf, T. (1995). *Las reglas del arte. Génesis y estructura del campo literario*. Bartzelona: Anagrama].

- **Liburuetako kapituluak**
  Deitura, Izenaren iniziala. (Argitalpen urtea). Kapituluaren izenburua. In Argitaratzailearen izenaren iniziala. Deitura (arg.), *Liburuaren izenburua* (xx-xx. or.). Argitaralekua: Argitaletxea.

  > Mitxelena, K. (1981). Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak. In A. Tovar et al. (arg.), *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak* (259-278. or.). Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

  – Izenbururik gabeko sarrerak edo hitzaurreak kako zuzenen artean adieraziko dira:

  > Mujika, L. M. (1979). [Hitzaurrea]. In J. M. Lekuona (arg.), *Ilargiaren eskolan* (7-14. or.). Donostia: Erein.

- **Artikuluak**
  Deitura, Izenaren iniziala. (Argitalpen urtea). Artikuluaren izenburua. *Aldizkariaren izena*, *zenbakia*, orrialdea-orrialdea.

  > Etxeberria, G. (2001). Euskal kultura eta literatura 50eko hamarkadan. *Egan*, *3/4*, 5-8. <http://www.liburuklik.euskadi.eus/jspui/handle/10771/28548>

- **Egunkariak**
  Egunkari baten data osoa eman behar denean, egilearen atzetik urtea bakarrik idatziko da eta data osoa egunkariaren izenaren ondotik:

  > Sarasola, I. (2016). Gabriel Arestiren *Harri eta Herri*-tik desagerturiko bi poema. *Berria* 2016-02-23.

- **Argitalpen elektronikoak < >** artean: <http://journals.openedition.org/lapurdum/1211>.
- Argitalpenari **doi** identifikatzailea (*Digital Object Identifier*) esleitu bazaio, urla ordezkatzen du: doi: xx.xxxx

3. Artikuluen ebaluazioa

Ikerketa-artikuluak argitaratzeko, binakako ebaluazio sistema (itsu bikoitza) erabiliko da, zehazten den prozedura jarraituz. Jatorrizko artikulua jaso ondoren, lehenik Erredakzio Kontseiluak aztertuko du, ebaluatzeko onartzen edo baztertzen den erabakitzeko. Artikulua aldizkariak ezarritako arauetara egokitu ez bada, atzera bota dezake Erredakzio

Kontseiluak. Hala gertatuz gero, artikulua egileari itzuliko zaio moldaketak egin ditzan. Edozein kasutan, behin jatorrizkoa jasota, egileak astebeteko epean erabakiaren jakinarazpena jasoko du.

Artikulua ebaluatzeko onartzen bada, bi kanpo-ebaluatzaileri bidaliko zaie azter dezaten. Haiek hilabete izango dute artikulua onartu, baldintzapean onartu edo baztertu erabakitzeko. Ebaluatzaileen iruzkin eta iradokizunak egileari itzuliko zaizkio eta hamabost eguneko epea izango du testu zuzendua bidaltzeko.

Argitaratu aurretik, egileak lanaren testu maketatua jasoko du eta astebeteko epea izango du egon daitezkeen akatsen berri eman dezan. Egileak zuzenketak bidali ezean, testua ontzat eman duela ulertuko da, edo aldizkariko arduradunak egingo ditu zuzenketak, horien gainean inolako erantzukizunik izan gabe.

Argitalpenaren ondotik, egileei aldizkariaren ale bana eta haren pdf*a* ere emango zaizkie.